

Aita Karmeldarrak eraikitako Alaya-ko Seminarioa

*Aureliano Landeta Azkueta Basaurin jaio zan 1887an.
Karmeldar ospetsu hau bogeita bost urte zituala
Indiara misiolari joan, eta bertan bil zan 1963an,
51 urtez misiolari izan eta gero.*

*Bertan erre eban Indiari egindako oparitzan bere bizitza osoa.
Indiako herri zabarra gizabide, jendetasun eta jasokuntza
bideetan suspertu eta gidatzea izan zan bere goiburua mina.
Irakasle, idazle, batzar-eretzaille, errektore eta gazteen
moldatzaile urtena dogu. Hiru milatik gora indiar egin ziran
abade bera seminarioko irakasle zala.*

*Gure misiolaria ondo ezagutze eban apaiz batek bonako
hau idatzi eban: "Gotzainak ere bere jakituriatzko argi eske
joaten jakoz. Frantzisko Xabier bera ez da batere lotsatuko
bere ondoan isil-isilik Aita Aureliano jartera ausartzen banaz.
Apostolu talde batek aina balio dau".*



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Salla

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Cultura



BASAURIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BASAURI



"LA OBRA MÁXIMA"
Karmeldarren Misio-Zentroa
Centro Misionar Carmelitano

ISBN 84-7305-087-8



9 788473 050876



AITA AURELIANO LANDETA AZKUETA

MISIOLARIAREN BIZITZA

(1887-1963)

**AITA AURELIANO
LANDETA AZKUETA**

MISOLARIAREN BIZITZA
(1887 - 1963)



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Saila

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Cultura



BASAURIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BASAURI



“LA OBRA MÁXIMA”
Karmeldarren Misio-Zentroa
Centro Misiona! Carmelitano

Nire esker ona agertu gura deutset argitalpen hau egiten lagundu deustenei. Lehen eta behin, inprimategirako testua egokiro gertatzen lagundu deustan Patxi Uribarren lagunari; hurrengo, material grafikoa eskuratu eta antolatzen lagundu deusten Euskal Herriko Karmeldarren “La Obra Máxima” misio-zentroko eta “Karmel” sortako arduradunei; eta, azkenik, argitaratzeko laguntza oparoa emon deuskuen Bizkaiko Foru Aldundia-ri eta Basauriko udalari.

Egileak

© Ediciones El Carmen (KARMEL)
I.S.B.N.: 84-7305-087-8
Legezko Gordailua: BI-2340-00

Fotokonpozizioa eta Fotomekanika: Ikur, S.A.
Inprimaketa: A.G. Rontegui, S.A.L.

AITA JOSE LUIS BEOBIDE

AITA AURELIANO LANDETA AZKUETA

MISIOLARIAREN BIZITZA
(1887 - 1963)



KARMEL SORTA-4

Markina - Xemein
2000

NOR ZAN

Goi-mailako misiolari karmeldar baten bizitza eta lanak azaldu nahi ditugu hurrengo orrialdeetan. Aita Aureliano Landeta Azkueta dogu misiolari handi hau; bizkaitarra, Basauriko semea, 1887ko ekainaren 27an jaioa.

Karmeldar hau, 25 urte zituala joan zan Indiara eta bertan hil, 1963an, berrogeita hamaika urtez misiolari izan eta gero.

Norbaitek honako hau itzi eban idatzita: *Euskal Herriak izan dituan santu guztiak Euskal Herritik urrun egin dira*. Izatez egia da, baina idazleak hor agertzen dauan asmoa kaxkarra eta bape oinarri bakoa da. Euskal Herrian ez egoala giro egokirik santutasuna lortzeko esan nahi eban harek. Eta hori ez da egia orduko datuen arabera, behintzat.

Gure herriak, fede-bidean, herri asko itzi ditu atzean. Hor ez dago zalantzarik, ez eztabaidarik. Herri txikia izanik, beste edozein herrik beste santu ditugu lerroturik santuen izendegian.

Altaretan ditugun santu horreek, barriz, fede-hazia eta garra gurasoengandik hartu eben; etxeko sutondoan jaiotako landarak dira, gero beste lurralde batzuetara aldatuak izan arren, han apostolutzako frutu on eta ugariak emoteko. Baina geureak dira; geure herriaren odolak emon dituan santuak.

Baliteke honen erru pixka bat geurea izatea. Euskaldunok ez dogu izan gure gizon eta emakume handi eta ospetsuengana zaletasunik, miresmenik, eder gehiegirik.

Edo herriaren aurrera agertu ez ditugulako, edo gugandik urrun bizi izan diralako, edo hareek egindako harrigarritasunak guganaino heldu ez diralako, edo kukurruku zaleak ez garalako,

edota eurak apalak izatean, ixilean egotea nahiago izan dabelako,... ahaztu egin ditugu; horretan hutsune handia daukagu oraindik bete barik.

Eta hutsune hori bete egin behar dogu. Geure eginbehar sakratu bat da. Ez txotxongiloarenak eginez kanpai-hotsean, baina, bai, bakotxari berea emoteko gararitan.

Zor jaken ohore eta goralmena emon behar deutseguz gure herria, euren bizitza eredugarri eta egite bikain eta aintzatsuen bidez horrenbestean goragarri eta txalogarri egin dabelako. Gure herriaren seme eta alabarik onenak dira; landararik ederrenak; euskal gizandiak. Eurena dan gorengotatsun hau berreskuratu beharrean gagoz.

Eliz alorrean, elizbarruti eta erlijiosoen Ordena bakotxak esan ezin beste holako gizon eta emakume goragarri eta giza ongile emon ditu. Ziur nago ehundaka izenak ditugula hareen artxiboetan.

Baina, danak batera sartu ezinean, gizon eta emakume guzti horreen aitzindari eta eredu lez, Xabierko Frantzisko santua eta Elorrioko Balentin santua jarriko neukez nik. Hor ditugu Xabier eta Balentin, misiolarien gidari santuak, Loyolako Inazio eta Aita Arruperekin batera. Eta honeen ondoan, hiru misiolari karmeldar datoz. Liburu honetan omentzen dogun Aita Aureliano Landeta eta berarekin batera Indian misiolari izandako Aita Joan Bizente Zengotita Bengoa, berriztarra, eta Aita Zakarias Salterain Bizkarra, abadiñotarra, eskutik dirala. Zein baino zein misiolari handiagoak.

Honeen taldean kokaturik beste izen asko eta asko datoz; liburu bat beteteko beste izen.

Euskaldunok ez dogu era gehiegirik izan gure herriaren historia ezagutzeko, horretarako askatasunik ez dogulako izan. Beraz, gaur eta hemen, geure nortasun-aberatsaren beharrez, hutsune larri hau bete egin behar dogu, bere historia ezagutzen ez dauan herria heriotzara doa eta .

Eta ez gizon eta emakume horreek ezagutu bakarrik, baita geureak egin ere eurengandik pertsona jator eta onak izaten

ikasiz. Hareek egin eben bidea egiten gu ere ahalegindu. Gizatasunaren irudi ditugu; bide-erakusle eredugarriak; gizartemoldatzaileak. Holakoen beharrean dago gaurko gizarte hau.

Gaur egun, gizarte-ekintzak gure artean aurrerapen handia egin dau. Gizon eta emakume asko dabilta arlo hori jorratzen munduan zehar. Modu askotara egiten da egin ere ekintza hori.

Herialde pobre eta atzeratueta doaz gizatalde handiok herri horreen bizi-egoera eta inguruneak hobetu eta aurrerakuntza bideetan jarteko asmotan. Talde asko dira horretan diharduenak.

Urte batzuetan behintzat hor dabilta buru-belarri mundu barri hori jasoten. Lan harrigarria dagie, egin ere, bakotxak bere sailean. Miresmena sortzen dabe guran.

Horregaitik barriro gurera itzultzen diranean, heroi-antzerahartzen ditugu, egin daben lan ederragaitik goralduz.

Urte batzuetako lan, ardura, izerdi eta zerbitzuakaitik horrenbestean goraldu eta txalotzen baditugu, 51 urtez Indiako herriaren zerbitzuan uneoro, gau eta egun, hutsik egin barik, egon dan gizonari zelako oroitarria jasoko deusogu? Nor jarri gorago? Nor bera baino merezidunago?

Halan da ere isilpean ahazturik deukagu. Beraz, gizon hau gure aurrera ekarteko ordua dogu.

Aita Aureliano 25 urte zituela joan zan misiolari Indiara. Han egin zituan 51 urte, behin ere bere herrira itzuli barik. Hil arteraino bertan. Hil eta gero ere Indian jarraitzen dau, Alwayseko Seminarioan hilobiraturik dago-eta.

Hiru Seminario Nagusitan egin eban bere lana Aita Aurelianok: Puthempally, Always eta Karmelgiriko Seminarioetan, nahiz eta hirurak sail berekoak izan, bata bestearen atal eta osogarri ziralako.

Orduko garaian, munduan egoan misio-seminariorik handiena eta ospetsuena zan Alwayseko hau. Bertan erre eban, Indiarri egindako opari bat lez, bere bizitza osoa Aita Aurelianok.

Burutik oinetara, irakasle, idazle, batzar-eratzaille, arimen zaindari, nagusi, erretore, moldatzaile eta, lehenik lehen, santutasunaren bilatzaile eta santu bizitzaile izan zan; Seminarioko buru eta bihotz, gidari trebe eta iaioa.

Hiru milatik gora izan ziran bere egunetan abade egin ziran inditarrak, bertako semeak. Aita onaren irudipean egin eban beti gazteen hezkuntza-lan eder hori. Apal, irribarretsu, guztien zerbitzari. Kerala aldeko eliz-izarra izan zan. Hango gotzain, abade, seminarista eta herritarrak, gaur ere, santutzat dauke, Seminariotik kanpo ere oso ezaguna zalako berak eginiko apostolutza handiari esker.


Beti indiar gaixo, pobre eta ezeukien ondoan izan zan, hare-ei esku zabal eta betean beharizan guztietan laguntzeko.

Egunero erromes asko hurreratzen dira haren hilobira. Maitetz eta esker onez gogoratzen dabe euren aita ona. On eginez igaro zan mundutik, eta sariz indiar guztien bihotzak irabazi ditu.

Santu eginik ikusi nahi dabe misiolari bizar zuria. Eliza bere horretan dago. Bideak urratzen dihardu. Aita Santu Joan Pablo II.ak, 1999ko martxoaren 26an, altaretarako bidea eginez, "zoriondun" izendatu eban.

Hemen dituzu, ba, zeuretzat idatzita, gure herriak emon dauan seme jator honen bizitza eta lanak. Aita Aurelianoren bizitza. Ezagutu egizu misiolari gorengo hau. Poztuko zara, beraren barri jasotean.

EUSKAL HERRIAN (1887-1912)



BASAURI

Gure misiolari handia bizkaitarra dogu, Basauriko herrian jaioa, 1887ko ekainaren 27an, Artunduaga auzunean, arratsaldeko bostetan.

Basauri, gure Pedroren jaioterria, oso ezaguna da.

Gaur uri zabal eta narotsua eginik dago. Jendetza handiak etorri dira bertara industria eta lantegiz bete danetik.

Bilbotik hur, sei bat kilometrora, honen luzapen edo zabalgune eginik dago. Basauri, lehengo gizaldiaren erdirantz, oraindik herri koskortxo bat zan. 800 bat biztanle zituana. Gerora hasi da ezinbestean, sortutako industrializazioari esker.

Hogeigarren mendeko lehenengo urteetan hasi zan ugaltzen industrializazio hau Basauriko lurraldean. Bilbotik hur dagoan lez eta zabalgune naroa izan, laster zabaldu zan industria arloa lurralde horretan.

Aita Aureliano hil zanean, 1963an, 24.000 biztanle zituan; gaur, berrogeita hamarrera hurreratuko da. 1970ean hasi zan gorakada hau.

Nekazaritza eta artzaintza ziran batez ere herritarren ogibide Pedroren ume denboran. Lur guri eta emonkorrak, urez aberatsak izatean.

Ibar luze-zabalean kokaturik, mendi tontorrez inguratutako baserri-lurra izan zan garai batez.

Han dira tinko Zabalandi, Artanda, Malmasin, Upo eta urruntxoago Pagasarri, mendi kilikilariak, euren maldetatik gora igoteko mendizaleei dei-kinuka.

Mendi honeek haretx, pago eta gaztainondo betarik egon dira lehentxoagorarte, gaur, pinu baltzez beteta dagozan arren.

Arrigorriaga

Burgosko mugan, "Santiago" mendatean jaioten dan Nerbioi ibaiak zeharkatzen dau alderik alde ibar osoa, gero Ibaizabal ibaiaz bateraturik, ubide beretik Bilbora sartzen dala.

Han eta hemen sakabanatuta, edertasunari kendutako argazkiak lez, begien asegarri, baserri-etxe sendo eta ederrak, lur aberatsez inguraturikoak. Holantxe ezagutu eban Pedrok Basauri bere umetako egunetan. Gaur, ziur, ez leuke ezagutu ere egingo.

Ibilbideei dagokienez oso lotura ugariak ditu herriak, bai barru-aldera, baita kanpo-aldera ere. Trenbide garrantzitsu bik zeharkatzen dabe herria, eta gainera bertan gelditu. Bata, Bilbotik, Orduñan gora, Espainiara doana; bestea, Bilbotik Donostiarakoa, tarteka-marteka, bidean herri askori agur egingez doana.

Lehenengo mailako errepide zabal bat ere badau, Altube menditik gora igon ezker, handiko eta hemendiko norabide guztietara adarrak zabaltzen dituan errepidea.

Ibilbide honek oso baliotsu eta interesgarriak dira, gaur egun, Basaurin sustraitu eta bertokotu dan industriagintza handiari urtenbide egokia emoteko. Industriagintzarako ezin hobeto burututa dago gaur Basauri. Hortik dator urteotan izan dauan ugaltze ikaragarria. Herri handi eginda daukagu gaur. Lehen baserri-lurra izan zana, gaur lantegi eta bizilekuz beterik ageri jaku.

Baina, Basaurik bere kondairatxoa dau. Gizaldi luzeetan Arrigorriagako auzune bat izan da. Ez zan herri mailara heltzen. 1858an, Arrigorriagandik banandu eta bere burujabetza lortu ostean, Gernikako Batzar Nagusian jarleku bat bereganatu eban.

Arrigorriaga ere entzute handiko herria da, batez ere, bizkaitarren artean. Deitura hau hartu aurretik "Padura" izenez ezagutzen zan herrialde hori. Eta Padura izenak gerra hotsa dakar belarrira. Bere historiartxoa dau.



Jaiotetxea, gaur egun hirigintzaren eraginez desagertua

Antxinatik esan eta idatzi danaren arabera, 888. urterantz, Alfonso III.ak, Asturias eta Leongo erregeak bere senitarteko zan Ordoño gerragizona bialdu eban gudaroste indartsu batekin, Bizkaiko semeak armaz menperatu eta gero, bertakoei diru-zergak ezartzeko aginduarekin.

Inoren etxera lapurretan bialdu zituan. Beste antzerako gerra izen batzuk ere baditugu gure kondairan: Gordexola, Mungia eta abar.

Baina gudaroste hori azpiratua izan zan Padurako landetan eta Bizkaiko semeak, beste behin, euren askatasuna osorik zaintzea lortu eben.

Hain zuzen ere, Ander deunaren egunean izan zan garaipen hori. Hortik jazokun handi horren oroimenez, Euskal Herriko ikurrinak bere aurpegian orlegiz margotuta daroan Ander deunaren gurutzea. Garaipen aipagarri hori dakarkigu gogora Ander deunaren gurutze horrek. Arrigorriagako elizpean dagoan harrizko hilobi handia ere Ordoño horrena ei da.

Egia, ametsa, ipuina? Ez dakigu. Antxinako aldien ilunpean dago gorderik gertakizun horren jatorria. Dana dala, erasoaldi horren aipamena ahoz aho ibili da beti gure asaba zaharren artean. Kronika zahar batzuk ere izandakotzat jotzen dabe, batez ere, Gaztela-herriko kronika batzuek. Hemengo jendea holako gertakizunak aipatu eta liburuetara jasotzeko beti nagi eta alpe-rra izan da.

Etsaia buru makur ihesean ikustea nahiko izaten zan ezpatak zuhaitzean tinko jarri eta garaipena ospatzeko.

Esan daigun hemen geure herriaren goralmenez, merezi dau eta, gure jendea ez dala inoiz gure mugetatik harantz joan beste herri batzuk azpiratzeko asmotan, geureak egiteko gogo bizitan. Horretan eskuak garbi ditugu. Burrugarik egin badau, berea zana zaintzeko egin dau.

Izan ditugun eztabaida, gatazka eta burrukak geure artekoak izan dira beti. Zoritxarrez guk ere gehiegitan gorritu ditugu geure mendi, zelai eta etxeburuak anaia-odolez. Gure herriaren betiko gatxa.

Parte txarreko mamu higuingarri hau gaurkoz azpiratu dogulakoan gagoz.

Artunduaga

Landetatarren baserrian gagoz. Euskal Herria baserri barik ulertezina da. Baserria izan da gure herriaren oinarria. Gizaldiak zehar haren barrenean egin dau euskaldunak bere bizimodu guztia, solo, baso, landa eta aberez inguraturik. Kultura baten ama da; euskal odola daroan kultura zaharraren ama. Hortik guretzat dauan estimagarritasuna. Bertan dago euskaltasunaren iturria.

Landetatarren baserria, lehenago burdinola izandako harresi baten gainean jasota egoan. Hiru solairuko baserria. Behealdean, etxabereen korta zabala; abere bakotxak baekian zein zan bere bazterra, zelaitik etorkeran.

Han sartzen ziran baita burdi, golde, are, sega, igitai eta solo-lanetarako ziran tresnak.



Basauriko San Migel parrokia

Erdian, etxeko bizilekua, dotore-dotore jantzia, sendia ego-kiera guztiz pozik eta oparotasunean bizi ahal zedin.

Goian, ganbara, erdi zabalik, barrua haizetsu zaintzeko; han gordeten ziran etxerako ziran igaliak: intxaur, sagar, madari, kipula, patata eta gainetikoak.

Bizitza neketsua da baserrikoa, baina norbere izerdi eta lanetik datorren poza eta atsegina dakarrena. Etxetik hur iturri gardena; solo-munetan frutarbolak; mendi-malda eta tarroetan gaztainondoak, neguko gauetan gaztainak danbolinaren soinura erreta jateko.



Bateo-harria

Landeta

Baserri honetan zortzi loratxo eder jaio ziran Pedro eta Maria Antonia senar-emazteen maitasunetik: bost mutil eta hiru neska. Gure misiolaria bigarrena zan.

Orduko garaian, jaiobarriak al bait lasterren bateatzeko ohitura zan; ohitura honi jarraituz, jaio eta hurrengo egunean, ekainaren 28an, bateatua izan zan umetxoa San Migelgo parrokian.

San Pedro bezpera zanez, Apostolu handiaren omenez Pedro izena jarri eutsoen bateoan.

Gerora, karmeldar jantzi zanean, orduko ohitura zan legez, Pedro izen hau galdu eta izen barria hartu eban, hau da, Sakramentu Santuaren Aureliano. Beraz, kontutan izan beharko dogu zertzelada txikitxo hau orrialdeok zeharkatzean.

Haren aitaren izena ere Pedro zan. Pedro Landeta Perea, Artunduaga bertako semea. Ama, barriz, Maria Antonia Azkueta Arrieta, handik hurrean dagoan Zaratomoko alaba.

Gerora Pedro gure misiolariak bateo egun hau bizitza osoan zehar bihotz ondoan, samur eta gozoro laztandurik eroango dau. Berriazko gurpena eutsan bateoko egun horri. Handitzat eukan Jaungoiko-semetasuna hartu eban eguna. Hil arteraino eroango ditu, bere isileko paper-zorroan, bateoko agiri hau, sendotzakoa, profesakoa eta abadegintzakoa.

Haren bizitza gidatu eta adoretu eben izar eta aholkulari izan ziran isileko data honeek. Egunero lurrean ahozpezturik, Jauna eskertu, gorraldu eta bedekintzen ikasi eban gure Pedrok, Jaunak doe zerutarrok bere gain hain ugaritsu isuritea ontzat izateagaitik.

Landare batek bere osagarriak behar izaten ditu guri eta sendo koskortzeko. Lur ona, sakona, umeltasuna, beroa, giro egokia. Ongarri honeek gabe, erkin eta makal haziko da; frutu kaxkarak emongo ditu bere sasoiari.

Horixe berori gertatzen da gizakien mailan ere. Etxeko giroak asko esan nahi dau seme-alaben heziketan. Soinak janaria eta arnasa opa dituan lez biziteko, giza gogoak ere giro egokia behar izaten dau gizatasun heldu eta aberats bat lortu ahal izateko.

Ingurumari girotsu eta bikain hau aurrez eta oparo aurkitzen eben Artunduagako zortzi seme-alabak gurasoen etxean.

Gure asaba zaharrak, hamarretik bederatz, soin beteko gizon eta emakumeak zirala dakigu. Goi mailakoak. Ilun batzuk agiri arren euren aurpegi eta egiteetan, hau ere gizakiari zor jakona da, bizitzari dagokion jakituria zabal eta sakonean neurri handiko gizon eta emakumeak ziran, zalantza barik. Hortik, gizon-emakumeak hazteko eskola onak izan dira, beti ere, gure baserrietako sutondoak.

Sendia gizakion habia da. Han emon ditugu gure lehenengo arnasak; han hartu gurasoen maitasun beroa. Amaren bularra gozatu; berari begi-ninira gozoro begiratu; haren musu, laztan eta txerak geureak egin; han aurkitu geure umetako zerutxo gozoa.

Maitasunaren beroak girotzen dau sendiko bizitza; han maitasun-iturriari darion lurrinak inguratzen dau dana. Aita-txo!, amatxo!, maiteño!, laztantxo!, hitz zoragarriok dabiltz han ahorik aho, pil-pilean, dantzari.

Eta maitasun hau behar-beharrezkoa da seme-alabak hazteko. Gizakiaren buru-bihotzak janaritu eta loratzen dituan odol eta arnasa edo da; gure barruko sentimentuzko mundu hori, gizabidez eta ekandu ederrez, ugaldtu eta janzten dauan indar eragilea.

2

UMEZAROA

Maitasunean bat eginik bizi dan sendia lur hobezina da edozein gizakik bere gizatasuna eta heldutasuna lortzeko. Sendia da horretarako txoko eta eskolarik onena. Bertan ikasten dabe seme-alabak, gurasoen aldetik hartzen dituen irakatsi eta ikasbide eredugarri eta jakingarrien bidez, gizon eta emakume osoak izaten.

Burua bizitzari dagokion jakituriaz, zuhurtasunez, onbidez, erantzukizunez atondu eta beteteko eratasun guztiak aurkitzen ditue, hau da, gizatasun helduari dagokion guztia aurrez dauke. Bizitzako bideetan jatorrak izaten ikasten dabe.

Bihotza ere onoimenez jantzi eta edertu behar da. Ereintza ona egin bihotz lurtean. Bizitzarako nahitaezko diran onoimen haziak gogoz, arretaz, ardura handiz bota lur horretan.

Hain zuzen ere, Kristoren ebanjelioan sakabanaturik aurkitzen ditugun sentimen-baloreak, esaterako, Jainkozaletasuna, maitasuna, samurtasuna, onberatasuna, hurkotasuna, bestee-ganako ederrikusia, alkarren laguntza, errukia eta abar maite minez seme-alaben bihotzetan jarri behar izaten dira, horretara biharko egunean pertsona osoak plazaratu ahal izateko. Soinez sendoak, espirituz sendoagoak.

Ereintza eredugarri hau eskuak betean egin eben Artundua-gako Pedro eta Maria Antonia senar-emazteak euren seme-alaben bihotzetan, urteen joanean, bakotxaren adin eta sasoia kontuan eroanik.

Hauxe zan hareen ardurarik gorengoena. Hutsik txikienik ere ez zan sartzen hemen orratz-begitik. Zehatz eta mehatz jorratu eben beti arlo hori.

Erlijiotasunak ere txoko beroa aurkitu eban Artunduagan. Giza eskola eta kristau-eskola, biak eskutik, joiazan hemen heziketa orduan.

Elizan entzun eta ikasitakoa, norberak guzti hori zehaztasunez bete eta gero, zuzen eta gogoz seme-alabei esan eta beteten irakastea, hortxe egoan, batez ere, gurasoen eguneroko lana.

Ez ziran irakurtzaileak gure zaharrak. Gehientsuenak eskolabakoak ziran. Ezin bestetara izan ere, ez eskolarik, ez nok irakatsirik, ez libururik ez egoalako etxera eroateko. Hortik oroimen -memoria- zoli eta bizikoak ziran lez, ulermena beste oroimena erabilten eben euren arazo eta harremanetan. Zaharregandik ahoz aho entzuna eta elizan ikasitakoa izaten zan euren esku-liburua.

Elizea zan irakasle nagusia; han entzuna beteten ahalegintzen zan jendea. Entzuketik jaso, barriz, tinko gelditzen zan euren buruetan. Eta gero, ikasitako horren arabera, antolatuko zan bizitza guztia.

Elizan ikasten eben, bizitzako egi nagusiekin batera, gizon eta kristau izaten.

Lehenengo eta behin, Jaungoikoa ezagutzen, maitatzen, gurtzen; otoitz egiten; Haren aginduetara beharturik egoten irakasten zan elizan; eta bigarren, gizakia maitatzen, hau da, anaiatzat hartzen, alkarri itzala izaten, on egiten, laguntzen, artezak eta zuzenak izaten, hitz batez, egiazko maitasun eta bakean biziten.

Hezibide hau, eskola eginik, erabilten eben Artunduagako aita-amak semeei haziera ona emotean. Seme-alaba ondo ikasiak, gizabide eta lotsa onekoak eukitea zan euren ametsa. Honetan labor gelditzeko bildurrez, inoiz kezkatu ere agertu ziran. Hau dala-eta, trebe eta jator jokatu eben beti zeregin garrantzitsu honetan. Ez zan epelkeriarik onartzen arazo zail honen aurrean.

Gurasoen jarraibide eredugarri honi esker, sendi batu-batua zan Artunduagako Landetatarrena. Alkarren arteko maitasuna,

txeratasuna eta poza ziran etxeko jaun eta jabe. Giza legeari menpetasuna eskaintzen jakon sendiko bizitzan.

Honez gainera, Jaungoikoarenganako ezaguera eta maitasuna bizitu behar ziran, gartsu-gartsu, seme-alaben buru eta bihotzetan, haizea baizen beharrezko dalako hau bizitzarako. Irakatsi honetan oinarrituta dator gizakiaren gero eta etorkizun guztia.

Etxea otoitz-altara

Gure Pedroren gazte denboran, erlojuaren ordezkoko eginez, elizako kanpaiak herriari otoitzerako deia egiten eutsan egunero-egunero. Herri guztietako ohitura zan hau.

Hormako erloju edo sakelako erlojua besterik ez zan eza gutzen garai haretan; gaur esku-muturrean daroaguzan erloju bitxiok geroago etorriak dira. Hortik torreko kanpaiak herriko ordulari nagusiak lez ziran, euren soinu-hotsera ibiltzen zalako herri bizitza.

Kanpai honek egunean hiru aldiz jotzen eben Andra Mariaren "agurra": Egunsentian, eguerdian eta ilunsentian. Eta kanpai hots hori entzutean, ziranak zirala, taldean nahiz bakarrean egon, eskuetako lana itzi, txapela kendu eta Andra Mariari hiru "agurmariak" esaten jakozan, aingeruak egindako agurraren omen eta itzalez.

Honez gainera, ohetik jagitean eta oheratzean, bakotzak bere otoitzalditxoak egingo eban. Mahaia bedeinkatzean beste hainbeste; hau egin arte, ez zan inor jaten hasiko.

Eguna, barriz, Ama Birjinari "agurtza" deuna esanez amaitzen zan. Amak aparria gertatzen eban bitartean, aita eta seme-alabak artoak garanduz, errosario santua eban ahoan sendiak.

Eta errosarioa amaitzean, otoitzaldia zerbait luzatu beste asmo batzuk ezarriaz otoitzari: hilen aldeko otoitzak; Antonio deunari, abereen ona eskatuaz; Jesus Gurutzalduaren bost zauriei bost "aitagure", eta momentuzko beste beharrian batzuek aitik.



Maisuaren etxea Basaurin

Gure Pedro Landeta gazteak, bere bizitzaro osoan, hil arte-raino zintzo jarraitu eutsan umetan aita eta amagandik ikasitako ohitura eder honi. Ez eban sekula ahaztu.

Egunero-egunero esaten zituan bost "aitagure" Jesusen bost zauri santuak gurtuaz. Bardin agurtza deuna. Bere amaren irudi gozoa etorkion begi aurrera agurtza esatean.

Errosario santua berez da otoitz ederra, eskaririk ederrenak bere barruan ditualako: "Gure Aita", Jesukristok irakatsia; "Agur Maria", aingeruak zerutik ekarria, eta "Aintza", Hirutasun Deuna gurtuz eta goretsiz esaten doguna. Gero "Arrentza" edo letania esanaz, Ama Birjina hitz gozoz eta loraz beteten dogu.

Edertasun honek zirrara bizia egin eutsan txiki-txikitatik gure gazteari. Gogoan gelditu jakon behin betiko gomutapen gozo hau. Honen berora, ezin eban itzi egun bat bera ere agurtza esan barik.

Honez gainera, beste pozgarri bat aurkitzen eutsan errosario santuari. Zein? Agurtzako letania amaren ondoan belaunikaturik esaten ebala gauero. Letania latinez esaten zan eta amak

ezin ikasi ondo, eta horren ezera, Pedrori eskatzen eutsan aurretik esateko, berak gero "ora pro nobis" erantzungo eutsala-eta.

Honako gertakizun txiki-gozaok urrats hunkigarria izten dabe gaztetxo baten bihotzean. Ez dira inoiz ahazten. Hori jazo jakon gure Pedro gazteari ere.

Aita eta ama maite

Ama oso maite eban Pedrok. Egunero belaunikatzen zan amari bihotz-txokoan jasotako altara maitagarriaren aurrean. Egunero eskaintzen eutsan gogorapen bat, hitz gozo bat, otoitz eta laztan bero bat beretzat munduko erregina zan amari. Aparteko maitasuna gorde eutsan beti amari.

Norainokoa zan maitasun honen garra amaren heriotzan agertu eban. Indian misiolari zala, 1929ko ekainaren 24an ama hil eta heriotza honen barri jakin ebanean, halako bihotz urrutu zorrotz bat hartu eban gure Pedrok. Negarrari eutsi ezinik, saminak zorabiatuta lez agertu zan bere seminaristen aurrean.

Hareek guztiz harriturik, euren irakasle eta nagusi zana hain bihozberaturik ikustean, badinotse: *Zer da jazotzen jatzun hori, Aita?* –Eta Pedrok erantzun: *Neure ama zan; ama hil jata.*

Bere aita hil zanean ere, 1928ko apirilaren 17an, halakoxe sentimentu zorrotza hartu eban. Bere aitak, kristau zintzo eta jatorra zanak, heriotza ostean, Jaunaren aurrean ezer garbitu eta kitatu beharrik baucan, han egoan bera zor hori bere gain hartzeko gertu. Halaxe eskatzen eutsan Jaungoikoari. Hemen agertzen da gure misiolariaren bihotz eder eta biguna. Seme ona gure Pedro!

Lehenengo Jaunartzea

1896ko urtea. Udabarria. Pedro mutikoak bederatzi urte ditu. Lehenengo jaunartzea egiteko dago. Orduko garaian, 11-12 urtekin egiten zan. Bera aurreratu egin da urte bi edo hiruz. Zentzunean aurreraturik dator; ontasunean ere bai. Heldutasun apain-apaina lortu dau daukan adinerako. Mundu barri

bat zabaltzeko gertu dauko aurrean eta amets-ameslari begiraten deutso mundu barri horri.

Zoriontsu bizi da mutikoa lehenengo jaunartzearen guraritan. Eskola ostean, arratsalde, parrokiako dotrinara doa jaunartzerako ondo-ondo gertautu joateko nahian.

Kristau otoitzak eta egia nagusiak ikasi, baita sakramentuak ere.

Autortza zer dan, zertarako dan, nok eratu dan, autortza zelan ondo egin, eta abar. Eta autortzan pekatuen parkamena hartzeko, aurretik "Jesukristo neure Jauna" buruz ikasi behar izaten eben umetxoak, ondo ikasi ere, bizitzaldian behin eta barriz esan behar dalako.

Abade jaunak hasten eban otoitz hau umetxoei aho biziz eta indartsu oihukatzeko eskatuz. Esan eta esan, aingeruen hegazkada fina zirudian eliz-barruan umetxoen soinu zoli horrek.

Dotrina amaitzean, abadearen irribarre eta zorion-txaloak jaso ostean, bihar arte esanaz, ume taldea pozik doa etxera, ez, orraitio, eliz-aurrean jolasaldi batzuk egin barik.

Guzti hau ikasitakoan, Eukaristiako sakramentuari ekin behar jako. Jaunartzea zer dan ondo ikasi, egun handi horren zain dago ume taldetxo-eta.

Lehenengo jaunartzea egiteko ea pozik dagozan itanduko deutse abadeak eta umetxoak pozarren, aho betean, baietz erantzun. Ederto. Horretarako gauzak ondo-ondo ikasi behar ditugu, dinotse abadeak.

Eta lehenengo, ea eukaristia zer dan; nor dagoan bertan. Meza santua zer dan eta zer egiten dan mezatan. Noiz egin eban Jesusek bere azken aparria; zer jazo zan han; nortzuk egon ziran mahaian Jesusekin batera.

Honakoxe mila gauza eder ikasten ditue umetxoak jaunartzerako gertakizunak egitean.

Aingeruekin lo gozoan amets politik egin eta gero, egun handiaren urduritasunak kilikilituta, gelako leihatilatik zelako eguraldia datorren begiratu, soina garbi-garbi egin, gogoia peni-

tentziatzeko sakramentuan garbirik gelditu dan ezker, txiro baina apain jantzirik, sendi guztia, alkarren eskutik, mutikoarekin batera elizara bidean jarri da. Baraurik doaz, ezertxo ere jan eta edan barik, eliz legeak agintzen ebana eginez.

Eliza jai handietako erara jantzi dabe, lora eta edergailurik onenak toki agirietan jarriaz. Txukun eta apain dago altarea, begien atsegin eginik.

Umetxoak alkarrekin aurkitzean, irribarrez kinuka. Alkar agurtu eta etxekoekin barrura. Toki berezian jarri ditue danak batera.

Eskuak bular gainean, begiak adi altaran, alboetara begiratu barik, amak esan deutesen lez, antxe dagoz euren jaunartzeko mezatan. Inon aingerurik aurkitzekotan, taldetxo haretan aurkituko genduke.

Mezatic ez dabe tutik ulertzen, latinez dalako, baina konsagrazinoan abadeak zer esan eta zer egiten dauan badakie-eta, une hori noiz etorriko dagoz.

Heldu gara. Oraintxe jasoko dau meza-egileak ostia santua eskuetan gora herriak gurtu dagian. Bihotz dardaraz begiratzen deutsoe umetxoak ostia zuriari, bardin kaliz santuari ere goian ikusi dabenean. Badakie Jesus dagoala ostian eta kalizean, Jesus dala orain altara gainean dagoana.

Gure Pedro gaztea barrualdi samurrean sartu da. Jesus hori da gaur lehenengoz nigana datorrena. Amak irakatsi deustan lez, Jesusi haxe esan gura deusat: *Jesus, zatoz nigana; hartu nagizu zeuretzat; zeurea egin nagizu; zeure adiskide izan nahi dot beti; ez nagizu itzi; hartu, Jesus, gaurko nire musu laztana.*

Sentimentu hunkigarriok bihotzetik gora dardarka dator-kiozala hurreratu da Jauna hartzerako gure Pedro. Zerbait txunditurik agiri da une honen gozoa txastatu ezinik. Hain zoragarria da izan ere! Hain goitiko! Hain zirrara bizikoa! Urrats sendoz idatzirik gelditu da lehenengo jaunartze hori gure mutikoaren barruan.

Gero, Jesusi eskerrik beroenak ariman alkarri emondako musu laztanagaitik, eta etxeko eta herritarren zorion-agurrak

jaso ostean, etxe aldera barriro etxekoen berotasunean jaia amaitzeko.

Alde handia dago antxinako lehenengo jaunartzeetik gaurko lehenengo jaunartzeetara. Gizarteko bizitza-aldaketak markatzen dabe hemen alde hori. Orduko garaian ez ziran gaurko arrandiaz edota handikeriaz egiten. Ohizkoa zan ekan-duari jarraituz, sendi barruko jaia izaten zan, apala, txikia, baina maitasunean bete-betea.

Guztien aldetik janzkera xehea elizarako; beste egunetan baino bazkari hobea etxean, hori bai, baina neurriak gaintitu barik; jaiaren izentagarri umearentzako oparitxoak... Espiritu aldeari gehiago begiratzen jakon, kanpoko aldeari baino.

Gaur, aldien aldakuntzara, beste era batera gertatzen eta ospatzen dira jaunartzeok. Handikitasunaren barruan datoz, gehientsuen aldetik behintzat. Espiritu aldeari ez jako hainbeste begiratzen. Herri-giro eta sendietako erlijiotasuna gitxitzean, zerbait mundukotu egin dira.

Soinean zer jantzi eta zelako apaingarriak eroan, horrek ikusmira handia sortzen dau gaurko jaunartzeetan. Meza bitartean, barriz, han Jesus eta umetxoak dirala aitzindari ahazturik, jaunartze une handirako behar dan barnetasuna trabatu, barruko aditasuna galdu eragin, eta argazki eta bideoen argiz nahasi egiten ditue umetxoak. Une hori gogoz batuta egitekoa da, eta ez gogo-zuri eta urrun egonaz.

Lehenengo jaunartzea, gainera, umetxoentzat igande eta jaiegunetan mezatarara eta gaintetiko elizkizunetara ofizialkiro joaten hasteko txartela da. Maila horretara heldutakoan, adikuntza aldiak jabeturik dagozala uste dogu. Gizontxo eta emakumetxo eginik dagozala. Beraz, elizarako bideak zabalik daukeez.

Hurrengo igandean hasita, zintzo-zintzo, gurasoen eskutik, edota neba-arrebekin, edo auzokoekin batera, mezatarara zuzenduko dira. Hau betiko betebeharrak nagusitzat hartzen dabe.

Honetan, lehenago, hutsik txikienik ere ez zan parkatzen. Ez eban inork ezbaidan ere jarriko egiteko hau. Euren sinistearen emaitza zan.

Siniste honetan tinko kokaturik bizi izan dira gure asaba zaharrak. Iturri honetatik edan eben, gozo-gozo, bizitzako argia, bizi-poza eta betetasuna. Honen ondorioz, ebanjelioan margotuta agertzen dan gizonaren antz-irudira eginak zirudien. Ekandu ederrez doetuak.

Izate honetatik sortu ziran guretarren artean, "Euskaldunaren legea, haren hitza" edota hain sarri entzuna dogun "Euskaldun, fededun" esaera esanguratsuak. Honek esan nahi dau gure asabak lehenengo jaunartzean hasitako bideari azken-azkeneraino gogor eta zintzo jarraitzen jakin ebela.

Meza laguntzaile

Gure Pedro gazteak, jaunartze ostean, eliz-ingurua sarri zapaltzen dau. Meza-mutil egin da. Egunero-egunero, goizean goiz, zintzo eta leial, negu eta uda, meza laguntzera doa San Migelgo elizara. San Migelgo parrokia etxetik ordu erdira dago. Bidaldi luzea ume batentzat. Joan-etorrian ordu bete.

-Ia, seme, jagi ohetik, ordua da-eta, deitzen eutsan amak. Ohetik jagite ordu hori, nag-i-ordua izaten da umeentzat. Loa bota ezinik, jira batera eta jira bestera ibiltzen dira mantapean, amaren hasarre-urruma entzun arte.

Inoizkoren baten jazoko jakon honako zerbait gure Pedrori ere, baina ez askotan, mezatarara berandu heltzea mingarri izaten jakola dakigu-eta.

Amaren deira jagi, amak gertautako urepelaz aurpegia garbitu eta amari musutxo laztan bat emon; gero amak gertautako gosaria hartu, amaren esanak entzun, beste musutxo bat eta ari-neketan mezatarara. Hori izaten zan astegunetako lehenengo zeregina.

Sakristiara heldutakoan begiramen handiz abade jaunari eskuan mun emon egun onak opatuz, eta bertatik altarara. Mutil azkarra zala bistan dago. Ez zan gauza erraza hamar urte-

ko mutikoarentzat latinezko "introito" errebesak buruz ondo ikastea.

Abade bi ezagutu zituan, bere aldian, gure Pedro gazteak: Kosme Artiagoitia eta Franzizko Bengoetxea. Abade apalak biak, guztiz herrikoiak, bihotz zabalak.

Meza-mutil izateak aukera ona emon eutsan gure gazteari abadetza barrutik ezagutzeko. Gauza on asko ikasi zituan abadeen ahotik, baita hareek emondako ikasbide onetik.

Mutil argia zan, zuhurra, oso ikastuna. Adi egoten zan abadeen zereginetara: meza santua esan, autortzak entzun, hitzaldiak egin, dotrina irakatsi, gaixoak ikustera joan, beti eliztarren zerbitzuan bizi...

Behin baino gehiagotan kili-kili zirrarratsua egingo eutsan, ziu, gure Pedrori abadeen bizitza eredugarri horrek. -Ni ere abade izango naz egunen baten- esango eutsan inoiz, ameslari, bere buruari.

Eskola mutil

Abade onak izan bazituan, herriko maisua ez zan atzean gelditzen ontasunean. Dinoen lez, herriko maisua, Zipriano Viguera Jauna, Errioxako seme jatorra, inguruetako maisurik gorengoenetarikoa ei zan. Kristau Jaungoikozalea, zintzoa, gizalege onekoa, hezitzaile trebea. "Goi mailako maisua" askoren esanean.

Maisu argi honen eskuak landu eben trebetasunez gure gaztearen burua eta bihotza. Gizatasunean aberastu eta sendotu gaztea.

Maitasunak dakarren ardura eta arretaz zaintzen ei zituan eskola mutilak Zipriano jaunak. Eskolan eta eskolatik kanpo beti bere mutilen zain. Irakasle ona eskolan, gizon beneragarria kanpoan.

Igande eta jaiegunetan, mezako orduan, bere mutilen ondoan jarten zan, mezatan zelan egon behar eben irakatsiz. Autortzak egite orduan bardin.

Mutilekin elizara joan, autortzarako gertakizunak egiten lagundu, abadea autortegian jarritakoan bera aurretik autortze-

ra joan, eta danak autortza egin arte, hantxe egon mutikoen ondoan.

Maisuak zerikusi handia izan eban, zalantzarik gabe, Pedoren hezkuntzan eta geroko etorkizunean.

Gazte-gaztetatik agertu eban Pedrok abadetzarako guraria. Eta maisua gurari horren jakitun, eten barik, ahal eban guztietan, gaztearen gogoia adoretu, kemendu eta berotzen ahalegintzen zan. Aholkuak, burubideak, urkotasuna emon gazteari bide orretan nekerik, etsipenik izan ez egian, hau da, mutila bere eskutik eroan, baekian, ba, Pedro buruz argia eta altararako doetuta egoan mutila zala.

Dakigunetik, maisu jaunak zerikusi handia izan eban Pedro gaztearen bokazinoa Karmengo Ordenara bideratzean. Eskergarria zan maisu jaunaren ardura leial eta bete hori eta horrelantxe eskertu eutsan, eskertu ere, Pedro gazteak. Berezko uste



Aita Aureliano Basaurin, beraren jaioterrian eskainitako parkea

osoa sortu zan maisu eta ikaslearen artean. Aita-semeak lez ziran alkar. Maisu jaunak lagundu eutsan Naparroako Villafrancara fraile izateko ikasketak egitera joan zanean; Larreako Karmeldarren komentuan abitua hartu ebanean eta, gero, meza barria emon ebanean ere hantxe egoan maisu jauna etxekoen artean Pedrok deituta, gonbidatuta.

Maisua eta landetatarrak oso etxeko ziran. Pedroren gura-soak ez ekien erderaz idazten, euskaldun hutsak ziralako. Horregaitik, maisu jaunak idazten zituan Pedrori komentura zuzenduriko kartak.

Herriko jaiak

Herriko jaiak ere oso atsegin jakozan Pedrori. Basauriko jaiak San Migeletan ospatzen dira, handikiro ospatu ere. San Migel da herriko patroia. Basauriko babeski edo armarrarian, San Migel aingerua suzko ezpata eskuan daukala ageri da, bere etsai deabrua menperaturik dauala.

Jendetza handiak batzen dira Basauriko jaietan, batez ere bilbotarrak. Basauri Bilbotik hur egotean, jendetza handiak etorten dira bertatik, batez ere arratsaldeko erromeriara.

Jaietan gehien gozatzen dabenak mutiko bardingoteak izaten dira. Herria giroz aldatuta agertzen da jaietan, dotore jantzita. Jolas mota barriak aurkitzen ditue. Txapliguak, txistularien kalejirak, pelota jokoak, dantzaldiak, abeslariak, bertsolariak, erroskila eta beste jolasgarri asko herriko plazan.

Etxeetan ere jai. Osaba-izeko eta senideak bazkaltzeko; alkarren arteko txantxa eta olgetak; batez ere, umetxoak osaba-izekoren ingurura hurreratzen dira hareek txintxin piloa diru-zorrotik noiz aterako begira, gero diru horrekin gozokiak, mizkeriak, bitxikeriak erosteko. Aitak eta amak ere esku zabaltxoagoa izaten dabe egun horreetan; olgetarako askatasun gehitxoago egoten da.

Baina jaiburuaren lehentasuna San Migelen omenez eskeintzen zan herri-meza nagusiak eroaten eban. Meza nagusi ondo

jantzia, ondo abestua, jendez goraino beterikoa, kanpoko sermolaria bitarteko zala. Meza horretan, dotore-dotore, gure Pedro mutikoa meza-laguntzaile.

Bizitza osoan zehar, gozoro gogoratzen zituan Pedrok herriko jaiok, batez ere, San Migel, San Fausto eta San Lorentzo egunak. Hiru jai horretan parte hartzen eban berak. Indian misiolari zala, egun horrek heltzean, Basaurira begira jarten zan eta bere umetako jaiak atseginez gogoratu.

Beste jai bi ere maite-maite zituan gure gazteak. Santutegi bi, artez esateko: Bilbo gainean dagoan Begoñako Andra Maria, Bizkaiko zaindariaren santutegia, eta Santutxu tontorrean zutik dagoan Karmengo Amaren santutegia.


Santutegi biak alkarregandik hurrean dagoz, baita Basauritik ere. Mariaren maitale askok eta askok igoten eben oinez, ibitaldi bat eginez, bai Begoñara eta bai Karmelora, batez ere, egun izendatueta, hau da, Karmen egunean, Begoñako Amaren egunean, Pazkoetan, urriko Andra Marietan...

Pedro mutikoa aitaren eskutik joaten zan gehienetan santutegi honeek ikustatzera. Karmeloko santutegian toki egokia aurkitzen eben Bilbo eta inguruetako jendeak arimako eginbehar eta arazoei begiratu eta zeregin horreek egokitasunez beteteko. Barruko erlijiotasuna zehatz eta atseginez eroateko.

Edozein ordutan joan arren, jendeak era eta egokitasun guztiak aurkitzen zituan, esaterako, autortzak egiteko, meza entzuteko, bazter isilean, gozo-gozo, Karmengo Amaren aurrean otoitzaldi bat egin eta berari eskari batzuk egiteko, bertan fraile asko egozalako herriaren zerbitzuan.

Gure Pedrok ere, aitaren aurretik joanez, han itziko zituan bere hutsegite eta pekatutxoak autortokiko isilean. Han ikusiko zituan jendetza handiak, erreskadan jarrita, autortza egiteko itxaroten.

Fraileen zeregin hori ikustean, gure Pedrok ez ete eutsan eder egin fraileen bizimodu horri? Ez ete eban hortik barruko ikutu txikiren bat jaso? Ametsalditxo bat egin bere buru barruan? Nik uste atsegin izango jakola fraileen bizikera hori.



Aurelianoren anaia eta koinata, Paskual eta Isabel

Gaixoaldia

Pedro hamaika urteko mutikoa dogu. Etxekoen berora, haziez-haziez dator alai eta zoriontsu. Baina etxeko zoriona ez zan luzarokoa izango; halako baten ilundurik gelditu zan. 1898ko urtea zan. Urtearen hasieran, Pedro gaixorik jausten da. Oso txarto dago mutikoa.

Zein gaixo zanik ez dakigu, baina oso larria zala bai. Hilgo ete zanaren bildurrez egozan etxeokak. Hil zorian ikustean ama San Antonio Urkiolakoarekin gogoratu eta berari agintzari edo promesa bat egin eutson baldintza honekin: mutikoa onera etorten bazan, Urkiolako santutegira eroango ebala, eta han, meza bat entzunez, esker bihotzekoak emongo eutsazala eskeini- niaz.

Pedro osatu egin zan, ondo osatu ere. Guztiz indarbarrituta ebilen, txiri-txiri, betiko bideetatik. Amak eta semeak, emondako hitza zintzo eta leial zainduz, San Antonio egunean,

egindako agintzaria beteteko asmoz Urkiolara igon eben eta San Antoniorekin eukeen zorra kitutu.

Egun hori ez eban inoiz ahaztu gure Pedrok. Gerora, Indian egoala, 1955eko urtean, bialdu eutsoezan Urkiolako argazki batzuk ikustean, etxekoei hauxe idatzi eutsen: *Ni ere Urkiolan egona naz; amak eroan ninduan mutikotan, gaixo txarretik osatu nintzanean. Nire osasunagaitik egindako agintzariak bete eta San Antoniori esker beroak emotera igon genduan, igon ere.*

KARMELORAKO DEIA

Pedro mutikotan ezagutu eben guztiak ados datoz zelakoa zan azaltzean. Mutil argia, buru onekoa, ikasketarako ondo jantzia, tolesgabea, bihotz eder eta apala, zerbait gizajoa eta, batez ere, jainkotia.

Argazki-irudi hau atera dogu bera ondotik ezagutu eben askoren ahotik. Honen testigu eta argudio lez, haren osaba Doroteok bere seme-alabei sarritan esaten eutseena eta idatzita dagoena ekarriko dogu. Klara Azkueta, Doroteoren alabak, gerora Kristo Erregeren Mirabeen Ordenan lekaime egin zanak, honako hau idatzi eban: *Gure aita zanak, gu ume ginala, sarri-sarritan, Pedro lehengusua mutil eredugarri lez jarten euskun, esanez: harexen antzeko nahi zaituet zuek ere: onak, apalak, esanekoak, zintzoak.*

Beste hau ere esaten euskun: Pedrok, txiki-txikitatik, abade izateko gurari bizia agertzen ebala. Benetako beneragarritasuna eutsela abadeei. Kanean edo bidean abaderen bat aurkitzen bae-ban, itzal handiz txapela kendu eta eskuan mun egiten eutsola.

Karmeldarrekin hartu-emonetan

Baina hemen, hitzik sinisgarriena Pedrok berak dauka.

Indian gagoz, Kerala-ko urian, 1963an, bera hil zan urtean. 160 mutiko bardingote ditu aurrean. Gogoeta egun bat da. Pedro da, orain Aita Aureliano izenaz, berbetan dagoana. Hitz sutsu eta hunkigarriak gaztetxo hareei zuzendurikoak.

“Zoriontsu nozue zuekin egoteaz. Neure umetako egunak dakarkidazuez gogora. Zuen sasoiko mutikoa nintzala, berez-

berez sortu jatan bihotzean fraile izateko gogo, bokazinoa. Fraile Karmeldarrak etorten ziran sarritan gure herrira. Ni pozik joaten nintzan eurakana. Nire etxeok ere pozik ikusten eben hori. Irribarrez, neuri begira egoten ziran ni fraileekin ikustean.

Halako baten, hamar urte nituala, gure herrira garizumako hitzaldiak egitera etorri zan fraile karmeldar bateri neuk ere, bera lez, fraile izatea gura nebala iragarri neutsan. Eta 12 urte bete nituanean, Karmeldarren Ikastetxean hartu ninduen. Orain, 16 urtetik aurrera, botodun erlijioso karmeldarra naz. 23 urtekin abade egin nintzan; 26 urtetik gora misiolari naz. Berrogeita hamaika urte daroadaz misiolari zuen artean. Eta ez naz inoiz, egun baten ere, damutu fraile eta abade izateko hartu neban erabagiarekin; beti-beti zoriontsu izan naz.

Eskerrak emoten deusadaz Jaunari beragandik hartu dodan bokazinoagaitik; bardin eskertzen ditut neure guraso eta etxeokak, euren eraginez altararako bidean jarri ninduelako; eskerrik sentikorrenak baita nire erlijio-heziketa guztian zehar, zelanbaiten, nire laguntzaille izan diran guztiei. Erlijioso eta abade naz. Hau zoriona nirea!

Landare batek lur ongarritua behar izaten dau hostotsu eta mardul hazteko. Bardin frailetzarako bokazinoak ere.

Berez, bokazinoak, Jaunarengandiko doe izanik, giro doi eta egokia behar izaten dau ingurumarian zintzo eta sendo sustraitzeko.

Gure Pedrok bere etxean aurkitu eban giro ezin hobe hau, baita bere maisu Zipriano jaunagan ere. Bestetik, herritarren artean ere abadeenganako beneragarritasun handia somatzen zan, benetan beneragarriak ziralako.

Guzti honek ikutu bizia egin behar izan eutsan barruan gure gazteari.

Zerk bultzatuta, zirikatuta, aukeratu ete eban Pedrok Karmengo Ordena? Hainbat ziobide aurkitu geinkez hemen, baina, nire ustetan, fraile karmeldarrak ezagutzetik etorri jakola eta nago.

Goragoan esan dogu fraile karmeldarrak sarritan etorten zirala herrira hitzaldiak egitera, batez ere, garizuma aldian. Pedro gazteari atsegin izaten jakon fraileekin egotea. Bere maisu kutunaren seme bat ere karmeldarra zan, Aita Arsenio.

Karmeloko Karmeldegia ere Basauritik hur samar aurkitzen da. Hemen aurkitzen eben basauritar askok euren gogozko janaria, arimako zuzendaritza. Arlo horretan oso ezagunak ziran Karmeloko fraileak. Pedro bera ere eliza honetan egona zan baten baino gehiagotan.

Baina, batez ere, Pedro Larreako fraileekin harremanetan hasita egoan.

Orduko garaietan, karmeldarrak "eskeko" fraileak ziran. Herririk herri, etxerik etxe ibilten ziran eskean. Gaur, baztertuta dago ohitura hori. Ez dabe eske hori egiten.

Basaurira etorten ziranean, barriz, eskeko eginik, maisu jaunaren etxean gelditzen ziran ostatuz. Gero, Pedro mutikoa izaten zan fraile eskaleon bide-erakusle, etxerik etxe eta baserririk baserri harei lagunduaz. Holantxe sartu zan Pedro Karmeloko Ordenaren ezaupide eta zaletasunean.

Holako baten, Larreako fraile bat etorri zan herrira garizumako "misioak" emotera. Begiko egin jakon gure mutikoari Aita Domingo sermolaria, eta harexeri agertu eutsan berak eukan fraile izateko guraria.

-Neuk ere fraile izan nahi dot, Aita. -Ederto, mutiko, ederto!, neuk eroango zaitut gure artera. Zu lako mutikoak behar dituguk. Sermolari ona izango zara zu" esaten eutsan Aita Domingok, irribarrez, mutikoaren burua pozez laztanduz.

Aita Domingok mutikoak esandakoaren jakitun jarri eban parroko jauna eta mutikoaz eukan eritxia eskatu eutsan. Parroko jaunak frailetzarako autagai hoberik nekez aurkituko ebala erantzun eutsan.

Aita Domingori iragarritako mezua gurasoei ere agertu behar, jakina. Eta zeregin hau beteteko, beragan uste osoa eukan maisu maitea aukeratu eban Pedrok. Zipriano

maisua emongo eutsen gurasoei Pedroren bokazinoaren barri.

Gurasoak pozik hartu eben isileko mezu hori, baina gerora, aitaren aldetik eragozpen txiki batzuk agertu ziran baietza emoteko orduan.

Aitak bere etxaldea eukan gogotan. Pedro zan mutiletan zaharrena, beraz Artunduagako Landetatarren oinordekoa. Baserriaren jabetzak esangura handia eukan euskaldunen artean. Baserriak betikotzen dau sendiaren jatorria eta odola. Antxinatik etorren ohitura zaharra ere hortik joian: semerik zaharrena etxerako, jatorria eta abizena ez galtzeko.

Eta honen arabera, semeari burubide hori burutik kentzeko asmotan, Pedro baserri lanetara zertxobait gehiago sartzeko ahaleginetan ikusten dogu orain aita. Baserri-zaletasuna biztu mutikoagan.

Baina, alperrik. Pedro, etsi-etsian, aurrera jarraitzeko asmotan dago. Ezergaitik ez dau atzera egin nahi hartutako erabagian.

Bere amamak ere fraileak, lotarakoan, burupekotzat harri bat jarten ebela esaten eutsan, baina Pedrok horrek berari ardurarik ez eutsala emoten erantzun, berak ere beste hainbeste egingo ebala fraile izandakoan.

Zerbait gogo-beheraturik ikusten dogu mutikoa aitaren mukertasuna dala eta, baina aita bihotz oneko kristau osoa izanik, minez baino ezpada ere, azkenean semeari frailetzarako baimena emoten deutso.

Halako gau baten, alboko gelan, aitak negar-uluak entzuten ditu. –Nor da negarrez dagoana?, aitak amari itandu. Eta amak erantzun: Pedro da.

Hurrengo goizean, aitak semeari deitu eta laztanduaz badi-rautso: *Seme, ez larritu, nahi dozunean joan zeintek ez erlijioso.*

Handik urte askora, Indian, Alwaye-ko seminarioan zuzendari zala, honako zerbait jazo jakon hango seminarista batekin. Harek karmeldar izan nahi eta gurasoak ezetza emon; itzi ez. Bihotz-beheraturik aurkitzen zan gaztea eta bere larritasunean

Aita Aurelianogana (Pedro) jo. Eta Aita Aurelianok honetara kontsolatu eban: *Gurasoak onak dira eta lehenengotan ezetz esan arren, gerora ez dabe eragozpenik jarten. Azkenean, gure gurariak onartu egiten ditue. Nire aitak ere holantxe egin eban nirekin; seme zaharrena nintzalako ez eban ni fraile joaterik gura, baina, azken baten, baimena emon eustan. Horrelantxe egingo dabe zure gurasoak ere. Ez zaitez arduraz ibili, gogor jokatu baino.*

Karmelarako bideak urratzen

Handik laster, Zipriano bere maisuarekin, Larreako komentura doa. Karmeldarrekin berba eginez, Karmelarako bideak bertatik urratu nahi ditu. Maisuaren laguntzaz, bere asmo eta gurariak agertzen ditu Larreako Nagusiaren aurrean. Jator azaldu da mutikoa. Nagusiak ere etorri ona ikusi dau mutikoagan. Inpresino ona egin deutso. Pozik egingo deutsoz Ordenarako bideak. Gero, berbatun-berbatun, etxeko nagusiak Larreako edertasunak erakutsi eutsazan: elizea, klaustroa, jantokia, baratza, etxe barruko bazter batzuk; Larreatik ikusten diran mendi eta inguru zoragarriak.

Mutikoaren jatorrizko datuak hartu ostean, Aita Nagusiak fraile sartzeko behar diran paperak berak gertauko zituala esan eutsan Pedrori. Gero, eguna heldutakoan, Karmeldarrak Nafarroako Villafrancan daukeen ikastetxe nagusira joango zala, frailegai lez, ikasketak egitera.

Agur egite orduan, txeratsu eta berba gozoak zuzenduaz, nagusiak berak deitu arte etxean nasai egoteko esan eutsan. Kolkoa pozez eta ametsez beterik urten eban gure mutilak Larreatik.

Villafrancara joateko 1900eko apirilaren 21a aukeratu eben. Bezperan gure Pedro baserririk baserri ibili zan ezagun eta auzoko guztiei agur egiten. Danak eukeen oparixoren bat gertatuta euren meza-mutilari emoteko. Agur egite orduan auzotarrak eskua luzatuz, honako oihuekin agurtzen eben: *Ia noiz etorten zaran Basaurira sermoiak egiten.*

Hurrengo goizean, etxeok agurtu beharra. Gogoia sendo eroan arren, ordu horretan, azurrak eurak ere saminez dardara egiten dabe. Bihotzean ezpata bat sartzea lez izaten da. Goitik behera urratu bat egiten deusazu maite izan dozun zeure mundutxo horri. Odolaren tirekadak minez arrotzen jatzuz zanetan, lotura horreek ez apurtzeko eskaritan. Ia heriotza besteko larria dozu une hori. Maite dozun guztia, etxeokandik hasita betiko itzi behar.

Ordu garratza izan zan Pedorentzat ere. Negar zotinak begietan, zizpuruka ama eta arrebak. Ez eban inoiz ahaztu ordu larri hori.

Etxekoentzat ere une garratz eta samina. Aita-amaren arteko maitasunetik sortutako frutua da. Bien haragia eta odola daroaz. Amaren besoetan ikusi dau lehenengo argia; etxeok sehaskatxoan ikasi irribarre egiten; etxeokoen txera eta laztanak hartzen; amagandik bularra hartu eta haren besoetan lo gozoa egiten; txiri-txiri oinez ibiltzen ikasi.

Etxeko eguzkia eta poza izan da umezaro guztian zehar. Gaur badoa etxetik, urrunera doa; gitxitan izan ezik, ez da etxetik agertuko. Berrogeita hamaika urte Indian egingo ditu misiolari, behin ere etxera etorri barik; han hilgo da azkenez, urrun, erbestean.

Semearen etorkizun eta erabagiarekin bat etorri arren, odolaren lotura horreek, familiarteko sentimen horreek apurtzea heriotza lakoxe gogorra izaten da. Ordu samina benetan

Zipriano maisuak, eguna heldutakoan, mutikoa eskutik hartu eta trenera eroan eban, Villafrancarako bidean. Trena urrintzean tamalez begiratuko eutsan leihotik zehar atzean gelditzen zan bere herriari. Gero trenak gorantz igotean, lurralde barriak, zelaiune zabalak, mahasti mardulak Errioxan zehar, Villafrancara arte.

VILAFRANCA-KO IKASTETXEAN

Villafranca (Alesbes), ekialdera, Nafarroako muga-mugan dago. Nekazaritza bizi dan herri hazitxoa da. Ibar luze, zabal, leun eta zelaiak ditu aldamenean. Lur aberats-aberatsak dira, garastalurrak –erregadiokoak– izatean. Garitzak, mahastiak, frutu-arbolak, barazkiak alde guztietatik, herriaren edergarri eta aberasgarri. Herri barruan, herriko eliza eta Karmeldarren komentua.

Honako lur zabal eta leunik ez da ikusten Basauri aldean. Hemengoak askoz handiagoak eta zabalagoak dira. Begia galtzen da urrunera begiratzean.

Mundu barri bat iruditzen jako Pedro gaztetxoari. Lurralde eta ikusmuga barriak, egurasti eta ohitura guztiz desbardinak. Berak ezagutu dauan Basaurirekin ez dauko ezerean antzik Villafranca honek.

Komentuko atean txirrina joaz batera, ohi dan lez, etxeok nagusi jauna agertu da, irribarrez eta txeratsu, frailegai gaztetxoari ondo etorria besarkada gozo batekin emonaz.

Bidaia ondo egin daben, ondo etorri diran, beharrianik izan daben, ikusitako lur inguruak begiko izan jakeezan, fraile izateko ia pozik dagoan eta honakoxe huskeriak itandu deutsoz Pedrori etxeok nagusiak. Konfiantza eta beroa emon nahi deutsoz mutiko etorri barriari.

Ez zan txantxetako gizona etxeok nagusi hau. Fraile ospetsua zan karmeldarren artean: Aita Atanasio, giputza, Errexilgo seme jatorra, balio handiko gizona, nagusi-lanetarako sarritan aukeratua.

Dinoen lez, santutasunez jantzitako gizona zan, otolari asperrezina, nahiz eta azkenean zoritxarrak eroan. Espainiako

gerra denboran, Santander aldean, gorritarren eskuetan jausi eta tiroz hil eben gizajoa.

Karmeldarren ikastetxeetan batez ere nagusi bi egoten dira: etxeko nagusitza daroana bata, eta ikasleen zuzendari egiten dauana bestea.

Bigarren honek eroaten dau, batez beste, gaztetxoan ardua eta zuzendaritza. Pedro Villafrancan sartu zanean, Aita Joan Bautista zan frailegai gaztetxoan arduraduna.

Gizon bihotz zabal eta ontasunez beterikoa hau ere; bestela zelan bete ondo aita-amaren zereginak hain urrundik eta hain gazterik, euren guraso eta sutondoak itzita etorri diran gazte-txoekin?

Gaztetxo honeek, berezkoa dan lez, eurenganako maitasun handi bat eskatzen eben hain gaztetxoak izatean. Pitean-pitean behar dabe janaritzat maitasun ogi hau. Sendian gurasoakandik hartzen daben maitasun asegarri hau.

Berotasunik gabe hazitako umeak, barriz, hutsune honen akatsa daroa, beti ere, bizitzaro osoan zehar. Izaera anormala agertzen dabe, gehienetan, maitasunik gabe hazitako umeak. Horregaitik hutsune horri ardua handiz begiraten eutsoen nagusiak, gero erremedio bako gatzetan ez jausteko. Hortik, ardua hori Aita zuzendariaren gain gelditzen zan.

Ordenak ere, bere aldetik, horretarako aparteko doeak zituen zuzendariak aukeratzen zituan. Gizon maitekorrak, izatez on hutsak, mutiko bakotxari harek behar eban maitasun partea emoteko gauza ziranak. Eta zeregin hau bene-benetan, ardua eta zehaztasun handiz hartzen eben, euren aldetik, gure zuzendariak. Karmeldegietan ikusitakoaren arabera, gure zuzendariak zeregin hori ondo bete ebela autortu behar, gure artean ez da, ba, anormal gehiegirik agertu.

Gaur, komenturako bokazinoak, legeak eskatuta, askoz zaharragoak dirala sartzen dira. Bakotxak bere oinez eta kabuz ibiltzen dakianean.

Munduko kutsutik urrun

Zuzendariaren beste zeregin bitxi bat frailegai gaztetxoak munduko kutsutik aske eta garbi zaintzea izaten zan. Munduko arnasatik garbi zaindu etxeko gaztedia.

Honen arabera ikastetxe-esparrutik, ingurutik, ez eben ez etxerako, ez kalerako inoiz urtetan zaindari gabe. Beti etxeko harresi barruan.

Hilean behin kartatxo bat etxera, hilean-hileango barri eta albisteak aitatzuz eta idatziz. Etxekoen ikustaldiak ere urri eta bakanak izaten ziran, orduko egunetan ez egoan, egon ere, bidean ibilteko gaur lako aukera eta erreztasunik-eta.

Komunikabideen arazorik ere ez zan egoten, oraindik ez ziralako ezagutzen; tresna horreek geroago etorriak dira. Ahoz-ahozko komunikabidea bakarrik ezagutzen zan, eta hau ere guztiz urria hainbaten, herri bizitza batuago bat egiten zalako garai haretan. Mundutik urrun zaindu, ahal zala, altararako izango zan gazte taldea.

Hori bai, etxe bizitza, lagun arteko bizitza oso alai, gozo eta atsegingarria izaten zan anai arteko giro epela sortzen zalako taldean.

Inoiz mutikoen artean tiki-miki txarrik agertzea bazan, bertatik ebagiko zan gatx hori. Pozik eta eratsu bizitzeko behar zan guztia aurkitzen eben mutikoak etxe barruan. Zer gitxiago! Irakasleen abegitasuna, hurkotasuna, arduratasuna gozaten eben une guztietan, nor zein zan begiratu barik.

Jolasaldiak

Jolasa ere heziketa barruan sartzen zan. Mutiko hain gazteak jolas-ordu asko eta luzeak opa izaten ditue, gorputzez eta gogoz sendo eta argi hazteko.

Ikuspuntu honen arabera, ez zan onartua izaten, jolas bizi-tik urrun, bazterrean geldirik ikusten zan mutikoa. Geldo gelditze bidea zan hori; gauza desegokia.

Lehenengo eta behin, jolas biziak ziran begiko: pelota, futbola, igeria, oinezko lasterketak eta abar. Eta guzti hau, gazte-

Etorri onekoa, ez jakon gatx egin frailegai izateak ondoan dakarzan neke eta zailtasunak onez gaintitzea. Abitua hartzeko eguna hur ikusteak ere poztasun eta adore handia emoten eutsan bere ibilaldian.

Bera ezagutu eben guztien ahotik goralmen hau jaso dogu: maitagarria, onbera, alai, barnekoia, adeitsua eta atsegina zala. Adikorra eta leiala bere eginbeharrak betetean.

Honen sariz-edo, Aita maisuak bere begiko laguntzaile izendatu eban, ikaskideen artean bere ordeak egiteko arazo bazuetan.

Misiolari izan nahi

Gertakizun garrantzitsu bat aipatu behar dogu hemen. Jazoera aparta.

Pedro Landeta gazteak misiolari izateko goitiko deia hartzen dau. 1901eko urtea da. Etxean hirurren bat gertatu da, urtarrilaren 11, 12 eta 13an, Sumatrako ugarte urrunean, martiri hildako karmeldar misiolari biren beatifikazioa ospatzeko. Dionisio eta Redento ziran martiri bi horreek, Teresa deunaren Ordenako lehenengo martiriak. Hareen dohatsutasun hori goraltzeko hiru eguneko jaiak egin ziran Villafrancako komentuan.

Sermolariak misio-gaia erabili eban ahotan hiru egunotan. Goitik behera, bizi eta kementsu zeharkatu eban gai hori. Pedrori gozo-gozo sartzen jakon bihotzera hizlariak esaten eban. Ikutu gogorra egin eutsoen hitzaldi hareek.

Honen ondorioz, ordu luzeak emon zituan misiolaritzaren ederra, goitasuna bere kautan hausnartzen. Isilean egiten zituan gogaketatik argi izpitxo bat biztu jakon barruan: mundu hori zoragarri iruditzen jakola!

Zer hoberik abade batentzat bere bizia sinisbakoan alde emotea baino? Zer hoberik egin leike gizon batek mundu honetan? Ba al dago goragoko zereginik?

Honakoxe pentsamentuekin durdituta, zorabiatu ebilan mutila. Ezbaian bere buruarekin. Ez daki norantz egin. Bere barruarekin burrukan.

Azkenean, apostolutzako bidea aukeratu dau: *Misiolari izango naz, dino, eta nigan dagoan aldetik, hil arteraino izan ere.*

Honelantxe iragarri eutsan Pedrok berak, 1956an, Indiatik Iruñera, bere lehengusina Joakina lekaike karmeldarrari idatzi eutsan eskutitz baten: *Dionisio eta Redento gure misiolari martiriak zoriondunak izendatuak izan ziralda-eta, hareen omenez etxean egin zan hirurrunean, misiolari izatea erabagi neban eta heriotzararte izatea neure aldetik. Villafrancan nengoala hartu neban erabagi hau, 1901eko urtean.*

Gerora argi geratu zan lez, erabagi hau ez zan izan unetxo baten, amets-ameslari, hartzen dan asmobide bat. Gogoaren argi eta bizitasunean hartutako behin betiko erabagia izan zan. Ordutik aurrera, heriotzararte odolean bizirik eroango dauan gurari gorengoa.

Beteko ete dau asmo hori? Bai, horixe! India zapaldu ebanetik geroz, berrogeita hamaika urtez, bere heriotzararte, Malabarko misioa izan zan bere maitalea. Maiteño horri emon eutsan bere bizitza osoa.

LARREARA

Etkez aldatzeko ordua da. Urte biren buruan etxeko izan gaituan Villafrancari agur esateko ordua. Orain Bizkai aldera goaz, Larreara.

Hemen gelditzen da gure ikastetxe maite hau bere zoragarritasun gozoan. Gure mutikotako habia izan dogu. Sendi eta biziera barriak aurkitu ditugu hemen; mundu barri bat ezagutu; zoriontsu bizi bertan.

Edonora begiratuaz, mila gomutapen samur datorkiguz gogora. Ez dakigu zein eroan eta horregaitik danak sartu ditugu bihotzeko zorroan geurekin Larreara eroateko.

Dorre gainetik begiak zabal-zabal egin eta urrunera jaurti ditugu gure babes eta lagun izan diran lurralde maite hareei agur egiteko; musu bat bota herrian gelditzen diran ezagun eta adiskideei.

Honako pentsamentuekin hausnarrean agur egingo eutsan hainbaten gure Pedrok Villafrancako herriari.

Oraindik orain, hamabost urte ditu. Gazte errime, handiluze eginik dago; beti izan da gizon sendoa.

Bizkairako bidean, trenean etorrela, Basauritik igarotean, bere herri maitea ikusteko zoria izango dau. Begien aurrean izango ditu umetan hainbestetan ikusitako etxe, zelai, berdegune, baso eta mendiak berari kinuka.

Beste aurpegi bat agertzen dabe hemengo mendi eta lurraldeak. Beste edertasun bat euren janzkeran. Villafrancako garitza, erriberako ortu eta mahastien ordez, artotza eta belardi berdeak etxe inguruetan, haritz eta gaztainondoak mendien lepoetan.

Bilbora heldutakoan, trenez aldatu, Donostiara doana hartu eta Zornotzako geltokian jatsi, handik Larreara joateko. Zornotza-Amorebieta Bilbotik hurrean dago eta Larrea Zornotzatik bertan, goialdetxo baten zutik. Ikuspegi zoragarriak ditu edonorantz begiraturaz. Zornotzatarrentzat txoko berezia, Karmengo Amaren begipean aurkitzen dalako inguru hori. Bertara doan errepidea, barriz, alde bietara txalet ederrez jantzita ikusten dozu gaur.

Toki polit horretan dago kokaturik Larreako Karmengo Amaren santutegia; hantxe Aita Karmeldarren komentua ere, santutegiaren zaintzaile eta zerbitzari.

1713an heldu ziran lehenengoz Karmeldarrak Larreara. Oraindik ere hantxe dituzu zutik eta ernai beti herriaren zerbitzuan. Larreako eguzkiak, urteen buruan, nahiko argi eta bero gozo zabaldu ditu Bizkaiko euskal herrietara bertako fraileen ahoz eta eliz ekimenez.

1876tik aurrera, oraintsurarte, komentu hori Karmeldarren nobiziadua izan da beti. Aldi luze honen barruan, frailegai askok eta askok hartu dabe Ordenako jantzia nobiziadu honetan. Beraz, frutu on eta ugariak emon ditu; hortxe emon zituen euren lehenengo oinkadak gure santuak, jakitunak, idazleak, misiolariak, sermolariak, eliz agintariak eta abarrek.

Nobiziadu honen atera deitu eban gure Pedro Landeta gazteak ere 1902ko uztailaren azkenetan. Villafrancatik dator bere ikasketak nota bikainez amaitu eta gero. Zortzi eguneko gogojardunak egin bakartade isilean, eta abuztuaren laugarrenean abitua hartzeko gertu dago. Beste hiru lagunkide izango ditu berarekin une gogoangarri horretan.

Goizeko hamarretan izango da abitu hartze hori goiko koruan. Ordu horretarako han izango da zintzo-zintzo etxeko fraile taldea. Zeremonia goitikoa da.

Koru-erdian besaulki handia Aita Nagusiarentzat; soladura gainean, alfonbra luze-zabala bertan fraile barriak ahuspez belaunikatzeko.

Koruko atetik lau gazte sartzen dira, Aita maisua aurretik dala. Datozen patxadan ikusita euren amak negar egingo leuke ziur. Buruko ulea barregarri moztuta, mangutsik, oinetan sandaliak; besoetan abitu egin barria, kapa zuriarekin.

Aita Nagusiaren oinetan belaunikatu eta buruak ahuspez makurtzen ditue. Apaltasunaren eta menpetasunaren irudi da makurtze hori; norbere buruari uko egitea; goiko Jaunari egiten jakon buru-eskeintza.

-Zer eskatzen dozue? -itandu deutsoe Aita nagusiak.

-Jaungoikoaren errukia, Ordenako txirotasuna eta anaien alkartasuna -erantzun dabe arrandiatsu lau gazteak.

Hitzalditxo labor bat hasitako bideari zintzo eta leial jarraitzeko gomendaturaz, eta bertatik abitu barria jantzi Aita Maisuaren laguntzaz.

Behin abitua jantzitakoan, lurrean etzanda jarri buruz behera alfonbra gainean, munduarentzat hilik dagozala agertu nahian. Bitartean kantu eta otoitz hunkigarriak bertaratu dan komunitateak frailegai barrientzat goitiko laguntza eta adorea eskatuz.

Kantu-otoitzak amaitutakoan zutundu, eta Nagusiarengandik hasita beste anaia guztiei besarkada estu eta samur bana emon, latinez: *Hara zein gozo eta atsegingarria dan anaiak alkarrekin bizitzea* abesti gozo-gozoa abesten dan bitartean

Honekin amaitu da elizkizuna. Oraintxe hasi dau gure laukoteak nobiziaduko urtea. Urtebetean Larrean biziko dira.

Pedro Landetak, izenak errepikatzen zirenean edota borondatez aldatu nahi zanean orduko karmeldarrek eukeen ohiturari jarraituz aldatu egin eban bateoan hartutako izena. Abizena, ostera, norberak aukeratutako santuarena izaten zan. Aurrerantzean, gure Pedro Landeta "Sakramentu Santuaren Aureliano" anaia izango da. Aurrerantzean deitura barri honekin ezagutuko dogu. Hil arteraino eroango dau izen hau.

Nobiziaduan

Eta zer egingo dabe urte luze honetan nobiziadu barruan? Zelako bizimodua egingo dabe?

Santutasun bidean heldutasun bikain bat lortzea izango da euren lehenengo goiburua. Santutasunean ahal leitekeen mailarik gorengoenera hurreratzea. "Kristo jantzi", Paulo deunaren esanean. Kristo neuregandu eta neu Kristogandu, maitasunean biok bat izanez; Haren nortasuna neure egin. Haren goiburuak, ametsak, pentsaerak, izaera, jokabide eta egiteak ahal dan neurrian neure egin. Kristoren bizitzako itsaso zabal, sakon eta garbian murgildu, Haren espirituaz bateatuak izateko. Kristoren antzeko gizaki barri bat, ahal dan zehaztasunik osoenean neure gogo erdian moldatu. Beste Kristo bat izan munduko bideetan zehar.

Santutasun mendira igoteko zentzun eta gogo bizi hau da indar bultzagilea, motor eragilea lekaidetzako bidea hartu dauan gaztearentzat. Asmo bultzaile hori gabe, hutsa litzake lekaidetza; marrik kanpo geldituko litzake.

Asmo hau gidari dala sartzan dira gazteak, buru eta belarri, lekaidetzako santutegira. Gaztetasunak daroan indar eta kemen osoz sartu ere. Santutasun mendira igotea nahi dabe. Horren gogo bizitan dagoz, behintzat.

Baina santutasun tontorrera igoteko mailadi luzea egin behar izaten da, beti ere, gurutzeari kendutako zatiekin. Bide hori ilunpe, zokondo, trokarte, mendiarro, amildegi eta zailtasunez beterik dago, Gurutzeko Joan santuaren esanean.

Mendateak besteko borondate sendo eta errimea dabenak izaten dira igotzailerik onenak. Doe eta gaitasun hori daukee, batez beste, frailegaiak. Eta horretarako lehenengo oinkadak nobiziaduan emoten ditue. Han aurkitzen ditue bideak zabal-zabalik mailadian gora eta gora igoteko.

Lehenengo "bideak" otoitza dau izena. Otoitzari ingurugiroa egin; otoitz-lanbroz kutsatu etxe-bizitza guztia. Otoitzaren baliotasuna arnasatu bular betean.

Ordu asko emoten jakozan nobiziadu haretan otoitzari. Goizean goiz, eguna otoitzarekin hasten zan. Egunsentia zabaltzean, goiko Jaunari "Gorespenak" abestu esker onez guri

eginiko harrigarritasun guztiakaitik. Gero, ordu beteko otoitzaldia isilean; ondoren, eguneroko eukaristia jaunartzearekin. Goiz erdian, bazkari aurretxoan, beste otoitzalditxo bat "Orduen liturgia" deitua, gogo-azterketa labur batekin amaituaz.

Arratsaldean bezperak. Geroxeago, ordu beteko otoitzaldi isila; gau-aurrean, azken otoitzak egin eta lotara.

Gauerdian barriro kanpai-hotsa; ohe beroa itzi eta barriro korura maitinak erresatzera. Holantxe egunero-egunero, jai handietan izan ezik. Beraz, ordu asko, egunero, otoitzari eskeiniak. Hobeto esateko, egun osoa otoitzaldi luze bat besterik ez zan.

Zergaitik? Giro bero hori mantentzeko etxeko ingurugiroa isiltasun hutsean zaintzen zalako. Otoitzari garrantzi handia, isiltasunari ez gitxiago. Jolas-orduetatik kanpo, ez egoan alkarrekin berba egiterik. Otorduak ere isilean, anaikide batek liburu interesgarri batetik danentzako irakurten ebana entzunez.

Komunitatea alkartzan zan orduetatik kanpo, bakotxak bere gelako isilean egiten eban bere bizimodua. Alkarren arteko hartu-emonetan, ostera, hitzaren orde gorren zinuekin baliatzen ziran. Horretara ez zan galtzen barruko aditasuna.

Onez gainera, komentuko bizimodua estua, latza izaten zan. Gabezia oinarritutako bizitza. Bizi-eredutzat txirotasuna hartzen zan. Jantzia, janaria, esku arteko tresnak apal-apalak, hau da, beharrezko ziran gauzakin konpontzen zan bakotxa. Honen jakingarri, esan daigun zelakoa zan frailegai baten gela-txoa.

Lau horma zuri; hormatik zintzilik zurezko gurutz soila; ohetzat lau ol luze, zurezko oin-gainetan alkar josirik; jarlekutzat lur santua; mahi antzeko bat, hiru edo lau liburuarekin gogo-bizitza janaritzeko.

Batez ere, Teresa santuaren eta Gurutzeko Joan santuaren liburuak, Karmeloko Irakasle Nagusiak, gogo-bizitza aberats hori norberaganatzeko behar-beharrezko ziran liburu gidariak.

Txirotasun honekin batera, norbere buruari uko egiteko ohizko ziran hildura, laztasun eta gainetiko nekaldiak sartzen ziran nobiziaduko heziketa sailean.

Gurutzeko Kristo hori zan, santutasun bidean, guztien eredu bakarra. Edonondik begiratu arren, santutasuna gurutzearen irudipean ikusten zan. Kristorekin gurutzalduta bizi! Hauxe zan arau gorengoa; honi emoten jakon garrantzia eta goren-gotasuna.

Gaur, beharbada, gurutzearen ordez, maitasuna jarriko genduke santutasunaren oinarritzat, baina biak ere, zelanbaiten, eskutik doazala autortu behar.

Eskola estu-latz honetan moldatzen ziran garai hareetako frailegaiak. Eskola gogorra zan, ikusi dogun lez. Guztiz neke-tsua burutzeko; honen arabera, batzuek, ezinean, bidean gelditzen ziran; gogoz sendoak ziranak bakarrik gaintitzen eben mendia.

Gure Aureliano gazteak nobiziaduko ibilaldi luze eta estu hori onez eta bikain garaitu ahal izan eban; labanik egin barik, garaitu ere.

Bere lagunkideen ahotik jasotako hitzen harira, orduko Aureliano gaztearen irudia honetara marraztu geinke: "Gazte jainkozalea; santutasun-egarriz grinatua; ongilea, laguntaria, guztiei emona, sen handiko mutila". Ez da aipu txarra gazte batentzat.

Pozik egozan etxeko nagusi eta fraileak gure gazte honekin. Etorkizun handiko gizona izango zala ikusten eben; mozorro bako gizona.

Eta gizatasun aberats honen sariz, Aita Maisuak konfiantza osoa beragan jarri eta nobiziaduko zeregin eta arazo batzuk bere esku itzi zituan. Arazo batzuetan, laguntzaile lez, haren ordeak egin zituan.

Profesa eguna

Urtea amaitzera doa, eta profesia egiteko eguna aurrean. Heldu da sarritan amestutako egun hori. 1903ko abuztuaren bosta.

Goizeko hamarrak. Han dagoz etxeko fraileak kapa zuriak jantzita dotore, eliz erdian hurrengorik hurrengora erreskadan jarrita. Hantxe baita, aldameneko jarlekuetan, bere aita, senitarteko eta adiskide batzuekin, herriko maisu ospetsua On Zipriano danen buru dala. Danak irrikitasunean txunditurik ageri dira.

Elizea ere loraz eta edergailuz dotore eta aurrez apaindurik ageri da; dana jai-giroan, edertasun gozoan, alde guztietatik poztasuna dariola. Zeru txikitxo bat dirudi Larreako elizatzxo politak. Jai handietako lurruna somatzen da bertan.

Aureliano gazteak, beste hiru lagunekin, altarara hurreratu eta Aita Nagusiaren oinetan belaunikaturik, bere eskuz idatzi eta izenpetutako agiria hartu eta profesako hiru boto edo eskeintzak ahoskatzen ditu: *Jaungoikoaren aurrean apalik eta Karmengo Amaren begipean samurrik, Karmeldar izanik, Ordenako Nagusien aurrean, Jaungoiko eta Elizaren zerbitzuan menpeko, txiro eta garbi biziko nazela zin dagit.*

Itun hau egin eban gure Aurelianok, hil arteraino leial beteko ebalas eskeiniaz. Honen ondoren, Nagusiak lorazko koroia ipinten deutso buruan, egin dauan eskeintza eta ames guztiak onetsiz eta sarituz.

Koroi hau buruan dauala, Nagusiagandik hasita, banan-banan eta hurrengorik-hurrengora, fraile guztiei besarkada bero-estu bana emongo deutsoe, honako ordu handietan kantatzen dan "*Hara zein gozo eta atsegingarria dan anaiak alkarrekin bizitzea*" latinezko kantu ederra abesten dan artean.

Etxekoekin aurkitzean, barriz, besarkada barriak eta estua-goak, samurragoak. Pozak eragindako negar zotinak ere bai. Gero, mahai baten inguruan, otordu gozoan amaituko da jaia. Egun handi hau ere hor gelditu da betiko bizirik Aureliano gaztearen bihotzean.

Ze asmotan egiten dau lekaideak zin-egintza hirukotx hau? Zein da botogintza honen esangura?

Askok ez dabe onartzen norbere buruaren ezeztapen hau. Alperrikako apaindura bat dala uste dabe. Edota giza nortasu-

nari egiten jakon mozketa barregarria. Giza duintasunaren zapalketa bat.

Baina, ezin geinke esan gauza dohakabea, hutsa edo leloa danik. Hori baino goragotik doa haren marra; esangura sako-nagoa dauka.

Gitxiren tontorra da lekaidetza. Ez da heltzen edonor mendigain horretara. Gailur arriskutsuak ditu, euki ere, trebe ez diranentzat. Hortik, gitxik igoten dabe goraino.

Bestetara da, hain zuzen ere. Botogintza hori Jaunaren legean lehenengo mailan dator: *Zeure Jaungoikoa gogo, bihotz eta indar guztiz maiteko dozu*” Holan dino gure lege nagusiak. Honen ondorio bat besterik ez da lekaidetza. Gogoz behintzat horren bila doa lekaidea. Tontor hori amesten dau. Gailur hori dau maite bere bihotz eta indar guztiz.

Hona ni hemen, Jauna, zure mahastiko langilea nozu; bialdu nagizu. Zure nahi santua dot janari; Zeu nire Jaun eta Jabe.

Hizketa hau darabil Jaungoikoarekin profesa egiten dauan gazteak. Oso-osorik Jaunarena izatea nahi dau menpetasun-bidea eginez. Jaunaren otseintzara egon beti.

Askok uste dabe nagusien esanpera gelditze honek gizakia- ren nortasuna eratsi, moztu, gitxitu egiten dauala. Txingote bihurtzen gaituala. Hau dala-eta, onartezina dala dinoe honako ezer.

Ez dau inondik ere holako esangurarik. Jaungoiko eta giza-kiaren otseintzara beharturik egoteko eta egotearren egiten da menpetasun eskeintza hori. Lur horretan ditu bere sustraiak. Ez deutso inori saltzen esanekotasun hori Jaungoikoari izan ezik. Haren omen eta otseintzan mugaturik dator, hain zuzen ere.

Txirotasuna ere barruti honetan tinkoturik dator. Txiro eta apala izan; txiro eta apal bizi. Ez izan ezeren jabetasunik. Handikeriei uko egin; ez amestu aberastasunik; berezko gose-egarri hori suntsitu; herritarrekin behealdeko mailan ibili; lurreko gauzen orde goikoak bilatu; hara begiratu, hango gauzakin amets egin.

Gertu eta arin egon herritarren zerbitzurako. Herritarren eskutik egin bide hori. Kristo pobrearekin bat izan. Hemendik doa pobretasunaren jomuga. Lekaideak egiten dauan hirugarren eskeintzariak, garbitasunak ere, esparru bardin antzekoa dau. Norbaitek uste izan leike lekaidea ez dala gauza maitasunik izateko. Gizon edo emakume heldu bakoa dala. Bizitzari aurrea emoteko bildurtia; kikila munduko arazoetara sartzeko...

Alde hemendik honako asmakizunak! Altarara doan gazte hori guztiz normala da. Edozeinek besteko neurria dau gizatasunean; edozeinek besteko bularra bizitzari erantzuteko.

Agintzari hori egin badau, Jainkoarren egin dau. Jainko-Herria dau maite. Eta herri horri hobeto zerbitzeko asmotan gelditu da ezkonge. Lotura guztietatik aske ikusi nahi dau bere burua, zerbitzu oso eder eta bikain bat, bizitza bitarte dala, Kristoren Emazte dan Elizari eskeintzeko. Kristoren Eliza dau bere ikuspegian. Harentzat gorde dau bere bizi osoa, maitasuna, ederrikusia, ametsa; bere lan eta indar guztiak.

Jomuga hori jarri deutso bere bizitzari eta itsaso horretan murgildurik bizi da. Ez izan inorena, guztiena izateko. Hortik doa garbitasun-eskeintzaren bizi-odola.

Lekaidetzako zinegintza Jaungoikoaren eta Elizaren zerbitzurako jarria da. Horretan dihardu gizon eta emakume konsagratuak. Zorionekoak anaien alde bizia agortzen daben zerbitzariak!

Baina, lekaidetza zer dan nik baino hobeto Aita Aureliano berak esango deusku.

Indian misiolari zala, 1938ko urtean, Alwayeko Seminarioan nagusi zan Aita Joan Jose Bilbao, Zornotzako seme benegarriak profesako urrezko ezteguak egin zituanean, Aita Aureliano izan zan hizlari elizkizun haretan. Txukun eta gozo esan zituan bere hitzak; jakituriaz eta ontasunez beteriko hitzak.

Bere hitz jarioan, honako edergarriak esan zituan: *Gu Jaungoikoarenak izanez gainera, santutasun handi batera deituak izan*

gara. Ez dagiala uste inork santu izateko gurari hau handikeria barruan sartzen danik. Jaungoikoaren aurrean handiak izan diran guztiak izan dabe, barruko isilean, gurari bizi eta sutsu hau. Gure Ama Teresak ez eutsan Jaungoiko-maitasun honetan inori aurreak hartzen itzi. Zer dala-eta, izan behar dot nik Jaunkolkoarekin beste inor baino eskuestuagoa? -inotsan bere buruari.

Honexek izan dira, behintzat, gure sentimenik bizienak gure bizitzako ordu nausietan, esaterako, komentura edo seminaria sartzean, profesia egitean, edota abadegintza hartzeko orduan.

Egun batzuk geroago, Larreako txoko maitegarriari agur egin beharko deutso, altarara doan bide aldapatsuari hasiera emoteko. Filosofiako ikasketak hasi behar ditu orain.

6

GOI MAILAKO IKASKETAK

Filosofia: Burgos-Gasteizen

Aita Aureliano berak dinoan lez, filosofiako lehenengo urte biak Burgosen egin zituan; filosofiako hirugarrena eta teologiako lehenengoa, barriz, Gasteizen; teologiako beste hirurak Begoñako komentuan.

Burgosera doa, ba, gure Aureliano, bere profesako lagunekin batera. Beti lez, ames-ameslari eta gogotsu doa. Han aurkitzen da baita Markinatik Burgosera filosofia ikastera etorri dan karmeldar gazte talde batekin. Orduetik aurrera ikaskide izango dira guztiak. Taldeko gehiengoa euskalduna izatean, giro on eta bardintsuan egingo ditue ikasketa-urteak.

Burgosko komentu hau ere, toki egokian jaso, eroso eta atsegina da bizitzeko. Hainbat ikasle gazte hartu ditu bere horma barruetan igaro diran ehundaka urteetan. Ikasleen etxea izan da beti. Ospe handiko komentua.

Etetik kanpo ere Burgosko uriak edertasun asko ditu begien atsegingarri diranak. Erdi Aroko harresi ingurua; Kartuxako monastegia; bertako katedrala eta beste edergarri asko eta asko.

Ikasle karmeldarrak tarteka-marteka egiten dituen ibilaldietan toki honeek ikusteko era ona izango dabe. Pozez arakatuko ditue bazter ikusgarriok.

Filosofiako sarrera ez da gehienetan erraza eta samurra izaten ikasleentzat. Buruak oraindik egin barik egoten dira zokondo hain sakonetara sartzeko. Gorpila hartu behar izaten jako jokoari. Hau dala-eta, lehenengo urtea garratz samarra izaten

da gehiengoarentzat. Hortik dator maisuaren garrantzia. Huts honen jakitun egon behar dau irakasleak, bestela jaia gertu dauka ikastorduan.

Gure Aurelianok honetan aukera ona izan eban. Irakasle aparta egokitu jakon, Aita Martzelo, Ordenak orduan eukan onentxoena filosofia arloan. Hots handiko maisua.

Beste erlijioso gorengo bat ere ezagutu eban Burgosen: Aita Angel Maria, gizon jainkotia eta jakituna. Berau izan eban irakasle gure Aurelianok bigarren urtea ikastean. Misio-garra aspalditik kili-kilika sentitzen eban barruan irakasle argi honek. Eta holantxe, 1906ko urtean, gure Aureliano filosofiako bigarren urtea amaitu eta gero Gasteizera etorri zanean, Aita Angel Maria, Burgosko irakaslaritza itzita, Indiarra misiolari joan zan.

Gerora, 1915ean, Verapoly-ko Gongotzain izendatu eben. Han aurkituko dau gure Aurelianok, bere maisu izana, oraingoan bere nagusi eginda, bera ere Indiarra misiolari doanean.

Profesa nagusia: Gasteizen

Anai Aureliano Gasteizen aurkitzen dogu orain. Gasteiz abade-uria da. Hemen dago Euskal Herriko Gotzaindegia, hemen Euskal Herriko Seminario nagusia, hemen hainbeste ikastetxe, frailetxe eta eliza. Uri baketsua eta txeratsua da Gasteiz. Ikasketak egiteko beren beregikoa.

Karmeldarren komentu hau barri-barria dozu. Sei urte baino ez daroaz zutik, 1900ean eginga da-eta. Apala da izatez, baina eroso eta polita bizitzeko. Baratz eder bat dauka eguzki begira, barazkiz aberatsa eta ibilteko bide-sarez betea.

Hemen amaitu eban gure Aurelianok filosofiako hirugarren urtea, Aita Martzelo jakintsua bere irakasle zala. Hemen baita bere profesia nagusia egin.

Hiru urte igaro dira Larrean egindako lehenengo profesatik eta orain profesia nagusia egin behar dau, hau da, hil arterainokoa. Ondo-ondo gertatu da egun handi horretarako, gogo-jardunak eginez. Betiko egiten da profesia nagusi hau; horregaitik

gauzak ondo pentsauta eta astiro egin behar izaten dira norbere etorkizuna dagoelako jokoan.

Baina gure anai Aurelianok ez dau kezkabiderik aurkitzen. Ziur dago bere bokazioan. Eta holantxe, 1906ko abuztuaren 12an, bere profesia barrizatzen dau bera bizi dan arterako.

Profesako egun hori handikiro ospatzen da karmeldarren artean. Profesia txikia eta handia arranditasun bardinez ospatzen dira, esanguran bardinak diralako. Anai arteko jai-algara pozgarrian egiten dira biak.

Fraileekin batera, Gasteizko karmeldarren elizan, lehenengo bankuan, Aureliano anaiaren aita dago seme-adi-adi, alboan Zipriano maisu jauna eta seme-alaba bi dituala.

Zoriontsu aurkitzen da bere aita, Pedro, pozak hartu ezinik, eta bardin Zipriano maisu jauna eta haren seme-alabak. Jai osoa, gogoangarria izan da.

Aureliano anaiak, altara aurrean belaunikaturik, eskuak dardararik bage, abots argi eta biziz esan ditu profesako hitzak. Barriro ere menpetasuna, txirotasuna eta garbitasuna aipatu ditu. Bere burua eta bizitza eskeini deutsoz, bihotz barrenbarrenetik, beti-betiko, zeruko Aitari. Han ez da ageri egindakoaren damurik. Han dana da berezkoa; dana maitez emona; dana bihotz betetik datorren ura. Dana goitarra.

Handik sei hilabetera, aita-amak joakoz bera ikustera. Ordu gozo-hunkigarriak izaten dira holako orduak. Aita-amak semearekin besarkaturik. Kontu kontari, ekin eta ekin solas gozoan; konturatu ordukoxe berandu egiten jake eta honen ondorioz etxerako zaldiburdia galtzen dabe.

Hau zoritxarra! Gasteiztik Zeanuri-ra -35 kilometro- oinez egin ondoren, hemen hartu eben etxerako tranbia.

Teologia: Gasteiz-Begoñan

Teologiako lehenengo urtea Gasteizen egin ostean, 1907ko ekainean, Bilbora aldatu da Aureliano anaia, Karmeloko komentura. Hemen amaituko ditu teologiako beste hiru urteak.



Eliz ikasketak Begoñako Karmelon amaitu zituan

Karmeloko komentu hau gazte-gaztetatik ezagutzen dau. Pozez gogoratzen ditu umetan, aitaren eskutik Karmelo aldera egiten zituan joan-etorriak; Karmengo Amaren oinetan emondako ordu gozoak.

Basauritik hur egotean, Karmelorako bidaia behingo baten egiten da; hortik etxeokak ere ikustaldiak egitera sarriago eta maizago etorriko jakoz. Eskurago daukeez ikustaldiok.

Batez ere, larunbat arratsalde eta hirugarren igandeetan igongo dabe etxeokak Aureliano fraile eginik ikustera. Egun horreek aparteko deia eukeen Karmelora igoteko.

Larunbat arratsaldez, "agurtza" deuna esandakoan, etxeok karmeldar guztiak, kapa zuria soinean eta kandela biztua eskuan, eliz erdi-erdian, banakako erreskadan jarrita, kristauez inguraturik, Karmengo Erreginari latinez "salbea" abesten eu-

tsoen. Kantu zoragarria da izan ere. Begi asko malkoz beterik ikusten ziran une hunkigarri horretan.

Zelan gelditu Karmelora igon bagarik etxeok semea edo anaia ikusteko era ezin hobea izanik? Zelan galdu ordu hori?

Hirugarren igandeetan bardin. Arratsaldez, Karmego Erreginaren omenez elizkizun txukun eta berezia egiten zan, prozesino eta guzti. Errosario eta hitzaldiaren ostean, fraile guztiak eliz erdira jasten ziran, larunbateko erara. Elizkizun gozoa, samurra, bihozkorra hau ere. Han ikusiko zenduzan anai Aurelianoen etxeokoen batzuk elizkizunean parte hartzen. Holan asetzen eben Aureliano frailetxoa ikusteko ikusmina.

Egunak eta urteak aurrera doaz. Altarea begien bistan dauko; eskuakin ikutzeko eran. Subdiakonadutza eta diakonadutza hartu ditu. Abadegintza bakarrik falta jako.

Teologiako laugarren urtea 1910eko ekainaren 26an amaitu dau, sekulako notakin. Buru argiko gaztea da eta erraz erotan ditu ikasketak. Berehalaxe bere ikaslagunak abadegintza hartzen dabe eta meza barria esan.

Baina gure Aureliano gazteegia da oraindik abadegintza hartzeko. 23 urte baino ez ditu eta 24 behar ordena hori hartzeko. Beraz, itxaron egin beharko dau abadegintza hartzeko.

Baina, egun hori ere helduko da hainbaten. Iruñean, teologiako bosgarren urtean, 1910eko abenduaren 10ean, Iruñeko katedralean, Xabierko Frantzisko santuak daukan kaperan hartu eban abadegintzako ordena, Iruñeko Gotzain jaunaren eskutik. Gotzain jaunaren izena ere ezagutzen dogu: Jose Lopez Mendoza jauna.

Orditik aurrera, abade agurgarria dogu gure Aita Aureliano. Deitura honekin ezagutuko dogu aurrerantzean.

Une horretan hasita, eukaristiaren egile, maitale, gurtzaile eta oihulari izango da. Herritik aukeratua izan da; goitiko doetak ditu herriaren onerako. Jainko-indarrez beterik dator, beste Kristo bat eginik. Ez da berea, inorena baino; ez da gurasoena, ez adiskideena, ez herritarrena, gizaki guztiena da. Bere asmo,

gurari, burutapen eta sentimenak eurak ere ez ditu bereak, Kristorenak baino. Horregaitik da beste kristo bat.

Abadegintzako goiz-sentian, Kristoren ahotsa entzun dau: *Onezkerok ez deusut zuri morroi esango, zuri adiskide esango deusut, nire Aitari entzun deusadan guztia jakinerazo deusut-eta. Ez nozu zuk aukeratu; neuk eukeratu zaitut zu, eta joan zaitzezan eta frutua emon dagizun aukeratu zaitut* (Jn.8,15).

Aita Aureliano apaiz gazteak, bere-bereak egin ditu Jesusen hitzok abade baten handitasuna Jesusen antzeko izatetik datorrela guztiz sinistuta dagoalako. Au dala-eta, lehenengo egunetik adi-adi egon da Jesusen deiari: *Nigaz etorri nahi dagianak, bere burua ukatu eta bere gurutzea hartu dagiala, eta jarraitu daidala* (Mt. 16,14).

Eta gurutze-bide hori egiteko, ibilgailu lez, berak profesu egunean egindako hiru eskeintzariak zintzo eta leial zaintzea erabagi dau. Eskeintzari horreek zehatz zaintzea lortzen badau, Kristoren gurutze hori uneoro bere lepoan egongo da.

Santutasun-bide bihurtu zituan bere profesako hiru eskeintzariak. Asmo eder honek ikurrin eginik estreinatu dau bere abadegintza.

Apaizgintza Iruñean. Bizitza barria

Abade egitean bide barri bat zabaldu deutso Aita Aureliano bere bizitzari. Lehengotik gaurkora, beste norbait izango da: gizaki guztien zerbitzuan erreko dan opari bizia!

Bide zail hau egin eban gure abade gazteak. Entzun daigun berak dinoana, 1960ko urtean, abadetzako Urrezko Ezteguak Indian egin zituanean: *Aurtengo urtean beteten dira berrogeita hamar urte ni abade egin nintzanetik: 1910eko abenduaren 17an egin nintzan. Gauza handitzat daukat, hainbeste urtetan, meza esan ahal izate hau; egun gitxitan itzi dot esan barik, egunik gehienetan esan ahal izan dot-eta.*

Abade egin eta hurrengo egunean abestu eban bere meza barria. Iruñeko Karmeldarren elizan, Karmengo Erreginaren

irudi aurrean. Han zan bere maisu zaharra, Zipriano Viguera jauna, begiak negarrez beterik. Han baita bere aita, Pedro Landeta jauna, kolkoan eroian urduritasun hunkigarriari eutsi ezinik.

Ama eta etxeokak Basaurin gelditu ziran. Baeben euren Aureliano altaran meza esaten ikusteko gurari bizia, baina ez eben beteta ikusi gurari hori hurrengo irailararte. 1911ko irailean, Aita Aureliano etxerantz osterata egin eban, orduantxe ikusi eben San Migelgo antxinako meza-mutila, gaur abade eginik, bere sendi eta adiskideen aurrean meza santua esaten. Bere parrokiaren esaten eban bere lehenengo meza zan. Etxekoak, zetan esanik ere ez, pozaren pozez bete ezinik.

Hemen dogu gure Basauriko seme jatorra, Aita Aureliano, ikasketak amaituta, abade eginik, bere bizimodu barria hasteko gerturik. Goiburua hau jarri deutso bere bizitzari: "Abade, beti abade, abade bakar-bakarrik!"

Bere nagusi eta ikaslagunen artean izen eta entzute ona itzi ditu, ederrikusi zabala egon dan komentu guztietan. Karmeldar izatea benetan hartu dauan erlijioso lez ikusi dabe beti bere ingurukoak. Ez da egon esateko moduko labanik, hutsik, bere jokabidean. Aparteko gauzarik egin barik, baina, Karmeloko bizibidea ondo eta jator beteten dakian gaztea izan da.

Bera ezagutu ebenen ahotan, "*erlijioso bene-benetakoa, jainkozalea, bihotz-zabala, edonori laguntzeko beti gertu egoana*".

Beste denboralditxo bat Iruñean, irakasle lez, eta bertatik Indiara misiolari joateko gertakizunak egiten hasiko da.

INDIARA BEGIRA

Misiolari izango naz eta, neure aldetik, hil arteraino izan ere, Aita Aurelianok, Villafrancan, frailegai zala eginiko agintzaria.

Buru-eskeintza hori beteteko garaia heldu jako. Jesus bera lez abade da, beste Kristo bat. Sakramentuen bidez Kristoren ordeak egingo ditu mundutarren artean. Gizartearen begietan Kristo berbera izango da.

-Ama, egizu ni Jesus izan naitela -eskatzen deutso barrenbarrenetik Andra Mariari.

Jesusen agindua ere isildu barik daroa, durunduka eta minenez, belarriko hotsean: *Zoaze mundu zabalean zehar, eta gizaki guztiei Barri Ona iragarri egiezue... Aitak bialdu ninduan lez, bialtzen zaituet neuk ere.*

Jesusen dei honek Indiarra begira jarri dau. Han ikusi dau berak maite dauan misio lurra. Abadetza hartuaz batera, gaztetako misio-zaletasun hori loratu eta berbiztu egin jako.

Izan ere barri onak datorkioz India aldetik bere asmobideak bideratu ahal izateko. Gertaera garrantzi handiko bat jazo da bertan.

Erromako Eliz Agintarien aginduz, Malabar aldean dagoan Puthempally-ko Seminario nagusia Karmeldar euskaldunen esku eta ardurapean jarria izan da.

Aurrerantzean, misiolari euskaldunen lantegi berezia izango da seminario ospetsu hori. Elizak Indian daukan seminario handienetarikoa da. Bestalde, abadegai ugari emoten ditu lurralde horrek. Hortik, seminario honek daukan garrantzia.

Beraz, baikortasunez onartua izan da erakunde hori karmeldar euskaldunen aldetik. Goiko mailan egoan arren, orain

goragotu egin nahi dabe. Gaurkotu, gaztetu. Odol barria sartu bikaintasunera jaso arte.

Seminarioko zuzendaria euskalduna da: Aita Joan Jose Bilbao, zornotzarra, gizon argi, jakitun eta berebizikoa goi-ardura hori eroateko.

Honek gizon gazteak nahi ditu bere laguntzaile eta Seminarioko zutoin izateko, hau da, irakasle eta hezitzaile gazte eta prestakuntza handikoak, Seminarioaren izena eta lana goi-goian zaintzeko.

Eta aukeraketa hori egiteko Iruñera begiratu dabe Probin-tziako Nagusiak. Han dago frailetxe bat fraile gaztez beterik. Batzuk meza emon barriak dira, besteak altaratik hur dagoz-nak.

Misio-opakizuna egin baizen laster, etorkizun handiko hiru gazte aurreratu ziran misioetara joateko gerturik: Aita Aureliano, zetan esanik ere ez, aspalditik une pozgarri horren zain ego-ana; Aita Heliodoro, abade egin barria; eta hirugarrena, etorki-zuneko ikasle aurreratu bat, Abadinoko semea, Zakarias Salte-rain anaia, ikasketak amaitzeko unean egoana.

Hirukote honek Indiako seminario horretan itziko ditu bere bizi, odol, arnasa eta hazurrak, hau da, euren bizitza osoa seminarioan agortuko dabe, bertan iraunaz hil arteraino. Ez da gitxi.

Nagusien eritxiari jarraituz, Indiara joan aurretik, haren ikusmuga eta esperientziak osotzeko, denboraldi luzetxo bat Erroman egitea ona izango zala-eta, hara bialduko ditue hiru gazteak. Hirukotea, barriz, pozik Erroma ezagutu eta, batez ere, horretara hango eliz unibersitateak ikusi eta zapaltzeko erea izango dabelako.

Eurak ere seminario batera doaz bertako irakasle eta hezi-tzaile izateko. Horregaitik, zenbat eta ezaguera eta esperientzia handiagoak eroan sail horretan, eurentzat mesedegarriago izan-go da. Seminario edo unibertsitate handi baten barnetasuna, jokabide eta ingurumariak ezagutzea onuragarria izaten da horretan buru eta bihotz sartuta dabilzantzat.



1912an, Indiara joan baino lehenago

Erromako bidea hartu baino lehen, etxekoei eta adiskideei agur egin beharko jake. Agur hau, beti ere, negar eta zizpuru artean izaten da, luzeroko agurra izaten dalako.

1912ko martxoa da Aita Aureliano bere etxekoei eta adiski-deei agur egitera doana. Egun gitxi etxekoekin egoteko. Beraz, arin ibili behar. Azaleko ikustalditxo bat egiten deutse bere senide urkoenei, astia laburra da-eta.

Gero, Begoñako komentua eta Larreakoa ere itxaroten daukoz, bertan hain izen ona itzi eban misiolari gaztearen agurra hartzeko. Azkenengoz ikusiko ditu une horretan komentu horreek Aita Aurelianok, barrero ez da, ba, inoiz bertara itzuli-ko. Beraz, betiko agurra izango da. Bardin jazoko da etxekoekin ere.

Azkenez, etxekoen agurra. Ez dira errazak izaten ordu horreek. India urrun dago; agurra luzarorako da; hemen, betikoa.

Bihotza sentimentu biren erdian estu eta larri mugitzen da holako orduan. Dana borborrean dator: poza, atsegina, negarra, samina. Barruan alderik aldeko urrutua zabaltzen da eta bihotza odoletan jarri. Sentimenturik bizienak datorkizuz aurrera. Pozarekin nahastean, samina, nahigabea, biak ezinean.

Dana dala, mahai-inguruan jarri dira danak aparti gozoan. Samina ate ostean itzi eta bihotzari bultzadatxo bat emonez, alaitasun-haizetxoa sartu da tartera. Bizkortu dira gogoak. Orain hitz-jarioa dabil ahotik ahora. Biztu da alkarrizketa bizia. Holantxe suaren inguruan, berba eta berba goizaldeko ordu biak arte. Gero, loalditxo labur bat eta goizeko bostetan elizara semearen azken meza entzutera. Meza esan ostean, arin-aringa, geltokira. Trena dator. Azken musu eta laztanak emon alkarri, eta trenera.

Horrelantxe agurtu ditu betiko Aita Aureliano bere etxe-koak, bere herri eta ingurumariak. Bihotzeko argazkian gorde-rik eroango ditu beti, baina ez ditu begiz barriro ikusiko.

Durangoko geltokian, Zakarias Salterain anaiarekin topo egingo dau. Hau ere, Abadiñon egon da bere senditarrei agur egiten, Indiara joan aurretik. Iruñera doaz biak agurraren gazi-gozoa barruan dabela. Euskal Herriari agur eginez doaz biak, ez dabe barriro ikusiko-eta. Hemen ikusten da misiolari baten handitasuna. Dan-dana itzi Kristori jarraitzearen!

Iruñean ere agurrak eta agurrak. Ikustalditxo bat gogorazten dau bizikiro Aita Aureliano: Martxoaren 28an, hiru misiolari gazteak, iluntzean, bertako moja karmeldarrei egindako ikustaldia.

Moja hareekin oso loturik dago Aita Aureliano. Euren kapilau edo eguneroko meza-emoilea izan dabe meza barria esan ebanetik.

Gaur, agur egiteaz gainera, mojatxoei euren otoitzak eskatzera joan dira misiolaritzako lan eta nekeak Jaunaren bideeta-

tik eroan ahal izateko. Bedeinkapen handi bat mojak belauniko dirala, eta "Jaunak nahi dauan arte" esanaz agurtu dira alkar.

Geroago, Aita Aurelianoen lehengusina bat, Joakina izeneko, moja karmeldar egin zan komentur honetan bertan. Odolaren deira, sarritan idatziko deutsoe alkarri.

Hurrengo egunean, Donostiara eta handik Irungo mugara. Hemen Basauritik etorritako etxeko batzuekin barriro topo egiten dau; hemen dagoz baita bere meza barriko aita-amabitiak. Honeek sermoi liburu bat ekarri deutsoe oparizat.

Erromara

Erromarako trena Lourdestik zehar doa. Lourdes ikusgarria da Andra Mariaren seme batentzat. Bertan jatsi, Lourdes aldea ikuskatu, Ama Garbiaren oinetan otoitzaldi luze bat egin eta barriro trenera doa hirukotea. Eguazten Santu goizean sartuko dira Erromara.

Han egoan eurei itxaroten, ondo etorria emoteko gertu, Aita Ezekiel Bilbao, Karmeldarren Ordenako Jeneralak, euskalduna, Zornotzako seme argi eta agurgarria, Puthempally-Seminarioko zuzendaria zan Aita Joan Jose Bilbao beneragarriaren anaia, biak karmeldar erraldoiak.

Txeratsu hartu eta bihotzez laztandu ditu hiru gazteak; ondoren, esku-zorroak hartuta, berarekin bere egoitzara eroango ditu Aita Jeneralak. Honen etxean bertan gelditu ziran ostatu.

Garai haretan, Ordenako Idazkari Nagusia ere euskalduna zan, Aita Balendin Zubizarreta, Markina-Etxebarriko seme jakituna, teologia sailean liburu eder asko idatzia, eta gerora, Santiago de Cubako Gongotzain argia izango zana.

Honen ardurapean itzi zituan Aita Jeneralak hiru gazteak. Bere semeak lez zituan Aita Jeneralak; bardin Aita Balendinek ere.

Gazte honeen goi-beheak ikusitakoan, bertatik konturatu ziran Ordenako Agintari biak gazte horreek Indiako seminarioan, erakunde horren bihotz eta zimintarri izango ziralas-

ter batean. Urregorritzko meategia eroela barruan. Indiako zeru goian hiru izar argi izango zirala. Jaungoikoak Indiari bialduta-ko hiru aingeru. Horregaitik, arreta eta ederrikus handiz zaindu zituen.

Jeneralaren etxean anaia apal bat ebulan isil eta behargin danen zerbitzuan. Anaia hau Aita Aurelianoren ezaguna zan. Hain zuzen ere, anaia honek zabaldu eutsan etxeko atea Aita Aurelianori hau Larreara sartu zanean nobiziadua egiteko. Jose Agustin anaia zan berau. Ez eutsan, ba, besarkada txikia emon Aita Aurelianok alkarrekin aurkitzean.

Fraile ona, zintzoa, jainkotia, langile fina zan Jose Agustin anaia.

Gazteoi gauza guztietan maitekiro laguntzeko agindua emon eutsan Aita Jeneralak eta bai ondo bete ere agindu hori anai Jose Agustinek. Euren zerbitzuan egoteaz gainera, beronek eroaten zituan Erromako harrigarriak ikustera.

Aita Aurelianok berak goraltzen dau, eskutitz baten, anai zerbitzari honen lan goragarri eta bikaina: *Jaietan eta eskola bako egunetan, uri bazterrak ikustera eroaten ginduzan. Erroma eta inguruetak harrigarriak handienak ikustera joaten ginan bera gidari eta "cicerone" zala. Ez zan edozelako gidaria, ondo ikasia baino.*

Arte-Monumentu edo museoren bat ikustea zanean, aurretik turismoko liburuetan goitik behera ikasiko zituan ikusgarri horreen zertzelada eta jakingarri guztiak, gero guri artez emoteko.

Erroma barruan ikusten diran harrigarritasun guztiak erakutsi euskuzan; herritik albora dagozan asko eta asko ere bai, esaterako, Castelgandolfo, Frascati, Montecompatri, Tivoli, Villa Adriana, Erromako Ubidea eta abar.

Goratarre politok Aita Aurelianok bere gogoz eta eskuz idatzi zituan, 1962an, Jose Agustin anaia santu usainez hil zanean.

Erromako egotaldi horrek beste asmo berezi bat ere baeukan: Erromako Eliz Unibertsitateetan "ikusle eta entzule" izan.

Unibertsitatea barruz ezagutu; haren jardunbide eta funtzionamentuarekin jabetu; haren nondik-norako guztiak ikasi; gurpila hartu; trebetasuna lortu martxabide horretan. Eskolak zelan emoten diran adi egon.

Ziur dakiguna hauxe da: "Angelicum" Unibertsitatean entzule izan zirala hirurak.

Pio X.a Aita Santua

Orduko egunetan, Erromak eukan beste erakargarritasun bat Pio X.a Aita Santua zan.

Aita Aurelianok abegitasun biguna eutsan Aita Santu honi. Beneragarritasunez betea. Haren izaera eta santutasunak liluratuturik eukan gure gaztea.

Eukaristiaren Aita Santua deitzen jako beroni, batez ere, lege bikain baten bidez, gure Jauna sarritan hartzea baimendu eutsalako Jainko-Herriari.

Aita Aureliano, gerora ikusiko dogun lez, eukaristiaren maitale eta gurtzaile ezinbestekoa zan. Honetan biak bikiak ziran. Bere gurari isilekoa Aita Santua hurretik ikustea zan eta baten baino gehiagotan lortu eban zorion hori.

Beste zertzelada bat ere iragarten deusku gure misiolariak: abade egin zan egunean, Iruñeko fraileak erregalatu eutsoen Santokristoa, ezkerreko bular gainean ibiltekoa, Indiarra joan aurean, bere etxera bialdu ebala Aita Santuak bedeinkatutakoan.

1914an, Aita Santuaren heriotza jakitean, guztiz bihotz atsekabeturik agertzen da. Pio X.a "santua" zala sinistuta egoan.

Holantxe idazten dau berak: *Hemen dabiltz gure seminaristok urduritasunak jota lez Aita Santuaren heriotza jakin dabeneetik. Doluminez dago seminarioa. Ezinbesteko samina ekarri deusku heriotza honek. Ikasgelak itxita dagoz; kapira bakarrik zabalik.*

Seminaristak, barriz, eten bako sartu-urtenean dabiltz, otoi-ketan, hiletak abesten, gurutz-bideak egiten, mezak entzuten,

maitabera eta txeratsua izan dan Aita Santuaren omenez. Nik neuk, behintzat, aspalditik santutzat daukat.

Holan idatzi eutsan bere lengusu Andres Villanueva jaunari, Punthempallytik, 1914ko abuztuaren 23an. Aita Santuaren miresle sutsua zan.

Erromako egunak amaitzeko unean dagoz. Han urrunean, India deika dago. Hara abiatu beharra dabe gure gazteok.

Zakarias Salterain anaiak ere abadegintza hartu dau Erroman bertan, uztailearen 14an. Joan-etorri arin bat Abadiano bere herrira etxeko eta herritarrekin batera meza barria emoteko, eta atzera bizkor Erromara, astia irabazteko.


Norbere apurrak batzen eta etxeko eta adiskideei agur-kartak idazten emongo ditue Erromako azken egunak.

Irailaren lehenengoetan, etxera idazten dau Santokristoarekin batera bere agur mina bialduz. Beste kartatxo bat bere osaba dan Joan Villanueva jaunari, isileko iragarpen honekin: *Urte batzuetarako Puthempallyko seminariora noa; hil honen 18an urtengo dot Napolitik. Bederatzi karmeldar gara Indiara goazetok. Ni "neure gogoa dalako" bakar-bakarrik noa. Agur.*

Autormen honek gar handia dau: *Ni neure gogoa dalako bakar-bakarrik noa.* Hitz hau azpimarratu behar dogu hemen.

Izan ere, 1912ko irailaren 18an, Napoles-en, Indiara bidean jarri ziran. Oraintxe bete dau Aita Aurelianok, Villafrancan eginiko agintzaria: *Misiolari izango naz hil arteraino.*

INDIAN (1912-1963)



INDIAKO ATEAN

Hamazortzi egun itsas gainean egin ostean, urriaren bostean, Indiako atea dan Bombay-ra heltzen dira.

Ametsak egia bihurtu dira gaur. Han daukee begi aurrean India maitea. Bihotzak zirraraz dagoz, bila ibili diran altxorra aurkitu dabe-eta.

Maitez urrunean ikusitako lur arrotza zapaldu dabe. Burua une hunkigarri hori irunsi ezinik dago. Mila burutapen, sentimen, asmo eta burubide, bat-batean, zurrunbiloka eta itsuan, olatuen antzera, buru-bihotzetan zehar sartu jakez. Eder eta zoragarri agertu jake bihotzeko maiteñoa.

Euren mahastia zabala da, hesi bakoa, eguzkitik eguzkira ekin arren, lana beti amaitu ezinean gelditzen dan mahastia. Horregaitik, hil arteraino mahasti horren arduran egotea erabagi dabe. Mundu barri bat daukee aurrean. Dana da barria, harrigarria, hunkigarria, ulergatxa. Han dabilta suge-liluratzailleak soinuari txispak atera nahian, txanpon batzuen orde; aztiak euren aztikerietan; eskekoak, turistak; hippiek drogapean loti; alperkerian galdutakoak; ezbeharraldiak heriotzara eroanak, hau da, mundu guztiz desbardin bat. Hizkuntzaz, kulturaz, ohituraz eta bizikeraz kontraste handiko gizarte bat.

1947ko abuztuaren 15ean, Ingelesen menpetik ihes egin eta bere askatasuna lortu ebanean, Indiako mapan datu honek agertzen ziran:

420 milioi biztanle ditu Indiak, honela banatuta:
285 milioi hindutar

121 milioi mahomatar
8 milioi kristau
6 milioi sij.

Hindutarrak 3.000 enda eta leinutan bananduta dagoz. 15 hizkuntza eta 845 dialekto egiten dira bertan; 557.978 herrialde ditu; eskolatu bakoak 85%.

Erabat harrigarria eta ulergatxa herrialde hau. Gaur, hainbeste urteren buruan, datu honeek labur geratu dirala esan behar.

9

ERNAKULAM

Indiako lehenengo taupadak oraindik hausnarrean zituela, bide luze bat egin ondoren, Ernakulamgo karmeletxera heldu ziran gure hiru gazteok.

Karmeletxe hau barria zan. Hamar urte lehenago, A. Joan Bizente dohatsuak, misiolarien atsedeen-toki lez, eta misiolari barrientzat "malayalam" bertako hizkuntza ikasi eta misio saioak egiteko eskola lez jasoriko komentua.

Ziur nago Ernakulamgo komentura heldutakoan, lehenengo agurra eta ikustaldia altarako Jaunari egitera sartu zanean, altara aurrean belaunikaturik, aho isilez, baina bihotzetik bihotzera hitz eginez, honako zerbait esango eutsala gure A. Aurelianok:

Hemen nator ni, Jauna; Zure langile naz; Zeuk deitu nozu; bialdu nagizu; erne nago lanerako; zaindu ni, Jauna, zeure bihotz maitean; bedeinkatu nire lanak; emon niri indarra eta kemena India maite hau zeurea egiteko.

Gogo dardaraz eta begiak pozez negarretan ilundurik esango eutsazan Jesusi, maitez beterik, agur-hitzok.

Zertan esanik ere ez, etxean jai handia egin zala. Lehengo eta orain etorritako misiolariak alkar aurkitzean betiko agurrak, besarkadak eta ondo etorriak. Anaitasuna eta poza gainezka. Hemengo eta hango barri asko alkarri esateko.

Hilabete eta erdi egon ziran Ernakulam-en.

Zelako misiolaritza?

Herriz herrizko misiolaritza egiteko asmotan egongo zan Aita Aureliano misiolari izateko erabagia hartu ebanean Villafrancan.

Malabarko lurralde eta bazterrak arakatu Kristoren irudi ona emonez eta Haren Barriona iragarritz.

“Zorionekoak bakea eta zoriona ereiten diharduen oinak”. Noiz mendietatik zehar, noiz ibaiganetatik batelean, noiz herriz herri, eskolarik eskola, izerdiz eta nekez, ageriko misolaritza egiteko gerturik egoan bera. Hortik joian A. Aurelianoren asmobidea. Pozik bereganatuko eban misolaritza hori.

Baina “gizona dabil eta Jaungoikoak darabil” dino gure esakune zaharrak.

Herri misiolari izate hori ez zan Nagusien asmoetan sartzen. Etorri handiko gaztea zan A. Aureliano, zuhurra, argia, buruz ondo jantzia, gazteen hezitzaile eta moldatzaile izateko ezinbestean doetua.

Han egoan baita Punthempally-ko Seminarioa, Aita Santuaren babespekoa, gaur Always-ko San Jose Seminario handia dana. Erromako Eliz Agintariek Karmeldarren esku itzi barri dago. Zama astuna da Karmengo Ordenarentzat; honen jakinean hartu dabe konpromiso hori. Baina buru argi eta esku azkarrak behar ziran goitiko eginkizun hori onez eta bikain aurrera aterateko.

Eta gizon horreen artean ikusi eben Ordenako Nagusiak Aita Aureliano. Etorkizun handiko gizontzat egoan Nagusien begitan. Oniritzi eta bedeinkapen guztiak bere alde zituan. Seminario barruan egokitzen zan bere nortasunaren ingurua, lanpostua. Eta honen arabera, Puthempallyko Seminarioara bialdu eben. Oso-osoan asmatu eben, asmatu ere, Nagusiek Seminarioko zutoin, gidari eta izar argi izateko gizona zana eta.

Eta, jakina, Aita Aurelianok izendapen hori ezetzik gabe, atxakia bagarik, oso-osoan hartu eban, zeru goitiko agindu agiri bat balitz legez: *Hantxe gura nabe, hantxe dago, beraz, Jaunen borondate santua; haraxe noa ni.*

Gizon egokiagorik ezin bialdu Seminarioa. Harrigarriak egingo ditu bertan gure A. Aurelianok. Lehenengo eta behin, 51 urtez bertan biziko da, bere zereginetatik ezertarako urrun-

du barik, bere lanetan bihotz eta arima osoa jarriaz. Bere jaioterrira osteratxo labur bat egiteko ere ez eban astirik hartu.

Nahiz kargu hau naiz bestea zala berea, aita ona lez beti bere abadegaien ondoan, nahiz gorputzeko nahiz arimako beharizanetan beti hareen zerbitzu betean aurkituko dogu. Horretan ez dau sekula hutsik txikienik ere egingo. Egunetik egunera, goizetik gauera, beti seminaristen ondoan, hareen onaren arduratan. Amak seme-alabak zaintzen dituan maitasunez zainduko ditu bere kutuntxoak.

Seminarioko altaran, abadegaien zerbitzuan, opari lez, erre zan Aita Aurelianoren bizitza. 1500tik gora izan ziran bere babespean abade eginda altarara igon eben bertako semeak. Honeek santutzat daukee euren aita ona eta gidari trebea izan zana. Zorionekoa holako gidaria dauan seminarioa.

INDIAKO KULTUR INGURUNEA

Ikuspegi txiki bat zabaldu nahi geunke hemen, bertatik Indiako herriari begirada bat jaurtiz, bere izaera, barrunbe, tau-pada eta abar neurri baten ezagutzeko asmotan. Aita Aurelianoren egunetan India hori zelakoa zan eta zelan egoan ikusi, batez ere, bertan zurrunbiloka dabiltzan erlijiojera nagusienak aitatu. Oso interesgarria izango jaku hurrengo orrietan jasoten ditugun datu batzuk jakitea.

Herri bakotzak bere izaera, bere aurpegia, zelakotasuna, ikuspegiak, tankerak, ohiturak, jolaskerak, kultur ageriak, historia, erlijiotasuna, tradizio eta barnetasuna, hau da, herriak bere-bereak dituan ondareak izaten ditu. Eta gu bertan bizitzean ingurune guzti hoi geurea egiten dogu.

Esaterako, garai haretan Indiak bere baitan eukan auzirik urtenena bere askatasunaren inguruan eukana zan. Herria ingeles menpean egoan antzinatik. Giro nahasia txastatzen zan horren erruz herritarren artean. Askatasuna eskatzen eban herriak indar biziz. Bere burujabetza; etsaiaren mendekua.

Hain herri handia izanik, bere oinarritzko izaeran ere hizkuntza eta enda asko dituan herria dogu. Horrek hainbatean baldintzatuko ditu bertako bizimodua eta ibilbidea.

Erljio aldetik ere oso nahastua, korapilatsua. Hiru erlijiojera nagusi ditu, beste txiki batzuen ondoan. Hindutarrak dira ugariak; gero, mahomatarrak datoz hurretik, budatarrakin batera, eta azkenik kristauak. Euren barri labur, azalekoa jasoten dogu hemen, jakingarri lez, Aurelianoren bizitzako ingurunea gogora ekartzeko, gizakiok inguruneak moldatuak eta baldintzatuak izaten gara-eta.

Gizarteari dagokion ikuspegiz begiratuta, ostera, herrikideak kastetan zatiturik ageri jakuz. Handiki aberatsak batetik, eta pobre errukarriak, bestetik. Goi-behe eta alde handiak dituan herria dogu. Horrek ere eragin handia izango dau bertan bizi diranen bizimoduan.

Komunismo barriari ere belarriak ikusten jakozan, hainbat arlotan oso atseratuta egoan herri horretan. Pil-pilean egoan herrialdea zan, bada. Ertz zabalak eta barrunera sakonak ditu apostolutza ona egiteko. Halan da bere herri oso interesgarria bere koloretasun eta handitasunean.

Aita Aurelianok ezinbestean maite izan eban India. Bere bizitza osoa herri horren ona, aurrerakuntza, jasokuntza lortzeko, India bere gatxetatik askatzeko etenbako ekintza bat izan zan. Indiaren alde erre eban bizitza osoa.

Kristoren apostoluak bere egitekoa ondo betetea nahi izatekotan, bera bialdua izango dan herriaren bihotzondo hori barru-barrutik ezagutu behar dau. Zenbat eta hurragotik ezagutu bihotzondo hori hainbat eta frutu hobeak aterako ditu bere lanetik. Zenbat eta urrunagotik ezagutu eta hainbat arrotzago izango da herriarentzat.

Arrotz joan, eta etxeko seme egiten da misiolaria. Horretarako, barriz, bere ahaleginak jarri behar ditu jokoan. Herriaren bizitzaren sakonean buru-belarri sartu; gizaldiak zehar izan dauan nondik norakoa, azpi-sustraiak, izandako gorabeherak, bere ibilbide eta taupadak asmatu, aurkitu eta jakinean eroan behar ditu. Herriaren ezaguera borobila lortu. Hauxe da abade eta misiolari baten esparru berezia. Herriaren bihotz barrura sartu eta bertako barrunbeak ezagutu, gero, harritzar artetik fede-ontzia zuzen gidatzeko.

Honen hurrengo, Paulo Apostoluak fedean bere seme jatorra eban Timoteori dirautsona etorriko da: *Iragarri egizu Barri Ona, ekin sasoi onez eta txarrez, adierazo, eskatu, hartu gogor, eta irakatsi eroapenik handienaz. Zu, barriz, zagoz danetan zuhur, eroan ondo lanak, egizu ebanjelari-egintza, bete zure egitekoa (2 Tim.4,2).*

Honexek dira apostolu baten doeak. Soinean doezko jantzi hau eroan behar dau, eta janzkera honek, beti ere, hezkuntza bat, gertakuntza eta jakintza berezi bat eskatzen dau.

Hezkuntza hori emon behar jako biharko egunean herriaren artzain izango dan abadegaiari. Egiteko hori zan Aita Aurelianok beteten ebana bere seminaristekin. Ez zan berez lan erraza eta, oraindik askoz gatxagoa Indiako kultura mota guztien aurrean jarterakoan. Indiak dauan kultur ingurunea lurraldea bera besteko zabala da.

Kultura nahasia da indiar hori, benetan ulergatxa, era askotakoa. Mendate batek baino gailur gehiago ditu; itsas hondarrak besteko sakonerak.

Herri horren artzain izango diran gazteak Aita Aurelianoren esku dagoz. Berau dabe moldatzaile. Maisu ona da, iaioa, tre-bea; bere aldetik, behintzat, ez da lana erdi eginean geldituko. Amaiera ona emoten dakian burua da. Bere egitekoari oso-osotan eta bizi-bizi emonda jarduten dauan gizona.

Bere gazteak eskutik hartu eta, bere begipean, Indiara begira jarten ditu. India koloretsu horri pultsua hartu, eta erradiografia bat atera, bertako erlijio eta kultur mota guztiak kristau erlijioarekin dituen alde eta desbardintasun handiak agirian jarteko. Ez daukee euren artean antz handirik. Eguzkitik lurre-ra besteko alde dago.

Aita Aurelianok Alwayeko Erretoretza hartu ebanean, Indiak 281 miloi hindutar eukazan, 3.000 kastatan sakabaturik; euretatik 8 miloi erasoezinak edo ikutuezinak dituzu. 115 miloi mahomar eta 8 miloi kristau; 15 hizkuntza eta 845 hizketa edo dialekto.

Sekulako nahaste-borrastea; erraz galtzeko oihana. Mundu horretara doaz Alwayeko Seminarioan abade egiten diran gazteak. Mundu aldrebes horretara.

Eta, jakina, bertara sartzean oztopo eta zailtasun handiak aurkitzen ditue. Askotan apartekoak. Hau dala eta, gertakizun berezi bat opa izaten eben seminaristak bertan oina jarri aurretik.

Zailtasun horreek ezagutu eta mundu ilun horretan zelan ibili eta jokatu ikasi. Eta hemen sartzen zan Aita Aureliano eta bere ikasle-taldearen lana. Hemen euren ardura eta erantzukizunak.

Izan ere India aurpegi eta kolore askotako herria da; izadiak ondo doetutako lurralde aberatsa. Herri benetan interesgarria. Goi-behe handietan mugitzen dana. Harrigarria beraren handitasunean eta, baita ere, beraren miseri gorrian.

Alde batetik gauzarik harrigarri eta txundigarrienak ikusi daikezuz bertan eta, bestetik, gauzarik gaizto, doilor, makur eta zitakenak aurrez aurre aurkitu.

Mendiarte eta zelaiak gatzeluz, torrez, jauregiz, monumentu eta etxe ederrez jantzirik; hainbeste edergarri bazterretan eta, honen alboan, etxe zaharrak, txosna zikinak, txirotasun gorria, gabezia osoa, jendea hazur hutsean dardaraka, gosez hilten. Ezinezko gosean bizi eta hilten da indiar herri maite hau!

Berez guztiz aberatsa dan herria, gizakiak eremu-herri bihurtu dau. Batez beste, gosearen morroi bizi dan herria da. Jenderik gehiena ezeukiak erreta gazterik hilten da.

Indiako lurrak emoten dauan algodoiarekin bakarrik mundu guztia zuriz jantzi daiteke, baina aberastasun hori gitxi batzuen esku dago. Bitartean, etxano eta txabolarik txabola miseria, gosea, negarra, gaixoa, oinazea eta etsipena dabiltz agintari.

Nabarmenkeria honen errudun, pekatari, barriz, hinduismoa bera egin eta jarten dabe. Hala eta guztiz ere, kultura, hizkuntza, ohitura eta erlijiotasunaren aldetik hainbeste zatitan sakabanaturik dagoan herri nahasi eta desbardin honi batasun izpitxo bat emoten deutsana hinduismoa dala esan behar dogu. Hinduismoan aurkitzen dau, pitintxo bat baino ezpada ere, batasun arnasa hori.

Hinduismoa

Hinduismoa da Indiako erlijio ofiziala. Labor baino ezpada ere gainetik azalpen arin bat egiten saiatuko gara; horretan ahalgindu, behintzat.

Hinduismoa zer dan esatea ez da gauza erraza. Ez dauko jakinbide ziurrik. Ilunez inguraturik dagoan argi bat dirudi. Laino zuriz inguraturik dagoan mendi bat. Bere barnealdetik norbait edo zerbait dabilela dirudi, baina zer dan edo nor dan ez dozu ondo ikusten. Ez da jakinezko ingurunerik agiri.

Kristo izan baino bi mila urte aurrerago, gizon arioa India-ra heldu zanean eta berarekin eroiazan biziteko argimolde, ibilera eta siniskerak bertako herri zaharrak zituan siniskera eta ingurumariekin bat egin eta alkarrekin nahastu ziranean, hirugarren sinesbide bat sortu zan hinduismo izenarekin.

Zein jainko agertzen dau? Zein bide jarri beragana igoteko? Zeintzuk dira bere irakatsirik jatorrenak? Zeintzuk bere moralbideak? Zeintzuk bere giza legeak? Dana dago ilunpean.

Jaungoikoa dagoala autortu zeinke, eta beragan sinistu ere. Baina bardin egin zeinke bestetara ere: jainkoa ukatu. Horra hor sinisteduna eta sinisgea maila berean bardindurik. Bizitza inguruneko zarraparrak beterik dator hinduismo hau. Herri kutsuzko erlijiojera edo siniskeria bat balitz lez aurkezten dabe jakintsu askok.

Baina, zer da, benetan, hinduismoa? Argi eta garbi hauxe esan beharrean gagoz: hemen ez dagoala gogo beteko erantzunik. Hinduismoaren ilunpean, bakotxak bere zentzuetik jokutzen daki. Berari deritxona esan.

Baina bere oinarrizko sustraia, erroa, izaera zein dan esatean, hor bertatik dator azalpenaren porrota. Inork ez daki ondo.

Gandhi berak honetara aurkezten dau hinduismoa: *Inork niri hinduismoari buruzko zehaztapen bat eskatuko baleust, gogorkeria gabeko bideetatik, "egiaren" bilaketa bat egitea dala erantzungo neuskio. Hinduismoa egiaren erlijioa da. Egia da jainkosa hemen. Jainko maila dau. Jaungoikoa ukatu daiteke, egia sekula ere ez. Honaino Gandhik.*

Pandit Nehru, ostera, honetara mintzatzen da: *Ezinezko egiten jat hinduismoa zer dan esatea, erlijio bat danik ere ziurtatzerik ez dago-eta. Zalantzazko kulunkan mugitzen dan ideia bat dirudi.*

“Egia eta indarkeriarik eza”. Honetara gauzatu eban Gandhik hinduismoa. Baina hindutar asko ez datoz bat Gandhiren eritxi honekin. Honeen esanean, indarkeriarik eza ez da hinduismoaren oinarrietan sartzen dan ezaugarri bat. Orpotik kanpo gelditzen da indarkeria hinduismoaren kredoan.

Beraz, egia bakarrik gelditzen da hemen hinduismoaren ezaugarri edo berariazko nota lez. Eta hona heldutakoan, Pilatos datorkigu itaunka: “*Eta, zer da egia?*”

Gaur arte ez dogu hinduismoaren zehaztapen ziurrik aurkitu. Ez dauka kredo bizi eta ziurrik. Herriaren siniskerarekin egindako erlijiojera bat gehiago dirudi.

Bestalde, Pandit Nehruk Indiak bere barruan daroazan gatx guztien sortzaile lez salatzen dau hinduismoa. Zergaitik hau? Inoizkoetan India gainera jausi dan madarikaziorik handiena berau izan dalako. Nondik datorkio, beraz, ezten baltz hori? Bere barruan giza kastak izatetik. India giza kasteen kabia da. Zer esan nahi dau honek?

Hinduismoaren araubidean gizaki guztiak ez dira bardinak ez izakeran, ez duintasunean, ezta eskubideetan. Mailatan sailkaturik datoz gizakiak. Batzuk goialdean datoz, beste batzuk erdialdean, eta besteak behealdean. Nondik banaketa hau?

Brahama jainkotxoak dau honen erru guztia. Jainkotxo honi, egun baten, gizakiak egitea gogoratu jakon. Semeak mundura ekartea.

Hasi zan umegintzan, eta batzuk bere ahotik sortu zituan; beste batzuk bere besoetatik; beste batzuk bere izterretatik, eta azkenenak, bere oinetatik. Lau gizaki mota, klase ekarri ditu jainkotxo liluragarri horrek mundura. Soinez guztiak bardinak, baina izakeran, duintasunean, gizatasunean guztiz desbardinak.

Ahotik jaiotakoak daukee gorengo maila; kasta barruan abade lez agertzen dira honeek. Besoetatik jaiotakoak gerralarien taldea osotzen dabe. Izterretatik urtendakoak merkatari eta langileak dituzu. Eta, azkenez, oinetatik jaiotakoak, errukarri

hutsak, ez izen, ez abizenik ez daukeen gizakiak, abereen mailan bizi diranak, besteen morrontzarako eginak.

Jaiokeran egokitu jatzun maila edo kasta hori betikoa da zuretzat. Ezin dozu trukerik egin beste mailakoekin; zuk beti zeure kastan eta kastakoekin jarraitu beharko dozu. Honek esan nahi dau ez dozula inoiz askatasunik, ez eskubiderik beste mailakoekin nahastatzeko. Zu zeure kastakoekin bizi, jolastu, jan, jantzi, ibili, ezkondu eta hil. Ez daukazu egoera hori hobetzeko erarik, ez egokitasunik. Zeure horma barruan betiko bahiturik gelditzen zara.

Non ete dago siniskera honen iturria, erroa? Hindutarren esanean, heriotza osteko gorputz-aldaketan sustraitzen ei da dotrina hau.

Hilten garan bakotxean gure arimak gorputz zaharra itzi eta beste barri bat hartzen ei dau. Hil eta bizitu, hil eta bizitu, horrela ei dabil munduan zehar gure arima gaixo hau, hindutarren esanean. Eta azken baten, bizitza askoren ostean, eta hainbeste bizitzaatik ibili eta gero, gure arima gaixoa, guztiz garbiturik, amaibaokak bere barruan hartzen ei dau. Aurreko bizitzako txarkeriak ordaintzen dihardu beti gure arimak.

Gaurko bizitzan egin dituzun merituak kontutan izanik emoten jatzu hurrengo bizitza mota hori. Ona izan bazara gaurko bizitzan, hurrengo bizitza hori ondu zeinke zeure merituen arabera; gaizto samar ibili bazara, atzeraka sartu beharko zara bizitza barri horretan; eta holantxe beti, burpilaren antzera. Baina hil eta biztute hori beti zeure kasta barruan egingo dozu, horretara zigortu bai zaitu Brahama jainkotxo gaiztoak.

Artez egoan Pandit Nehru hinduismoa Indiaren hondamendi orokorra, minbizia zala esan eban. Egoera horretan dagoan herriak aurrerapen eta etorkizunaren ateak zehatz itxita ditu. Bere ezinean itota doa; berak eginiko zuloan hilotz jausten da.

Pandit Nehruk, urteak dirala, Indiako Legedi barritik kendu egin eban kasta-mundu hau. Baina, antxinako gaixoa danez, nekeza da kentzeko; gizaldiak behar dira horretarako.

Bestalde, etsai handi bat aurkituko dabe Alwayeko seminaristak hinduismo honengan, abade eginik plazaratzen diranean. Dotrina hau ebanjelioarekin alkartu ezina da. Aurrez aurre datoz. Ebanjelioak gizaki guztien batasuna, bardintasuna, duintasuna, gorengotasuna agertzen dau; gizakien arteko maitasuna, anaitasuna, laguntza, errukia, ederrikusia, zerbitzua. Ebanjelioa, batez ere, gizakiaren jasokuntza bila doa. Ez dago alde makala bien artean.

Jainko txikiz beterik dator hindutarren erlijioa dalako hori. Kristauen Jaungoikoa, ostera, bakarra eta gizakien salbatzailea da. Gure Aita!

Mahometanismoa

Hindutarren ondoan mahomatarrek datoz. Honeek ere kristau erlijioaren etsai autortzen dira euren egiteen bidez. Miloi asko dira Indian, hindutarrekin nahasturik. Antxinatik dagoz bertan.

Patriarka eta profeten leinutik ei datoz, euren autorrean. Jesukristo ere sartzan dabe euren artean, baina ez Jaungoiko lez. Profeta bat baino ez da Jesus. Profeta nagusiena, handiena Mahoma da. Mahomak hartu ei eban Gabirel Goiaingeruaren eskutik Koran liburua, egiazko erlijioaren dotrina dakarren liburu bakarra.

Zortzigarren gizaldiaren azkenetarantz sartu ziran lehenengo mahomatarrek Indian. Iparraldeko bide zabaletatik sartu ere. Bakez etozan. Merkatari eta salerosle gisan.

Baina Indiak opatzen zituan ondasun-aberastasunak handiak eta gozoak ziran. Tentagarriak. Barruan kili-kili egitekoak. Eta ondasun zalekeria honek grinatuta, lapurretan egiteko asmoz, hamargarren gizaldian, mahomatarren gudarosteak, mendiak behera eta bideak zehar, odolez eta garrez, Indiako goialde guztia menperatu eben, euren ikurrin gainean goiburu hau ebela: "*Jaungoikoa bakarra da, eta Mahoma haren Profeta*".

Orduantxe hasi ziran hinduen eta mahomatarren arteko gerra eta burrukaldiak, eta oraindik ez da isildu euren arteko

gerra hots hori. Haserre diran anaien antzera etengabeko istiluetan dihardue beti. Alkar erronkaka. Anaitu ezin diran herri bi dira. Beti burrukan eta burruka larrietan.

Iskanbila guzti honeen barruan ziobide, indar eragile lez, erlijio arazoa dabil. Erlijioa dago nahaste-borraste honen oinean.

Batez beste, setakerian oinarrituta dator mahomatarren erlijio hau. Indarkerian ezkutaturik daroa erroa.

Euren erlijioa dauke egiazko bakartzat. Besteak guzurtiak eta ustelak dira. Honen arabera, erlijio mota guztien artean, egiazko bakarra mahomatarrena da; beraz, berak bakarrik dauka eskubidea munduan zehar aitzindaritzaz hartzeko, lehenengotasuna eroateko, beste guztien kaltetan.

Hortik garratz jokatzan dabe haren jarraitzaileak doazen tokietan, euren erlijio hori jarri eta ezarteko. Beste erlijio mota guztiak zokora bota eta euren hartzera behartu. Akats hau daroe bekokian mahomatarrek.

Gar honen eraginera, laster samar zabaldu zan Indian zehar mahomatarren erlijio hau.

Baina honez gainera, beste arrazoi handi bat ere baegoan tarteko aurrerakada handi hau markatzeko.

Mahomatarren erlijio honek gizaki guztien bardintasuna aldarrikatzen dau. Doinu barri bat eukan hindutarrentzat dotrina honek. Bertatik, bizi ezinik eta guztiz oinperaturik bizi ziran hainbeste eta hainbeste indiar esklabo, jopu eta menpeko, euren erlijio zaharra itzi eta erlijio barri honetara aldatu ziran. Mahomatar egin.

Oraindik gehiago, gaur Indian mugitzen diran mahomatarren artetik, lautik hiru behintzat, hindutarren leinutik etorriak ei dira, jakintsuen esanean.

Aita Aurelianoren garaian India ingelesan menpe egoan. Baina buztarripe hori mingotsa eta garestia zan hindutarrentzat. Herriak bihotzean sartuta eroian arantza zorrotza. Guztiz mingarria.

Hortik, herrietan oihu larriak entzuten hasi ziran menperaketa honen kontra. Askatasun irrintziak. Buila, zalaparta, kez-

ka eta ezinegonak sortuez etozan bazterretan. Giro larria, gordina ageri zan herritarren artean. Ingalaterra bera ere arduratan jarrita egoan. Goizetik gauera, India guztia askatasun egarriz, odol eske hasiko zanaren bildurrez.

Ardura honen ekimenera, munduko lehenengo gerra orokorra tarteko zala, 1917an, inditar abertzaleen kexu eta arrenkurak entzutean, Ingalaterrako Gobernuak haserre bide horreek zerbait baretu eta gelditzeko guraritan, Indiako Gobernuari bere eskumen eta eskurantzak hainbatean ugaritu eta onduko eutsazala handikeriaz eskeini eutsan. Burujabetza handiagoa opatu.

Inditarrak arretaz hartu eben eskeintza hau. Baina gure burrukalari biak, mahometarrak eta hindutarrak, herriaren askatasuna mendi gainetik etorten ikusi ebenean, poztu beharrean, talde biak haserre bide biziagoan sartu ziran, egoera haretatik zati hobea zeinek lortuko bere kolkorako. Herriaren arazoak baztertu eta horretan ziharduen burrukalari biak

Eta jakina, itsukeria horren erruz, haserrearen beroa gora eta gora joian. Istiluak hemen, istiluak han; odola hemen, hilak han, horrelaxe hamarkada luzeetan.

Hemen ohar bat izan behar dogu kontutan, hau da, nondik gorroto izugarri hori? Zer dala eta otso burruka hau?

Haserre guzti honeen azpian, erlijioari buruzko norgehiagoka bat egoan jokoan: zein erlijio garaile Indian, hindutarra hala mahomarra? Hor egoan kakoa. Mahomatarren ekandu bat hauxe zan: sua eta ezpata erabili eskuan bide egile lez erlijioa hartzera behartzeko orduan. Gerra santuan sartuta beti.

Gogorkeria honen aurrean etsipenez bide guztiak itxita ikustean, gure Gandhi bakezalea honela azaldu zan: *Indiak ez dau bakerik izango hindu eta mahomatarren arteko gerrarte gogor baten ondorioz, bata edo bestea garaile agertu arte*. Haserrearen garra.

Agirian egoan talde bi hareek ez zirala alkarrekin biziteko eginak. Gorrotoan erreminduta egozan bihotzak. Horma sendoz itxita bakerako bide guztiak.

Mahomatarrak India zati bitan sakabanatzea nahi eben eta zati baten jabe eurak izatea. Zati bat eurentzat. Zati horretan pilatuko ziran mahomatar guztiak, euren lurraldea egin, eta hantxe biziko ziran pozik eta baketsu, burrukarako zio-biderik gabe. Hor ebulan hegazka Indiara bakea ekarriko eban uso zuria, baina honek ere alde egin eban.

Munduko bigarren gerra orokorra biztu zanean, 1939an, ingeles gudamutlak esku gogor eta zigor astunez ebagi eta baketu zituen zalaparta eta matxinada guztiok. Indarraren damupean, bake zuria jarri eben bazterretan. Ez zan izan garrantean larrialdi gogorrik.

Baina, munduko gerra hori amaitu zanean, gorroto, istilu eta matxinadak barriro agertu eta bideratu ziran. Izugarriko gauzak egiten ziran gaur hemen eta bihar han. Ezinezko giroa; gerra irrintzia bazterretan. Eztabaidak, zalapartak, heriotzak bideak betean.

Txinparta txiki bat besterik ez zan behar gerra-sua biztuteko, eta su hori biztu egin zan azkenean.

1947ko maiatza zan; gauzak txarrago ezinean egozala, Mountbatten, Ingalaterrako Erregeren Ordezkoak Batzar Nagusi bat eratu eta talde bietako buruzagiak batzar horretan bildu zituan.

Bilera zarra-marratsua izan zan, etsai giroan egina. Batzar horretan luzaroan eztabaidatu ostean, India zati bitan erdibitzea erabagi zan: India eta Pakistan.

Pakistan mahomatarrentzat izango zan. Dana euren. Burujabetza ere euren; han batuko ziran borondate oneko mahomatar guztiak bakez eta zorionsu biziteko bertan, ingelesak Indiatik alde egitean.

Batzar Nagusi hori amaitutakoan, garratzasunak jota, hone-la mintzatu zan Nehru buruzagia: *Txar handi biren artean -anai arteko gerra edota Indiaren zatiketa- txarrik txikiena aukeratu dogu, hau da, Indiaren zatiketa*. Horrelaxe sortu zan Pakistango laterri edo estatu barria.

1947ko abuztuaren hamabosta izendatu zan Indiari bere askatasuna emoteko. Bertatik, libre izango zan India. Ingalaterra India itzi eta bere etxera erretiratuko zan, adiskide eta ongile modura erretiratu ere. Aberri egun barri bat jaio zan Indiako zeru-gainean. Azkenean, askatasuna!

Askatasun egun hori poz algaraz ospatzekoa zan, baina poz algara hori ez zan agertu inondik ere herritarren artean. Gehiago zirudian menperaketa eguna. Zelan poztu Aberria zatituta ikustean!

Bihotzak urraturik, odoletan egozan. Ezin eutsi minari. Ezin jasan Aberriaren zatiketa hori. Hauxe zan Indiari gainera jausitako zoritxarrik handiena.

Eta barruko ondoeza horrek kalean eztanda egin eban. Basatikeriarik handienak egin ziran batzuen eta besteen aldetik. Askatasuna lortu eta hilabete biren barruan 500.000 heriotza egin ziran Pakistan aldean. Danetik jausi ziran burrukan: hindutarrak, mahomatarrak, gizon eta emakumeak, zahar eta gazteak. Odol-errekak ikusten ziran bide ertzetan.

Istilu horreek ez dira oraindik ere isildu. Gerra lur bihurtu da alderdi hori. Noiz arte? 1947tik hona, hiru gerraldi izan ditue eta bakeak egiteko itxurarik ez.

Gure Aita Aurelianoren mutilak Alwayeko Seminarioan bake santua gozatzen eben bitartean, Indiako kaleetan jazoera eta basatikeria guzti honeek ikusten ziran.

Nahi eta ez, gertaera honeen jakitun egon behar Seminarioko biztanleak, azken baten, bertako seme eta herritarrak ziran-eta. Ziur nago neke-mina eta ulua ugari izango zala gazte haren artean. Baita otoitza ere.

Abade egindakoan, oinaze toki horretara bialduak izango ziran eurak ere. Euren begiz ikusiko zituen txarkeria horreek.

Gorrotaren lurruna dariola egoan lur horretan, eurak maitasuna, bakea, errukia, samurtasuna, laztantasuna, anaitasuna eta poza erein eta jarri beharko ditue. Eta euren etorkizuna ikuspegi horretatik begiratze honek helduago eta zuhurrago

egingo ditu Kristo Maisuaren eskolan. Ebanjelioari bideak egiteko ezpata bagarik hitza erabiliko dabe; Jesusen Hitza, jakinik ezpataren zorrotzak odola dakarrela beti.

Ezin daiteke inor indarrez sartu bihotz ondora; ate hori maitasunak bakarrik zabaltzen dau.

Budismoa

Budismoak Budarengandik daroa bere izena. Berenez "jakintsua", "argitua" esan nahi dau.

Antxinatik dago kokatuta Indiako lurraldeetan. Hortik, zerikusi handia izan dau India eta inguruetako herrien historian. Herri guzti horreetara zabaldurik dago gitxi-asko.

Kronika zaharrak dinoen lez, budismoa deritxon erlijio mota hau Kristo baino sei gizaldi lehenago agertua da. Bere eratzailera edo asmatzailera Buda deritzon bat izan zan.

Gizon honen bizi-ingurunea mitoz eta harrigarrikeriaz beterik dator. Himalaya mendatearen oinetan, gaur Nepal deritzogun lurraldean jaio zan. Bera jaiotean, amak bizia galdu eban. Beraz umezurtz da jaiotzatik. Ama galtzean, izeko baten arduruan geratu zan eta haren besoetan hazi.

Txiki-txikitatik oso burutsu eta zuhurra zala agertu eban. Jakintzarako jaioa. Baita gizaseme ongilea ere. Baketsua eta bakezalea. Ongile errukitsua. Behartsuei eta ezinduei errukitsu laguntzeko ekandu ezin hobea eukana.

Errege jauregiko handikeria, huskeria eta gozamenak ez jakozan atsegin. Aspergarri eta nahasgarri jakozan. Iluntasun larria sortzen eutsan biziera arin horrek.

Hogeita zortzi edo bederatzita urte zituala, errege jauregia itzi, morroi bat lagun hartu, zaldi gainera igon eta gauez etxetik ihes egin eban, dana bertan behera itzita.

Hurrengo goizean, bere edergarri guztiak zorrotxo baten sartu eta bere zaldi ederrarekin batera, morroiaren eskuz, bere aitaren jauregira bihurtu zituan. Bera, barriz, eskeko erromes eginik, herriz herri, bidezko joan zan.

Gero, sei urteko bakartade luzean buru-belarri sartuta, hildura, neke eta penitentzia izugarriak ezarri eutsazan bere buruari. Gogorregiak antza dan lez, guztiz makaldurik gelditu zan-eta.

Bakartade honetan gogoeta luzeak egin zituan. Gizakiaren ahuleria egoan aztergarri gogoeta horreetan. Makaltasun honek emoten eutsan gogoko mina. Gizakiaren izaera gaizto, doilor, makur eta ziztrina bere gogoaren zauri mingarri bihurtu jakon.

Gizakia egoera larri horretatik onera aldatu behar zan, Ezbehar zulotik askatu. Grina zital horreek menperatu. Gizakia bere duintasunera jaso. Goragotu onbidean. Bere okerkerietatik askaturik, betikotasunera bultzatu ontasunbidetik zehar.

Budismoak dituen irakatsien ardatza egite onetan kutsaturik dator. Egite onen jabe izan behar dau gizakiak. Horretan jarri behar ditu bere amets eta gurariak. Gauza guztien gainetik, ontasunean aberatsa izan. Eta hau lortu ahal izateko, bost agindu nagusi ditu budismoak: *“Izaki bizidunik ez dozu hilgo, ez mamorrorik, ez gizakirik; ez dozu ezer ostuko; ez dozu inor hilgo; ez dozu ezkontzarik hautsiko; ez dozu ardorik ez mozkortzeko edaririk edango”*.

Gizakiaren barrunbeak biziki azterkatu zituan Budak, baita giza makaltasunaren erro ustel eta gaiztoak aurkitu ere.

Ontasunaren erpinera heltzeko, barriz, Budak bere jarraitzaile guztiei norberaren nahikeria eta sentimentu makurrei uko egitea eskatzen deutse. Gurari txar guztietatik gogoa askatu, munduko gauza guztiei uko egin. Hauxe da gizakia *“Nirvana”* deritxonera eroateko bide bakarra. Nirvana hemen ezereza da. Gizakiak Nirvanara heltzen danean bere kontzientzia eta gogamena betiko galtzen ditu. Betiko loan sartzen da; betiko ezerezean.

Honez gainera, gizaki guztien arteko bardintasuna, alkarren arteko goi-maitasuna eta bizitza apalari lotuta doakion alkarren zerbitzua oihu handiz aldarrikatu eta nabarmentzen ditu budismoak.

Askotan ebanjelioaren oihartzun berbera dirudi. Baina ez da holakorik gertatzen. Erlijiojera honetan, Jaungoikoa ez da ezetarako agertzen; ez dago haren aipamen txikienik ere. Sinitezina dirudi, baina holantxe da, maitasunean eta ontasunean sustraitutako erlijioa izan, eta Jainkoaren bertokotasunik ezertarako ez agertze hau.

Sei urteko bakarraldi luze honetan, bere erlijiojeraren sus-trai eta oinarriak pilatzen ahalegindu zan gure Buda.

Erlijiojera barri honen ezaugarriak agirierna gogoetari -meditazioari- damotson garrantzian dago. Bakarreko gogoe-ta lana daroa goiburu.

Bakarreko gogoetaldi luze eta sakonak egin. Bakartasunera-ko zaletasuna ez galdu. Gogoaren indarrez norberaren bizitza bide onean jarri. Alderdi aberats eta eder hau agiri dau aitzin-dari budismoak.

Erlijio honen hazi-orraziak pilatu eta antolatu zituan, bere irakatsi eta moral-bideok herriari irakasten hasi zan. Horretarako Benares lurraldea aukeratu eban, Ganges ibai sa-kratuaren ondoan.

Bere egite eta hitzaldi jakintsuen bidez, herria behingo baten bereganatu eban. Zaletu eta jarraitzaileak bideak betean etorri jakozan.

Irakatsi barriak ziran gizarte harentzat. Gosez eta egarriz egozan gogoetan euri gozoa lez jausten ziran irakatsi bizi-garriok. Trebetasun betea eukan herriaren bihotzera heltze-ko.

Gizaki guztien arteko bardintasuna, batasuna, alkartasuna, maitasuna, onegitea, laguntza, ontasunera igoteko egin behar dan burruka, kontzientzia onbideratzea eta abar; dotrina hau lehenengoz entzuten eben beragana inguratzen ziran jendeak, eta pozez zorabiatu hartzen. Ezinbestean ugaritu ziran bere jarraitzaileak.

Han-hemenka, monasterio budatarrak sortu ziran eta jende zaharrez eta gaztez bete. Gaur bertan zutik dagoz holako monasterioak eta jarraitzailez beterik egon ere.

Berrogei urtez, India osoa, batez ere mendebaldea eta ekialdea zeharkatu eban bere irakatsiak zabalduz. Giza bertute guztiak ebiltzan haren ahoan: eroapena, pazientzia, ezertasuna, limosna, ongura; bihotz oneko gizona zan aberatsekin nahiz pobreekin; gizakien arteko hartu-emonetan gozoa eta leuna; jokabideetan garbia. Gizartea gaxtatetik aske ikusi nahi eban gizona.

Budismoa, erlijio sailean, eragin handikoa danik ezin ukatu. Hala eta guztiz ere, Indian, bere sorterrian, gaur eta hemen, ez dago hain zabaldurik. 450.000 bat jarraitzaile izango ditu bakkari. Berton jazarpen handiak izan ditu, batez ere, hindutar eta mahomatarren aldetik.

Askoz zabalago dago, esaterako, Birmania aldean. Hemen ehunetik larogei budistak dira. Hemen ez da kastakeriarik ezagutzen gizarte bizitzan. Emakumea, eremu guztietan, begiramen handiz hartua da. Abadeak —apaizak— batera bizi dira monasterioetan, herriaren eskuzabaltasunaren jaramon eta ardurapean.

Birmaniako gazte guztiak ezagutu behar dabe monasterio-ko bizitza hau, gitxienez sei egun bertan eginez. Horretarako joera dauana, barriz, monasterioan gelditzen da gerora abade edo monje izateko, bestela bere etxera itzuliko da.

Kristautasunarekin antz handia deuko, baina baita urruntasun ezinbestekoa ere. Jaungoikoa ez da ezertarako sartzen erlojiokera honetan.

Kristautasuna

Ahoz-ahozko tradizio zaharrak dinoanez, Santo Tomas izan zan, Indiako hegoaldean, Malabarko itsasbazerretan, lehenengoz ebanjelioa oihukatu eban Apostolua.

Egiaz jazoera honen argitasun gehiegirik ez daukagu. Esamesa asko bai, baina argitasun ziur gitxi. Dana dala, hor dago Santo Tomasen Indiarra joate hori, jakingarri lez.

Tradizioari jarraituz, jendetza handiak kristautu ei zituan Santo Tomasek. Euren artean errege hindu baten alaba bat.

Hasarre gorrian jarri ei zan errege hori Santo Tomasen egina-gaitik eta, horren erruz, lantzaz hil eban Jesusen Apostolua. Mylapore deritzon urian ei dago Apostoluaren hilobia.

Egiak, esamesak?... Dana dala, Portugesak Indiarra heldu ziranean, 1498an, Malabarko izpazterretan kristau-talde handia aurkitu eban. Batzuk 80.000n jarten dabe kopuru hori. "Santo Tomasen kristauak" deituraz ezagutzen da kristau talde hori.

Gure Frantzisko Xabier santua Indiarra heldu zanean, eta Malabarko lurraldeak zapaldu, Mylaporen, Santo Tomasen hilobian belaunikatu zala dakigu haren urratsei zintzo jarraitzeko grazia eskatu nahian. Haren gorpuzkinei kendutako hazurtxo bat ere berarekin eroan eban gure Xabierrek.

Beste kristau talde berezi bat kristau siriarrak egiten ebena zan. Talde hau, gaur ere, nahiko zabaldurik dago Indian. Ez dakigu noiztik dagozan han, ez nondik sartu ziran bertara. Baina han dagoz egon. Gaur miloi bat izango dira. Batez ere Malabar aldean bizi dira. Euren artean "errito" horretako hainbat Karmeldar aurkitzen dira.

Baina kristautasunak aurrerakuntzarik handiena Portugesak Indiarra sartu ziranean egin eban.

Portugesen agintealdian misiolari asko eta asko hurreratu ziran Indiarra bai Portugaldik bai Espainiatik, batez ere, Jesusen Lagundikoak.

Goa-ko urian eukeen kokatuta euren egoitza, paramena. Hemendik zabaltzen ziran alde guztietara Jesusen ebanjelioa predikatzea zanean. Misiolaritzako barruti bat eginik egoan Goako etxe hori.

Bestalde, ebanjelioak lur ona aurkitu eban indiarren artean. Ostikopetuta, jipoituta bizi zan indiar gizajoak erruz eta pozik entzuten zituan misiolariak irakasten eutsazan Kristoren irakatsiak. Eta Jesusek beragaitik egindako guztia entzutean, Jaungoikoaren seme edo alaba zala, heriotza ostean zeru eder bat

eukiko ebala zeruko Aitaren etxean, honako gauza zoragarriak entzutean misiolariaren ahotik, entzuleen begiak negar mallkoz beteten ziran. Misiolariaren lagun egiten ziran eta gero kristautu.

Portugaleko itsasontzi baten etorri zan Indiara gure Frantzisko Xabier 1542an. Xabierrek Indiako hauts guztiak batuko ditu bere oinetan. Amaibako bideetatik ibiliko da, Kristorekin maiteminduta, nekearen aurpegiari begiratu barik, arnasarik hartzeko astirik gabe, biderik bide ebanjelioa oihukatuz. Goatik Malabarrera doa; hemendik Madrasera, txilin soinulari bat eskuan dauala, edonora heltzean, jendeari Jesusen izena predikatuz.

Azkenean ere, han hil zan gure Xabier; han itzi eban Goan, misioen alde opari lez erre zan bere gorpu nekatua. Han zaintzen ditu Indiako lurak gure misiolari handiaren gorpuzkinak.

Portugesen garaian aurrerakada ederra egin eban kristautaldea Indiako lurraldeetan.

Baina Portugaldarrak India galdutakoan, handik alde egin ebenean, gauzak guztiz aldatu ziran. Txarrera egin eben. Kristau lorategi ederra izango zana guztiz muskilduta gelditu zan irteera horren ondorioz. Hara zergaitik.

Portugaldarren ostean holandarrak eta geroago ingelesak sartu ziran Indiara. Holandarrekin batera eta honeen babesera, misiolari protestanteak heldu ziran bertara, Holanda, orduan, bere gehiengoan protestantea zalako. Honen arabera, parterik onena euren izan zan agintarien begietan. Katolikoak baino eratasun handiagoak zituen protestanteak.

Hortik, pixkanaka-pixkanaka, misiolari katolikoek apostolutza galgatu ikusi zan; asmo eta aurrerabide guztiak indargetuta. Nahaste-borraste tamainukoa sortu zan kristautasunbarruan. Guzti hori misioen kalterako.

Ingelesekin gauzak zerbait bigunago joan ziran. Ez ziran honek hain estu eta zorrotz etorri erlijio arloan. Garrantzi txikia eukan eremu honek euren politikan. Ez zan sartzen ingele-

sen kasketean indiarrei kultura-bideak zabaltzea. Ez egoan horren ardurarik. Ezjakinezko linboan jendea errazago manipulatzen da. Nahiago eben jendea ezjakinean itsu euki.

Horraio misiolariari, nor zein zan begiratu barik, lege emon jakozan bere egitekoa jendartean ondo beteteko behar zituena askatasun eta eskubideak. Erlijio esparruan askatasuna. Araubide mesedegarria berau kristau misioentzat.

Agirian dago kristautasuna gorantz doala Indian zehar. Astiro-astiro, baina gorantz doa, gelditu barik. Itxaropentsu ikusten da kristau ugaltze hau, baina gaur doan martxan jarraitzekotan, jakintsuen esanean, oraindik milaka urte beharko dira indiar gehientsuenak kristau fedea hartu baino lehen.

Kanpotik Indiara joandako misiolarien artean aurrelariak Frantzia, Belgika, Holanda, Italia eta Espainia izan dira. Ingles mintzatzen diran herriak, ostera, oso gitxi arduratu dira misiolaritza honekin. Misiolari gitxi bialdu ditue Indiara.

Bialdu dituela, dinogu, une honetan, kanpoko misiolaririk ezin dalako sartu Indiara. Nehrun-en egunetatik osorik debekatuta dago Indiako misiolaritza hori; Indiara misiolariak bialtze hori.

Oraintsu arte, kanpoko misiolariak izan dira buru, esku eta oin Indiaren kristautze horretan. Orain bertoko semeak bakarrik gelditzen dira Kristok Indian daukan artalde txiki horren arduraren eta zaintzan. Kanpotarren indar handi hori isildu eta debekatzean kalte izugarria egin jako Indiako kristau taldeari. Gurutze-bide larria hango Elizearentzat.

Baina gurutze-bide handiagoa izan zan bertako gaixo, txiro eta ezeukientzat. Honek bai azpian hartu zituala!

Zinez, Indiako Gobernuak misiolarien kaltez emondako agindu-lege hori lurrikara gogorra izan zan bertako gaixo eta ezinean bizi zan jendearentzat. Hara zergaitik.

India ezeuki eta txiro askoren lurra da. Miloika pobre dagoz han gosez hiltzen. Hara ba, misiolariak, euren buru, bihotz eta esku zirala, herrialde askotan, errukizko erakunde eta egintza

asko sortu eta eraiki zituen. Holako errukizko etxeetan aurkitzen eben babeslekua txiro, gaixo eta gosetia.

Misiolarien laguntzarik gabe gelditzean, mugimentu guzti hori eten eginda gelditu zan, desleitasunik gorrienean. Misiolarien ekarkinak gitxitzean, burutzarik ez zerbitzurik ezean, ezer bagarik gelditzean, errukizko etxe asko eta asko desagertu egin ziran, bertan babesten ziran guztiak deslai, bertan behera itzita.

Ez da gauza erraza zenbat honako erruki-etxe jaso zituen jakitea euren aldian gure misiolariak. Dana dala, badakigu asko izan zirala eurak eraikitako ospitale, landerretxe, hospizio eta umezurtegiak edota itsuak, gor-mutuak, eskutik itzitatoko neska eta emakumeak jasoteko babesetxeak... Zenbatu ezinezko jende piloa. Zein erlijiotako, zein kastako, nor zein zan itandu barik, bertara hurreratzen ziran guztiak aurkitzen eben abegitasuna errukizko etxe horreetan.

Misiolariak eta euren kristauak ziran han ezeukien zerbitzu maitekorrean erreten ziranak. Zenbat neke, izerdi eta buruhauste, gau eta egun, behartsuen arduran!

Emakumeen egoera

Emakume alargunen txanda dator orain. Zenbatu ezinbeste dira Indian. Indiako zoritxarrik negargarriena ei da berau. Zoritxar handi honi erroa aurkitu gura izatekotan, hindutarrak zelan ikusten daben ezkontza ingurune hori kontutan izan beharko dogu.

Ezkontza, hindutarren begietan, ez da gizadiaren iraupenerako bakarrik jarria; horrez gainera, beste zeregin berezi-berezi bat daroa bere bizkarrean: aurretikoen hilkortasunari iraupena emotea! Etxetik joan diran arbasoen hilezintasuna ziurtatzea.

Eta zelan lortzen da mirari hori? Ezkontzaren bidez seme-alaba barriak mundura ekarriz. Hori da bidea. Amak bere erraieran seme-alabei bizi barria emoten deutesanean, une horretan, hareengan eta hareen bidez, sendiari hilezkortasuna dakartso eta hilezkortasun horretan arbasoak, gure aurretikoak

datoz bertakoturik hurrengorik hurrengora, eta era horretan aurretikoak hilezintasunean sartzen dira.

Sendiaren betikotasun horri begiratu behar deutse gurasoak seme-alabak egitean. Ezkontza seme-alabak ekarteko, eta "seme-alabak euki" sendi eta artekoei hilezkortasuna emoteko. Hortxe dago ezkontzaren esangura handia.

Hortik, hindutar batentzat eginbeharririk handienetarikoena bere hilentzat izan behar dauan gurtza hau da. Hilen aldeko otoitzez, kantuz eta bedeinkapenez sendian gurtza hori egin.

Honen arabera, seme-alabarik gabeko ezkontza ez da osoa, ez onartua, ez ondo ikusia izaten. Usteltzat jotzen dabe hindutarrak. Aurretikoen kultu edo gurtza hori eten, hautsi egiten dalako hor.

Hilen kultu horretan, barriz, abade-lanak gizonezkoenak izaten dira berezienak. Andrazkoak, antza, ez dira duin gurpen hori gidaritzeko. Gizonezkoak izan behar dau, nahi eta ez, batez ere, semerik zaharrenak. Semerik zaharrena da arbasoen kultu edo su sakratu hori zaindu behar dauan arduraduna.

Norekin ezkondu?

Hona hemen beste arazo korapilotsu bat. Hindutarrak ezin dira eurak maite daben neskatxa edo mutilarekin ezkondu. Tradizioz eta usadioz debekatuta daukee hori. Nahiz eta gaur tradizio horren kontra hindutar asko agertu, oraindik ere gurasoak dira, seme-alabak ezer jakin barik, seme-alabentzat ezkontzako laguna aukeratzen dabenak. Kastako legea da. Gurasoak dira ararteko bakarrak ezkontza sailean.

Honen arabera, senar-emazte asko ez dira ezkontza egunerrate alkar ezagutu, ezta alkar ikusi ere egin. Itsu-itsuan gurasoak jarritako ordagoa irentsi behar izan dabe.

Gandhik berak, bere bizitza-liburuan, honako autorpenak egiten ditu: *Hamahiru urte bete baino lehen ezkondu ebela bera gurasoak eta une horretan ikusi ebala lehenengo aldiz bere emaztea izango zan neskatxa. Ezkontzako gertakizun eta izapide edo tramite guztiak berak jakin barik egin zituela gurasoak.*

Oraindik gehiago ere badino Gandhik bere liburu horretan: *"Itsu-itsuan, txistik atera barik bete ebala berak gurasoen nahia, eta unetxo baten ere ez jakola iruditu hori txarto eginda egoanik"*. Gerora, Gandhik berak ere gurasoen portaera hori txartzat jotzen dau; guztiz ezetsi.

Arrazoibide kaskar bi bideratzen ditu hemen hindutarren lege edo araubideak gurasoak euren seme-alaben ezkontzan parte hartze honi buruz.

Lehenengo eta behin, hindutarren legeak ez dau onartzen maitasunezko ezkontzarik. Zergaitik? Maitasuna berez itsua izatean, ez doa norbere onaren bila; grina-haizeak markatzen deutso norabidea, eta bidean galdu egin daiteke.

Beste arrazoi bitxi bat, hindutarren esanean, aita batek sendian dauan lehenetasuna nagusitasunean biribiltzen da. Aitaren nagusitza gauza guztien gaineratik. Etxeko auzi guztietan aitarena da ebazpena. Seme-alabak haren menpe, batez ere, kasta edo ezkontza bitarteko danean.

Hortik sortu daitezke gero ezkonduen arteko haserre bide, liskar eta tirabirak. Harri Aroko lege eta ekanduak dira, beraz aldagatxak. Gizaldien ekina behar izaten dabe honako okerrak sustraitik garbitzeko.

Dana dala, ez da matraka gehiegirik sortzen sendi-bizitzan hindutarren emakumea ezerezean biluzik dagoalako, inolako nortasunik gabe. Isilezko mundu baten mugitzen da, ezertarako eskubiderik ezean.

Beste ekandu ulertezin bat, osoan pertsonarentzat iraingarria dana, ezkontzeko adina ezartean dator. Adin nagusira heldu baino lehen ezkontzen ditue seme-alabak. Asko eta asko ume txiki dirala. Adikuntza aldira heldu barik, edota heldu baizen laster. Hamabost urterako hindutarrak ezkontuta dagoz.

Gehienetan, barriz, neskaxa hazi barriak gizon helduekin ezkontzen ditue eta hortik emakumeentzat inpernu gorri bat bideratzen da, goiz-goizetik alargun gelditzen direla. Eta andra

alarguna ezin barriro ezkondu, nahi eta ere. Alarguntzat ezkongetza dakar.

Doilortze hutsean bizi da hindutarren alarguna, batez ere, seme-alabarik gabe gelditu dan alarguna. Hau txarto ikusia da etxean. Esan leike parte txarreko norbait edo zerbait ikusten dabela beragan. Txarra besterik ez daroan sorgin gaiztoa. Horrenbestearino ostikoperatzen dabe seme-alaba bako alarguna.

Irain honeek emakumea alargundu dan egun berean hasten dira.

Senarra hil baizen laster alarguna bere jantzi eta edergailurik onenarekin apaindurik, senarraren gorpu ondora hurreratzen da. Lurrean jezarrita, txilioka eta uluka, bere saminean bularra joaz, senarrari garrasika dagitso bera alargun itzi daualako.

Senarra hilda gero, handik alditxo batera, sendiko batzar nagusian, doluminaren pipermina iruntsi azo ondoren, ilea, buru soil itzi arte, moztu, samatik behera dindilizka daroan kordioa, ezkontzako ezaugarri eta oroigarri kutuna dana –gure eraztuna lez– errukirik gabe ebagi, eta holantxe alargunen mailara eratsita gelditzen da errukarria.

Aurrerantzean ez jairik, ez ezkontzarik, ez irteterik, ez ezer; etxe barruan atxiloturik biziko da. Seme-alabarik izan badau, zorion pixka bat eurengan aurkituko dau, bestela erbestetuen ilunpe gorria izango dau lagun.

Egia da, gaur egun, emakumearen egoera larri hori zerbait ondu, bigundu eta jasokuntza bidean sartu dala, baina muga horretara heltzeko epealdi luzea beharko da oraindik.

Indiako emakume asko, dakigunetik, zutik jarri dira jasokuntza honen aldeko burrukan. Asko European ikasiak dira; munduan zehar ibiliak; ondo dakie, gaur, nazioarteko emakumeak dauan gorentasuna, goi-maila handia. Era guztietako sakoneko bardintasuna dagoala gizaki guztien artean, lehenengorik eta bigarrenik gabe.

Eta eurak ere, legezkoa dan lez, horixe berbera eskatzen dabe eurentzat. Jarrantzaile asko ditu mugimendu honek.

Gobernuko aretora bertara ere heldu dira eskabide honen oihartzunak. Gobernu adi dago. Beraz, aldaketa handiak sartu ditu legedi zaharra barrizatuz. Gaur beste herrien neurrian dago legedi hori.

Izendatu daiguzan hemen legedi barri horrek zirrimarratzen dituan punturik urtenenak.

- Gitxienez, 14-16 urtetik gorako adina eskatzen da ezkontzarako. Herrialde aurreratuenetan onartutako araudia.
- Senar-emazteen arteko bardintasun osoa bizitza bidean; emazte bakarreko ezkontza azpimarratzen da; ez bigamiarik, ez poligamiarik.
- Ziobide astunak bitarteko diranean, senar-emazteak eskubidea izango dabe legez banandu eta ezkontza hausteko.
- Bizi-alargunak, nahi izan ezker, eskubidean dagoz ezkontza barri bat egiteko.

Berrogeita hamar urte dira Legedi barri hau emon zanetik, baina hindutarren kredoarekin bat ez datorrenez, lege lez indargabeturik gelditu da, hain zuzen ere, jende askok horren erruz ez onartzeagatik.

Geroago eta bizilagun eta txiro gehiago

Mila miloi bizilagun ditu gaur Indiak. Txina bakarrik dago bere aurretik. Munduko beste nazio batek ere ez dauka horrenbeste biztanle, ez gitxiagorik ere.

Edonok esango leuke barri ona dala hori herri batentzat. Horrela uste eban, bere aldian, Txinako buruzagi nagusia zan Mao Zendong-ek. Jendetzak atomozko lehergaiekin bardinzen zituan harek. Hau da, zenbat eta bizilagun gehiago, hainbat eta herri indartsuagoa, ahaltsuagoa. Bizilagunak lehergaiak baino hobe.

Horren haizetara jokatu eban luzaro baten gure Maok. Baina, horraitio, behingo baten konturatu zan oker egoala argudio hori egitean. Ez zirala ondo alkartzen alderdi bi horreek. Herria bizilagunez gainezka jartean, herria, erruki bagarik, gose-biderra eroatea zala.

Baditu Txinak atomozko lehergaiak; Indiak ere bai. Oraindik orain iragarri dauan lez, neurri eta era guztietako lehergaiak egiteko gauza ei da. Horren harrokeriaz, kukurruku zaratatsua jo dau munduaren aurrean.

Baina India ez da gauza bere arazo astunak konpontzeko. Industria sailean munduko hamargarren indarra da, baina hori eta guzti ere, txirotasun gorrian bizi dan herria da, biztanlez beteegi, gainezka dagoalako. Neurritz gorako jaiotzak aho biko armak izaten dira.

Ahalguztiduna zan Indira Gandhi laster konturatu zan egia argi honekin eta iturri hori zarratzeko ahalegin guztiak bidean jarri zituan.

Bere leia bizian, indiarren ezjakintasunari iruzur eginez, transistore baten trukez, gizonak idortu, antzutzeraino heldu zan Indira Gandhi. Preserbatiboz bete eban India, baina indiararak umeei emoten eutsoezan preserbatiboak haizez puztu eta jolasteko.

Indiak Pakistandik jasoten dauan arriskua atxakitzat harturik, atomozko lehergaiak egiten dihardu. Berrogeita hamar urte honeetan hiru gerra izan ditu Pakistandarrekin, hobeto esateko, etenbako gerra baten bizi dira biak. Horretan eralgiten ditue diruak, baina Pakistan baino arerio handiagoa da beretzat bere barruan daroan amaibako jende ugaritze hori.

Porrot egin eban Indira Gandhiren mugimentuak. India gorantz doa; geldi ezinezko zurrumbilo batek daroa gorantz.

Urtero-urtero, 20 miloi indiar jaioten dira, segundoko haur bat. Martxa horretan, hiru hamarkadatan bikoiztu egingo dira bertako bizilagunak. Hogeita bost urte barru, bizilagunei dago kienez, Indiak Txina atzean itziko dau.

India pobretasun-bidean marratik behera dago. 400 miloitik gora ditu pobretasun hutsean bizi diranak. Badago zereginik hor.

Ilunpe guzti horreek argitzeko, baina, eguzki indartsua behar da. Kristautasuna da argi bizi hori daroan eguzkia. Eguzki horren argimutilak, barriz, esan dogun moduan, Aita Aure-

lianoren eskolan dihardue; bere seminaristak dira. Han dabil-tza, gau eta egun, mutilok, gertaketak egiten argi hori herrialde guztietara zelan eroan ikasi nahian. Entrenatzen dihardue ebanjelioaren apostolu izateko.

India hobeto ezagutzeko asmotan egin gura izan dogu Indian bertakotuta bizi diran lau erlijiojera edo mota honei buruzko ibilaldi labur eta arin hau.

11

MAHATMA GANDHI

Amaitu barri dogun gizaldiak izan dauan gizonik sonatue-netarikoak dator orain gure aurrera. Merezi dau tartetxo bat gizon honek.

Indiak izan dauan gizonik gorengoena izan da. Neurri guztiak txiki itzi zituan gizandia. Mundu guztia berari begira jarri ebana. Aita Aurelianoren egunetakoa: Mahatma Gandhi!

Aita Aurelianoren egunetan India hori zelakoa zan, zeintzuk ziran beraren biziera eta arazorik handienak, zeintzuk beraren gidari eta aitzindariak ikusteko, Indiari ikuspegi zabalago batetik begiratzeko dakargu gizon hau gure gogora, bera izan zalako herritar guztien artean txapelduna.

Churchille-k "narru-gorrian dabilen fakirra" deitzen eutsan. Hogeita hamar urtean zehar Indiako bazter guztiak arakatu zituan Gandhik herriari morroitzako kateak apurtzeko dei eginaz, eta maitasunezko eta anaitasunezko mezua iragarritz.

Ulergatxa bere urteera eta eginkizunetan molde guztiak apurtzen zituana. Patroirik gabea; xelebrekeriaz jantzia. Ikusi daigun nor zan gizon hau. Indiako historia barrian eta munduaren martxan izan dauan eragin baliotsuak, eta ospe handi eta txalogarriak dakarre gaur gure artera.

Soinez kaikua zan, baldarra eta trauskila, burusoila; betaurrekoak altzairu zurizko egiturarekin; belarri-gingilak zabalera makurtuak; bibote zuriaren gainean sudur luzea; altura kaxkarrekoa; 52 kilo pisuan; txanka mehe eta beso luzeak bizkar-enborretik dindilizka. Gizon honek itsastxori zangoluzen baten antza emoten eban urruntxotik begiratuta. Soinean ez eukan edertasunik, baina haren barrualdea oso

aberatsa, ederra, betea, zuhurra, itsasoak besteko zabala eta sakona zan.

Hirurogeita hamazazpi urteko agure honek India, bere aberri maitea, ingeles menpetik onez askatzea lortu eban. Horregaitik aberriaren aita da. Eta, gainera, bidean odol-tanta bat isuri barik lortu ere, arma-bide berezia legez indarkeriarik gabeko iraultza jokoan jarriaz.

Hain zuzen ere, Gandhi bera da bakezko iraultza honen asmatzaile, eratzzaile, gidari eta maisu nagusia. Iraultza mota honen aita.

Gudu-sistema bihurtu eban jokabide hori, bere helburu eta asmo-bideak politika arloan aurrera eramateko. Politika egiteko bide barri hau aurkitu eban Gandhik. Biderik zuzenena eta onena; ebanjelioak irakasten dauan bidea.

Gogorkeriak jota dabil gaurko gizartea. Mundura begiratzeari baino ez dago, hor dabilen makila hotsa entzuteko. Gogorkeriak, burrukak, haserrekeriak, gorrotoak, ikusiezinak munduko lau alderdietan garaile.

Espetxeak, torturak, giza zapaltze eta hilteak, gerrak eta abar, eguneroko ogi bihurtu jakuz.

Gaurko gizon hau zan Gandhiren egunetan munduan zehar zarraparratsu ebilena ere. Gizona, betikoa bere gatxetan. Doilorkeria honen aurka jarri eban Gandhik bere bakezko iraultzabide hori.

Bakezko dotrina hori goiburutzat harturik, herriaren erraitaraino eratea lortu eban eta bere eraginera herria zutik jarri askatasun bidean.

Hementxe dago Gandhiren meritua: indarkeriaren ordez, armazko burrukaren ordez, herri eta nazioen arteko hartu-emon eta arazoak gizabidez eta odol-isurtzerik gabe konpontzeko bide barri hori aurkitzean.

Armen ordez otoitza; suntsiketa eta birrinketaren ordez jasapena, iraupena; lehergai hiltzaileen ordez isiltasuna, normaltasuna; irain eta destainen aurrean, gizatasuna, duintasuna.

Europa aldean, demagogo eta iraultzaileak gerra dei eta orrore bizian ebiltzan bitartean, Gandhik isilka-isilka, arma zaratarik gabe, gorroto ilunik gabe, India, gizatasunari dago-kion indarrez eta legez, Ingalaterraren menpetik askatzea lortu dau.

Ez ditu bere jarraitzaileak diruz edo opariz erosi, ez deuseurrezko mendirik eskeini. Ordez, nekeak eta buruhausteak eskeintzen ditu.

Nire ondoren etorteko gerturik dagozanak -oihukatzen eban-lur gainean lo egiteko prest egon behar dabe, soineko pobre eta latzak eroan, egunsentian jagi, janari urria hartu, norberaren komuna norberak garbitu.

Gandhi aparteko gizona zan. Harrokeria bako gizona. Gogoz apala, umila, xehea, herrikoa. Bere jarraitzaileak santu bati dagokion begiramena eta itzala eutsoen berari. Gizon agurgarria, itzalgarria. Zalantzarik gabe, bere egunetako gizonik urtenena, gorengoena.

Bere korrespontsal eta bazkideei eskuz idazten eutsen, idaztortz lez egurrezko lapitz txiki bat lagun ebala. Herriari berba egiteko, barriz, egunero herriarekin agirian izaten eban otoitza aukeratzen eban.

Otoitzean herriaren gogoak argitu eta berotu. Bere helburu eta burubideen barrunbe eta jokabideak agirian jarri. Askatasun bidean agertzen jakozan eragozpen, arrisku, zailtasun, oztopo, korapilo eta bildurrak gaintzea zanean, ezinezkoen bat agertzen jakonean, kendu ezinezko gosez bizi zan herriari, protesta lez, baliabide lez, bideratu diran oztopoak gaintzeko medio lez, berarekin barau-greba egitea eskatzen eutsan. Hara han, Gandhiren ondoan, India osoa gose-greban, herriaren onerako hau edo bestea lortzea zanean. Trikimailu hau askotan erabili eban gure Gandhik.

Gandhi gaztea zala, beraren gurasoak Ingalaterrara bialdu eben "Legeak" ikastera, bihar edo etzi, legegizon izateko asmo-tan.

Gerora, ez eban Londresen emondako aldiaren gomutapen onik izan. Gogaikarria, latza egin jakon egoera hori. Berez kiki-la eta lotsorra zan, eskubete berba esateko gauza etzana.

Janzkeran ere baldarra eta transkila. Dotoretasun gitxiko gizona, askotan jendearen barregarri, batez ere, bere ahuntza eskutik ebala Londresko kaleetan zehar ikusten ebenean. Ikasketak amaitu eta titulua eskuratu baizen laster Indiara bihurtu zan.

Baina, hemen ere ez eban poz handirik aurkitu. Ez zan ezertan ere garaile gertatu. Hilabete luzeetan ibili zan Bombayko kaleetan zehar lan baten bila, lege-auzi baten bila bere titulua estreinatzeko, baina auzibide hori ez jakon inondik agertu. India guztia sutan jarriko eban gizona ez da gaur gauza lau berba jendearen aurrean esateko.

Porrot hutsean gelditu zan, batez ere, bere etxekoen aurrean. Lur jote hori irentsi ezinean, beraren etxekoak Gandhiren bizitzan esangura handikoa izango zan zeregin bat leporatu eutsuen: Hegoafrikara bialdu eben hango hauts artean bazterturik egoan senide baten auzia bere ardurapean hartzeko aginduarekin. Gehien ere, hilabete batzuetarako zeregina izango zala uste eben.

Hogeita bost urtera luzatu zan Afrikako egonaldi hori. Hemen egin zan bere bihotz-barrikuntza edo metanoia. Bakar-tadean batu, eta bere buruan zurrunbiloka sentitzen zituan oldozpen eta ideiak banan-banan begi aurrera ekarri zituan azterketa zehatz eta oso bat euri buruz egiteko asmotan.

Bizitzako egia bilatu nahi eban; egia ertzak hartu; garia lastoagandik banandu; izatearen sustraiak biribildu, eskuratu, goitik behera eta behetik gora mailaz-mailaz bere ideiak jarri, ideia bilduma horrekin bere gogoari bizitzako oinarriak jarteko, bere ideologia egian errotzeko.

“Gita” hindutarren liburu santua eskuetan ebala ordu luzeak igaroten zituan behin otoitzean, behin gogoetan. Egunero ko zeregina zan hau. Itsas hondo horretan buru-belarri sarturik, isilezko bakartade gozoan, gaur izar bat, bihar beste bat begiz-

ratzen eban goietan; izar barri asko ziran, zein baino zein argiagoak.

Holantxe bere gogo-zerua, goiz baten, argi barriz, ikuspegi barriz, helburuz, kemenez, ametsez, mirariz, goitiko edertasunez beterik agertu jakon. Egia musuka etorri jakon eta egiarekin betiko besarkatu zan. Hementxe egin zan Gandhiren berpizkundea, hementxe jaio Gandhi bizitza barrira.

Berpizkunde honen seinale bat Durban-dik Pretoria-ra trenegindako ibilaldi honetan ikusten dogu. Bajoian gure Gandhi, londotar baten gisan dotore-dotore jantzita; lehenengo mailako txartela daroa eskuan; baketsu-baketsu hausnar gozoan doa.

Halako baten, gizon zuri bat sartzen da bera jezarrita egoan treneko gelara eta, haserre baten, han ezin zala joan zuriena zalako, eta tresneria pilatzen zan gelara joateko agindu eutsan.

Gandhik lehenengo klaseko txartela erakutsiz, ezetz borobila emon eutson. Baina alperrik. Gizon zuriak trenean joian poliziarri deitu eta honek hurrengo geltokian trena itziazio egin eutsan. Hantxe emon eban gaua Gandhi gizajoak hotzez dardaraka eta haserrez irrintzika.

Hantxe ikusi eutsazan lehenengo aldiz belarriak arrazakeriari. Baina, horraitio, ez eban otso zuriak gehiegi bildurtu. Hurrengo goizean, egunsentia geltokira zabaldu zanean, Gandhik, gazte lotsor eta kikil harek, bere bizitzako erabagirik handiena, garrantzitsuena, bere bizitzako orratza izango zan erabagia hartzen dau: aurrerantzean zapalketa eta diskriminazio guztiei “ezetz” zorrotz eta borobila emotea! Horra Gandhi barria!

Eta bere erabagi hau, lehenik lehen, jokoan jarri nahi dau. Bere iraultza barri hori hasi.

Pretorian bizi ziran indiar guztiei dei egin, zelai baten batu eta danen aurrean holako hitzaldi sutsu, gogoangarri bat egiten dau. Danak alkar harturik, eskutik joanez jokatu behar ebela aurrerantzean euren interes eta ondasunen alde, euren eskubi-deen alde.

Bertatik irabazi eban lehenengo jokoa. Astebete baino lehen lortu eban agintariengandik indiar guztientzat txartela zein mailatakoa izan, halakoxe jarlekua eta treneko gela hartzeko eskubidea.

Bombayko auzitegian bi eta bi lau zirala esateko gauza ez zan gaztea, gaur, bere nortasuna berpizturik, bere lotsariak botata, indiar herrialde oso bat, itsu-itsuan bere esanetara makurtuta, sartuta daroa. Bere esanen agindura edozer gauza egiteko prest. Edonora joateko gertu. Bere anaien ordezkari eta zaindari bihurtu da. Bere hitzak mendiak aldatzeko besteko indarra dauke orain.

Eta bere anaien aldeko burruka honen norabideak eta egi-kerak eratzen ebilen unean etorri jakozan burura bere dotrina guztiaren zutoin izango ziran ideia nagusi biak, mundu guztian bere izena eta dotrina entzutetsu eta goragarri egingo zituen abiaburuak: batetik, auzibideak konpontzeko bide legez, arma legez, indarkeriarik gabeko ekintzak erabili beti; eta, bestetik, etsaiengandiko aginduak desobeditu, ezetz kas-kagorrra emon.

Hain zuzen ere, dotrina honen oinarriak Jesusen ebanjelioan aurkitu zituan. Ebanjelioaren irakurle fina zan Gandhi, mai-tez irakurten eban liburu hori.

Gandhi sinistez hindutarra zan, baina bihotzez kristaua, behintzat kristau kutsuan mugitzen zala deritzat.

Sakon azterkatu eban ebanjelioa; beretzat goiburu egin ziran irakatsiak jaso zituan bertatik, zimentarri biziak. Esatera-ko, indarkeriaren kontrako irakatsiak: *Zuk ez inori txarrik egin; inork matrailan joten bazaitu, zuk bestea ere eratu, zuk ez indarrez erantzun. Zeuretzat gura ez dozuna, ez besteari nahi izan.*

Irakatsi honeen barruan Gandhik arnasa bat, espiritu bat aurkitzen eban, Jesusek gogoan eukan arrazoibide bat: gizakia ez zala edozer gauza!

Gizakiak, edozein gizakik, neurtu ezinezko handitasun eta duintasun gorengoak ditu. Jaungoikoak bere antz-irudira egin dauan gizakia adimenduna da. Jaungoikoaren seme edo alaba

maitea; Kristoren odolaz erositako izakia. Betiraunean Jauna-ren etxean biziteko egina.

Hemendik dator gizaki guztiok daukagun oinarrizko bar-dintasun hori. Eta handitasun honen frutu eta ondorengo lez, gizakiak bere-bereak diran eskubideak ditu. Jaungoikoak emonak dira eskubide honeek; horregaitik beste inork ezin deutoz kendu. Ez norberak saldu, ez inork kendu, ez inork ikutu.

Berrogeitaka dira gizakiaren eskubide honeek. Aipatu dai-guzan batzuk: Jaio eta biziteko eskubidea dauka; gorputza eta gogoa osorik zaintzekoa. Horregaitik beti ezetsi eta debekatu beharko ditugu giza joteak, zauritzeak, tortura emoteak, erru-bakoen espetxeak; baso-usainez egindako giza epaiketak, hilke-tak eta abar.

Eta giza eskubideen ondoan, herrien eskubideak datoz. Herri eta laterri bakotzak bere eskubideak ditu. Esaterako, askatasuna, lurraldea, amagandiko hizkuntza, ohiturak, kon-daira, erakundeak, agintaritzak eta abar eukiteko eskubideak.

Eskubide honeek gaur mundu guztiak onartzen ditu, baina mundu guztiak ez ditu beteten, ez eta gitxiagorik ere. Hemen-dik datoz munduko zoritxar guztiak.

Giza-eskubideen ukamen eta zapalketa hau bere haragietan ezagutu eban Gandhik. Zoritxarrez, sarritan hartu behar izan zituan zurien aldetik holako irain eta zartakoak.

Talion legeak "*begia begiaren ordezkari eta hagina haginaren ordezkari*", berebiziko itsuen mundu batera errotan gaitu; ez dauka beste azkenik.

Gizaki baten konbentzimentu eta uste sendoak ez dira giza-kiari burua mozteaz aldatzen, -inoan Gandhik- ezta gizakiaren bihotzean maitasunik sortu, bihotza bala batekin hilteaz. Indar-keriak indarkeria dakar.

Gandhik maitasunaren eta onaren bidez aldatu nahi zituan gizakien bihotzak; maitasuna, ontasuna, zuzentasuna erein munduko lur gogor eta izoztuan. Eremita horretan bakarrik erne daiteke gizakien arteko onarpena, abegitasuna, itzala, ede-

rrikusia, bakea eta anaitasuna. Hauxe da txarkeria, ikusiezin eta etsaikeria guztiak azpiratzeko bide bakarra.

Bere teoria, ona hala txarra, bideratzekoa hala ez, nolakoa zan jakiteko aukera, ordua, bertatik agertu jakon Gandhiri. Hegoa-frikako Gobernuak berak emon eutsan horretarako zoria.

1906ko udazkena zan, eta gobernuak agindu hau emon eban bertako indiarren kaltetarako: zortzi urtetik gorako indiar guztiak poliziaren erregistroan izena jarri eta norberaren nortasun agiria, hatz marka eta guzti eroan beharra daukeela.

Honen haserrera, Johannesburg-ko antzoki nagusian, haserrearen suak hartuta, zenbatu ezinbeste indiar batu ziran. Gandhi gogor mintzatu zan bertan lege honen kontra: *Lege hau onartzea, geure hondamena onartzea da. Beraz, irteera bakar bat baino ez dot ikusten, diskriminazio gordin hau irentsi baino lehen hil arteraino kontra egitea.*

Hementxe, lehenengo aldiz, bere hitzaren berora, irainaren zirrikitura, bere jendeari zin-hitza eskatu eutsan Gandhik, edozein lege edo agindu zital eta gaiztoaren aurrean, arriskuak arrisku, burua jaso eta ezetza emongo ebanaren zinpekoa eskatuz. Gogortasuna, horraitio, gogorkeriarik gabe egingo zan.

Gobernuaren asmoak hutsean izteko, izen emoteak galerazteko, barriz, polizi-etxe aurrean piketeak jarri zituan inor sartu ez zedin bertara.

Honen erruz Gandhi espetxean sartu eben, lehenengo aldiz bere bizitzan; gerora, sarri lo egin behar izan eban bahitegieta-ko ilunpeetan.

Espetxean egoala, bere jokabidearen ekintzarako beharrezko zan bigarren aburu edo atala burutu eban, hau da, edozein gizaki, lur zabal, borobilean bidegabezko lege eta agindu zapaltzaileei uko egin eta ezetza emoteko eskubidean egoala iragarriz; edota, agintekeria bati, berau eroanezina edo jasan ezinezkoa danean, menpetasuna ukatzea zilegi dala irakatsiz.

Armarik gabe, gudarosterik gabe, bere sistema zorrotzari esker, hogeita hamar urte luzetan Ingalaterra guztia bildurrez urduri euki eban Gandhik.

Hementxe amaitu zan bere Afrikako egonaldia. Berrogeita bat urte zituan Gandhik orduan.

Seme galdua garaile itzuli zan bere herrialdera. Gazte harek ez eukan antza handirik hogeita bat urte lehenago Afrikako bazterrean lurra hartu eban gazte kikilarekin. Tinko, bizi, kementsu, buruzagi gisara sartu zan herrira. Bombay guztia urten zan kalera bera txalotzera.

Indiako atea zapaldu ebanean, bere esku-zorroan, letra koskorrez berak idatzitako paper-sorta handi bat eroian. Idazlan horren izena "Indiaren Askatasuna" izan zan. Agerian egotan Afrikako burrukaldi hori Indian hasiko ebanaren saiaketa bat izan zala. Bere asmo-bideetan trebetasuna lortzeko ekinaldi bat.

Indiara heldutakoan, txiro eta ezeukien ingurune baten etxetxo apal bat hartu eban beretzako. Hantxe zan zoriontsu. Berezko abegitasuna eukan pobre eta babesbakoentzat. Bere bihotz loreak zituan.

Ezeukien aldeko ekinaldi gogorrek gertatuko ditu han eta hemen. Giza zapalketaren bat ikusten zan tokian han agertuko zan Gandhi ere. Edozein motako zapalduak beragan aldezpena eta babes aurkitzen eben. Lehenengo aldiz ikusten eben indiarrek euren liderra pobre eta ezeukien aldeko ekinaldietan aurrerari eta buru ibilten. Hunkigarria zan hau bere herritarrentzat. Zorabiatu ageri zan jendea bere liderrarekin. Hilteraino joateko gertu.

Portaera honen arabera, Nobel sariduna zan Rabindranat Tagore olerkari gorenak aurrerantzean berea izango zan izen hau ezarri eutsan: "Mahatma, Arima Handia, txiroen apurra-kin jantzia".

Munduko lehenengo Gerra Nagusian India Ingalaterrakin batera joan zan burrukara, ordez Ingalaterrak Indiari askatasun bideak erreztuko eutsazanaren ustetan. Gandhi askatasun-oihu hori entzungo zalakoan egoan, baina ez zan horrela izan. Oker egoan.

1919an, Ingalaterrako Gobernuak lege estu eta latz bat emon eban askatasunaren aldeko mugimentu eta eskeintza guztiak esku gogorrez egotziko zirala esanez. Askatasun deiadar hori zigorrez isilerazoko zala.

Iruzur eginik ikusten ziran indiarrek, buru makur eta hasez. Aurrea ilun ageri zan lege honen minera.

Uste baino lehen hasi zan Ingalaterrako Gobernu lege hau kalera ateraten. Baita erantzuna arin hartu ere.

Amritzar eritxon urian, isilezko agerkunde, manifestazio bat eratu zan lege gaizto horren kontra. Bakezko manifestaldia zan, baina ez legeztatua, agintariak debekatua zalako.

Ez zan onartua izan debeku hori, eta jendea, honen agergarri, jaramonik egin gabe izendaturik egoan ordurako plazara-zen etorren.

Enparantza bete zaneko, berrogeita hamar bat soldadu ingeles sartu ziran bertara armaz beterik. Inguruan katea bat egin eta jendea barruan hartu ebenean, buruzagiak, ezertxo ere esan barik, ezertarako oharpenik gabe, sua egiteko agindua emon eban. Hantxe hil zituen mila eta bostehunen bat pertsona.

Eginagaitik buruzagi anker hau zigortua izan zan arren, indiarren bihotza lutu-negarrez gelditu zan. Gandhik ingelesan aldetiko uste eta itxaropen guztiak osoan galdu zituan. Azken txingarra amatatuta egoan.

Lege horri zein erantzun emon, hemen egoan orain Gandhiren arazoa. Nondik nora jokatu, hori zan itauna. Egun batzuk hartu zituan horretarako.

Mila erantzun eukazan jiraka bere buruan. Baina erantzun bitxi-bitxi bat aukeratu eban. Edozeinentzat ulergatxa, apartekoan artean apartekoa: Indiak isiltasunaz erantzungo eutsan lege horri, heriotza bera adinako isiltasunez.

India guztia lutuzko jardunaldi baten, gau ilunaren antzera, geldirik, isilik, hilerri bat eginik geldituko zan Gandhiren esanera: "*India osoa geldi beite eta zapaltzaileak entzun dagiala gure isilaren abotsa*", oihu egin eban Gandhik.

Hunkigarria izan zan, izan ere, egun horretako isila. Herriak oso-osoan bete eban Gandhiren eskaria. Ez zan inon arima bat ikusten.

Errez ikasi eben indiarrek Gandhiren berbeta barri hori, errez ulertzekoa zalako. Buruzagi argiari jarraitzeko indiarrek ez euken lege bat bera zertan hautsi, ez polizien makilei zertan aurre egin.

Hauze zan egin behar zan bakarra: "*Ezer ez egin!*" Besoak batu, dendak zarratu, etxe barrenean gelditu, lanera ez joan, ez ikastera, otoitzaldian bildu, honelakoxe egintzekin agertu barruko ezetza. Hauze izango zan askatasunaren aldeko irrintzi zolia.

Handik aurrera, Gandhi askatasun-burruka horretan etsitsian, burutik oinetaraino sartuta ikusiko dogu. Burruka horren alde erreko ditu bere indar, osasun, ondasun eta daukan guztia.

Bestalde Kongresuko partidua da askatasun-burrukari indarra eta arnasa damotson bularra. Gandhi da partidu horren buruzagia; haren esanera dabil alderdi hori askatasun sailean. Ontzat emon ditu erakunde honek tontor horretara heltzeko Gandhik gertatu dituan egintzak; osoan izenpetu ditu. Gandhi da, beraz, askatasun egintzan buruzagi nagusia. Askatasun bidean buru eta gidari.

Gandhik asmatutako beste egintza barri hau ere oso argia eta leuna zan. Hitz baten sartzen zan dana: "*Esanik ez egin; agindurik ez bete*". Hau da, ingeles usainik eukan guztiari boikot egin!

Ikasleak ingeles ikastolei boikot egingo eutseen; lege-gizonak, auzitegiei; langileak, ingeles lanbideei; soldaduak gerratean irabazitako gurutze eta dominak atzera itzuliko zituen...

Asmoa ingelesan ekonomia eta ondasunei azpiak jatea zan, trabak jartea.

Indiako lurretan batzen ziran algodoi-mendiak ingelesak merke-merke erosi eta Ingalaterrako fabriketara bialtzen zituen

lantzeko, eta behin oihal egindakoan Indiara bihurtu barriro, indiarren artean garesti saltzeko. Amaitu zan joko lohi hori. Fabrika horreek erabili ezinean geldituko dira. Algodoia Indian bertan geldituko da.

Gandhik berak antxinatik ikusita eukan ekandu baten aurkitu eban horretarako trikimailua, kako-makoa: India guztia goruetan jarri!

Miloika goru lanean jarri ziran. Algodoia goruetan iruten. Eta iruten eben algodoi horrekin soineko erropak eta etxeko bazterrak jantzi. Hogeita bost urtez ekin eutsan Gandhik burruka honi. Gandhi beragandik hasi zan bidea irakasten, egunero ordu erdi bat goruari emonez; bardin egin beharko eben bere jarraitzaileak ere. Gogoeta edo otoitzerako une sakratua bihurtzen zan goruetako ordu erditxo hori.

Baina Gandhi aurrerago doa oraindik. 1921ean, bultzada barri bat damotso bere burruka ekintzari. Hots handiz zin egin eban aurrerantzean ez ebal berak jantzi eder eta dotorerik jantziko; ez zala jausiko tentaldi horretan; eskuz egindako algo-doizko gerripeko eta kapa batekin jantziko zala beti.

Han egoan zutik berak eginiko zina. Gauza berbera eskatu eutsoen bere jarraitzaile eta bazkideei ere. Ikuskizun ikusgarria gertatu ebana.

Kaleak eta mendiak betean Gandhik erabagitako algo-doizko jantziekin jantzita gizon eta gazteak!

Algodoizko jantzikera hau askatasun burrukalarien ezaugarri bihurtu zan. Guretzat barregarri dan zertzelada hau, hareentzat armarrria zan. Gandhiren goru txikitxo hori iraultza baketsu baten goiburu eginik dago orain; itzartzen hasi dan herriak zapaltzaile harroari jaurtitako erronka da; herri-batasun eta askatasunaren ezaugarri.

Gau osoak tren nekagarrietan emon ostean, India osoan zehar doa bere mezu askatzailea herriari ezagutzen emonez. Urrunetako baserrietaraino doa. Ez da inoiz nekatzen, ez aspertzen. Egunean sei edo zazpi aldiz hitzaldiak emoten ditu.

Ikustekoa zan antzerki hori. Gandhi aurretik, ortozik, algo-doizko oihal zati bat gerrian lotuta, betaurrekoak sudur-muturrean tente, arin-aranga joaten zan, banbuzko makila eskuetan ebala. Atzetik jarraitzaile minak.

Arrakasta handia izan eban Gandhiren joera honek. Zenbaitu ezinbesteko jendetzak inguratzen jakozan bera ikusi eta berari entzutearren. Zirrara gogorra sortzen eban bihotzetan. Igarle handi baten antzera ikusten eben. Haren gogozko txirotasunak, haren apaltasunak, sinpletasunak, beste mundu batek India barri bat egitera etorren santu baten antza emoten eban.

Urietako entzuleei hauxe esaten eutsoen: Indiak askatasuna lortzea nahi baeban behar-beharrezko zala kanpoko ekoizkin edo produktuei uko egitea, atek zarratzea. Hau gabe amets hutsa zala askatasuna. Honen harira ingelesengandiko janzkiak ezerezteko, desegiteko eskatu eutsoen.

Zapata, galtzerdi, praka, alkondara, kapela, abrigu eta gaitetikoak beraren aurrera ekarri eta mendi handi bat egin eben. Gogo bizi honen berora gizon bat narru-gorrian geratu zan. Gandhik irribarre batekin, pozari keinu eginez, erropa piloari sua emon eutsan.

Ingelesak ez eben asko itxaron erantzuna emoteko. Gandhi bera ez eben espeteratu herriaren aurrean martiri ez egitearren, baina bere jarraitzaileak egundoko astinaldiak hartu zituen. Hogeita hamar mila izan ziran atxilotuak; batzar-tokiak zarratu egin zituen; batzarrak debekatu; alderdiko bulegoak arakatuak, miatuak.

1922an, Gandhik Ingalaterrako erregeordeari, karta baten bidez asmo latz hau iragarri eutsan: askatasunaren aldeko egin-tza horreek ugaritu eta gogortzea erabagi ebala. Beraz, lankidetzeta eta kooperazioa ukatzeaz gainera, apurtzeaz gainera, aginduak ez egiten, ez beteten hasten zala.

Baserriarrei grebak egiteko dinotse, zergak ez ordaintzeko eskatuz; bizilagun guztiei ingelesan lege eta aginduak ez beteteko; soldaduei ez zerbitzeko.

Armarik gabeko gerraren adierazpena zan. Ingalaterrak ere horrela uste eban. Argia zan Gandhiren iragarpena: *Ingalaterrak gu armak hartzera behartu gura gaitu; metrailadoreak hartzera, baina guk ez daukagu metrailadorerik, ingelesak bai, ostera; erabil daiguzan, beraz, etsaia menperatzeko geuk ditugun ahalbideak. Egin daigun burrukan geuk ditugun ahalbideekin, eta ez euren armekin.*

Erantzun orokorra izan eban Gandhiren adierazpen honek. Baina oraingoan ingelesak ez eutsoen parkatu. Erruduntzat jo eben. Gandhi bera ere matxinada horren aita eta gidari lez agertu zan. Sei urteko espetxea ezarri eutsoen. Baina ez eban horregaitik damurik agertu: *Askatasuna*, idatzi eban, *askotan espetxetan aurkitu behar izaten da, edota urkamendian; inoiz ere ez etsaien auzitegietan.*

Bere gaixoa atxakitzat jarririk, epea bete baino lehen parkatu eutsoen zigorra. Espetxetik urten baizen laster hasi zituan barriro bere hitzaldiak Indian zehar askatasuna eta bere erabide estuak predikatuz.

Oraingoan aberriaren askatasuna lortu arterainoko hitzina eskatzen deutse bere alderdikide eta jarraitzaileei.

Bertatik beste erasoaldi bat. Asmatu ere asmatu ahal daitezkezanak asmetan ditu Gandhik. Mundu osoan entzutetsua egin zan irteera bitxi hau.

Gatzaren arazoa dago hemen pil-pilean. Indiak gatz gitxi eta bera garesti eukan, ingelesen esku egoalako gatzaren negozio hori. Eta hementxe aurkitu eban Gandhik burrukarako beste ziobide bat.

Indiako egun-giro beroan gatz hartzea behar-beharrezko egiten da, osasuna irmo eta gordin zaintzeko.

Gatza ugaria zan Indiako itsasbazter luzetan, baina batzaille eta saltzaile bakarra eukan: ingelesa! Bere prezioa zergapean egoan plazan. Ez zan asko zerga hori, baina pobreentzat dana da asko. Aste biko irabaziak jaten zituan.

1930eko martxoa zan; goizeko sei t'erdia; banbuzko maki-
la eskuan, algodoi zapia gerrian, lepoa makur, oinak ortozik, 79

jarraitzaileen buru zala, martxa bizkorrean, itsasora bidean jarri zan. 400 kilometrorra dago itsaso hori. Milaka zaletu datorkioz bidera, berak daroan bidea zuhaitz-orriz apainduz. Mundu guztitik etorritako kazetariak beraren jarraian. Orain India da albiste; hara begira dago mundu guztia.

Gandhiren tirakada itzela zan. Herriak igarotean jendetza barriak hurreratzen jakozan. Imanak burdina lez bereganatzen zituan jendetzak. Asko eta asko belauniko jarten ziran Mahatma Handiaren aurrean.

Hona hemen Gandhik ingeles Inperioari erronka joteko darabilen egintza harrigarria, bitxia, arraroa. Munduko izparringi guztiak deiadarka jaurtitzen dabe zero-aldera erronka horren oihua, irrintzia. Ingalaterra osoa buru-makur dago lotsaz. Ez dau inongo semek horrenbestean lotsatu.

Hogeita bosgarren egunean, arratsaldeko sei t'erdietan heldu ziran Indiko itsasora, Dandi izeneko urira. Gaua otoitzean emon ondoren, hurrengo goizean, talde osoa itsasoan sartu zan legezko bustialdia hartzeko.

Gero, hondartza zabalean, milaka ikusleen aurrean, Gandhi makurtu eta eskukada bat gatz harturik gora-goraka jaurtiz eralgi egin eban. Aurrerantzean gatz ere askatasunaren irudi izango da indiarrentzat.

Astebete barruan India guztia bor-borrean egoan. Alde batetik bestera, Gandhiren jarraitzaileak gatz batu eta banatzen hasi ziran. Etxerik etxe papertxo batzuk zabaldu zituen, bakotxak bere etxean itsasoko gatz zelan garbitu irakatsiz. Pozaren pozez, bazter guztietan esan ezinbesteko su-metak birtu ziran Ingalaterratik ekarritako gatz etekinak bertan erretoko.

Gandhiren ausardia erronkari honek ingeles aldetik erasorik gogorrena jaso eban. Espetxeak barriro goraino bete ziran. Gandhi bera ere atxilotua izan zan. Bahitegiko gelan bere abotsa isilarazo baino lehen, astia izan eban bere jarraitzaileei mezu hunkigarri hau bialtzeko: *Indiako herriaren ohorea, gogorkeriari uko dagitson gizon baten eskuak itsaso bazterretik jaso dauan eskukada gatz horretan irudituta gelditu da. Gatz hori goian euki*

dauan ukabila hautsia izan daiteke, baina gatza ez da bihurtua izango.

Laino baltzak agiri ziran Indiako zeruan. Herri biren arteko harremanak eten egiteko zorian egozan; bihotzak gorrotoan gogortuta; bizi-giroa nahastua, larria, iluna, une batetik bestera eztanda egiteko eran.

Gauzak txarto. Grina gehiegi ebulan solte. Hondamendi batera jausi baino lehen, Indiako Erregeordeak Gandhi espetetik atera eta beragana deitu eutsan bien artean arazo gordinari konponbide bat aurkitzeko guraritan.

Burukide biak hitzarmen hau sinatu eben: Erregeordeak, besterik gabe, preso guztiak kalean jarriko zituan, eta Gandhik bere aldetik, berak gidaritzen eban burruka hori gelditu eta Londres-en, Indiaren etorkizunari buruz egingo zan mahi-inguruan parte hartzeko hitza emon eban.

Zortzi hilabete geroago, 1931eko urrian, Gandhi bere ohizko jantzi eta sandaliekkin Buckingham jauregira joan zan Ingalaterrako Erregearekin hizketatzeko. Ingalaterra guztia zur eta lur gelditu zan hau jakitean. Gandhi Erregeren jauregian!

Ia janzkera hori ona zan Erregeren aurrera sartzeko, Erregek itandu eutsanean, Gandhik maltzurkeriaz erantzun eban: *Jaun hori, zuk gu biok janzteko beste jantzi eukiko dituzu.*

Zabalkunde handia emon eutsen ikustaldi honi orduko komunikabideak, baina, azken baten, porrot hutsa izan zan. Ingalaterra ez egoan prest Indiari bere burujabetza emoteko.

Harrimen handia sortu eban Gandhik biztanle eta kazetarien artean. Erdi biluzik, banbuzko makilarekin, esku bete jarraitzaile eta ahuntz bat eskutik ebalatzen jatsi zan Ingalaterrara ekarri eban itsasontzitik. Ahuntza Gandhik bere eguneroko esne-zurruta hartzeko eroian.

Gandhi, hemen ikasten egon zanean gazte motela bazan hizketarako, orain berbontzi eginik dabil. Maisua da hitza erabilten. Mundu guztiakin gelditzen da solasalditxo bat eginenez: fabriketako langileekin, meatzariekin, umeeekin, Canterburyko Gongotzainarekin, nahi eben herritar guztiakin. Gi-

zon handiki batek ez eban hartu nahi izan: Winston Churchill

Gandhi heltzen zan toki guztietan zirrara handia sortzen eban. Ez eukan beste gizonen antzik; gizon apartekoa zan bere janzkera, ohitura, hitz eta egiteetan. Batez ere, bere ideia eta jokabide barriak, harrimen eta jakingura handiak ekarten zituan gerra baten bezperan egoan Europa aldean.

Parisera heldu zanean, Iparraldeko geltokia jendez hartu ezinik egoan. Esku-burdi batera igon eta handixek berba egin eutsen Gandhik.

Erroman Mussolinirekin ikustatu zan eta, dardararik gabe, haxe iragarri eutsan: "Bere fazismoa harea gainean eginiko etxea baizen azkar jausiko zala", eta Batikanon, Kapela Sixtinan, Jesus Gurutzalduaren oinetan negar egin eban.

Europar omendua eta goraldia izan zan arren, bihotza leherturik itzuli zan Indiara. *Esku hutsik nator*, iragarri eutsen bere miresleei Bombayra heldu zanean, berari itxaroten egoan jendetza izugarriari agur egitean. *Menik ezaren edo desobediencia bidera jo beharko dogu barriro* -esan eban Gandhik.

Honen sariz, hilabete baino lehenago, espetxean giltzapetu eben.

Churchill gogor egoan bere ezetzean; gorturik indiarren negarrak entzuteko. Ez eukan asmorik txikienik ere Indiari bere burujabetza emoteko. Harri eginik egoan. Honen erruz, hartu-emonak etenda gelditu ziran.

Gandhi artegaturik egoan egoera honekin. 1942an, Gandhik, gerritik gora biluzik, bero ikaragarria egiten eban Bombayko antzoki baten, goraino beterik egoan antzokian bere deiadarra jaurti eban barriro ere: *Zoaze, itzi egizue India... Askatasuna nahi dot atoa, gau honetan bertan, ahal bada egunsentia agertu baino lehen. Aholku hau damotsuet: bizi edo hil, askatu daigun India.*

Ez eban egunsentian askatasun eguzkirik ikusi, baina bai bahitegia. Bera eta bere jarraitzaile guztiak espetxean sartu zituen eta hantxe gogor giltzapeturik gorde gerra amaitu zan

arte. Oraingoan, Gandhi jauregi handi, eder baten giltzapetu eben.

Kinekada honek zarraparra txikitxo bat sortu eban inguruan, baina ingelesak bertatik ito eben matxinada hori.

Espetxeratzte hau azkenekoa izango zan Gandhiren bizitzan. Guztiz sei urte luze egin zituan giltzapeturik. Espetxeratu eta laster, hogeita bat eguneko gose-greba egitea erabagi eban. Churchillek baketan izteko agindu eban: *Gosez hiltea nahi badau, hil daitela.*

Barau gorri honen erdirantz Gandhiren osasuna makaltzen hasi zan. Ingelesak, isilka-misilka, heriotz gertakizunak egiten hasi ziran. Brahman abade bi berbatuta egozan, ordua heldutakoan hiletak gidaritzeko aginduaz. Ilunaren babesera, isil-isilik sandalo egurra eroan eben jauregira gorpua erretako.

Baraua hasi ebanean 55 kilo zituan. Hala ere, baraua hasi eta hogeita bigarren egunean, noizbehinka ur gazia eta limoi tanta batzuk harturik, oraindik bizirik jarraitzen eban, hirurogeita hamalau urteko agureak.

Honez gainera, beste nahigabe handi batek arnasarik gabe itzi eban. 13 urtekin hartu eban emazte maitea, Kasturbai, bere besoetan hil zan jauregi-espetxean. Etsipenez beteta, kikilduta gelditu zan Gandhi. Bere gorpua erretoko pilatu eben sandalo egurra bere emaztea errausteko erabili eben.

Berehalaxe bere osasuna beherako bizian hasi zan. Malaria eta disenteria batera hartu zituan. Behingo baten txarrera egin eban. Azkena noiz jausiko dagoz.

Gogo txarrez, baina, Churchillek, ingelesan espetxean hil ez zedin, askatzeko agindua emon eban.

Espetxetik Bombay aldera eroan eben, bere adiskide aberats baten etxera eta, miraria! Gandhi, apurka-apurka onera egin, eta osatu egiten da.

Oraindik eragozpen, destaina eta ezbehar asko menperatu beharko ditu Gandhik askatasun oihua, irrintzia Indiako zeruan entzun baino lehen, baina egun hori hurreratuz dator.

Sagar umotua adarretik jausteko egoan. Laster zan lurrean. Gurutze-bidea amaitzeko unean dago. Badator eguna.

1947ko abuztuaren hamabosta izendatu dau Ingalaterrako Gobernuak askatasuna emoteko. Egun horretan agertuko zan sinatuta askatasun agiria.

Egun horretan hautsiko dira kateak; espetxeak zabaldu; giltzapetuak etxeratu. Bizi barri bat, aro barri bat, itzarkunde barri bat ikusiko dau herriak.

India askatuan miloika ikurrin –beilegi, zuri eta berde kolorez- jasoko dira zerurantz askatasunaren poza, aintza eta goralmena oihukatuz eta txalotuz. Negar eta uluaren orde, jaia eta abestia; katea astunen orde dantza arina. Askatasun haizeak girotuko dau herriaren poza. Eguzki barria sortu da gaur Indiako zeruan. Aurrerantzean eguzki barri horren argira ibiliko da. Gauerdia eguerdi bihurtu da.

Baina laino batzuk agiri ziran zeru garbian. Askatasunaren poza orratzean dindilizka. Jai algarak, trumoi antzera, zaratatsu ebizala, lutuzko barri bat zabaldu zan ahorik aho: India zati bitan erdibituta gelditzen zala!

Pakistan aldea mahomatarrentzat izango zan oso-osoan, Indiatik bananduta, bere gobernu eta burujabetzarekin. Gaur ere bananduta jarraitzen dau. Mahomatarren joko lohi eta burugogorkeriak eroan eban India zatiketa horretara, baina ez odol-isurketarik gabe.

Abuztuaren hamalauan, askatasun-egunaren bezperan, arratsaldeko bostetan, Gandhi bere herriarekin bere eguneroko otoitzaldia egitera doa. Kalkutan dago. Hamar mila bat pertsona batu dira otoitzerako. Bera da gidari. Beti lez bere itzalditxo egiten dau. Samindurik, kezkatu agiri da. Honela hasi da esaten:

Bihar ingelesan buztarripetik askaturik ikusiko ditugu buruak. Baina gaur gauean India zatitua izango da. Bihar askatasun eguna, baina baita dolamen eguna ere. Askatasunak erantzukizun astunak dakarkiguz guztioi. Anaitasunean guztiok bat

eginik eta bururik galdu barik jokatzeko gauza bagara, oraindik India salbatu geinke, baina anai arteko gudu bat zabaltzen bada gure artean, zelan bizi daiteke jaio barri dagoan askatasun hori?

Askatasunaren ardatz eta gidaria izan zanak argi iragarri eban jende aurrean berak ez ebalako parterik hartuko askatasun jaietan. Egun historiko hori barau egiten, otoitzean eta goruetan emongo ebalako berak. Beste hainbeste eskatzen eutsen bere jarraitzaileei ere.

Indiaren zatiketak zauri gordina zabaldu eutsan barruan. Heriotza besteko samina ekarri. Hilik egoan Gandhiren go-goa.

Negargarrizko hondamena izan zan. Sei asteren buruan, Indiako iparraldea odol-iturri bihurtu zan. Miloika gizon, odol egarriz, zoramenak jota. Ez uri, ez herri ez zan gelditu zoramen horretan jausi gabe. Ordurarte bakean bizi ziran herritarrak gorrotoaren gainezkaldiak bata bestearen kontra bultzatu zituan. Gogorkeriaren leherketa, iskanbila, danbatekoa. Hilketak batek beste hilketak bat eukan deika.

Hondamendi honen errua mahomatarren gain jausten zan. Mahomatarrak, esan dogun lez, bere lurraldea, bere aberri bakarra nahi eben euki. Pakistan aldea aukeratu eben horretarako. Hantxe biziko ziran senitartean mahomatar guztiak.

Baina oso gatxa zan hori lortzea. Bai hindutarrak eta bai mahomatarrak India guztian zehar bardintsu sakabanaturik aurkitzen ziran. Jaiotzaren arabera, guztiz nahasturik.

Hindutarrak ez eben nahi India zatitzerik, mahomatarrak bai. Hortik sortu ziran anai arteko gorroto, mendeku, jazarpen, eraso eta alkarren arteko hilketak. "Pakistan geurea bada, bertan dagoan guztia ere geurea da". Aburu hau horman aurrelari jarri, eta hindutar eta gainetiko guztiak Pakistandik kanporatzea erabagi eben.

Bestaldekoak, barriz, Pakistandik kanporatutako hindutarrak hartzeko, euren aldamenen bizi ziran mahomatarrak hil. Heriotza makina hori ebulan jiraka gelditu ezinik.

Arantza zorrotz hau barruan minetan ebalako hil zan Gandhi. Hainbeste izerdi eta burruka India askatzeko, eta azkenean askatu bai baina zatituta ikusi behar.

1948ko urtarrilaren 30an, arratsaldeko bost t'erdietan, otoitzean egoala bere herritarrekin, hindutar erretxin batek tiroka hil eban Gandhi.

Hilten egoala parkamena emon eutsan bere hiltzaileari. Holantxe santututa itzi eban bere gogorkeriarik gabeko bide bakan, gorengo eta baliotsu hori.

Ondo mereziak ditu gure txalo eta goralmenak India eta mundu guztiari bake bide hori irakasteagaitik; gizadiari ekarritako mesede eta zerbitzuakaitik. Jarraitzaile asko balitu, beste mundu bat genduke kantari.

MALABAR ALDEA

India lurralde oso zabala da. Goi-behe eta zabalera azkenik gabekoak ditu. Desbardintasun handiak han eta hemen.

Mendi garaiak, basarte eta oihan aberatsak, enda, hizkuntza, dialekto, lanbide eta mota guztiriko jendetzak. Gizarte guztiz nahastua.

India zabal horren barruan, behealdean, hegoalderantz kokatuta, Malabarko lurraldea dator. Oso zabala da; tontortsua ere bai. Goitik beheraino itsasoari bazterra egiten deuslan lurraldea. Hortxe egon zan mugatuta Karmeldarren misio esparrrua. Urteak zehar, Karmeldar misiolari askoren maitez, izerdiz, eta lanez bedeinkatua izan dan misio lurra.

Misiolari erraldoiak, gorengoak, igaro dira bertatik: Aita Bernardo, Angel Maria, Buenaventura, Abasolo, Bittor, gotzainak; Joan Bizente, Joan Jose, Joan Damasceno, Alfonso Maria, Jose Manuel, Aureliano, Ildefonso, Zakarias eta abar.

Misiolari jator eta gorengo horreen lanari esker, misioa izandako lurralde hori, gaur kristaututa, bertako semeen esku itzita dago. Orain bertako karmeldarrak dagoz lehentxoago misiolari euskaldunak bizi izandako komentuetan.

Aita Aureliano baino urte batzuk aurrerago Indiara heldu zan Berrizko misiolari handiak, Aita Joan Bizente Zengotita Bengoak, bere izkribu baten toki horren azalpen zehatza egiten deusku.

Honako hau dino berak: *Indiara joan aurretik, lurralde horreek eremu gisako lurralde tristeak izango ziranaren susmotan nengoan. Lurralde lehor, erre eta alperrak. Belar pixka bat abere-entzat eta arroz apur bat gizakientzat, holakoa izango zala lur*

horren aberastasuna, gaitasuna. Ezelango aurrerapenik gabe bizi-ko zirala herri horreek. Baina, guztiz oker nengoan.

Eta honakoa gaineratu: *Harriturik ikusi ditut, erreskadan, zelai eta landa zabal, eder, heze, aberats eta emonkorrak; solo, aldapa eta ibar narotsu eta emoileak, uzta, labore, palmondo eta frutaz jantziak.*

Baso eta mendi izugarriak, oihanitsuak, zuhaitz tantai ederez beterikoak, adarretik adarrera tximino alaien jolastoki diranak; basapizti ikusgarriak ere bai, tigre eta elefanteak.

Ghates mendate gainetan sortzen diran ibaiak, murmurka eta saltoka jausiaz, bide erdian beste ibai batzuekin alkar jotean, guttira 15 ibai sortzen ditue eta ibai honeek busti eta aberats egiten ditue Malabarko lurralde guriak.

Bertako erlijio ofiziala eta zabalaren dagoana hinduismoa da, beste erlijio mota asko tarteko diralarik: mahomatarrak, juduak, protestanteak, katolikoak.

Honetara margotu euskun pitin bat Aita Joan Bizentek Malabarko zerupe hori.

Esan daigun, ezer baino lehen, misioari dagokion aldetik, Malabar zati bitan erdibituta aurkitzen zala garai haretan. Misio baten izena Verapoly zan. Verapolyko misioa. Eta beste zatiaren izena: Quilon. Quilongo misioa.

Verapolyko misio hau Karmeldarren esku egoan, Erromako Aulki Santuak, 1908an karmeldar euskaldunen esku itzi ebanetik. Puthempallyko Seminarioa ere honen barruan sartzen zan. Misio horretara joaten ziran gure misiolariak.

Quilongo misioa, barriz, Karmeldar belgikarren ardurapekoa zan. Gaur misio bi horreek, Verapoly eta Quilon, esan dogun lez, bertako semeen eskuetan aurkitzen dira. Gaur ez dira misio lurak. Horra karmeldarren ereintzatik jaiotako frutu eder bi.

Baina frutu eder hori lortzeko aurretik lanari gogor eta kementsu ekin behar izan jako. Urteetako izerdi, neke eta ardurak gelditu dira bertan. Bizitza asko erre dira karmeldar euskaldunak sartu eta zaindutako mahasti emonkor horretan.

13

PUTHEMPALLY

Verapolytik hurbil, kilometro bira, auzune polit eta atsegingarrian, tontortxo baten gainean, Puthempallyko Seminarioa ikusten da. Handi-handia izan ez arren, urruntxotik begiratuta, arrandiatsu agiri da bere edertasunean.

Periyar ibai handiak zeharkatzen dau lurralde hori. Erreten eta ubide-beso asko dituan ibaia da, txalupa eta batelez ibiltzeko ibai ezin hobea.

1866an zabaldu zan Seminario hau, Malabar eta Kerala inguruetakoa abadegaiantzat. Filosofia eta teologia irakasten ziran bertan. 1908an, karmeldar misiolarien ardurapean gelditzen da; 1912ko uztailaren 25ean Aita Joan Jose Bilbao zornotzarra bertako buru izendatua izan ostean, azaroaren bederatzian hartu eban bertako erretoretza.

Egun batzuk geroago, azaroaren 25ean, A. Aureliano, bere bi lagunekin, Ernakulamgo etxea itzi, bateltxo bat hartu, esku zorroa bertara bota eta amets-ameslari, palmondo artean begiak gozatuz, ilunabarrean, Puthempallyra heltzen da. Hor dagoz hiru gazteak, motorrak bizturik, lanean sartzeko prest.

Mahastiko langile

Puthempallyn gagoz. Hemen dago A. Aurelianoen misio-lurra. Seminarioko mahasti hau jorratuko dau maitez eta gogotsu aurrerantzean. Buru eta bihotz, kemen eta adore guztiak jarriko ditu bere egitekoa ondo beteten. Ez da hutsuneak egiteko gizona.

Ondo mugatuta daroa buruan zein dan bere egiteko hori: abadegaiak altarara zuzendu; Kristoren eskolan moldatu; ar-

tzain santuak emon Kristoren artaldeari... Horretan agortuko ditu, aurrerantzean, bere egun eta indarrak. Hil arteraino zeregin horri ekingo deutso.

Ama, egizu ni Jesus izan nadila, esaten eutsan behin eta barriz Andra Mariari.

Kristo barriok egitea zan bere goiburua. Zeregin neketsua, astuna, gatxa, baina erabat atsegingarria, garrantzitsua, ezer izatekotan. Muga hori lortzean jarri zituan bere amets guztiak.

Guzur handi bagarik esan geinke bere bizitzako 51 urterik onenak, unerik unera, inoiz hutsik egin barik, abadegaien ondoan eta zerbitzuan emon zituala. Oraindik gehiago: berarekin ibilitako guztien esanean, egiteko hori bikain eta distiratsu burutu ebala beti.

Erreza da hau ulertzea A. Aurelianok abade izateari eutsan mirespena kontutan izanik.

Kristoren goratasun berberean ikusten eban elizgizona, apaiza. Kristoren ordezkartzako mailan, Kristo berbera lez. Beraz, Kristoren toki eta egiteko hori jende artean ondo eta egokitasunez beteteko giza tailu handia emon behar da nahitaez.

Lehenik lehen, bere buruari begiratzen eutson Jesusen irudian, ispiluan. Haren aldea kontutan izanik, noraino heltzen naz ni Jesusen antz-irudian? Zein da nire neurria? Itaun hau begitan eukiz ikertu eta azterkatzen eban bere abade-bizitza. Honetan bere buruarekin oso zorrotza zan.

Ezikutuko eskola honetan ikasi eban abade osoa izatekotan, santutasuna jaritsi behar ebala. Santutasunera jo, igon; gurutz-bide luze eta neketsu hori egin; ez atzerarik egin honetan; nekeari ez zorrik ordaindu; aurrera beti, eragozpen guztiak gaindituz.

Hortik, bere abadegaiengandik abade oso eta jaungoikoza-leak ateratzeko ahaleginean jarriko dau bere bizitza osoa. 51 urtez, Seminarioko isilean, jo eta ke, buru eta bihotz, azken-azkenera arte zintzo eta leial zeregin eta egiteko horri eskainiko deutso bere bizitza guztia.

Zorrotza norberarekin, ezitsua besteekin. Oinarri honen arabera egingo dau bere joko guztia.

Fedetik datorren maitasuna da santutasuna janaritzen dauan odola. Fedean ditu sustraiak santutasunak. Fede handi bagarik ezinezkoa santutasuna.

IRAKASKUNTZA

Seminarioa aro barri baten sartu da hiru gazteon etorrerarekin. Zahar samar eginik aurkitu dabe bere jarduera eta araubideetan.

Zerbait atzeraturik. Odol barri eske dago; sustrai eta norabideak garbitu beharrean; barne-ibilbidea gaurkotzeko eskaritan.

Gazte horreek daroe eurengan odol barri hori, arnas bizikari hori. Egunen joanean, oinarrietatik hasita, erakunde osoa gaztetu eta gaurkotuta itziko dabe. Goiko mailan jarri seminarioa behingo baten. Ogi erre barriaren usain gozoa eroan eben hiru gazteok Puthempallyko seminariora.

Orain 11 irakasle dira seminarioan. Honeen artean gure A. Aureliano dago, orduan "gazte sendo eta errimea, bizar baltz, zarratua erdi hazian dauala". Ikasleria, barriz, 122 seminaristak osotzen dabe. Langileak eta lantegia gertu, lanean hasteko.

Ikasturtearen hasieran eginbehar berezi bi leporatuko deutesoz A. Aurelianori: irakaste aldetik, filosofoei Eliz Edestia -historia- irakatsi beharko deutse. Edesti-gai hau luzaroan bere esku eroango dau. Jakintsua zan sail honetan.

Bestetik, Arimen Zuzendari-ordezko izendatu dabe. Begiko dau egiteko hau ere; bere neurrira egina da. Egiteko biak, bata zein bestea, ezin hobeto beteko ditu. Gogo eta bihotz guztiz.

Gazte baten adorez eta bizitasunez sartu zan A. Aureliano irakaskuntzako barruti honetara. Arlo hau bere misiolaritzaren zatirik bereziena, kutunena, Jaungoikoak berari izendaturikoa legez ikusten eban.

Honela dino:

“Lekaide eta misiolari gara. Lekaide lez, jaramon handia zor deutsagu santutasun-ekintzari. Misiolari lez, ikasteari gogotik ekin, irakaslearen zereginak ondo beteteko, bakotxak geure egin-beharrak zehatz bete behar ditugu-eta.

Herriz herri dabilen misiolaria arimen bila doa; euri eta eguzkipean dabil bere apostolutza eginez. Guretzat, ostera, bai misiolaritza eta bai apostolutza gure eguneango zereginean dago, irakaskuntzan, hain zuzen ere. Gizakiari munduko “argia” izaten irakasten.

Eskolak emotean ez ei zan kikilik egotekoa, bere ikasle izandakoak agertu daben lez. Bizia eta sutsua ei zan bere azalpen eta argibideetan.

“Liburu piloa besapean ebalatzen zuten ikasgelara, tente, errime, bere gaztetasunean lirain. Gerra burura doan buruzagia zirudian. Sarritan keinuka eta ahotsa jasoaz mintzatzen zuten ikas-entzuleen aditasuna goian zaintzearen. Maina honekin errez lortzen eban gure aditasuna erne zaintzea”.

Aurelianok gai asko irakatsiko ditu Seminarioan. Eliz Edes-tia, Gogo-bizitzako Teologia, hau hil arte guztian; Arima-Zaintza eta Latin.

Irakasteko eukan taxua argia, zehatza, ondo biribildua, egitura onekoa zan. Ikasgelara joan aurretik ondo gertatzen zituan ikasgaiak. Honetan estua zan. Ez hori bakarrik. Ikasle bakotxaren ezagun eta adiskide izaten ahalegintzen zan.

Haren txera eta ederrikusiak guztien artean erdibanatzen ziran.

Ikasleen artean sarri agertzen da herrenka dabilen bat. Eroapen handikoa zan holako gizajoekin. Bakarrean hartu eta bakarreko lana egiten eban eurekin.

Hara hemen honako baten autorra: *Ni filosofiako lehenengo urtea ikasten nengoala, A. Aurelianok latin irakasten euskun. Ni pobre samar nenbilen latinean. Eta, goiz baten, aparte deitu eta esan eustan: lagun, uste dot zuri nobiziaduko urtean latina ahaztu egin jatzula. Zatoz neurekin.*

Bere gelara eroan ninduan, aulki baten jesarrerazo eta nik egindako ariketak orraztu eta zuzendu egin eustazan, huts guztiak izendatuz. Gero ariketa barriak jarten eustazan hurrengorako. Holantxe luzaro baten. Gaur, ariketa horreek erlikia lez gordetzen ditut.

Arimen zuzendari

Seminarioaren ibilian sartu zanez gero, ardua biziz jaso eban beste zeregin bat Arimen Zuzendaritza izan zan.

Egiteko bigun, isil, zail eta gatxa, baina goren-gorengoa, ezinbestekoa abadegaien prestakuntzarako, moldaketarako.

Buztin biguna “arte” bihurtu esku artean; norbere burua argiz eta goitiko inuntzez bete, gero argi eta bero hori besteengan isurtzeko; egiteko horren bikaintasuna hausnar geldian norberaganatu, gero bikain bete ahal izateko; norbera Jesusen antz-irudian begiratu ondoren, apaizgaien bihotzetan Jesusen irudi hori moldatu.

Zeregin zerutar hau hartu dau bere gain gure misiolari gazteak. Pozik hartu ere, badaki, ba, zeregin hori ez dala zelahalangoa, astuna, garrantzitsua eta erantzukizun handikoa baino.

Horregaitik bere buru, bihotz eta zentzun guztiak jarriko ditu egiteko hori ahalbait ondoen beteten.

Hogei urtez kargu horretan jarraitzean, Seminarioko espiritualtasuna, haize barri eta aurrerakoia sartuz, ederto baten girotu eban. Gorakada handia nabaritzen zan seminaristen gogobizitzan haren lan ederrari esker.

Alkarrizketa txikitxo bat bakotxarekin: - Zelan zagoz? Pozik, alaitsu, gogotsu? Zelan aurkitzen da zure sena; zure gogo-aldea?

Eta, jarraian, abegi-abegitsu hitz samur bat, aholku argi bat, irakatsi egoki bat. Beti ekinean, beti lanean. Ez astia galtzeak, ez nekeak, ez ezerk ez eutsan hemen minik emoten. Hori zan bere egitekoa eta kosta ala kosta bete egin behar zan.

Otoitzaldi eta gogozko jardunaldietara seminaristekin batera joaten zan. Hemen eukan jarrita bere poza. Berak zuzentzen zituan otoitzak, azterketak, gogoetazko irakurraldiak, eta abar.

Zenbat seminarista eta abadek, belaunaldi osoak esango neuke nik, A. Aurelianorengandik ikasi eben bai ahozko, bai isileko otoitza egiten. Honetan maisua zan. Beragan asko euki eta berenetik asko emoten jakin.

Aldikada luze baten, iluntzero, seminarista barriei hurrengo egunerako otoitz-gaiak emoteko ardura berea zan. Honetan ondu ezinezko markak lortu zituan. Pozez gogoratzen ditue Puthempallytik urtendako abade askok gogoeta honeek.

Betiko egiak gogora ekartean guztiz aldatuta agertzen zan, ez ezagutzeko eran. Ikustekoa ei zan haren beroa, garra, bizitasuna gai horreek azaltzean. Elias barri bat zirudian. Halako seminarista batek dinoan lez, hamabost minutuko hitzaldi hareek erretiro eguneko edozein hitzaldik besteko kili-kilia, bihotz zirrara eragiten ei eutsan.

Kristau artean, batez ere abadeen artean ohizkoak diran onespelik zabal eta onartuenak seminaristei erakusten ahalegintzen zan.

Altarako Jaunagazko onespena; Jesusen Bihotzaganakoa; Nekaldiaganakoa; Andra Mariaganakoa; Garbitokiko Arimena eta abar, hau da, giza espirituaren aldetik Jaungoikoagana zuzentzen diran bidezidor guztiak erakusten saiatzen zan bere seminarista minei.

Otoitzak osotzen dauan esparru guztia arakatu eta argitan jarri bide horretan biharko egunean herriaren aurrean irakasle eta eragile jator izateko.

Seminarioan autortza-entzule

Seminarioko gogo-zuzendaritzarekin batean, oin bardinean, bertako autorletza ere bere esku eroan eban.

Ezaguna zan bere trebetasuna espiritu-arazoetan. Ontasun honen arabera seminarista asko eta asko berarekin autortzen ziran, baita bera hartu gogo-gidari lez.

Seminaristak gehienez astero autortzen ziran. Ez danak A. Aurelianorekin, jakina; hori kontzientzia-zapalketa bat lez izango zan. Askatasun osoa dau pertsonak berak nahi dauanarekin autortzeko. Ez dago onen kontrako legerik, egon ere ezin.

Seminarioan 11 abade-irakasle egozala esan dogu. Honeetatik baten bat, bakotxak zein gura eta haxe, aukeratzeko eskubidea eukan autortza egitekoan, edota arimako ilunpe eta okerrak argitzea zanean. Dana dala, asteroko lana izaten zan eta era berean lan luze samarra.

Beste zeregin guztiak lez, arreta eta gogo onez hartzen eban berak lan neketsu hau. Berak esaten eban honetan jardutea erretore izatea baino pozago errotan ebala, atsegingarriago zala beretzat.

Honez gainera, hainbeste gazteren artean, beti agertzen dira ohizko gogo-beheraldiak eta honetan sarturikoak, jakina, abegitasun handiagoa opa izaten dabe autor-entzulearen aldetik ilunaldi hori garaitzeko orduan. Esku biguna, bihotz errukitsu eta emona, hitz bero, zuhur eta jakintsua da honakoetan osagairik onena. Hortik doa, beti ere, gogo-gidaritzako ildo.

Eta honetan A. Aureliano maisua zan. Berarekin izandako solasalditik jendea baikorrigo, argiigo, itxaropentsuigo jaikitzen zan. Honen ondoan munduko urregorri guztia hautsa da, ezereza, egoera horretan dagozanentzat. Honako autorrak egiten ditue A. Aurelianoren gidaritzapean ibilitako askok.

Horra A. Aurelianoren lana seminarioan: Santutasunera igoteko bideak erakutsi; berak bide asko ezagutzen ditu, zeregin horri ordu eta urte asko emona dalako. Otoitz eta hildura gaietan gazteak eskolatu altarara igon aurretik.

Idazle

Ikusten dan lez, seminarioko bizitzan buru-belarri barru-barruraino sartuta dabil gure misiolaria.

Lehenengo hamar urte honeetan, geldigatx eginik ikusten dogu. Lanari buru-bihotzez emona. Goragoan aipatu dogun

lan guztia gitxi egiten jakon antza eta, amen batean, hiru liburu eder idazten ditu.

Hirurak bere abade eta abadegaiei zuzenduak. Santutasunean goian ikusi nahi ditu Kristoren ordezkariak. Hemen ez dau epelkeriarik onartzen. Beragandik hasita, Kristoren jarraibidean ondo haziak eta ikasiak nahi ditu. Onoipen guztietan ondo eskolatuak.

Hiru liburu honeek Seminarioko bere lanaren osagarriak izango dira. Bere hitzaldi eta gogoetetan ahoz irakatsitakoaren gehigarri eta zabalkunde izan nahi dabe.

Europatik lehenengo gerra orokorra zala-eta, liburuak ekar-tea oso zaila egin zanean, eta hutsune hori guztiz kaltegarria zala ikusirik bere abade eta abadegaientzat, berak lehendik lehen hartuta eukazan apunte eta zirriborroak hurrenez hurren jarri, orraztu, osotu eta argitara emon zituan.

Batez ere abade eta abadegaientzat eginak dira. Hareen espiritualtasuna eta goi-bizitza laba beroan zaindu nahian dabil. Horren asmoz idatzi ditu, idatzi ere, bere liburuok. Horren bila doa.

Euretatik bi latinez idatzita datoz, berak ekian latin ederrean; hirugarrena, barriz, ingelesez.

1) Lehenengo liburuaren izenburua honetara dator: "**Cur-sus asceticus**", hiru tomotan 1917-1919an argitaratua. Gogobizitzako hiru bideak sailez sail zehatz eta sakon azaltzen dituan liburua.

2) "**Thesaurus electorum**". Abadeentzat egina hau ere, eta 1919an agertua. Gogoeta gaiez, otoitz sorta ederrez, irakurgai onuragarritz, sakramentuak emoteko otoitz eta abarrez osotua.

3) **The Mirror of Priests** –Abadeen Ispilua– ingelesez idatzia. Abade bizitza zer dan ulertu eta ebanjelioaren eta santuen gogo-giro eta irakatsien arabera zelan bizi irakasten dauan liburu egokia; lehenengo aldiz, 1922an argitaratua eta gerora laugarren alditaraino heldu zana. Liburu honek bai Indian eta bai Ipar-Amerikan arrakasta eta harrerarik zabalena izan eban.

Gorago esan dogun lez, hiru liburu honeek bereziki abadeentzat idazten ditu. Asmo hau argi adierazten dau Egileak lehenengo liburuaren hitzaurrean:

Lantxo hau zuoi, abadeoi, apaizoi, eskaintzen deusuet; bertan aurkituko dituzue labur azaldurik, gogo-bizitzarako oinarritzko argibideak. Eurok jakin eta egitera eroan barik, gehienezko egoeratan inork ez dau izango abadeari eskatzen jakon santutasun-mailara iristerik.

Honez gainera, hor-hemenka, aldizkari eta honako papere-tan sarri agertu zituan bere idazlan txikiagoak, santutasunaren inguruan biribiltzen ziran izkribuak.

Dinoren lez, ez eukan etorri berezkorik idazteko, ez zan idazle jaioa, baina bai oso landua, egina, ugaria, ordenatua, apain eta gozoa.

Santutasun ikurrean idatzita datoz bere izkribuak; gogobizitzari eskainitako goratarre bero, aintzagarriak dituzu.

Hainbeste zereginen artean galduta, astirik ezak gelditu eban bere eskua gehiago ez idazteko, bestela gehitxoago ere idatziko eban ziur.

Bizi-pozak

Gure misiolaria bertako herritar eginik daukagu. Gizon errimea, sendoa, bizitasuna dariola doa bere eginbeharretan buru-belarri sartuta dabilen bitartean. Saltzeko beste osasun dauka, bere 42 urterekin.

Garai honetan idatzi zituan kartak aurpegi alaitsu hau dakarre. Pozik, baikor, langile, bere bokazioan ondo txertaturik agiri da.

Bere eskutitzetan somatzen dan beste ezaugarri bat hauxe da: beti lanez gainezkaturik dabilela. Eta egunez guztiz lanpeturik egotean, gero gau erdirarte gelditzen da bere paper eta liburuak orraztu eta gertatzen. Arnasa hartzeko asti barik dabil. Kantu hau dakar bere karta guztietan, pozik dagoanaren oharrarekin.

Pozik bai, baina oso lanpeturik. Egunaren ordu guztiak bete-beterik daukaz eta, honen erruz, ez dau aurkitzen unetxo bat ere bere etxekoei kartatxo bat idazteko.

Honela dirautso bere lehengusu Villanuevatar Andresi: *Ez da ahazturik nagoalako, edo nagiak joten naualako nire isiltasun hau. Oso-osoan astirik ezaren errua da.*

Egia da, ez da asti handirik behar kartatxo bat idazteko, baina nik horixe ere ez daukat. Irakasle bat joan jaku Europara hango gerra hotsak deituta eta, honen ondorioz, haren eskolak neuk hartu behar izan ditut, eta, honen arabera, orain harenak eta neureak neuk emon behar egunero.

Hortik, nire estutasunak.

Ez da bardin eskola-umeei eskolak emotea, edota bizardun gazteei, filosofo eta teologoei emotea. Lanpeturik egote honek kentzen deust kartak idazteko asti hori.

Eta betiko berbekin amaitzen dau bere eskutitza: *ondo nago, osasuntsu; pozik neure baztertxo honetan, neure eguneroko burditxoa gidatuz.*

Zereginak ondo betetetik datorkion zoriona agiri da haren aurpegian. Poza dario begietatik.

15

AGINTEARI EZETZA

Gauzak ondo joiazan seminarioan. Txiri-txiri, mailarik maila igonez, goialdean ebulan seminarioa. Tarteko zan gure A. Aureliano ere lorpen garrantzitsu honetan.

Isileko lanaren frutua agirian egoan han: ikas-sailean hobetuta, egituratan barrizatuta, ikasle-taldea ugarituta, heziketa moldeak goituta, seminario eraginkor eta aurreratu batek behar dauan bizigiroan sartuta. Guzti hau bertako irakasle taldeak urteetan eginiko lan ederrari esker. A. Aureliano izena ere aitzindari ebulan hor, onentxoenetarikoa zalako bera.

Eta honek ondorengo larriak ekarri eutsazan, begi asko beragana begira jarri zitualako, batez ere, Verapolyko Gongotzain zan Angel Maria Jaunaren begiak.

1919ko urtea zan; apirilaren 28a. Egun horretan egiten eban Gongotzainak bere sarrera, Verapolyko Elizbarrutira.

Nor izango zan Elizbarruti horretako Bikario Nagusia? Nor Gongotzainaren ondoko? –Eta, A. Aureliano!, Gongotzainak beragan bai zituan jarrita begiak. Eta honen harira, kargua ofizialki emon aurretik, opakizun leiala egin eutsan A. Aureliano-ri kargu hori hartzeko arren eta arren eskatuz.

Eta hemen hasi ziran gure santuaren estualdiak. Holako karguak ez jakozan bat ere begiko; higuin antzeko bat emoten eutsoen barruan. Ezetatik ez zituan hartu nahi. Ezetz eta ezetz egoan Gongotzainaren erreguei.

Azken baten, Gongotzainak ezetz hori erabakigarria zala ikustean, bere asmoetan atzera egin eban. Bakean itzi gure misiolari apala. Baina, bakealdi hau laburra izango zan.

Oraingoan Erroma aldetik dator ziria. 1925eko urtea da. A. Joan Jose Bilbaok, Seminarioko Erretore Jaunak, Karmeldarren Aita Jeneralak bialdutako karta bat jasoten dau. Gozo-gozo idatzita dator, baina eskari garratz batekin. Ardatz hau dakar idaztiak:

Ordenako azken Batzar nagusiak -Aita Jeneralaren berbak dira- *Erroman bertan, nazioarteko ikasle karmeldarrentzat Ikastetxe Nagusi bat eraikitea erabagi dau. Ikastetxe hau lehenbailehen bidean jarri beharrean gagoz. Eta horretarako, lehenengo eta behin, langileak behar ditugu. Hor India aldean ikusi dabe nire begiak Ikastetxeko lehenengo Erretore jauna izan daitekeena.*

Nor izango da erretore-aulkian jarriko dan hori? Eta A. Aureliano. Begiz jota egoan hau ez Indian bakarrik, baita Erroman ere.

Aita Jeneralak gizon jainkotiarra, egina, esperientzia handikoa nahi eban kargu horretarako. Hara eta hona begiratu, Aita Aurelianoren sona dabilkio zalapartari belarrian. Gizon hau da egokiena Erromara erretore ekarteko.

Honen ustetan idatzi deutso Aita Jeneralak Puthempallyko Erretore Jaunari, A. Aureliano kargu horretarako eskatuz. Baina, gehitxo zan Aita Jeneralak eskatzen eban hori.

Ezinbesteko lana zan A. Aureliano Puthempallyko Seminarioan egiten ebana. Bera gabe zutoin bikain bat galduko eban etxeak. Ordezko egokirik ere ez zan agiri inon. Hutsune beteezina sortuko zan Seminarioaren martxan; altxor baliotsua galdu. Beraz, prezio handiegia zan seminarioari eskatzen jakona.

Gainera, India eta Europa ez dira bardinak. Indiarrekin esperientzia handia eukan A. Aureliano egiaz; baina Europatarrekin ez. Ez dira gauza bardinak. Honeek beste kultura batekoak dira. Beste giro baten ohituak. Alkar lotugatzak diran kulturak.

Bestalde, aspaldi baten ez da Europa aldera etorri; ez daki gaur hemen dantzari dabilen kulturaren barri.

Beste ohartxo bat ere baeukan Erretore Jaunak Aita Jeneralari esateko: A. Aureliano, bera zorrotza izatean bere buruare-

kin, besteekin ere zorrotza eta estua zala agintzeko orduan, eta hori ez zala ondo ikusia izango europarren artean.

Gerora, urteen irakatsira, lehenengo urteetako zorrotzasan hau guztiz galdu, baztertu, eta errukiaren eta biguntasunaren eredu aintzagarri bihurtu zala dakigu. Bihotz otzan eta ez-titsua.

Ez da egun baten eskuratzen dana bakotxak geure izaeraren aurka lortu behar dogun garaipen hau. Beste guztioi lez, hari ere kostatzen egin jakon, antza. Baina, azkenean, garaipen hori osoan berea egin eban.

Arrazoibide honek erabili zituan Erretore Jaunak Aita Jeneralaren asmo eta eskabideei aurre egiteko.

Aita Jenerala ulerkor eta adeitsu agertu zan Erretore Jaunaren arrazoibideekin eta horretara amaitu zan autu astun hau. Bakean itzi eutsan A. Aureliano. Estualdi larriok jaso ostean, arnasa barria hartzen hasi zan gure misiolari jatorra.

Ez eukoen saltzeko A. Aureliano indiarrek. Estimatasunik handiena eukan honeen aldetik. Berak emoten ebana goi-behe luze eta zabalean baloratzen eben. Baekien norainoko baliotasuna eukan euren seminarioan gordeta egoan altxorrek.

Altxor honen baliotasuna arranditasunez abestu eban *La Obra Maxima* aldizkariak, 1960ko urtean, Alwayeko Seminarioan, A. Aurelianoren mezako Urrezko Ezteguak ospatu zira-nean.

Honela inoan aldizkariak:

Jubileua abadetzako jaia da; abadegintzagaitik eskerrak emoteko jaia.

Hemen gagozanontzat, baina, jaiak badau beste esangura bat ere: Jaunari eskerrak emoteko jaia da, A. Aureliano opari lez emon deuskulako.

Aita Aureliano, hogeigarren gizaldi honetan, Jaungoikoak Karmengo Ordenari egin deustan erregalua da; Elizari, Indiari eta Seminarioari eginiko erregalua.

Jai honetan irakurri diran kartak gogotan izanik, gure Nagusiak ere eritxi honetakoak dirala esan geinke; bardin A. Aurelia-

nok bere esku eta izerdiz moldatu dituan ehundaka abadeak; baita A. Aurelianogana beronek bedeinkatu dagizan euren umetxoak besoetan dituela datozen gizon eta emakume horreek; baita euren-gandik deabruak jaurtitzeko eliz araoen —konjuruen— eske dator-kiozantentzat ere.

Horrela sinisten dogu guk, berarekin bizi gareanok ere; gure-tzat ere erregalu bat izan da.

Urte asko emon dagiozala Jaunak A. Aurelianori. Egiaz, Jaunak eginiko erregalu handia dogu bera!

1920an, bera hil baino berrogei urte lehenago, seminarioan bere ikasle izandako seminarista batek honetara idazten eutsan bere adiskide bati: *Atzo errosarioa erresatzen ikusi zenduan Aita karmeldarra santua eta atsegin-atsegina da; Jaunaren ezohizko erregalua.*

Guk bere ikusiak ikusita, hauxe autortu behar: mahai gainean, guztien zerbitzurako, beti gertu egon zan erregalua izan zala.

16

PUTHEMPALLY-RI
AGUR ESATEN

Puthempallyko Seminarioa urtetik urtera gorantz joian kristau-taldeak Malabar aldean egiten eban aurrerakuntza handiari esker.

Misiolarien autorrean, lur ona zan, izan ere, Malabarko alde hori kristau haziaren ereintza eta zabalkunderako. Guri loretu eta ugaldu zan urte gitxiren buruan.

Seminarioa gaztez goraino beterik, gehiago hartu ezinean, eta gazte barriak seminariora sartzeko deika, eskean. Gaurkoz txiki eta estu gelditzen zan Malabar eta Keralako Elizaren behar-rizanei ondo erantzuteko.

Bera kokatuta egoan tokia, polita eta dotorea zan arren, ibilbidez pobre samarra zan. Ez trenbiderik, ez errepiderik, hau da, joan-etorrietarako eratasunik gabekoa zan. Honez gainera, osasunerako ere nahiko ustela. Pitean-pitean sortzen ziran gairxo-izurriteak.

Arazorik larriena, hala ere, txikiegia izatetik etorkion; inguruetako Elizbarrutietatik bialtzen zituen seminarista barriak ezin hartu izatetik. Hainbeste abadegai gazte eta eder, tokirik ezagaitik kanpoan itzi behar izaten ziran. Ezetz esan behar gazteoi.

Edonondik begiratuta ere irabazi kaxkarra zan hori, ezinezkoa. Bide hobeak aurkitu behar ziran. Jokera eta saio barriak burutu.

Baebilan asmobide bat askoren hausnarrean: Seminarioa bera handitu! Baina horretarako seminarioak berak ez eban gai-



33 urte zituala

tasunik, garantia gehiegirik eskeintzen. Zalantzak sortzen zituan hainbat aldetatik. Hor egoan untzea, akatsa. Azken baten asmobide hau usteltzat emonez, bazterturik gelditu zan.

Honen ezinean, seminario barria egiteari eder egiten hasi zan gehiengo. Asko ziran asmo honetakoak. Seminario barri, handi, eroso eta gaurkotu bat, Malabar-Kerala aldeko Elizbarrutien beharrizanei egokitasunez erantzuteko besteko seminarioa egitean. Hauxe zan gehiengoaren ahotsa, eritxia.

Egitamu hau eskuan ebala Europaratu zan Seminarioko Erretore Jauna, 1927ko urtean. Egitamu honi bideak egin behar jakozan; eztabaidatu, karmeldarren Gasteizko eta Erromako Agintariek, danen onespena lortu arte. Azken baten guztiak onartua izan zan. Seminario barriak argia ikusi eban. Baimena bere esku eukan.

Eraikitzeke diru-laguntza ere ziurtatuta egoan. Karmeldarren Euskal Herriko Probintziak eta Erromak hartu eben euren gain ardura hori.

Barri pozgarri honekin itzuli zan Erromatik Erretore Jauna. Orain seminario barri hori non kokatu zan arazoa.

Habia topatu behar jakon. Toki alai, egoki eta berebiziko bat. Toki horren bila joiazan begi guztiak.

Halako baten, Kotxingo Gontzain Jaunak, Always izeneko herrialdean, lur zati, orube eder bat eskaini eutsoen seminarioa bertan jasoteko. Toki ederra zan, beren-beregikoa. Zelan hartu ez!

Puthempallytik hamar kilometrora egoan lurralde hau. Seminaristek ondo ezagutzen eben bazterra, euren asteroko urtenaldietan, hara eta hona ibiltzen ziralako bertatik.

Trena eukan herriak, bere geltoki eta guzti; errepide-sarek ere ondo lotuta. Abantaila handia zan seminarioaren joan-etorrietarako, ohizko zerbitzuetarako.

1930eko otsailaren lehenengoan hasi ziran seminario barria egiten, Always bertan, Eduardo Mooney Gotzain Jaunak, Indian Aita Santuaren ordezkari zanak lehenengo harria bedeinkatu eta gero. Hiru urte luze iraungo dabe seminario barriko obrak. Jose santuaren izenez bateatua izango da; Jose santuaren izena eroango dau.

Seminario-etxe hori eraikitzen diharduen bitartean, guk pilatu daiguzan beste barri batzuk.

Gatozan barriro Aita Aurelianoaren esparrura. Jarraitu deogun bere izarrak daroan bideari. Lorratz argia itzi dau India gainean. Ez seminarioan bakarrik, India guztian zehar zabaldu eta entzutetsu egin da haren izena.

Misiolari apal, jakintsu, dohatsuaren ospe eta gaitasunak, haizeak eroandako orriak legez zabaldu dira alde guztietara. Haren isileko lana argimutilean agirian jarri dabe bere egite isil baina harrigarriak.

Nortasun handi baten jabe egin da Indiako Eliz Agintarien entzutean; India guztira zabaldu dan izena da.

EUKARISTIA ALKARTEAREN ZUZENDARI

1928ko irailean, Abadeen Eukaristia Alkartearen Zuzendari Nagusi izendatzen dabe Aita Aureliano.

Izendatze honekin norabide barri bat irekitzen deutso bere bizitzari. Zeregin handi bat leporatu. India aldeko Eliz Apostolutzan bide garrantzitsu bat urratu. Ezinbesteko frutuak emongo ditu Eukaristia Alkarte honek Indiako eliz bizitzan. Bai abadeen eta bai laikoen artean Eukaristiaganako onespina sarri ugarituko dauan legamina izango da, zalantzarik gabe.

Lehenengo eta behin esan daigun, zuzena eta egokia dalaiko, Karmeldar misiolariak izan zirala Indian eukaristiaren alderako debozinoaren sustatzaile, eragile eta bultzatzaile aurrenenak.

Abadeen Eukaristi Batzar honek bere edestitxoa dauka. Ez da antxina-antxinakoa. Aurreko gizaldiaren azkenetan sortua da. Aita Santu Leon XIII.aren bedeinkapenez, lehenengoz, Erromako Klaudio santuaren elizan eratu izan zan, 1887ko urtarrilean.

Zein da Alkarte honen helburua, jomuga? Erraza da jakitea. Batetik, abadeak altarako Jaunaren gurtzaile gailen eta bikainak egitea.

Hauxe lortu nahi dau: altara inguruan bildu abadeak; Jesusen antz-irudira moldatu; Jesusen bihotz eta bizitzatik edaten irakatsi; santutasunera igoteko indar bizia altarako iturrian hartu.

Horrez gainera, abadeak, Jesusen gidaritzapean, alkarren maitasunean urturik bizitzea lortu nahi dau. Alkarren maitasunean eta batasunean bizitzera bultzatu eukaristiaren berora.

Indian, Eukaristia Alkarte honen lehenengo egoitza Punthempallyko seminarioan egon zan. Hemen izan eban bere sorrera Eukaristiaren alderako jaiera honek; hemen sustraitu zan karmeldar beneragarri baten eskutik.

Aita Gaspar, misiolari agurgarriak dakar Europa aldetik 1892an jaiera hau Puthempallyko Seminaria. Gero, bere begiz eta eraginez eratu, formatu eta egituratzen dau, lehenengo Seminarioan, eta gero, apurka-apurka, gaur hemen eta bihar han, India osoan zehar. Gerora Indiako mugak gaindituz, Zeilan eta Birmaniaraino zabalduko da.

Aita Gasparrek hemeretzi urte egin zituan Alkartearen buruzagitzan. Haren hurrengo, Aita Gereon jarriko da, eta honek ere beste hamalau urte egingo ditu. Eta azkenez, 1928an, Aita Aurelianok hartuko dau erakundearen zuzendaritza. Geroztik, urte askotan eroango dau buruzagitza hau.

Lehenik lehen, Alkartearen bizigiroa guri eta sendo zaintzeko berebiziko aldizkari bat "Eukaristia eta Abadea" izenekoa argitaratzen zan bazkideentzat. Oso interesgarria zan aldizkari hau. Hemen agertzen ziran Alkartearen martxarako beharrezkoak ziran idazlan, argibide, aholku, jakingarri eta gainteko zehaztasunak. Alkartearen batasun eta langintzaren lokarria zan aldizkari hau.

Abadeen alkarte honek ondorio eta eragin oso onak, aparteko frutuak emongo ditu eraikita dagoan tokietan.

Aita Aurelianok pozik hartu eban kargu barri hau, nahiz eta lehen baino lanpetuago gelditu bera. Ezin inondik ezetzik esan altarako Jaunari.

Ezaguna dogu beronen lanerako garra. Honen ondoan zuzendari izateko eukan gaitasuna eta esku trebea jarten badi-tugu, eta altarako Jaunari eutsan maitasuna, zuzendari paregabea plazaratuko dogu. Eukaristiaren apostolu gorengoa.

Baina ez zan abadeen esparruan loturik gelditu gure misiolari jatõrraren lana. Eukaristiaganako jaiera hau herrira eroan

nahi dau. Laikoen artean biztu eta zabaldu. Asmo honen hari-ra, "Sakramentu Deunaren Anaidia" sortuko dau laikoentzat. Zein zan Anaidi honen helburu nagusia?

Helburu bi izango ditu begitan Anaidiak: alde batetik, sarritako Jaunartzea, eta bestetik, altarako Jaunaren gurtza, adorazinoa, hau da, sarritako jaunartzeak eta Sakramentu Deunaren gurtzaileak gehitu, ugaritu herritarren artean. Helburu horren bila doa Anaidia bere adore eta bizitasun guztiarekin.

Aurreko urteetan ez dau, antza dan lez, erronka handiegirik bota Anaidi honek. Ez da arrakastatsua izan. Bizikera arrunta, pobrea, erpina izan da berea. Aurrerabide gixkioa.

Eta Aita Aurelianok berbiztu egin nahi dau. Arnas barria emon. Goitik beheraino bere ibilbideak aldatu, gaztetu, egokitu; beste bizigiro baten sartu.

Lilurapen honetan dabil buru-belarri aspaldidanik. Ez deutso begirik kentzen arazo honi. Uneoro dakar esku artera.

Antolaketa orokor bat egin nahi dau erakundearen zenbait puntutan. Esaterako, Elizbarruti bakotxean Anaidiaren ordezkari karguzko bat izendatuko dau, eta ez edozelangoa. Hau beharrezkoa da. Buruzagi onik gabe, emaitza onik ez dago-eta.

Gidari argiak Anaidia gidaritzeko; sen handiko pertsonak; Kristorekin maiteminduak; langile emonak; artzaintza ondo egiten dakienak.

Honen arabera, ordezkari erantzuleak, arduradunak, langileak, leialak nahi ditu eta eurekin hartu-emon estuak izan. Honetan esku gogorra zan. Inor lotan gelditzea edo bazan, bertatik egokiro eta gozoro eginiko deien bat entzungo eban lotatik iratzartzeko eskatuz.

Erakundearen barnebidetako ere hobetu egin behar ziran eta horretarako gauza asko aldatu. Esaterako, Anaidiarentzat emondako iragarki, oharpen, dei eta gogo-eragile izateko bide ziran propaganda eta abar, lehiatsu eta zoli banandu bazkideen artean.

Horretarako, barriz, bazkideen izenak hartu behar ziran; zuzenbideak ondo lerrotu; bakotxaren erantzunkizuna zelakoa

zan begiratu, batzarkideekin hartu-emon beroak izan; ahal zanean, alkarren laguntzan eta maitasunean bizi. Beti ere suspertzaile onaren lanak egin; anaikideen batzarrak berotu, alaitu, bizkortu, adoretu; sutan zaindu batzarkideen gogo-bihotzak.

Erabide barriok sartu zituan Anaidiaren erakundean eta arrakasta ezin hobea jaso eban. Jendearen begiko egin zan apostolutza hori. Benetako legamin bihurtu zan Indiako parrokia askorentzat.

Bere eraginera, biztuz-biztuz joian altarako Jaunaren alde-rako jaiera hau; herri askotara zabaldu zan, jende askoren onerretxia irabazi ebalako.

Apostolutza izugarria egin eben Anaidiok Indian zehar. Azkenean, Indiako mugak gaindituz Zeilan eta Birmaniaraino zabaldu ziran. Apostolutza honen frutu edergarriok Aita Aurelianoren lan eta ekintzari deusaguz zor. Begira berari: han dabil adore-adoretsu, ekinaren erpinean, Eukaristiaren alderako lanetan, inoiz kemenik galdu barik.

HERIOTZA-ATEETAN

Baina, esandakoa: "Gizona dabil eta Jaunak darabil". Onen-onenean egoala eta asmo barriz beterik, goizetik gauera, gaixo zital batek jo eta lurrera erasten dau, heriotza-ateetan itzirik.

Beti gogoan eroan eban gure misiolariak gaixo zital hau. Eraso gogorra egin eutsan, egin ere. Zital eta makur sartu jakon barruraino.

Antza danez, Ernakulam-en, irarkola lanetan ebilala, han inguruan sakute -bartzanga edo nafarrerria- izurrite bat agertu zan.

1929ko apirila zan. Egun batzuk aurrerago urduri, kikil, ondoezik agertu zan. Berak ez eutsan jaramon gehiegirik egin txarraldi horri. Tarteka-marteka agertzen dan motelaldia izango zala eta egoan.

Baina aurpegi baltza ekarren gaixoak. Puthempallyra osterabat egin eban egunean agertu jakon gaixoa bere gordintasun osoan. Holan dino, behintzat, egun haretan, berarekin batera lanean ebulan ikasle batek:

Larri eta artega ikusten neban nik Aita Aureliano. Berak esaten eustan lez, min gogorrek sentitzen zituan buruan eta sorbal-dan. Ez zan berez kezkatia, baina argi egoan gorriak ikusten egoala.

Arratsalde erdirantz altarako Jaunari ikustalditxo bat egitera joaten zan. Ni haren gelan nengoan ordu haretan. Kaperatik etorri zanean, bere bekoki eta aurpegian holako zantzu-mota gorri batzuk ikusi neutsazan.

Nire ustetan sakutearen erasoaldi bat izan eitekeela esan neutsan. Bertatik egoera honen jakitun jarri neban Aita Eliodoro.

Aita Aureliano bera ere susmorik txarreanean egoan. Arin-aringa, Ernakulamera eroan genduan barrero.

Osagileak bertatik ados jarri ziran gaixoaren azterkuntza egitean: zalantzarik gabe, sakute edo baztangaren erasoaldi bat jaso dau Aita Aurelianoak.

Eta komentu barruan, bakarrene baten, bakarrean jarteko agindu eben, etxeok izurritik aldenduta eukiteko.

Lehenago kapera izandako etxetxo bat egoan baratzean eta hantxe jarri eben gaixotegi hori. Haraxe eroan eben gaixoa eta hantxe bakarrik itzi.

Bakartade horretara lagundu eutsan Aita karmeldarra honetara azaltzen da: *Etxeko beste batzuekin lagundu neutsan baratzeke etxetxo horretara. Han gelditu zan etxekeogandik bananduta gaixoa. Eroapen eta gogo handiz eroateko gerturik egoan, etorkiona sufritzeko prest. Beragaitik egindako guztia esker onez ordaindu eta gero, geure otoitzak eskatu euskuzan.*

Gaixo hori izandako indiar baten ardurapean gelditu zan Aita Aureliano. Gerturik egoan indiar hau ardura hori hartzeko, baina baldintza bitxi bat jarri euskun aurretik: edari bizia ugari emoteko berari gaixo mota horrek botatzen dauan hats gaiztoa arindu eta zerbait biguntzeko.

Arimako arazoetan laguntzeko, barriz, gaixo mota hori igarotako apaiz indiar bat geratu zan. Misiolari eta gainerakoentzat ikustaldi guztiak debekatuta gelditu ziran, jendea kutsaduratik garbi zaintzeko.

Gaixoaldia, errukirik gabe, aurrera joian. Aurrea ilun, baltz ageri zan. Heriotzaren itzala susmatzen zan inguruan, ate deika. Azkena etorriko ete zanaren bildurrez jendea.

Aita Aurelianoak azkeneko sakramentuak hartu zituan eta heriotzarako prestaerak egin. Horrenbestearino larritu zan gaixoaren egoera.

Apirilaren hogeita bata da. Gaixoarentzat gau hori erabakigarria izango da. Bai edo ez. Hor egoan zutik osagilearen apostua: *gau hau bizirik igaroten badau, salbatuko da.*

Hurrengo goizean, etxeko nagusia, kikil eta txepel, izualdiaren minera, baratzeke etxetxora urreratu zan: *Aureliano, Aureliano!* -deika.

Zorionez, Aita Aurelianoaren ahotik hitz haritxo bat entzun zan, barrutik inoela: *bizi naz oraindik, Jaunari eskerrak.*

Ordurik larriena garaiturik egoan. Ordutik aurrera, pixkanaka-pixkanaka, gaixoa bere onera etorten hasiko da.

Aita Aurelianoak hilabete bi egin zituan baratzeke bakartadean, bere jagoleak izan ezik beste inor ikusi barik. Beretzako gurutz-bide luzea, negarrezko espetxea izan zan, dudarik gabe, baita bere anaikide eta adiskide guztientzat ere. Anaia, adiskidea, egoera larri, mingarri horretan ikusi eta ezin ezer egin haren alde, ezin lagundu anaiari. Inon oinazerik egotekotan bat hauxe!

Hogeita bateko gau hori gogoratzean, hauxe esaten eban Aita Aurelianoak: *Azken ordu horretan hauxe neukan gogoan: hil ezker ezin izango nebala gehiagotan Jesus Sakramentatuaren jaiara hori jende artean zabaldu.*

Osatu barri, bastoi bat eskuan ebala, erkin eta indarge, Puthempallyko bere etxera aldatu zan. Etxeko mailadira heltzean, beretarren beroa eta poza sentitzean. -*Oraingoan Jaungoikoak bizia parkatu deust!* esan eutsen.

-*Poz algara handia sortu genduan guk bera gure artean barrero ikustean -dino orduko testigu batek- baina ezin dot burutik kendu berak emon euskun tamala, gaixo bihurriak arrasto negar-garriak itzi eutsazan, ba, gorputzean.*

Gizon sendo eta gogorra zana, gaur hazur hutsa da; bere bizar ederra ere kolorez aldatu jako; aurpegian agerian daroaz gaixo markak. Zaharrago emoten dau bere gaixo ostein.

Zerbait jota gelditu zan arren, ez eutsan orregatio gaixoak ondorengo astun-astunik itzi. Ondoren makur batzuk, bai, baina erkintasun hori ez jakon eragozpen izan lanerako.

Aita eta amaren heriotzak

1929ko apirilaren 12a, berak elizakoak hartu zituan egun hori, Aita Aurelianoak gorritz marratuta eroan eban bere bizitza-ko liburuan.

Liburu horretan jarten zituan bere bizitzako egun eta gertaerarik urtenenak: bateoa, sendotza, abadegintza eta abar. Bertan markatu eban bere azken igurtzi hau ere.

Baina gaixoaldi honez gainera, 1928-1929ko urteok ere zoritxarrez beterikoak izan jakozan Aita Aurelianori.

Urte eta erdian, hiru karta hartzen ditu etxetik; hirurak baltzez datoz, barri txarrekin. Eskuak dardaraka eta begiak negarretan dituala irakurten ditu. Berak munduan maiteen izan dituan kutuntxoena hil jakoz.

1928ko apirilean bere aita, Pedro Landeta jauna, hilten da. Bihotza odoletan itzi eutsan aitaren heriotza honek. Zenbat eta urrunago etxekeogandik eta etxeakoak maiteago izaten dituzu.

Barri lastimagarri hau jakitean, bihotzaren berora, aitaren dolumina agertuz, gauza hunkigarriak idazten deutsoz bere amari, aitaren alde otoitz eginez gainera, bere egite on guztiak zeruko Aita onari asmo horrekin eskaintzen eutsazala esanez.

Oraindik gehiago: aitak garbitokian ezer garbitu beharrik eukitea balitz, sufrimendu horreek, Jaunaren aurrean, bere gain hartzen dituala dirautso.

Bigarren karta bat bera gaixorik egoan egunetan hartu eban, 1929ko martxoaren 22an. Hau ere lutuz jantzita etorren. Oraingoan bere arrebarik gazteena, Jesusa, eroan deutso herioak. Berariazko maitasuna eutsan arreba honi gazteena izanez gainera, berak profesa egin eban egun berean jaioa zalako.

Gaixondo luzearen ondoren, oraindik bizkortzen egoala, beste barri triste bat datorkio. Oraingoan bere ama maitea da hil dana, 1929ko ekainaren 24an.

Munduan maiteen izan dauan kutuna joan jako. Amarik onena. Maitasunean sortu eban bere amatxo laztana. Umezurtz gelditu da; aita eta amarik gabe; hondatuta, suntsituta, nahas-menduta.

Gogoa gaua bestean ilundu jako; negar iturriak agortu; bihotza odoletan urratu. Bere doluminaren uluan hauxe inoan negarrez: *-Neure ama zan; ama hil jat!*

Zauri gordin hau ez jakon inoizkoetan zarratu; beti odolotan eroan eban.

Argi dago lorea giza bitzitzaren irudi dala: sortu, loretu, liraindu, ederrez jantzi ingurua; gero tximurtu, itsusitu eta azkenean hil.

GOAKO
II. EUKARISTIA KONGRESUA
- 1931 -

India, hamaseigarren gizalditik aurrera, misiolari euskaldunen misio lurra izan da. Gure misiolari askok itzi ditue bertan euren oin-lorrazak, izerdi eta nekeak. Askok bizia bera ere bai.

Honen oroigarri han ditugu hobiraturik, Goako elizatzon baten, gure Frantzisko Xabier santuaren gorpuzkinak. Erromes lurra da Goa. Xabier santuaren hilobia zaletuz eta maitalez beterik dago edozein garaitan, batez ere, bere jaiegunean, abenduaren hiruan.

Aurten, 1931ko abenduan, misiolari santuaren gorpuzkinen erakustaldia dala eta, jazoera honen itzalera, Eukaristiaren omenez Batzar edo Kongresu Nazionala egitea erabagi dabe hango Gotzainak. Aho batez erabagi eta onartu dabe Batzar Nagusi hori. Elizgiroa ospakizun horren zain dago.

Baina ez da gauza erraza holako gertakizun garrantzitsu bat ondo eratu eta antolatzea. Eratzaile iaio, trebe, adituak behar dituzu; laguntzaile asko lanari ertzak hartzeko.

Lehen eta behin, buru argi eta aditua aurkitu behar dozu, laguntza-talde berebizikoa, egitamua onez eta jator bideratzeko; arrakastaz eroateko.

Eta Goako Gotzain Jauna Puthempally-ra zuzendu zan gizon horren bila. Han egoan gizon trebe, iaio eta aditu hori, Eukaristia Alkartasunaren zuzendari nagusia zana, gure Aita Aureliano. Nor bera baino hoberik eginkizun astun eta arriskutsu hori bere gain hartzeko?

Aita Aurelianok ez eutsan muzin egin Gongotzainaren eskabideari. Pozik hartu eban zeregin astun hori. Zelan ez apostolutza horren buru bera izanik? Horretan baebilan aspalditik buru eta belarri? Bere amets kutuna Eukaristia bazan? Pekatua ikusiko eban horren ezetxean!

1931ko abenduan izango zan Eukaristia Kongresu hori. Lana zaila, korapilatsua danean, sasoiz hasi behar dituzu gertaketa lanak.

Aita Aureliano urtebete lehenago hasi zan bere asmobide eta egitamuak urratzen. Buruan mila idea ditu ate-joka, zein baino zein ederragoak.

Ezer baino lehen India guztiko Gotzaindegietara idatziko dau, Elizbarrutiko Gotzainei Kongresu horren barri emonez.

Berak, bere aldetik, Kongresu irekia nahi leuke, hau da, abade eta laikoei zabaldu eta zuzendurikoa. Apaizak bestean laikoak nahi zituan jokoan ikusi.

Proposamena onartua izan zan bereztik, baina, une haretan Indiako egoerari begiratuz, bidean traba eta eragozpen handiak izango zituela-eta, eztabaidan jarria izan zan. Giro nahasia eta narrasa zan Indian ebilena.

Diru eta ondasun-gabezia eta porrota nabarmen alde guztietan; ekonomia-saila neurri estuan; aurea ilunik; laterri-giroa nahasturik; askatasun-oihuak edonon.

Gabezia horren txarrera, horren baten asko Eukaristia jaietara etorri ezinean geldituko ziran. Argi ikusten zan arriskua; beraz, kontutan hartzekoa zan.

Bestalde, herrian ageri zan politika-giroa ez zan onena; urak lohi etozan; komunismoa ere kantari ebulan, indartsu; garai haretan, India herri zapaldua zan eta askatasun irrintziak bazter guztietan entzuten ziran, geroago eta indartsuago.

Hortik, arriskutsua zan herria holan egoala, erretasun eta artegatasun horretan egoala Eliz Batzar hori horren handikiro eta arandiatsu egitea.

Horregaitik, zentzunaren agindura, handikeriarik gabe, apaltasun bidetik eroatea erabagi zan. Apala baina frutuz aberatsa, ugaria.

Honen arabera, Batzar Nagusi horretan azaldu eta eztabaidarako ziran txosten eta gainetiko gaiak elizgizon eta erlijiosoentzat izango ziran. Jakintza-atala abade eta erlijiosoentzat bakar-bakarrak. Honetara jarri zan azken erabagia.

Bertatik hasi zan Aita Aureliano Kongresurako ikasgai eta txostenak gertatzen. Arin-aringa dabil lanean. Hari asko dira orratz-begitik sartzekoak eta horretarako haizearen hegoak jantzi behar ditu. Zoli jokatu.

Hilabete gitxi barru, Kongresuan burutuko diran egitekoen mapa bat aurkezten deutse Gotzain, mandatari eta beste arduradunei bere asmoen ikuspegi zabal bat emonez bertan. Batzarren ibilbideak, bertan aurkeztuko ziran txostenen eskema, gai, ikuspuntu eta zehaztasun guztiak jakitera emonez. Dana apain-apain dator, ondo orraztuta mapa horretan.

Batez ere, aurrerantzerako Goako Eukaristia Kongresu horretatik frutu eder bi atera nahi ditu. Lehenengo eta behin, Indiako parrokia guztietan Laikoen Eukaristia-Anaidia eratu, eraiki; eta bigarren, Sakramentu guztiz Santuaren gurtza -adorazino- iraunkorra, etengabea eratu, norbait, gau eta egun, Sakramentu Santuaren gorpuean otoitzean egon zedin.

Helburu zaila lortzeko, baina, Aita Aurelianok gogo-bihotzetan tinko eta sendo sartuta daroana. Helburu hori lortzeko ahaleginetan emon ditu urteak zehar bere indar eta eragin guztiak. Gaurgero ez dau eskutik itziko zeregin eder hau. Bere bizitzaren arnasa lez izango dau Eukaristiaren aldeko apostolutza hau.

Hartutako lanari erantzun nahian, Goara doa egun batzuetarako, Aita Eliodoro lagun dauala. Toki bila doa, bideak egitera.

Kongresura etorriko diran gotzain, arduradun eta beste batzarkideentzat ostatu-etxeak gertatu behar ditu, deiturikoak abegitasunez eta erosotasunez aterpetzeko. Etxe eta bizilekuak bere begiz ikusi gura ditu. Ertzak ondo hartu. Hutsik txikienik ere ez dau nahi Batzarren antolaketa. Dana begipean euki, azken oneritxia berak emon arte.

Ostatuez gainera, batzarlekuak ere opa ditu batzarraldiak egiteko. Honeek bagarik ezin ezer egin, mozturik geldituko litzake Eukaristiaren jaialdia. Orain pozik dago. Xabier santuaren eliza toki egokia da batzarraldiok egiteko.

Appollinaris da Cruz Pinto, Kongresuko Idazkaria, Aita Aurelianoren zain egoan Goako geltokian berari ondo etorria emoteko. Alkar-aurkitze honen barri Appollinaris jaunak berak damosku bere txostenean.

“Aita Aurelianok, trenetik jatsikeran, anaikiro besarkatu ninduan, baita nirekin egozanak ere. Oso nekatuik etorren egun bi eta erdiko bidaiaren trenez egin ostean. Neure etxean euki neban hainbat egunez ostatuz.

Zarrasta handia egin eustan bere barnemuineko bizitza aberats eta sakonak; bere gizalege apal eta otzanak, hutsaren trukez zerbitzeko eukan gogo zabal, biziak. Ez eban nahi ezelango nahikeriarik beretzat. Kongresua zan soil-soilik haren aburu bakarra.

Gero, Goako Gongotzainarekin alkarrizketatu ginan, ikustaldi batez baliatuz. Hainbat argibide jaso genduzan ikustaldi haretatik.

Eta handik, Santa Monika lekai-me-etxera zuzendu ginan. Oso handi eta zabala da komentu hau. Egonleku asko ditu. Han jarri zituan Aita Aurelianok hurrengorik hurrengora eta aterik ate Kongresura etorteko ziran mandatarien izenak.

Eroapen eta adikortasun hutsa zan guztiekin. Bihotzak bereganatzeko berebiziko gizona. Benetan agurgarria.

Kongresuak, bere esparruari ezarritako jomuga, eta Frantzisko Xabier santuaren omenez ospatzen ziran jaietan egiten zala kontutan izanik, onarpen handia izan eban. Jendetza izugarriak bildu ziran Eukaristiaren inguruan egin ziran elizkizun guztietan.

Hiru erritutan esan ziran Kongresuko hiru Meza Nagusiak: siro-malabarrezko errituan, Kongresua zabaldu zan egunekoa; bigarren egunekoa, latinez; eta hirugarrena, Kongresuaren itxierakoa, siro-malankara errituan.

Kongresuko hitzaldiak, ostera, abadeentzat eta erlijiosoentzat bakarrik izan ziran. “Eukaristia eta Abadea” izenpea ardatz eukala joan ziran gaiburuak. Frantzisko Xabier santuaren elizan emon ziran hitzaldiok.

Kongresuko Zuzendaria zanez, Aita Aureliano sarritan agertu zan jendaurreko hitzaldiotan, batez ere, norbaiti ondo etorria, edota eskerrak emotea zanean. Kongresu barruan egin eban hitzaldia, barriz, “Abadeen Eukaristia Kongresuari” buruz egin eban.

Goralmen eta txalo artetik iheskor eta apal, ez eban nahi ezelango buru agertzerik. Beti isilean, guztien otsein eginik. Jaunkoikozale, apal, onberatsu eta zerbitzari ikusi eban hango jendeak. Oneritxi hau jaso eben Aita Aurelianogandik batzarkide guztiak.

Jakingarriak gertatzen dira honetaz A. Soares, indiar kazetari gazteak, Bombay-ko The Week astekarian 1931ko abenduan idatzi zituan idazlanak.

Aita Aurelianorekin hizketaldi luzeak egin ziran, berak dinoanez. Eta holantxe txukunki eta arretatsu margotzen deusku Aita Aurelianoren irudia

Noel agurearen irudiarekin bardintzen dau gure misiolaria apartekotasunean, jenialtasunean eta adeitasunean oso-osoan biak irudi baten sartuz:

Atseginkor, neu zelan atseginduko ebilan beragana jotzen neban bakotxean. Nirekin maitasun hutsa zala autortu behar dot.

Kongresuan esandako hitzaldien kopiarik oraindik ez zan lez egoten, ezta prentsa aurrekorik, niri neuri notak hartzeko eratasun guztiak emoten eustazan, goizero eskuizkribu horreek neuri itziaz.

Aita Aurelianoren esanetik hitzaldiok laster izango ditugu geure esku, liburu eginik. Burubide eta erabagi oso interesgarriak izan dira Kongresuan hartu diranak.

Goi jakituriaz beterik datoz, eta bizitzara eroateko gauza bagara, barriz, zalantzarik gabe, aurrerapen handiak ekarriko

ditue Indiako Elizarentzat, batez ere, Kongresuan hartutako helbururik gorengoena beteten bada, hau da, Sakramentu Deunaren alderako, India osoan, 13 orduko gurtzapen iraunkorra jartea lortzen bada. A. Soares hau, aurrekoa idaztean kazetari oso gaztea zana, gerora India guztiko "Kristau Bazkundearen Buruzagia" izatera heldu zan.

Kongresuan hartutako azken erabagia honetara etorren:

"Gotzain bakotxari eskatzen jako, bere elizbarrutian abade bat izendatu egiala, Abadeen Eukaristia-Bazkunekoekin batera asmobide hau lortu ahal izateko: egun bat bera ez eitela igaro Indiako elizaren baten 13 orduko gurpena egin gabe, sinisbakoak kristau egiteko eta misioen beharrianen alde otoiitzak eta eskariak eginaz".

Amaitu dira Eukaristiaren jaialdiak. Bere akats eta guzti, Kongresua ildo onetik ibili da. Pozik dago Aita Aureliano, baita berarekin lankide izan diranak ere.

Oso nekaturik dator Puthempallyra. Izugarritzko lan mendia eroan dau egunetik egunera. Ordez ez dau goralmenik, ez txalorik eskatu. Betiko apaltasunean ezkutatu da.

Orain azkeneko orrazketak egin beharko jakoz lanari guztiz amaiturik izteko. Kongresuko kronikak, eskuizkribu eta gainetiko bitxikeriak batu eta liburu bat eginik argitaratu.

1932ko abuzturako argitaraturik eukan liburua. Han datoz polito-polito eraturik kronika guztiari dagokiozan lan eta zertzeladak.

Liburuaren oinean, Alwayeko irarkolan egina dala oharkatzen dau. Zergaitik hau? Ordurako Puthempalytik Alwayera aldatuta eukalako bere egoitza. Gaurgero, Alwayen aurkituko dogu bera.

Seminario Barria

Puthempallyri agur esateko ordua heldu da. Alwayeko Seminario barria zabaltzeko unean dago. Egunokaz joan-etorri urduria dabil Puthempallyn. Etxea hustu behar da. Altzari eta tresnak Alwayera aldatu. Dana hankaz gora dago barruan. Far-del eta paketez beterik bazterrak. Nahasmendurik barnebidetia. Gela eta zokoak nahas-nahasian; paperez lohirik solairuak.

Irakasle eta ikasleak agurraren etxeminak jota. Nahigabearen negartxo bihotz-zaurian, hainbeste urteren buruan, euren lantegia izan dan txoko maitea iztean, nahiz eta itxaropentsu aldatu seminario barrira.

Periyar ibaiak ikuskizun bakana ager dagi. Ohizko ez dan ikuskizuna. Txalupa, batel eta gabarrak joan-etorri bizian dabiltz urak zeharkatuz eta urrinean galduz. Armairu, liburu- arasa, mahai, irudi eta gainetiko trikimailuz beterik doaz etxe barrirantz. Alkar zeharkatzean zantzo, oihu eta irrintziak.

Alwayeko Seminario barria zabalik dago, itxaronean zain, biztanle barriak hartzeko, nahiz eta oraindik guztiz amaiturik ez egon.

Hiru habearte edo nabe ditu. Bata erdikoa, luze eta dotorea. Habearte honi josita, beste nabe bi, ezker-eskumatara, alboetan, beso bardinean luzaturik. Ingurunean lautada zabalak, ondo zainduak, lorez eta edergailuz apainduak. Bertan, Seminarioko kapera nagusia ere.

Hemen daukagu gerturik Kerala eta India guztirako abadegaien mintegia izango da seminarioa. Gaztetasuna eta amesa

ikusten da 275 seminaristen begietan. Amets-ameslari biharko egunari, etorkizunari itxaroten dagoz. Hor dago zutik Indiako Elizaren itxaropena.

Solo-hariaren Jabeak bere solora bialdutako langile auke-ratuak dira. Jesusek lurrera ekarritako su-txinpartak India osora zabaltzeko guraritan, gartsu eta kementsu dihardue aurreprestakuntzak egiten. Gaur, 275 dira; laster, etenbako gaztedi bat etorriko da atera deika.

1933ko urtarrilaren 28an zabaldu zan ofizialki Seminarioa. Irekitze-egunean han ziran Malabar eta Keralako Gotzain Jau-nak, abade talde handi-handi batek inguraturik. Han zan baita gure Aita Aureliano eta berarekin etxeko maisu taldea. Han, baita, seminarista eta gonbidatuak.

Zabalaldiko bedein kapen eta Meza Nagusia, barriz, Mons. Leo Kierkels, Aita Santuaren Ordezkarriak egin zituan. Dana jai-giro gozoan.

Kultur jarduerak Seminarioan

Seminario barria lehenengo egunetik kultur bideak seriotasunez urratzen hasi da. Lehiatsu dabil gaztedia ikasketa arloan, buru-bihotzak jakituriak eta gomutapenez apaindu nahian. Ondo tinkotu abade-bizitzan, gero ondo beteteko abadegintza-ko zereginak.

Bestalde, Indiako zerua ilun eta nahaspil agiri zan une haren-tan. Arazo astunak ebiltzan, otsoaren gisan, gizarte bizitzako inguruneak lorrinduz, iraulkatuz. Beraz, adi egon beharra dago Malabar aldean agertu diran arazo larriok begi sakonez begiratu eta aztertzeke, batez ere, seminarioan.

Mundura jatsi bere taupadak entzuteko. Herriaren arazo, buru-hauste, korapilo eta nekeetan barru-barruraino murgildu, ilunpe horreek sakonetik ezagutuz, gero, abade eginik, herrira itzulitakoan gidari argi eta erabakitzaile izateko; herriaren uste ona eta sinismena irabazteko. Artzainak zokondo eta ibilbide guztiak ondo ezagutu behar ditu artaldearen aitzindaritzan ondo egiteko.



Alway-ko seminarioa

Izendatu daiguzan holako arazo astun batzuk: Malabar aldean inguruko erlijioen aldetik ernez-ernez eta zabalduz datorren abadeen aurkako jokaera; komunismoaren sorrera; materialismoak ekarritako iraultza; herri desbardinaren arteko hasarrebide, zurru-burru eta desakordio latzak...

Aldatuz dator gizarte giroa; aldakuntza eta jomuga barrieta-za zuzendurik doa. Eta gizarteak berak sortu dituan arazo eta ikuspegi barrioi erantzuteko, abadegaiak eskola horretan mol-datzeke, trebe egiteko, ikasketa sailean eta araubidean aldaketa eta aurrerabide barriak bideratu dira seminarioan.

Lehenengo eta behin, ugaritu egiten da seminarioko irakas-le taldea. Lehentxoago edo gerotxoago, lehengoz gainera, hamar irakasle barri sartuko dira: lau bertoko eta sei euskaldun.

Aita Aureliano ere han da euren artean. Oraingoan Erretore Ordezko eta Ikasketa Arduradun izendatu dabe. 1933tik 1944ra eroango ditu bere gain kargu biok.

Aita Joan Jose erretorea urteetan aurrera egoan lez, bere esku egozan betebeharrak batzuk Aita Aurelianoaren bizkarrean itzi zituan.

Itzal handiko gizona dogu gure Aureliano. Seminarioaren martxan argi nabari zan bere eskuaren eragina. Hainbat aldakuntza sartu zituan irakasketa-egitarauetan, baita jakintzagai eta araubide edo diziplina sailean.

Barrizturik eta gaurkoturik nahi dau ikusi seminarioko lana, seminaristen heziketa. Horretarako argitaratu barri egoan "Deus Scientiarum Dominus" izeneko Enziklika borobila darabil lagun. Honen berora, seminario barria zabaldu zan urtean bertan jakintzagai barriak sartu ziran irakasketa arloan: Erljioen Konparaketa Historia, Soziologia, Biologia, Gerkera.

Seminarioaren onak grinatuta, India eta Europako Seminario batzuetara ere kartak idazten ditu gai askori buruz argitasunak eskatuz: zeintzuk ziran seminario haretan irakatsi eta jorratzen ziran oinarrizko baloreak; zelan antolatzen ziran ikasketak; zeintzuk ziran euren araubideak; zeintzuk heziketaren norabideak; zelakoa zan barruko bizitza; hau da, seminario bati dagokiozan jakingarri guztiak bere esku euki gura ditu, onenak eta egokienak berean ere sartzeko.

Bere asmo berezia, zelan ondu seminarioaren martxa eta ibilbideak zan. Horregaitik beti egoan gerturik erakundearen onerako ziran aholkuak entzuteko, seminarioaren bizitza erdua hobera aldatzeko.

Erretore Lanetan

Aita Joan Jose, Erretore beneragarria, aguretu egin jaku. Erretore zama hori astun egiten jaku. Berak ere erretore barri bat amesten dau. Esku gazteagoa seminarioaren gidari izateko.

Honen zirikara karta berezi bat idazten deutse bere agintarierei Erromara erretoretzatik osorik askatzeko eskatuz.

Zirrara bizia egin dau eskutitzak Agintariengan. Hala eta guzti ere, ezetza hurrago dago baietza baino agintarien aho eta gogoan. Ez dabe onartzen Aita Erretorearen ukapen hori. Ez Erromako agintariak, ez Gasteizkoak, ez etxeko irakasleak ere. Zahar eta guzti, oraindik onena bera.

Goi mailako lana egin dau Aita Joan Josek erretoretzako karguan. Non bera baino hoberik! On hutsa da, begiluzea, jakintsua, buruzagi trebea, segurantz osoko gizona. Artez eta zuzen eroan dau etxeko ontzia onean eta txarrean. Penagarria litzake holako gizon erraldoia galtzea. Hortik Agintarien ezetz borobil hori.

Ezetzta baita Aita Aurelianoren aldetik ere, badakialako Erretore Jauna erretiratzen bada kargu hori bere gain etorriko dala.

Goragoan esan dogun lez, bildur itzela eutsan agintari izateari. Besteen esanpean ahal dan guztia egin bai, baina bera agintzen egon ez. Hori gurutze bihurtzen jaku.

Horregaitik Aita Joan Joseren uko-egite hori jakin ebanean, beragana urreratu eta ukamen-karta hori, mesedez, erretiratze-ko eskatu eutsan. Ez zala ona, ezelan ere, kargu hori lagatzea. Guztiz mingarria izango zala bai etxekoentzat, baita seminaristentzat ere.

Aita Aureliano gerturik egoan Erretore jaunagandik etozan agindu guztiak eta hamar egiteko, horretarako zan bere ordezkoa, baina erretoretza bere esku hartzeko ez. Ardura honek atzera eragiten eutsan. Honez gainera, handitzat eta edertzat eukan Aita Erretoreak hainbeste urtetan eginiko lan zuzena.

Arazo hau, ezinaren ezinez, azken baten, geldirik egon zan urte batzutan. Ez atzera ez aurrera, hilik.

Baina urteak ez dabe parkatzen eta, 1943ko urtearen hasieran, Aita Erretoreak Mons. Kirkels, Indian Aita Santuaren Ordezkari zanari, Erretoretza hori, bere adina kontutan izanik, beragandik beste lepo batera aldatzeko eskatzen deutso.

Joan Jose Erretoreak Aita Aurelianoren lepora aldatzea nahi eban, baina beti honen mukerkeria jarten jakon aurrean. Ezin konbentzitu gure Aita Aureliano.

Azkenean, arazoaren ebazpena bide erdira ekarri eban Mons. Kierkielsek: Aita Joan Jose, izenez behintzat, Erretoretzan geldituko zan; baina Seminarioaren zuzendaritza eta berak egokitzen eta bidezkatzen jotzen zituan arazo eta egiteko guztiak,

bere kabuz Erretore Ordezkoaren esku izteko eskubide osoa emon eutsan Kierkiels Jaunak Aita Joan Joseri. Azkenean ere, bere ezetza iruntsi behar Aita Aurelianok. Izenez ez, baina iza-terez erretore-lana egin behar.

Kierkiel Jaunaren aholkuari jarraituz, Aita Joan Josek etxe-ko talde-lagunak batzarrean bildu eta danen aurrean honako hau iragarten dau: *Une honetan, egokiena eta komenigarriena dana eginez, hauxe adierazoten deusuet: hemendik aurrera, nire Erretoreordea, izen horrekin eta neure esanpean, eguneroko arazo eta gauzetan Seminarioko zuzendari izango dala, eta horretarako behar dituan aginpide guztiak bere esku izten ditudala.*

Neure aldetik ontzat emongo ditut beraren agindu eta erabagi guztiak, eragozpen txikiarik ere jarri barik bidean. Hauxe eskatzen deusuet zuoi ere, beteko dozuela oso-osoan itxaronez.

Gero, Aita Aurelianogana zuzenduaz, aita baten maitasuna agertuz eta oso-osoan bere laguntza eskatuz, honelaxe dagitso berba: *Orain zugana zuzentzen naz nire Aita Aureliano on eta maitea: uste dot zuk, urte askoren buruan, Seminario honen zerbitzu eta lanean egin dozun kate eder horri bere begian merituz beteriko eraztun barri bat jarteari ez deusazula muzin egingo, ezta ia ezindurik dagoan eskeko apal honi ere. Jaunaren maitasunaren eskatzen deusut, bada, onartu dagizula inguruabar edo zirkunstantziak behartuta zure gain jarten dodan zama barri hau. Izan zakidaz nire zirineo ona; Jaunak sarituko zaitu; hartu nire ongura eta esker ona.*

Askok ez eben onartu urtenbide hau; gora-behera guztiok alde batera itzita, gehiengo kargu horren arduradun sasoiko gizon bat jartea hobe izango zala eta egoan.

Batzuk Aita Aureliano bera egin eben errudun, bere ezetetik etorrela eta gatx guztia. Nahiko litzake berak baietz bat esatea eta arazo guztia berehalaxe legoke konponduta.

Baina Aita Aurelianoren bildurrak tamainukoak ziran. Berenetik Erretore izan baino lehenago, edozein tokitara joan nahiago leuke. Nagusien esanari men eginez bakarrik hartuko dau Erretoretza hori.

Aita Aureliano ezetzetik atera ezinik ebulan adiskide kutun batek, haren porrota jasotakoan, hauxe esan eutsan barrezka: *Zu bigarren mailan zabiltzan astotxoa zara; zamak eroateko astotxoa.*

Bere aldetik, Aita Aurelianok kemen eta adoretzu, esku luzez eta bihotz zabalez bete zituan Erretore zaharragandik hartutako erregu eta lanak. Haren zirineo ona izan zan azken-azken arte.



Misiolari eta maisu oso-oso

**MADRAS-KO
EUKARISTIA KONGRESUA
- 1937 -**

Eukaristiaren Apostolu

Aita Aureliano Eukaristiak inoizkoetan izan dauan apostolurik onentxoena izan dala esan behar. Honetan agortu zituan bere indar eta ekimenik onenak. Batez ere, abade eta seminaristak Eukaristiaganako maitasunean urturik ikusi nahi zituan.

Helburu hori zan, batez ere, beraren apostolutzaren ardatza. Horren inguruan biribildu zituan bere ekimen guztiak. Honen arabera, atsegin izaten eban abade eta seminaristekin, ahal eban guztietan eta guztiekin egotea. Ez eban horretarako erarik galtzen. Beti gertu esparru horretan ibiltzeko. Banan-banan egon bere kideekin eta, hau ezin zanean, karta edo esku-orriak bitarteko zirala.

Abade eta abadegaiak Eukaristiaganako jaiera eta maitasunera beharturik egozala sinistuta egoan Aita Aureliano. Ezin daitekeela abade ona izan ardura eta egiteko hori ahaztuta daukan elizgizona. Hori norbere bokazinoaren emoi bat zala eta egoan. Beraz, jomuga horren atzetik ebulan.

Alwayeko Seminarioan eukan Eukaristiaganako mugimendu honek bere iturri gardena. Hemen dauko egoitza. Hemen dago eraikita erakunde goragarri hau. Hemendik distiratzen da India, Zeilan eta Birmaniaraino bere argi zabala. Hemen dago beraren apostolu urtena, kementsua, suspertzaile apartekoa: Aita Aureliano. Honen esku doa erakundea. Apostolurik onenaren eskuetan.

Sail asko ditu Eukaristia-Erakunde honek. Aitatu daiguzan hemen gorengoenak: Abadeen Eukaristia-Batzarra; Laikoen Eukaristia-Anaidia; Sarri Jaunartzearen Bazkunea; Gau-gurtzaileen Alkargoa; Eguneko Gurtzaileen Alkargoa...

Aita Aureliano da mugimendu guzti honen zuzendari sutua. Honez gainera, bera dogu Eukaristia Kongresuen buru argia. Bere zuzendaritzapean, erakunde guzti honeek, 1928tik-1945era, hamazazpi urtetan zehar aurrerakada eta gorakada handia egin eben; esaterako, Abadeen Alkarteak 1.000 bazkide izatetik 3.000 izateraino ugaltzea lortu eban.

Madras-ko Kongresu Nazionala

Ondore on asko lortu zituan Aita Aureliano bere lanetatik. Holako ondore txalogarri bat Madrasko Kongresu Nazionala izan zan. Han gauzak ezin hobeto joan ziran.

Antolatzaile argi, begiluze, arduratsu eta lehiatia zala daki-gu, baina, Eukaristia-Kongresu honetan neurri guztiak txiki itzi zituan.

Honetan bat datoz han ikusle izan ziran guztiak. Goralmen txalogarriak entzun ziran han, gero ikusiko dogun lez.

Madrasko bigarren Kongresu hau ordurarte Indian izandako katolikoek Batzarraldirik ospetsuena izan zan, zalantzarik gabe. Indiako katolikorik gehienak parte hartu eben bertan. Gotzain, abade eta laikoak ziran tarteko. Katolikoak Indian orain arte eginiko fede-adierazpenik handiena, fede-agerketarik hunkigarriena izan zan. Hain zirrara sakona egin ebanez Kongresu horrek, horren ezaugarri Indiako Eliz historian idatzirik gelditu da.

Eukaristia-Kongresu hau 1937ko abenduaren 29, 30 eta 31n ospatu zan. Kongresuan azaldu zan gaiburua "Eukaristia eta Abadea" izan zan; gai oso interesgarria une haretako ingurunea kontutan izanik. Hur eta sutsu ebiltzan kristauen aurkako etsaiak.

Kongresutik jaio ziran ondore eta emaitzak, edonondik begiratuta ere, ugariak, goi mailakoak izan ziran.

Aita Aureliano bera ere oso pozik eta baikor agertzen jaku. Ez zan lotsatu honako hau idaztean: *Kongresuak neurri guztiak gainez bete ditu, aurreritxi guztiak atzean itziz. India, Birmania eta Zeilango Gotzain guztiak parte hartu dabe Kongresuan; guk uste genduan baino eliztar gehiago ikusi dogu; ezinbesteko jendetzak; ez bairik gabe, Jaungoikoak gure eskariak entzun eta gure lana bedeinkatu egin dau.*

Jende talde handiak batu ziran, erromes gisara, egun horretan Madras aldera. Trenez etorritakoak bakarrik 40.000tik gora; abadeak, miletik gora; 50 gotzain; herri-agintariak ere han ziran, gonbidatuak lez, nahiz eta katolikoak ez izan.

Batzarra amaitu eta laster, bertako aldizkari batek *-The New Leadre* izenekoak honelantxe idazten eban:

Batzarrak harrera ezin hobea izan dau. Antolatzaile eta gainetiko laguntzaileak ez eben uste, inondik ere, horrenbesteko garrantzi eta tamainurik lortuko ebanik; oraindik gitxiago prentsa, jendarte eta herri-agintarien aldetik izan dauan harrera, itzal eta abegitasuna.

India, Birmania eta Zeilango katolikoak helburu eta jomuga bardinetan besarkatu dira. Ez Madrasko uriak, ezta Indiako beste uriak ez dabe ezagutu sekula santan hainbesteko jendetzarik fede baten autormenean bateginik.

Kongresu hau Indiako historian geldituko da gertakizun handi bat modura. Jomuga handia izango da, baita ere, Indiako erlijiotasunarentzat.

Gizartean diran aurreritxi asko desegiteko bideak ekarriko ditu. Askok uste dabe katolikoak dakarren erlijio hau atzerritarra dala, hemengo herriarentzat kaltegarria.

Bizi izan dogun gertakizun honek, hauxe irakatsi deusku hainbaten: kristau erlijioa herri guztiena eta herri guztientzakoa dala, eta etxe-etxe dala bai Europako bai Asiako hainbat herrialdetan.

Ekintza katolikoak, enda eta hizkuntza guztiak gaindituz, guztiok anaitasun baten alkatzen gaitu. Ez da hangoa edo hemengo, herri guztietan finkatu eta erroztatzen dana baino.

Mons. Kierkels, Aita Santuaren Ordezkariak ere, Batzarraldiok izan eben garapen eta lan joria ikusitakoan, berba gitxitan, Aita Aurelianoi bere zorionik beroenak damotsoz idazki honetan:

Zorionik beroenak zuri, Batzarraldi hau asmatu eta bideratu dozun horri, hainbeste lan, neke, ahalegin eta kemen leporatu ostean azken onera eroan dozulako. Batzarra benetan onuratsua izan da; frutuak ere ikusgarriak izango dirala-eta nago, Batzarreko zeremonia eta elizkizunak ikusgarriak izan diran lez.

Mons. Roberts, orduan Bombaiko Gotzaina zanak ere, honako goralmen kutuna dagitso Aita Aurelianoi Kongresuak izandako garapen handiagaitik:

Ikusi dot, bai, hazi txikitxo batek zelako garitza edo garaitza ekarri deutson gure Errege eta Jainkoari.

Horretan lan egin daben abade eta laikoei, idazkari eta gainerako eratzailerei aipamen eta esker ona zor jake, baina guztien laguntzaile eta zuzendari abade bat ibili da, Aita Aureliano, asteak aste, isilpeko lan neketsuan, bere burua ahazturik; ez da bera aipamen eta goralmen bila inoiz ere ibili; inoiz ere ez dogu bera gogoa edo kerna galduta ikusi; beti eginahalean ibili da etenbako lanetan, ordez ezer eskatu barik, nolabait esateko, isilpean bere burua gordeta ibili da, zeruko Aitaren eskutik hartuko dauan saria besterik nahi ez daualako

Batzar honetan egindako lanaren sariz, Aita Santuak “**Pro Ecclesia et Pontifice**” domina emon eutsan.

Eukaristia Kongresuok gertatzea berak eukan lanaren alderdi bat baino ez zan izan. Beste alderdia, garrantzitsuagoa, abade eta laikoen artean, goragoan ikusi dogun lez, Eukaristiaren alderako jaiera, debozioa biztea, suspertzea izan zan. Horretan erre zituan bere indarrrik onenak.

FRAILEEN IKERLARI

Aita Aureliano, langile porrokatua, lanaren zamapean dabil gau eta egun. Ezertarako asti barik.

Ikusi ditugu bere gain daroazan zeregin eta arazo astunak. Nahiko dirala esan leike gizonik kementsuena menperatzeko.

Seminarioko gogo-zuzendari eta erretoreordea da; abade, seminarista eta lekaime askoren autor-entzulea ere bai.

Seminariotik kanpo, Eukaristiaren eta Jesusen Bihotzaren apostolu gartsua; zeregin eta erakunde horreek bere ardurapean daroaz, berez gizonari loa kentzeko bestekoak badira ere. Arrazoiak eukan frailetxo harek irribarrez “Zu zamak eroateko astotxoak zara” esan eutsanean.

Lanerako eukan kemen eta gauzak egiteko eukan gaitasun horreek, argimutilean eskegita dagoan argiaren antzeko ziran bere ingurukoentzat. Neurritz gorako gizona zan; doe bereziz apaindutakoa; besteak baino goragoko mailan mugitzen zan aurrelaria.

Nagusien aldetik ere konfiantza osokoa. Zeregin eta arazorik zailenak onez aterateko berezkoa eukan gizona.

Doe honen harira, Nagusiak, beraren eguneko zereginetatik kanpo, beste zeregin batzuk ere Aita Aurelianoen lepora botaten ekien. Esaterako, Nagusien aginduz, Misioko ikerlari izendatu eben.

Zein zan ikerlari honen zeregina? Ordenako Nagusien ordez eta izenean ofizialki Misiolari ikerketa egitea: hau da, Misioko gauzak zelan doazen begiratu; misiolariekin egon; euren arazoez arduratu; okerrak zuzendu; hutsak eta zuloak bete; aurrerabide barriak zabaldu; bihotz nekatuei adorea

emon; gogoak arnasbarritu; otoitz bidean anaiak sendotu; anaia arteko maitasuna txukundu; misioiko gauza guztiei azterketa sakon eta orokor bat egin. Misioko bizitza barruz eta kanpo azterkatu, ahal dan neurrian erabarritzeko.

Obeditzeko beti gertu, baina, agintzea edo nagusitza sar-tzen bazan bitarteko, Aita Aureliano nahastu egiten zan, kikil-du, artegatu, larritu. Traba hori ezin eban menperatu, ahalak egin arren ere.

Aita Probintzialaren agiria izendapen hau ekarrela heldu jakonean, Aita Aureliano, beti lez, guztiz lanpeturik aurkitzen zan. Hainbat gauza eukazan esku artean, baina, batez ere, bildurra, bildur ikaragarria kargu barri hori hartzeko. Agintza usaina ekarren agiriak eta hori mendi izugarria zan beretzat. Ezin gaintitu itzal hori.

Eta holantxe, Aita Probintzialaren agiri-paperak eskuratu zituanean, bertatik Aita Probintzialari itzuli eutsazan esanez:

Nire orde besterik ez dago izendatu dagizun hor doakizuz nire agiri-paperak. Ez ikusi nigan gogo txarrik, edota zure esana egiteko ezetzik. Ez. Erretore eta etxeko batzuekin aholkatu naz eta eurak ere eritxi berekoak dira. Nire arrazoibidea hauxe da: arazo batzuetarako ez dala nahikoa borondate ona izatea. Zertxobat gehiago behar dala.

Aita Probintzialak ez eban onartu Aita Aurelianoren erantzun hau eta, bere lanetik zerbait aske ikusten zanean, une ego-ki bat eginez Ikerketa hori bideratzeko agindu eutsan.

Oraingoan Jaungoikoaren eskua ikusi dau Aita Probintzia-laren aginduan eta, beraz, Jaungoikoaren agindu bat lez hartu-ko dau. Nahiz eta ez ikusi beragan horretarako duintasunik, hala eta guzti ere gogotsu hartzen dau bere gain zeregin hori.

1935eko oporrak hartzen ditu Ikerketa hori egiteko. Han doa hurrengorik hurrengora, komenturik komentu eta etxerik etxe.

Etxe bakotzeko martxa dago mahai gainean; etxeko arazo eta gora-behera guztiak. Fraile bakotxarekin eta gero guztiakin

berbaldi luzeak, solasaldi gozoak izango ditu, aita-semeen maitasunean alkarri gauzatxoak esanez.

Tentu eta zuhurtasun handiko gizona zanez, fraile guztiak oso pozik geratu ziran beraren lanarekin. Gozoa eta samurra zan bera, eta gozotasun eta samurtasun hori bere egite guztien ardatza. Ikerraldia amaitutakoan, azken agurra, otoitz zaleak izateko eskatuz egin eutsan fraile taldeari.

Gerora, lekai batezuen Ikerlari ere izan zan. Hortik deritxogu egiteko hori ondo beteten ekiala.

ALWAYE-N ERRETORE

Aurrera goaz urteak atzean itzita. 1944an gagoz, urtearen erdialdean, ekain jori, dirdaitsuan. Urte honetan Aita Aurelianoen bizitzan jazoera berezi bat dator: Seminarioko Erretore izendatzen dabe!

Hona hemen jazokizun honen haria. Orain arte, tituluz, behintzat, Aita Aureliano erretoreordezkoa izan da, nahiz eta erretoretzan sartuta ibili.

Holantxe erabagi eban, orain urtebete, Mons. Kierkiels, Indian Aita Santuaren ordezkaria zanak, Aita Joan Josek, bere adina kontutan izanik, erretoretza hori itzi nahian ordezeko bat eskatu eutsanean.

Orduan konponketa hau egin eban Kierkiels jaunak: erretoretza, tituluz, Aita Joan Joseren esku geldituko zan, baina, izatez eta egitez Aita Aureliano izango zan erretore.

Burubide honek sasiezkontza baten antza dauka. Baina, une haretan, ez egoan beste aukerabiderik. Hara zergaitik. Nazio arteko gerra izugarri bat ebilen munduan zehar hiltzaile. Munduko gerra orokorra.

Gerra hori zala eta, herri arteko komunikabideak dana beharrean aurkitzen ziran, norakoa galduta. Toki asko komunikabiderik gabe, zehatz ebagita.

Honez gainera, Aita Joan Josek eskatzen eban lekukoak, hain zuzen ere Euskal Herritik urten beharko eban, eta hori ezinezkoa zan momentuz. Horretarako gerra amaitu arte itxaron behar.

Hortik, zelan edo halan, urtenbidea aurkitu behar jakon egoera larri honi, burubiko agintaritzza honek zelanbaiten semi-

narioko bizitza galgatu egiten eban-eta. Urtenbide bat eskatzen egoan seminarioa. Eta, besterik ezinean, arrapaladan egindako gura edo gura gabeko konponketa hau egin zan orduan.

Bestalde, Aita Joan Jose oinak geldo eta lepo makur sentitzen zan bizkarrean eroian urte pilaren erruz. 32 urte daroaz erretoretzan. Urteak eratsita dauke, nekatuta; ibili ezinik dago zahartzaroko nekeetan.

Hortik, gauzak konpondu nahian, Aita Joan Josek Erromako Ordezkaritari, bere urteen errukiz, erretoretza hori beragandik aldentzeko eskatzen deutso behin eta barriro.

Begien bistan egoan, ikusiak ikusita, Erretore zaharrak arazoibide guztiak bere alde zituala. Urrezko sari bete-betea zor jakola hainbeste urteren buruan gidari jakintsu eta trebea izan zan erretore zaharrari. Inork merezi izatekotan, bai behintzat Aita Joan Josek!

Eta oraingoan Nagusiak sari hori emoteko gerturik dagoz. Bertatik izendatuko deutsoe erretore barria, goitik beherakoa, lege araubide guztiak beragan dituana, tximurrik eta erdikinik gabeko erretorea.

Nor izango? Aita Aureliano dago danen gogotan. Bera da gogokoen etxe koentzat ere. Oraingoan bera ere konturatu da ihesbide guztiak zarratuta daukazala. Inguruan sortutako egoerari men egitea egokitu jakola. Burua makurtu eta datorrena hartu beharko dauala.

Hori uste izanik honako hau idazten deutso Gasteizera Aita Probintzialari: *Bete da azkenean aspalditik itxaroten nengoana. Kargu hori hartzera beharturik aurkitzen naz; zama astuna danez inork ez dau beretzat nahi-eta.*

Ez dagiala luzaroegei iraun nigan kargu honek; hobe gitxirako balitz. Egidazu, arren, mesede hau!

Dagoeneko 32 urte daroadaz Indian, eta lanerako gauza nazen bitartean bertan jarraitzeko gertu nagoan arren, ez punta-ko karguetan. Gerra hau amaitu daitenean, erraz aurkituko dozu ni baino erretore gazteago, jatorrago eta trebeago bat. Ni nekatu-rik nago.

Behin eta barriz agertzen da gure Aita Aurelianorengan agintzen egoteari deusnan bildur hau, ia destaina sentitzeko besteko bildur handi hau.

Zergaitik ete da? Neuk ere jakin nahi neuke. Garai hartako mistikaren lurruna, goia ete zan? Zuhaitzeko sagar debekatua dalakoaren eritxia? Erantzunbeharrak dakarren erremina?

Beharbada hementxe legoke erantzuna. Apala danak azkeneko tokiak maite izaten ditu. Isilean gorde eta ibili. Goietan galdu egiten da, hor ezin dau bularra haizez bete-eta.

Jaunaren aurreko erantzun beharrari bildur? Nik baietz uste.

Orduko mistikako irakatsia honetara lotuta etorren: agintaria Jaungoikoak jarria da; Haren ordeak egiten ditu. Txarto agintzea balitz, horren errua bere gain hartzen dau. Beraz, honen bildur? Baliteke. Nik uste dot erretoko bildurrez ihes egiten dauala su ondotik.

Baina hemen opila itzulitara ere jarri geinke eta, gaurko ikuspegiz, agintza besteenganako zerbitzu bat dala esan. Besteen morroi egiten gaituala. Nik uste dot honetara politago geldituko litzakela. Dana dala, bakotxa geure aroko seme-alaba gara eta ezin kendu bekokitik akats hori. Men egin behar gure aduari.

Aita Aureliano men eginez hartu eban erretoretza hori, bertan Jaungoikoaren nahia argi eta garbi agiri zalako. Hain zuzen ere, 1944ko azaroaren 17an hartu eban Erretore-jabetza. Hitzaldi eder bat eginez hartu ere. Honetara inoan berak:

Niri neuri dagokidanez egiz eta apalik esan neike inoiz ere ez dodala gura izan neuretzat kargu hau. Askoz ere zoriontsuago nintzake bera bagarik. Baina, gauzak diranez dira-eta, ez zuok ez ni ez gara hemen Jaunaren bideok oztopatzen jarriko. Bere nahia bete dadila, hauxe da gure guraria. Guztion onerako izan dadila.

Zuentzako naz oso-osoan. Zuok zerbitzen zaituedan neurrian zerbituko dot Jainko gure Jauna ere. Ez gehiago, ez gitxiago.

Neure erretoretzarako ia egitarauen bat gertatu dodan itauntzen badeustazue, argi eta garbi erantzungo deusnet, nire egita-

rau bakarra zuoi zeuon asmoak lortzen laguntzea dala, hau da, abade santu eta jakintsuak izaten laguntzea.

Irakasle nintzanean neukan programa berbera da. Orain, baina, neure eginbehar nagusi eginik datorkit. Eta egiaz dirautsuet bihotz osoz eta gogo batez beteten ahaleginduko nazala.

Gaurtik aurrera zuok izango zaree nire buru, begi, aho, bihotz eta dana; zuontzat bakarrik biziko naz. Neke hau eskatzen deust Jaungoikoak, eta bene-benetan oparitzeko gogotan nago.

Hitzaldi hunkigarri honekin emon eutson hasiera Erretoretzari gure Aita Aurelianok, 1944ko azaroaren 17an. Barru guztia argitan jarri dau hitzaldi honetan. Sentimenturik liluragarrienak agertzen ditu. Bere baliagarritasun guztia Seminarioaren zerbitzuan jarriko dauala; seminarioaren alde erreko dan oparigaia izango dala.

Batez ere, honako puntu honetan jarriko dau bere agintzaria, bere eskaintza: gauza guztietan arduratsu, leial eta zintzoa izatean. Hor dago eupadea.

Seminaristengandik abade santu eta jakintsuak ateraten jarriko dau bere arnasa guztia. Ardura hori zan bere egitekorik lehenena, gehien irrikatzen ebana, eta ez lan eta nekeak.

Oso zaila da -inotsan bere lagun bati- altararako diran gazteak ondo moldatzea, hezteak. Lan zail, luze eta gogorra da, baina guztiz pozgarria, meritugarria.

Ikasketa eta Jakintza

Zeuontzat bakarrik biziko naz; zeuok izango zaree nire buru, begi, bihotz eta dana aurrerantzean. Eskeintzari hau egin eutsen Aita Aurelianok bere seminaristei Erretoretza hartu eban egunean. Zintzoa eta leiala izango zala bere zereginak beteteen.

Zer dala eta opaketa bizi, orokor hau? Atxikitasun bete hau? Zer dala-ta seminarioaren aldeko buru-eskeintza hau?

Abadearen duintasunak, goitasunak durdituta eukan gure Erretore barria. Benetako mirespena eutsan abadetzari. Hortik hareen moldaketa, heziketa-lana hain kementsu eta gartsu hartze hori. Bere gogoeta, asmobide eta gurariak ildo horretatik

joiazan. Hori lortzeko bere azken odol tanta emoteko gertu egoan.

Abadegaien moldaketarako eredu eta argibideak, barriz, Eliz Agirietatik eta, batez ere, ebanjeliotik ateraten zituan. Ebanjelioaren mamia, muina geure bizitzako janari eta gidari egin; espiritu horren erataro biribildu gure bizitza osoa. Hortik joian bere asmobidearen oina. Bere batzarraldi, hitzaldi eta aholkue-tan uneoro eukan ahotan oharpen hau: *abadeok santu izatera beharturik gagoz; buruz eta bihotzez ondo jantziak izatera.*

Jakintza abadeari dagokion emaitza da eta erpin horretara heltzeko, barriz, ikasteari eten barik ekin behar jako. Horra seminarista baten gaur eta biharko zeregin berezia. Buruz argiak, bihotzez santuak.

Deituak Kristorengandik hartzen dau abadetzako doea. Kristoren ordezeko egiten dau doe horrek, beste Kristo bat. Beraz, gizon sakratu hori Kristoren antzeko izan behar.

Aitaren nahia egitea zan Jesusen janaria; horra abadearen janaria ere. "*Santu izan zaitzeze zuen zeruko Aita santua danez*", horra abadearen helburua. Kristo pobretasunean bizi izan zan; gaixoak osatuz eta on eginez igaro jendartetik, eta azkenez gu salbatzarren gurutzean hil. Hona Kristoren bizitza guztia orratz baten bildurik.

Eta hemen Jesusen esana dator indartsu: *Ikasbidea emon deutsuet, nik zuei egin deutsuedan lez egin dagizuen zuek ere.* Jesusen eskola honetan haziko ditu bere abadegaiak gure Erretore barriak. Bera eskola horretako maisu eginik dago aspaldi danez.

Pobre bizi da Jesusen antzera eta pobretasun hau irakatsi eta eskatuko deutse bere seminaristei. Txiroa eta estua beretzat, lurreko ondasun eta handikeriak zehatz baztertu zituan Aita Aurelianok. Horrela bere bihotza lotura guztitik aske ebal, besteen beharrian, neke eta negarrak jasoteko beti gerturik eukan. Besteentzat dana, beretzat ezer gorde barik, hauxe zan bere slogan jakintsua.

Bere ikasleei bide hau irakatsi nahian, honako gomendio eta aholkuak emoten eutsoezan bere hitzaldietan: *pobreak fin-tasunez, leuntasunez, ez-titasunez hartu egizuez beti, Jaunaren irudi maite dira-eta.*

Ez egin sekula abade-lana diruaren sariz, gizon-emakumeen-ganako maitasunez baino. Zuen parrokia eta joan-etorrietan txi-roak eta ezeukiak aurrez aurkituko dituzue. Hareentzat bihotz-ateak zabalik euki beti. Emon hareei esku zabalez daukazuenetik. Hareen antzera pobre eta apal bizi, zuen jarraibidez eurek ere Kristorengana ekarteko.

Ezkongetasuna

Abadegai katolikoak, abade egin aurretik, bizitzan zehar ezkongabe izatea eskeintzen deutso Jaungoikoari. Ezkongabetasun botoaren bidez, garbia izango dala buruz eta bihotzez, soinez eta arimaz agertu gura dau.

Eliza katolikoaren lege bat dago hemen bitarteko. Abade guztiak egiten dabe ezkongabetasun eskeintzari edo boto hau. Zergaitik? Ez, horraitio, gizon erdikina edo ezindua dalako, ez. Goragoko asmobide batzuk dagoz hemen jokoan. Arrazoi guztiz goitarrak.

Jaungoikoagazko maitasuna, zerbitzuarekin batera, sartzen da goitik beheraino eta oso-osoan arazo honetan. Lehenik lehen, Jainkoa gauza guztien gaintetik maitatzearen bakarrik egiten da eskeintzari hori. Jaunarena izan nahi dau bakar-bakarrik abadearen bihotzak. Haren poza eta bedeinkapena bilatu gauza guztietan.

Beste arrazoibide handi bat ere sartzen da hemen: ezkongabe izan Jainko-herriaren on eta zerbitzurako! Hau bagarik motz geldituko litzake eskeintzari hau. Hemen aurkitzen dau bere betetasuna. *Zeruko Erreinuagaitik!* eta zeruko erreinuak, hitz inguru honetan, Jainko-herriaren ona eta zerbitzua esan nahi dau.

Ezkongetasuna askatasunarekin bardintzen da hemen. Aske izan eta aske egon edozein ordutan eta edozein tokitara, zaku-toa eskuan dala, arimen zerbitzuan joateko. Gizon eta emaku-

meen zerbitzari beti, hemen eta haragoan, beharizan bat dagoan tokian.

Hau honela ez balitz, nekez ikusiko genduke gure Xabier santua Indian zehar misiolari, edo gure Aita Joan Bizente, edo gure Aita Aureliano, edota Aita Zakarias.

Kristautasunak munduan zehar egin dauan zabalkuntza, neurri handi baten hainbat kristauk onartutako ezkongetasunaren lorpena, frutua izan da. Honek ez deutse meriturik kentzen ezkontza barrutik, buru eta belarri, kristau apostolutzan sartuta dabilzane. Ez horixe! Bide desbardinak dira biak, alkar osotzen badira ere.

Lehenengo kristauen egunetatik, gizaldirik gizaldi, jendetza handiak ezagutu ditugu Eliz arloan ezkongabetasuna aukeratu dabenak. Eta Kristoren maitasunagaitik egin dabe eskontzaukapen hori, horrela gorputzez eta arimaz, askatasun zabalean, Jainko-Herriaren zerbitzuan errazago eta egokiago jarduteko.

Azken baten, gizakiaren zerbitzuan erroturik dator Jainkoaren Erreinuagaitik onartutako ezkongabetasuna. Lur honetan tinkoturik, goi-maitasunaren taupadaz, gizartean egintza harri-garriak burutu ditue ezkondu barik bizi izan diran kristauak.

Babes-etxeetan lanean ikusten ditugu gure lekaiameak, guraso ganorabakoak deslai itzitako haur jaio barriak amatasun beroan zaintzen; edota umezurtzekin amaren ordekoak egiten; ospitaletan gaixo zaintza egiten; ezeukian eta laguntza bagarik aurkitzen diranentzat zaindari eta babesleku izanik, urrunetan misiolari...

Honako egintza garrantzitsuak ditu helburu ezkongetasunak. Zalantzarik gabe, gizartearen aldeko zerbitzu handi eta gorengoa dala autortu behar.

Tontor honetara igoteko, barriz, abadegaiak Kristoren antz-bidean aurreraturik egon behar dabe. Mendi gaineko haize garbiekin ohituta.

Horretarako honako aholkuak jarten deutsez aurrean Aita Aurelianok bere kutunei: *bildur egiozue beti zeuen buruari; ez*

gangartu norbere ederrarekin; ez aupatu zeuen indarrak; ez puztu norbere doe eta trebetasunak; ez joan gizonen txalo bila; ez izan goizaleak; Kristo beti eredu-bidetzat, eta gogoratu Kristo ez zala morroiak eukitera etorri, guztien zerbitzari izatera baino.

Eta hemen Pauloren eztenkada zorrotza gogoratzen deutse: *Neuretik ez dot ezer harrotzekorik, neure makaltasuna izan ezik.*

Otoitz zaletasuna

Seminaristen hezkuntza sailean, orduko Eliz Legeak oinarritzko araubide batzuk emonak zituan. Batik bat seminario guztietan burutzen ziran araubideak.

Otoitz zaletasuna zan, lehenik lehen, eskatzen jakona abadegaiari santutasun bideak urratzeko erabide lez. Otoitz zalea izan, Jesus bera zan lez. Maiteminduen gisara Jesusekin bihotzetik bihotzera isilean jardun. Hartu-emon samur, gozoak izan. Adiskidetasun kutunean bizi.

Otoitz zaletasun hau ezinbestekotzat jotzen eban Aita Aureliano. Egoera lastimagarrian ikusten eban otoitz zalea ez zan apai-za. Abadearen bizibideak etenbako otoitz-bizitza eskatzen dau, eta uste sendook sortu nahi zituan bere abadegaiengan. "*Egizue otoitz eten barik*" Paulo Apostoluaren esana gogoratuz, beti eta eten barik egin behar zala euren buruetan ondo josita itzi.

Buru-bihotzak Jaunagana jasota eroan beti. Kristoren asmoak geureak egin otoitz egitean, Kristo bera dalako abadearen ahoz zeruko Aitaren aurrean gizadiaren alde otoitz egiten dauana. Arrazoibide hau kontutan izanik amaitzen ditugu gure otoitz guztiak Jesukristo gure Jaunaren izenean eta bitartez.

Abadearen bizitzan beste otoitzaldi garrantzitsu bat ere sartzen da: Eliz Otoitza, gaur egun Orduen Liturgia deitzen doguna. Ahozko otoitza da, batez ere lagunarte eta eliz taldeetan ofizialki egiten dana.

Goizeko otoitza, gorespenak, bezperak eta abar sartzen dira bertan. Abadeak Eliza osoaren izenean dagi berariazko otoitz hau.

Gero, eguneroko eukaristia eta jaunartzea datoz; altarako Jaunari ikustaldiak, gogo-azterketak, asteroko autortza; espiritua janaritu eta lantzeko gogoeta, hitzaldi, aholku, errosario eta gainetiko barnealdiak.

Eskola honetan ikasten eban Alwayeko seminaristak, Aita Aureliano maisu zala.

ETXEKO BURU ETA BIHOTZ

Bertoko seminaristen esanetan, Aita Aureliano, Erretore izan baino lehenagotik Seminarioko buru eta bihotz, haga nagusi egini-
nik egoan. 32 urte daroaz irakasle lez, seminarioko lanarekin maitemindurik. Hemen itzi ditu ametsik ederrenak, izerdi eta nekeak mahastiko bero kiskalgarrietan, gau eta eguneko zamapean. Bere izerdiz bustita, bere oinez zapalduta, bere eskuz atxurtuta dago.

Aroa da barria, Aita Aurelianoren aroa, berak adore eta kemen guztiz hasi dauan aroa. Orain arte ekin ahalean ibili da eta ekin ahalean jarraituko dau aurrerakuntza eta hobekuntzak eginez seminarioaren alde. Omentxoenen marran euki nahi dau seminarioa. Ahalik eta gorengo mailan. Gaurkotasunez jantzita, egokituta, bikain.

Horretarako aldakuntza batzuk sartzen ditu seminarioaren martxan. Honako aldakuntza txiki batzuk bere laguntzailerik hurkoenak izango diranen artean egingo ditu.

Aita Zakarias, abadinotarra, Erretoreorde egingo dau; Aita Ambrosio, zornotzarra, Arimen Zuzendari; Aita Estanislao, lekeitiarra, Abadeen Eukaristia Batzordeko Buru. Bata baino bestea gizon azkarragoak dituzu. Aparteko gidariak. Esku onetan itzi dau seminarioa aparteko aukeraketa eginez.

Seminaristen bizitzan ere holako ikutu arin batzuk egingo ditu; esaterako, ikasgelak, kapera, etxe-bazterrak, jantokiko zerbitzuak eta honako huskeriak, inoren esku itzi barik euren ardurapean jarriko ditu.

Ez, baina, kasketaldi bat emon deutsalako, seminaristek zerbitzu-arazoetan eskolatu eta trebatzeko asmotan baino. Bere

abadegaiak lan apaletan iaioak, azkarrak, eskolatuak ikusi nahi ditu; gaztetatik horretara eginak, euren bizitza osoa jendarteko zerbitzu orokor bat izango dalako.

Ikasketa sailean ere aldaketak. Lehengoekin batera hainbat ikasgai barri sartuko ditu ikasturtetik ikasturtera; ikaskizun oso interesgarriak Indian sortuez etorren mundu barrirako, geroago ikusiko dogun lez.

Jaunaren hurrengo zuek zaree nire itxaropen osoa, hitz gozo honeek ahoan erabiliz agurtu zituan, ikasturtearen hasieran seminarioko irakasleak. Guk Jaungoikoagandik misio bat hartu dogu, zehaztasun eta zintzotasun handiz bete beharrekoa: Jaunak aukeratu eta Elizak gure esku itzitako abadegaiak moldatzea, heztea.

Alkar lagunduz bete behar dogu egiteko hau. Jaunaren hurrengo zuek zaree nire itxaropen osoa. Beraz, arrakastak, porrotak, eraginak guztionak egin beharrean gagoz.

Baekian bera bakarrik ez zala ezer seminario guztia bere esku eroateko. Lan astunegia zala bakar batentzat. Laguntzaileak behar zituala nahi eta ez.

Baita aurkitu ere irakasle iaio, aditu eta trebeak. Euren laguntzaz jaso eban seminarioa, lortu eban goi-mailara eroatea. Goi horretan ikusi nahi eban beti. Eta bide horretan atzerape-nik egon ez zedin, Europako gerra amaitutakoan, irakasle barriak bialdu egiozala eskatu eutson Aita Probintzialari, esku-titz baten bidez.

Jende burutsua behar dogu, -idazten deutso- erabat onbidez eta jainkozaletasunez jantzia, biharko egunean abade izango diran hainbat gazte hezi eta moldatu behar ditugu-eta.

Mailaz maila eta pausuz pausu, irakasle barriak ekarriz-ekarriz doa Euskalerritik, baita gitxi batzuk Indiatik bertatik ere, irakasle talde zaharra ia guztiz barriztatu arte.

Pozik eta kutunkiro hartzen ditu irakasle barriak seminaria helduaz batera. Aitatasuna beste amatasuna erakusten deutse etxeko guztiei. Guztien zerbitzuan urtu.

Bere Erretoretza-aldian 19 irakasle barri sartu ziran seminarioko irakasle taldean. Batez ere euskaldunak.

Aurretiaz egozanak kontutan izanik, barriz, berrogeitik gora dira Puthempally eta Alwayen irakasle izandako euskaldunak. Ez da marka txarra, ekarri txikia. Eurengan eskerroneko txalo bat merezi dau, behinik behin, gure herriak Indiako Elizaren alde egin dauan lan eder honegaitik.

Honez gainera, 1954an, etxean ikasketak egiten egozan gazte batzuk Europara bialtzen hasi zan, Europako Unibertsitateetan goi-mailako ikasketak egin ostean, barriro Alwayera itzultzean, bertako seminarioan irakasle egiteko asmotan.

Bertako semeak gertatu biharko egunean Seminaria euren esku izteko. Gaur, zorionez, helburu eder hori lorturik dago. Bertako semeen ardurapean dago seminarioa, Misio guztia dagoan lez. Amaitu zan Indiako misio hori. Horra hor gure misiolari azkarrak egindako lan goragarria. Harribitxi baliotsu hori gure misiolariak landutakoa da. Txalorik beroenak eurei!

Seminaristak, abadegintza hartzean seminarioa itzi arren, etxe-etxeko gelditzen ziran aurrerantzean ere. Horixe zan Aita Aurelianoren gurari bizia. Ez eban nahi inondik ere, lotura horreek apurtzerik. Bere semeak zituan eta semeak balira lez maitatu ere. Seminariotik igarotako guztiak etxeko seme ziran eta etxeko ateak beti zabalik jarraitzen eben hareentzat.

Honen adibidez, honela dirautso halako hitzaldi baten, urte haretan abade eginda, seminarioa izteko zorian egoan abade talde barriari.

Seminarioko bizitzari agur esateko eguna heldu da. Zazpi urtez geurekin etxeko izan zaree. Seminaristak joan-etorrian ibili diran artean, ni beti zuen ondoan euki nozue. Baita etxeko irakasleak ere. Danok bat eginik gagoz zuekin. Arduraturik zuen etorkizunarekin. Zoazen tokietan han izango gaituzue onean eta txarrean zuoi laguntzeko. Goizeko otoitzean egunero egongo zaree gure ahotan. Idatzi egidazue zuen arazoan barri emonez.



Nafarroako Aita Probintzialarekin eta Indiako lau bizkaitar Misiolari lagunakin (1960)

Zoaze Jaunaren bedeinkapenarekin. Hartu gure otoitzak. Zuen aldetik ere eskatu gure Ama dan Seminario honen alde, eta ohore egin berari zuen bizitza eredugarriarekin.

Gozotasun hutsa zan irakasleekin ere. Bere begiko nini zituan. Beharizanen bat sortzen zanean haren artean, han agertzen zan Aita Aureliano beti gertu laguntzeko.

Apaiz indiar bat, seminarioan irakasle zana, gaixotu egin zan. Gaixoak ezindurik euki eban hiru urtean. Oso txarto.

Gerora honela idatzi eban abade gaixoak: *Gaixorik nengoa-la egunero etorten jatan ikustera, ez baten bakarrik, bitan eta hirutan, neuri adorea eta kemena emotera. Zuk osasuna berreskuratzearren, ni edozein gastu egiteko gertu nago -esaten eustan.*

Seminarioko zerbitzari eta langileekin ere bihotz zabala, on hutsa zan.

Mundu txiki bat egiten eben zerbitzari eta langileok seminario barruan. Berrogeitik gora ziran beharginok. Aintzakotzat hartzeko taldea.

Etxekoekin eukan begiramen eta ederrikusiz tratatzen zituan honeek ere, gorputz eta arimako beharizanetan lagunduz. Lagunarteko errosarioa egunero esaten zan. Erlijio-eskolak ere saioan-saioan emon.

Dinogunaren erakusgarri, jazokizun bitxi hau aipatuko dogu.

Alwayeko handiki batek ezteguetako bazkari bat gertatu behar ebala eta, seminaria sukaldari bi eskatu zituan. Eztegu-bezperan, ilunabarrean, hor doaz sukaldariok handikiaren etxera. Goizaldeko hirurak arte lan eta lan. Nekaturik lotara doaz etxeko baztertxo batera.

Bitartean lapur bat sartzen da etxera eta han egozan urrezko harribitxiak ostu egiten ditu. Handikia haserre. Susmo txar guztiak sukaldarien gain. Lapurtzat hartu ditue eta, besterik gabe, atxiloturik espetxera daroetz.

Joko larri honen jakitun jarri dabe Aita Aureliano. *“Ez dago ondo errubakoak kondenatzea, justiziaren kontra doa hori”* -esan eban berak.

Bertatik polizia-etxera joan eta hango buruari dagitso berba: *Gaur atxilotuak izan diran gizon biak neure morroiak dira. Urte asko daroetz neurekin seminarioan eta ez dot ikusi behin ere euren susmo txarreko ezertxo ere. Konfiantza osoko gizonak dirala zin dagit; gainetiko guztia zeure zentzun onean izten dot.*

Aita Aureliano entzundakoan, hango buruak etxera bialdu zituan morroi biak. Holakoxe gizona zan gure Aita Aureliano.

Benetako adiskide

Beste kutuntxo batzuk ere bazituan Aita Aureliano: Seminarioko hilak, batez ere bere erretoretza-aldian hil ziranak. Danen artean izen ospetsu bat: Aita Joan Jose.

Hunkigarria da Erretore zaharrarekin egin ebana. Antzina-ko adiskide zaharrak ziran. Biak langile apartak. Itsas zabalean gizon-arraunketan luzaroan batera ibiliak, Seminarioko gidaritzan lemariak. Seminarioaren alde bizia oparitan eskeinitakoak biak. Bihotz eta gogo osoz alkaturik egozanak. Erraldoiak gizatasunean eta erraldoiak santutasunean.

Une honetan, Aita Joan Josek, gaixoak jota, jausteko dagoan zuhaitz sendoa dirudi. Gaixorik dago. Begiak ilun, barru-barruraino sartuta, erdi hilik; betondoa tximurturik; hitza, hotz eta motel; oinak arrastaka, zirrin-zarran; indarrak ahulduak dago, Aita Aurelianoren bularrean etzanda. Bular horren berotan aurkitzen dau bere neke-minen aringarria. Amaren besoetan lez aurkitzen da bertan.

Ahal dauan guztietan gaixoaren ondora doa, askotan bere lanak itzita. Gau osoak gaixoarekin.

Begiak legortu, izerdia kendu, soinekoak aldatu, aringarriak emon, otoitz samurrak mur-murtu; berba kontsolagarriekin gogo pixka bat bizkortu. Berak lagundu eutsan heriotza ona egiten. Azkenean ere, bere besoetan hil zan Aita Joan Jose santua, 1945eko urriaren 25ean.

Aurrerantzean, mezatan hilen gomutapena egitean, erretore zaharraren izena hutsik egin barik aitaturko dau Aita Aurelianok, bere hilen agendan idatzita daroa-eta.

Ez hau bakarrik. Ikasleen gurari eta eskabideei on eginez, baratzeko txokorik agirienean, Fatimako Ama Birjinaren irudia babesgarri dauala, haren oroitarri apain bat jarriko dau. Aurre-rakoan han dago, guztien jakingarri eta omengarri izan daiten, Alwayeko Seminarioan abadegaian alde erre zan bihotz handikoaren oroigarria.

Aita Aurelianok bere hilen agendan idatzita eukan beste izen bat Eugenio Anaia karmeldarrena izan zan. Nor zan berau?

Aita Aureliano Indiara heldu zanean, Ernakulamgo komentura joan zanean, anai Eugeniok zabaldu eutsan atea eta beskada gozo bat emonez etxean hartu.

Gerora, beti kutun-kutun maite izan ziran biak. Alwayeko baratz zabal, ederreko zuhaitz landareak berak sartu eta berak zaintzen zituan. Misioko zerbitzari bihotz-zabala dogu anaia Eugenio. Han dago bere anaia karmeldarren ondoan hilobiratuturik Seminarioko hilerrian.

Aita Aurelianok bere hilen zerrendan jarri eban izen maite hau ere, bere alde mezatan otoitz egiteko.

Hauxe zan Aita Aurelianoren ohitura bat: hildako hurkoenen izenak jarten zituan bere ezkutuko agenda horretan, gero euren alde otoitz egiteko mezaldian.

ALWAYE-KO KAPERÀ BARRIA

Beste jazoera gogoangarri bat Aita Aurelianoren bizitzan, kaperà edo eliza barriaren zabalkunde eguna izan zan.

Otoiztegia seminario baten bihotza da; eraginean jarten dauan motorra. Hantxe dago kokatuta abadegaien heziketarako dan mintegia, Jainko gauzetarako gertatzen direlako bertan bildutako gazteak.

Jaunaren altarara zuzentzen dira; goitiko ondasunen banatzaile izango dira bihar edo etzi herriaren aurrean; Jesusen ordezkariak, haren oihulari eta lekukoak. Jesusek ekarritako salbamenaren banatzaileak. Hortik, haizea bestean beharrezkoa dabe goi-arnasa hori altararako diranak.

Baeukan hasieratik bertatik Alwayeko seminarioak kaperà edo otoiztoki hau, baina, momentuko beharrezanez erantzutetako zan. Eliza barri baten guraritan egoan seminarioko jende guztia.

Honetaraxe ikusten eben eliza horren irudi eta soina: eliza handi, zabal, hiru nabekoa; liraina, artez gotikoa, dotoretasunean pinpirina.

Aita Joan Jose erretore zala jarri zan kaperà horren lehenengo harria. Baina poltsikoa tximur, eta diru ezaren erruz lanak geldirik geratu ziran.

Alde batetik seminario barriak ekarritako diru-zorrak eta bestetik munduko gerra nagusiak jarritako eragozpen eta atzerapenak bitarteko zirala, oinarrietan biluzik gelditu zan asmo hori. Holantxe jarraitu eban hamahiru bat urtetan.

Gerra amaieran, Aita Aureliano Erretore zala, 1945eko urtean, etxeko seminaristak eskari hau egin eutsoen Erretore jaunari bere urte egunean:

Une honetan, zuri eskari hau egitera ausartzen gara: badakigu atsegin jatzula egiteko hau. Beraz, honetara dator gure eskaria, hau da, amaitu dagizuzala Seminarioko lan ederrok kapera itzaltsu, arranditsu eta duintasunez beteriko bat jasoaz Seminarioaren onerako, horrela zure izenaren gomuta semetzat hartu zaituan herri honetan betikotuz.

Ez bere izena betikotzeko asmoz, ezta seminarioko lanak amaitzearren, baina kultu eta eliz ospakizunak duintasunez eta txukuntasunez egiteko gauza izango zan kapera edo elizatxoa jaso bai!

Honek esan nahi dau Aita Aurelianok bere seminaristak egindako eskari hori bere kautan eroiala eta, beraz, pozik hartu ebala bere mutilak egindako burubide hori.

Asmo astun hori aurrera eroateko, barriz, Aita Bittor, lekeitiarra, gerora Kuwait-ko Gotzaina izango zana hartu eban lagun. Oso aditua zan Aita Bittor eskuarteko diruak erabilteko orduan. Bera izan zan langintza honen zutoina.

Teresaren Karmeldegian ohitura dan lez, kaperako lanak Jose Deunaren babespean geratu ziran. Jose santuaren esku dago diru-zorroa. Beti agertuko da zerbait ordu egokian.

Sutsu hasi dira kapera egiten. Langile talde mordoa dabil hara eta hona, bakotxa bere lanetan zuhur. Mailu hotsa harria landutzean, tarteko txirrinka irrintzia, jendearen barbaroa eta lanetako durundia.

Gorantza-gorantza doa elizatxoa. Aita Aureliano lantoki aurrean, bere bizar zuriarekin, zurezko irudi bat balitz lez, errosarioa eskuan, otoitzean, langileen bat jausi eta minik hartu ez dagian.

Han goialdean, kapitela adar loratuak zerurantz zuzendurik ikusten dira, dotore landuak, begiei dirdirka; arku lirainak alkar josirik; argi-begi eta beirateria zabal eta erti-lanez zoragarri koloretuak; altara aldea laztanez eta ederrikusiz egina; altarako harria marmolezkoa; malakita eta harribitxiz apainduriko sagraioa; elizbarne zabala, edergailuz eta jarlekuz txukun jarria. Gauza bakotxa bere tokian dotore.

Amaiturik dago, gaurkoz, kapera barria. Zabaltzeko garaia da.

1951eko urtarrilaren bigarrena izendatu dabe kapera barriari hasiera emoteko. Ospe handiko jaia izango da. Jende asko batuko da bertara. Mons. Kierkiels, Nuntzioa; Kerala aldeko gotzain guztiak; 350 abade; 320 seminarista, langileak eta gonbidatuak. Han dagoz guztiak maitasunean eta anaitasunean besarkaturik, altara barriaren inguruan, otoitzean hunkiturik, Goiko Jaunari gorespenak esaten eta esker onak emoten. Giro zerutarra dabil taupadaka bihotzetan. Begiak argitan, negar tanta batzuk dariela.

Festaburu handia, berezia. Aita Aureliano izan da kapera barriaren eraikitzaile nagusia, suspertzaile jatorra. Beragan dagoz begi guztiak. Bera da hango aitzindaria.

Irribarrez doa jendeari ondo etorria emotera. Honantxe hasten dau bere hitzaldia:

Goiz honetan bete da guztion gogotan egon dan guraria: aldi baterako zan kapera zaharraren orde, Seminarioak eliza barri hau zabaltzen dau gaur, kultu-ospakizunak egiteko askoz duinagoa eta egokiagoa dana.

Gero, bere abadegai kutunei zuzenduaz, badirautse: *Ene maiteok, batez ere zeuontzat egin dot eliza barri hau, neke eta lan handiz. Beraz, zeuontzako onena dana jaso egizue bertatik.*

Hemen egingo dituzuen otoitz orduak izan daitezala otoitz ordu beroak, Jaunarekin barrualdi handikoak. Otoitz etxe honek beste etxe ederrago baten gomutapena ekarri behar deutsue, hau da, zuen bihotzetan Jesus Maisuari jaso behar deutsazuen maitasunezko etxearena.

Kapera honen sendotasunak oroipen eta bertuteetan sendagoak egin zagiezala, gero, harri gainean etxea jaso eban ebanjelioan aitatzen dan gizonaren antzera lan egin dagizuen. Jaungoiko eta bere altara santuari zor deutsazuen itzal eta begiramenak bete dagizala zuen buru-bihotzak, horretarako deituak izan zaree-eta.

Kapera barri honek guztien oneritxi eta gorespen beroak jaso zituan. Esku asko luzatu ziran Aita Aureliani zorianik

beroenak emoteko. Ondo merezita eukazan, nahiz eta berak holako gauzei jaramonik ez egin.

Goratzarrerik ederrena Kierkiels, Nuntzioaren ahotik jaso eban: *Aita Aurelianoren Erretoretza-aldia gogoratzeko oroitarrik argiena hauxe da.*


Otoiztoki horren inguruan biribilduko da aurrerantzean seminarioko bizitza osoa.

KARMELGIRI

Aita Aurelianok Seminarioko Erretoretza hartu ebanean, 1944an, ez egoan seminarista askorik etxean: 157 guztira.

Ez zan garai egokia bokazioak ugaltzeko. Munduko gerra nagusia zan eragozpenik handiena. Giro nahasia gerrak sortutakoa. Ezin garautu bokazioak giro horretan.

Gerra honen erruz, hiru seminario handi zarratu ziran, ezinaren ezinez, inguruko elizbarrutietan. Alwayeko Seminarioa bakarrik gelditu zan zabalik Kerala guztian.



Karmengo Ordenari 1957an lotu jakozan Hirugarrendar Latindarren arduradun

Gerra amaitutakoan, baina, bokazioak ugaltzen doaz. Izugarrizko igokada egin dabe. Urte gitxi barru Alwaye txiki gelditzen da hainbeste gazte hartzeko. Aurrez datoz bokazioak.

Gaztez beteegi egin da eta hori ez da ona seminarioaren martxarako. Nahastu egiten zan seminarioko bizitza. Trabak jarri hainbat gauzatarako.

Oker honen aurrean, seminario barri bat egitea erabagi dabe etxeko Nagusiek. Non? Alwayetik urrun barik, kilometro t'erdira egoan toki alai, pinpirin baten, Periyar ibai ondoan, itsaso aldera begira. Ez urrunegi, ez hurregi, seminario bien arteko hartu-emonak kalterik jaso ez egien.

Seminario barri honen izena *Karmelgiri* izango da: guretzat "Karmengo Mendia" litzake. Filosofoentzat izango zan ikastetxe barri hau; horretara filosofoak Carmelgirin eta teologoak Alwayen geldituko ziran zatituta talde biak.

Mons. Eugenio Tisserant Kardinalak bedeinkatu eban lehengo harria 1953an. Eta 1955eko azaroaren 24an, Gurutzeko Jon santuaren egunean ireki.

Hitz goragarriak esan zituan Mons. Martin Lukas, Indiako Nuntzioak, ikastetxe barriaren bedeinkapena egitean: *Fraile Karmeldarrak Indiako Elizaren alde Seminario eder bi honeek jasotea besterik egin ez baeben ere, Indiak ez leukez inoiz ahaztuko.*

Seminario barri horren aurrealdean izen bat ipini beharko genduke: Aita Aurelianoren izena.

Horra Aita Aurelianok Indiako koroian jarri dauan beste harribitxi baliotsu bat. Indiak seme ona aurkitu dau Aita Aurelianogan.

ERRETORETZAKO AZKEN TXANPA

Erretoretzako azken txanpan dago Aita Aureliano. Mendi tontorrean. Astiro-astiro igon dau tontor hori. Lan, neke, amets, izerdi eta ordu asko gelditu dira bidean, batez ere, maitasun mendiak. Maitasun ikurra, ikutu gozoa, samurra daroa erretoretzan egindako ordu eta une bakotxak. Maitasunaren txirri-txioak izan dira.

Bestalde, haizea baizen arin doaz gure bizitzako egunak. Hogei urterekin gazte, lirain gagoz; hirurogei urterekin zimel eta tximur, onenak emonda, bihotz orriak jausten hasita.

Ordu ona atzerantz begiratu, eta gure bizitzaroari begirada sakon bat botateko, gure onak eta txarrak, bihurgune, aldapa eta zailtasunak begiztatzeko. Eskola ona hau bizitzatik ikasteko.

Aita Aurelianok ere izan eban une eder hau bere lekaidetzako urrezko ezteguetan sartu zanean. Larreako nobiziaduan, 1903ko abuztuaren bostean egindako profesia egunetik berrogeita hamar urte igaro dira. Ibilaldi luzea. Bizitzako une asko gelditu da hor sasi artean erreta.

Aita Aurelianok isiltsu, tronpeta soinurik jo gabe, barria haizetara jaurti barik, sendi giroan ospatu nahi izan eban egun handi hori. Horretarako oharpen txiki batzuk emon zituan. Beraz, bere gustura egingo zan jaia. Bera, zertan esanik ere ez, oso ondo, berak ekian lez gertatu zan ospakizunerako.

Jaia, berak ezarritako arauen barruan, itzaltsu, handikiro egin zan, baina etxe giroan, sendiko pozean, xalotasunean.

Aita Aurelianok, jaiaren berora, profesako zin-eskeintza altara gainean itzi ebanean, bere apaltasunean beheraturik,

Ama Birjinarekin batera haren abestia esango eban ziurrenik: *Nire bihotza pozez beterik dago nire Salbatzaile dan Jaungoikoagaitik, bere begiak neugan jarri ditualako, Haren morroi apala naz-eta. Izena santua daukan Harek, nire alde harrigarriak egin ditu eta*

Goian dagoan izarra errez ikusten da, izpi biziak bialtzen dituelako. Horrelako izarra zan gure Erretore jauna Indiako zeruan, batez ere, Eliz gaineko zeru zatian: harrigarria, eskergarria, ospagarria.

Jaiaren distira hau ez zan isilean igaro Kerala aldeko Gotzaintzat. Alkar harturik, esker onez eta itzalez, ikustaldi min, anaikor bat egin eutsoen Aita Aurelianori, haren urrezko ezteguak gogoratu eta zorionak emonez. Zorion agurrik asko jaso eban egun horretan. Berak ohi eban lez guztiei erantzun eutsen eskerrona erakutsiz.

Lehenengo erantzuna Ordenako Aita Jeneralarentzat izan zan:

Aita agurgarri eta guztiz maitea: esker onez beterik erantzuten deusat berorrek nire lekaidetzako urrezko ezteguak dirala eta idatzi deustan eskutitz gozo eta samurrari.

Mila esker zure hitzakaitik, baita bertan agertzen deustazun abegitasunagaitik ere. Badakit zure berba goragarriak nire merituen gainetik dagozala; ez naz ni horraino heltzen, baina, hala eta guzti ere eskertzen deusudaz euren bidez Jaungoikoak, Ama Birjinak eta Ordenak zenbat maite naben ikusten dodalako; zer izan diran eta zer diran gaur ere niretzat.

Fede eta maitasun handiz, nazan guztia ahora ekarriz, beroberotan esan nituan profesako hitzak. Lehenengo aldiz profesat egin neban eguneko taupada bizi eta goriak nabaritzen nintuan barruan. Bedeinkatu izan bedi Jauna!

Oso ondo igaro genduan eguna. Familiako jaia izan zan. Gure misiolari guztiak ere hemen izan ziran, Aita Buenaventura eta Aita Abasolo Gotzain agurgarriak buru ziralara. Benetan egun handia izan zan niretzat. Hori bai, gitxiengozatu ebana neu izan nintzan. Neureganako hainbeste maitasun eta ederrikusi nabaritzean, lotsatuta ikusten neban neure burua.



Abadegaien errektore ospetsua

Erantzunbeharraren bildurrez

Aita Aureliano beti koldar eta bildurtti ikusi dogu bere gain hartzen zituan zereginen aurrean. Antza, Teresa Deunaren idaztietan irakurrita eukan Jaungoikoa estu samarra izango dala aginte eta ardurak daroezanekin eta hemendik sortu jakon, beharbada, agintzeko lotsa eta bildur hori.

Ez eban sekula menperatu bildur hori. Abadegaiak aukeratu eta moldatzeak hain ardura handia emoten eutsanez, honen sinisterra, barruko abots batek esaten eutsan, antza, berak ez eukala horretarako gaitasunik, ahalmenik. Ez zala bera zeregin hori trebetasunez burutzeko gizona.

Urteen joanean, sentimentu hau okerragotu, nahastuagotu egin jakon. Ez lanaren gogorak, ez nekeak, ez buruhaustek ez eutsen buruko minik emoten, bildurrik sortzen. Bildurra zeregin horren erantzunbehar astunak emoten eutsan. Uste eban bere hegazkada ez zala horraino heltzekoa.

Laino hau kontzientzian ebela jokatu eban beti, nahiz eta nagusien eritxia eta esana bere alde euki; nagusien portaera honetan aurkitzen eban nahiko argi bere lanean bide onetik joiala jakiteko.

Gogoan ditugu sasoi baten erretoretza hartzeko jarri zituaren eragozpen eta atxakiak. Gogo onez, baina bere bultzadaxoa behar izan eban orduan ere.

Agur esateko orduan ere ez dau erreminek izango. Horren asmotan dabil aspaldian. Urteetan aurrera doa; bizitza lanpetua eroan dau; ardura handiak leporatu ditu; gogoz ez, baina lanez nekaturik dago; ordezeko baten eske.

1952an, fraile gazte bat, Aita Alvaro, gazte jator eta gizatasunez ondo jantzia etorri zan seminariora. Lagungarri ederra. Gazte hau begiztatu eban Aita Aurelianok bere ordezkari erretoretzan jarteko. Aldikada bat erretoreorde legez egin, eta gero erretoretza emon. Honen amesean eban gure erretore bizar zuria.

Goiz baten, amets-ameslari, honen harira, hauxe idazten deutso Aita Probintzialari: *Ni neure aldetik, gogo betean, neure ordezkaria noiz etorriko nago. Ez dot presarik emon nahi, ez eta inor estutu ere. Baina ni erretiratzeko ordua heldu dala ikusten badozu, ni pozarren aurkituko nozu.*

Izendatu egizu Aita Alvaro erretoretzarako eta dana eginda egongo da. Ni horren zain nago. Neuri deritzanez, seminarioan geldituko nintzake irakasle lez, hori erretore barriaren gogoko izango balitz.

Baina gizona dabil eta Jaungoikoak darabil. Oraingoan ere Aita Aurelianoren amesak hutsean geldituko ziran. Aita Alvaro India itzi eta Espainiara itzuli zan. Gasteizko komentuan urte batzuk irakaskuntzan egin ondoren, Israelgo Monte Karmelora nagusi legez joan zan, eta hemen sasoirik onenean hil.

Baina aspergatxa da gure erretore jauna. Aita Alvarok etxerako bidea hartu baizen laster beste gazte jator eta etorkizun handikoa Indiara etorten ikusten dau, Aita Migel Angel Batiz, Bizkaiko seme argia.

Jaunak bialdutako erantzuna lez hartu eban Aita Aureliano gazte horren etorrera. Bertatik erretoreorde izendatu eban, seminarioko martxarekin ahalbait lasterren jabetu zedin.

Karmelgiri Seminarioko lanak guztiz amaitu ziranean, erretore barria hartzeko bide guztiak egokiturik egozala eta, Aita Probintzialari beste behin idazten deutso: *Aspaldian itxaroten dogun erretore barria mesedez eskatzeko ordua heldu dala deritzat. Nire buru eta indarrak egunero gitxituz doaz. Orain, erretoretza esateko baino ez naz.*

Ez egoan presarik ordezkaria jarteko. Esku onetan egoan seminarioa. Gidari azkarra da bertako burua; beraz, zertan arriskatu seminarioaren ona? Nor bera baino hoberik?

Baina erretore zaharraren eskaria ere entzutekoa zan. Urte asko eroiazan artaldearen artzaintzan. Bidaldi luzea zan berak egin; malda gogorak berak igondakoak; lan astunak jasotakoak. Bizitza gogorra artaldearen ondoan egin.

Danentzat eukan beroa bihotz harek. Danentzat babes; baina nekaturik egoan. Nekez ahuldurik. Gogo zutik, baina indarrak erkin. Gidari gazteago bat behar zan seminarioko. Erantzun eske egoan arazoa.

Bihozgabetasunez jardutea izango zan dei horri gor egitea. Honen arabera, Aita Aurelianoren arrazoibide guztiak kontutan izanik, haren lanaren ederrak txunditurik, inongo buruk merezi izatekotan koro meritugarririk, buru hori Aita Aurelianorena zala eta, haren gurariak bete nahian, poz eta abegitasun handiz, bere erretoretzako kargua iztea, paper-agiri baten ofizialki egiteko dirautso Aita Probintzialak eskutitz baten, legez aginduta zegoan eta hori, erretore barria izandakoa izateko.

Itxaropenak egin bidean sartu dira. Zerua argitu jako gure erretore zaharri. Hainbestetan amestutako eguna badator. Laster joko dau atea. Eskerrak dagitsoz zeruko Aitari.

Otoitzaren urrumara, honetara erantzuten deutso Aita Probintzialari: *Eskerrik asko zure eskutitzagaitik. Eskertzen zaitut niganako dozun borondate onagaitik, ekarri deustazun poza-*

gaitik. Bertatik doakizu nire karguaren ukamena. Nire aldetik ez da beharrezko ere nire ukapen hori.

Ni beti izan nozu menpetasunaren morroi. Neure bizitza guztia horretan emon dot. Orain hamabi urte, nire Nagusiak doan egin ninduen erretore, beraz gaur, doan kentzeko eskubidea dauke. Dana dala, pozez eskertuko zaituet nire kargu-iztea onartzen badozue.

1956ko zemendiaren 12an itzi eban Aita Aurelianok Seminarioko Erretoretza hori. Bere orde, fraile gazte batek, doez ondo jantzita etorren Aita Migel Angel Batizek hartu eban bere gain lan astun hori.

Aita Aureliano haurtxo txiki bat baino pozago gelditu zan, eta bihotz osoz eskeini eutsan bere laguntza Erretore barriari.

Baina esakune zaharrak dinoan lez, mundu honetan ez dago poz beterik; poztasun hutsa zerukoa bakarrik.

Aita Aurelianok ere bere pozaren ondoan, bihotz-gilbera txikitxo bat sentitzen eban. Kezkaz ilundu jakon barrua. Kezkati egoan Jaunaren aurrean.

Urrezko Ezteguetarako gertatzean, gogojardunak egiten egoala, altara aurrean bere kontzientzia apalik azterkatzen eban ordu luzeetan, holako kezka bat sortu jakon: *Ni erretore ona izan ete naz Jaunaren aurrean? Hezitzaile lez ondo bete ete dot egiteko hori? Nazan guztian emon ete naiako neure zeregin astun horri? Zein ete da Jaunak niretzat daukan auzia?*

Batez ere, gauza batek larritzen eban zeharo: *Aspergarria eta borondate gitxiko gizona ez ahal naz izan hainbestetan erretoretzatik kentzeko eskeka ibili nazan egunetan? Hainbeste erregu eta negar ez ahal ziran izango neure gogo txikiaren erruz?*

Honako pentsamendu eta irizpideetan eбилan kezkaturik hainbeste urtetan Seminarioko zama astuna bere gain eroan eban apostolu eredugarria. Santuak orrazi zorrotza erabilten dabe euren burua orrazteko; neurri estua kontzientzia azterkatzeko.

Eta honetan egoala zerua garbitzen jako. Bake gozoa isuri arimara. Jaunaren erantzuna datorkio Nagusien ahoz: Erroma-

ko Eliz Kongregazioak Aita Aureliano bere bizitza guztirako Alwayeko Seminarioko ohorezko Erretore izendatu eban.

Aita Migel Angel Erretore barriak irakurri eban, seminario guztiaren aurrean, seminaristen txalo artean, Erromako Agiri goragarri hau.

Ondo merezita eukan sari bikain hau Aita Aurelianok. Orain bai, orain pozik dago. Jaungoikoa Eliz Agintarien ahoz azaldu da. Agiri hori da honen ezaugarri. Aita Aurelianok apaltasunez hartu eban goraipamen hau. Handikeriak antxinatik daukaz guztiz zapaldurik. Ondo gozatu eban poztasun handi hau. Bere lan ederraren saria zan.

Aita Migel Angel ere pozik, Aita Aureliano bere ondoan eukiteaz. Gidari zaharraren eskutik bidea erraztuta, argituta aurkituko dau. Laguntzaile ona daroa bere lana jator eta trebetasunez beteteko.

Erretore barria ere gizatasun handiko gizona dogu. Gizon iaioa, argia, buruz eta ekanduz ondo jantzia. Indiarra joan aurretik, Begoñako komentuan teologoaren irakasle izan zan. Eliz Lege-di edo Zuzenbide Kanonikoa deritzogun jakintza irakatsi eban.

Indiarra heldutakoan, bertatik Alwayeko Seminarioan erretoreorde izendatu eben. Seminarioko martxari burpila hartu eutsanean, barriz, bere gizatasun eta dohainak kontutan izanik, Aita Aureliano erretiratu zanean, erretore egin eben. Aita Aurelianoren ildoari jarraitu eutsan erretoretzan.

Zuhur eta gogotsu, gorputz eta arimaz, bere bizitza erretoretzari emonaz burutu eban lana. Egunen joanean, entzutetsu egin zan erretore gaztearen baliotasuna, gaitasun gorena. Eta honek Erromarako bidean jarri eban. Ordenako Batzar Nagusi baten Ordenako Buru edo Jeneral izendatu eben. Sei urteko agintza.

Agintza hori amaitutakoan Aita Migel Angel langile argia Elizan Ekialdekoen alderako eraikia dan Kongregazioaren Zuzendari izan zan urte luzeetan. Gorengo mailatan egin dau Elizeagazko zerbitzua. Ez da lan erreza izan, baina bai jator eta trebe egina.

NORTASUNAREN DISTIRAK

Santutasunaren bila

Mendi handiak aldatzeko besteko fedea zan Aita Aureliano-k eukana. Ertzik gabeko fede iturritik etorkion Jaunaren harrigarriak egiteko eukan indar geldiezin hori. Hil arteraino santutasun-burrukan sartuta, jo eta ke, bizitza osoan fedearen hegoetan santutasuna lortu arte. Azterkatu daigun bihotz hori barrualdetik, ahal dogun guztian ezagutzeko.

Zelakoa zan barruz Aita Aurelianoren aurpegia, nortasuna? Beharrezkoa dogu barrualde hau argitu eta arakatzea gizona ondo ezagutzeko.

Barrutik datorkionaz bizi da gizakia. Barru horretan daroagu egoitzaturik gure bizi osoaren hasiera eta bizi-indarra. Hor ditugu biribildurik gure ahalmen guztiak. Lur horretan sortzen dira gure egiteen erroak.

Honen arabera, guk gizakia bere egiteetatik ezagutzen dogu. Hauxe da nor zer dan jakiteko Jesusek emon euskun ezaugarria.

Egiteetan luzea, aberatsa dogu Aita Aureliano. Galburuz beteriko gari-solo zabala; harribitxiz ederturiko baratze-lurra. Aita Aureliano-k bere bizitza aldian egindako bidetari orpoz orpo jarraitzen badeutsagu, ezaugarri edo nota nagusiok aurkituko ditugu bertan: lanerako eukan erabateko joera; bokazioari gordetako leialtasun, zintzotasun osoa; bere helburu eta jomugak gainditzeko eukan grina bizia...

Bere ondoan ibilitakoak, argi eta garbi azpimarratzen ditue datu honeek.

Honako goralmenak entzuten ziran askoren ahotik: “*santua da*”, “*mundua ainako gizona*”, “*lanari ekina*”, “*aurrerakuntza-ren maitalea*”. Aita Aureliano *santua* ezpada, ez dago *santurik Elizan*, hindutar baten eritxian; *etxe honetan santu bat* dozue, Aita Mateo Crawley-ren hitzak.

Berarekin hartu-emonak izandako guztiak, katolikoak izan edo ez izan, batera datoz arlo honetan.

Santutasunera heltzea zan bere grinarik biziena, gogokoena. Horren bila agortu eban bere bizitzaro osoa.

Gaitasunez beteriko gizona zala ikusi dogu. Bazter asko bete zituana. Irakasle, arimako gidari, Eukaristia Kongresuen antolatzaile, erretore eta abar izan zala. Doez ondo jantzia, langile porrokatua, geldiezina, alde guztietan aintzat hartua. Baina gauza guztien gainetik, bizitza osoan santutasunaren bila ibili zan gizona. Santutasunean jarri eban bere bizitzako izarra. Txiki-txikitatik eukan borborrean gurari nagusi hori.

Ez dagiala inok esan santu gura izatea handikeria danik, inotsen berak karmeldar gazte batzuei, euren profesako egunean.

Santutasunera deiturikoak ez deutse inoiz gurari honi trabarik ipini behar; gurari hau izan da Jaunaren aurrean handiak izan diranen ezkutuko bidea... Danok izan ditugu honako sentimenduak noiz edo noiz, batez ere, gure bizitzako une gorengo batzuetan, esaterako, komentura sartukeran edo seminarioan, profesia egitean edota abadetza hartzeko orduan.

Beraz, saiatu gaitazan apaltasun eta kemen handiz bide hori egiten! Gatxa da santutasunerako bide hori. Horregaitik geugandik hasita, benetan nahi izan arren, ez gara askotan bertaraino heltzen, baina, hala eta guztiz ere, lortu ahal daitekena da Jaunaren laguntzaz. Ekin daiogun bada zeregin horri inoiz aspertu barik.

Helburu hori bere amets guztien amesa zan. Fraile baten-tzat behar-beharrezko zeregina. Asmo honen guraririk gabe ulertezina egiten jakon abadetza ere.

Bere esanean “*santutasuna eskatu egin behar dogu goitiko grazia dalako; landu behar dogun harribitxia; gure ekinaren saria, gure burruka guztiaren koroia*”.

Beste behin, hileroko erretiro baten, honako berba sutsuak esan zituan: *Jaungoikoa zerbitzatu behar dogu argi eta garbi, bihotz guztiz, zabal-zabalean, mugarik jarri gabe.*

Kontutan izan daigun beti zer dan onena Jaunaren aurrean eta zer itxaroten dauan gugandik, gero horixe egiteko. Hauxe da biderik ziurrena.

Santa Teresatxori jarraituz, ez deiogun Jaunari ezer ukatu, txikikerietan ibili gabe, oso-osoan Jaunari emonik jokatu baino.

Zeruan oporrak

Santu izan nahi dauanak behargin porrokatuak izan behar dau. Astia galtzea ez da ondo alkartzen santutasunaz. Santuaren lan zaletasuna beti ekinean dago. Eskuzko lana edo gogozkoa dala, bere arnasa lez dau Jaunaren deituak.

Aita Aurelianoren bizitza osoan zehar agiri da lanerako eukan grina, zaletasun bizi-bete hau. Harrigarria da zelan burutu ahal izan eban berak, bai seminarioan eta bai seminariotik kanpo leporatutako lan izugarria.

Zelan lortu eban mirari hau? Ziur baten, lana hurrengorik hurrengora, kirian-kirian ondo antolatzen ikasi ebalako, eta gauza bakotxa egitean gogo guztia haretantxe jarten ekialako. Lana Jaunari eta gizakiari egindako zerbitzu bat lez ikusten eban berak. Hortik bere bizitzari ezarri eutsan burpil bizi eta gogorra. Bizitza zerbitzeko egina bada, zergaitik ez agortu azken tantaraino zeregin horretan?

Berrogeita hamaika urte Indian aberrira etorri barik egin arren, kartaz behintzat, etxeokoin hartu-emon beroak gorde zituala dakigu.

Bera gehienetan lanpeturik aurkitzen zalako arnasa hartzeko astirik gabe, luzaro samar gelditzen zan etxeko karta hori mahi gainean erantzun egokirik hartu barik. Hau ez zan onartzekoa; giza legea etenik gelditzen zan hemen. Hortik arrazoibide bat emon behar etxekoei, buru-zuriketa antzera. Honen harira idazten deutse etxekoei isiltasun honen zergatiak azalduz.



Fedearen Zabalkunderako Kongregazioko Prefektua
zan Aganianian kardilarekin

Iruñako monja karmeldarren komentuan lekaima zan bere loba Joakinari haxe idazten deutso:

Urte asko dira neure asti ezagaitik "Breviarioa" eguerdiko jolastorduan esan behar izaten dodala; eta errosarioa gaueko jolastorduan. Kartari erantzun eta honako lantxo batzuk egiteko, barriz, loari tartetxo bat kendu behar izaten deusat.

Oraintxe berton, goizaldeko lau terdiak dira; nire lagunak lotan dagoz. Hemendik ikusiko dozu zergaitik luzatzen diran horrenbestean nire erantzunak. Gogorik eza baino gehiago, astirik eza da.

Danera ezin heldu, eta inoizkoetan gizalegearen eskakizunak ezin bete.

Alwayeko Seminarioan luzaro baten irakasle-lagun izan eban Aita Emiliok oraindik garbiago zehaztatzen deuskuz seminarioko ordu-arauak.

Jagiteko txilin-hotsak goizeko lau t'erdietan joten dau. Aita Aureliano lauretan jagiten da. Txilin-hotsa baino zazpi bat minutu lehenago zabaltzen dau kaperatxo. Neure gelatik entzuten dot ate-zarata. Kaperara noa berehalaxe eta han Aita Aureliano aurkitzen dot. Urte luzeetan eta luzeetan berak beteten izan dau zeregin hau.

Lehenengo klase osteko jolastorduan, 9,30etatik 10etara, Aita Aureliano lanean dihardu bere gelatxoan. Jatorduetan hildura edo laztasun handikoa da. Jatordu osteko jolastorduan bere gelara joaten da Breviarioa errezatzera.

Tea hartutakoan, barrero, jolastordua; Aita Aureliano lanean jarraitzen dau. Bost t'erdia aldera, lana itzi eta bainua hartzerara doa astiro-astiro; honen hurrengo, altarako Jaunari ikustaldi laztana.

Gerriko mina zala eta, osagarri lez, azken aldiotan, pilotan jokutzen izan dau, baina honegaitik edo haregaitik orain itzita dago.

Gero arratsaldeko otoitzaldia dator, ikastordua eta afaria. Apalondoko jolastorduan Aita Aureliano errosario santua esaten dau. Jolasaldia amaitutakoan isiltasun osoan guztiok geure gelatara erretirutzen gara. Aita irakasleak, batez beste, laster doaz lotara. Aita Aureliano ez da hain arin lotaritzen. Lanean jarraitzen dau, bere zereginei erantzunez.

Baina Aita Emiliok, kronista zuhurra izan arren, ez dau bere azalpena ondo amaitu. Zertxobait itzi dau kolkoan. Bera, antza, loti ona zan. Eta bere aingeruekin amesetan egoala, isil-isilik inor konturatu ez zedin, aldameneko gelan bizi zan Aita Aureliano gelako atea zabalduta eta kaperara joaten zan gau erdian, egunero ez bazan ere bai astero, sagrario aurrean ordu-erdiko otoitz-gurtza egiteko.

Goizaldeko lau t'erdietatik gaueko hamabi t'erdietara tarte luzea doa. Ez da gauza edozein ordu mendi hori lanean eta otoitzean sartzeko. Hemen ez dago erarik alperkerian edo nagialdian egoteko. Ordutxo bat bera ez solaserako...

Atsedenaldi txiki bat hartzea ona zala esaten eutsanari, "zerua dago atsedena hartzeko" erantzuten eutsan. *Bakotxak ahal dauan guztia emon behar dau; hala eta guztiz ere, ez da nahikoa izaten. Ona da zeregintsu ibiltea, holan jendeari on egiten deutzazu eta zerua irabazi.*

Esan daigun Nagusien aldetik baimen guztiak zituala bizi-modu hau egiteko.

Lana antolatzen zehatza

Zelan eroan ahal izan eban Aita Aurelianok bere gain bizitza osoko lan-zama astun hau? Non egoan horren ezkutuko haria, indarra?

Lanak hurrengorik hurrengora, ondo eratu eta antolatzetik etorkion lana gainditzeko kemen hori. Egitarauak ondo gertatu, saiotu. Ez urten jarritako lanbidetik. Lainorik laino amesetan ibili gabe, egitekoak mugatu eta zehaztu. Buru eta belarri sartu lanaren errailetara. Ez inoiz albora begiratu. Taupadarik, unerik galdu barik lanari adi jarraitu. Araubide hau jorratu.

Adore eta bizitasun hau jarten eban bere eguneroko egikera guztietan. Egunetik egunera bere eginkizunak hobetzera jokatutu. Egite bakotxaren osotasunera jo, gauzarik txikienetan ere osotasun hau bilatu, nahiz seminaristentzat ikasgaiak gertatzean, nahiz hitzaldiak egitean, nahiz beste edozein zeregin jasotean.

HIL ARTERAINO MISIOLARI

Neure aldetik, hil arteraino misiolari izatea irabagi neban. Hitz honek zinatut zitan Aita Aurelianok hamabost urteko gaztetxoa zala Karmeloko lur gainean.

Erabagi hori ez zan izan gazte batek haizealdi baten egiten dauan txori-amesa; une gilberatsu baten egindako gogozko eskeintza arina.

Ziurrago, Jainko bideetan gazterik sartuta dagoan bihotz bat dabil hor taupadaka. Ez dau ziurrenik bere kabuz hartu asmobide hori. Espiritu Santuaren ikutua, arnasa jatsi da hainbaten gazte horrengana, beragan egonlekua egin, eta maiteminez bihotza zauritu ondoren, txoko babestuan alkarren arteko maitasun-hitza betiko zinatut dabenen antza dauko. Beraz, Espiritu Santuaren ikurra daroa erabagi horrek, hitzarmen etenezin bati lotuta.

Zintzo eta leial bete eban Aita Aurelianok gaztetako erabagi hori azken arnasa emon arte. Arreta handiz, buruz eta bihotzez, misiolaritzari emonik bizi izan zan.

Lekaidetzako urrezko ezteguak egin zituanean, kartatxo baten honako sentimentuak agertzen deutoz Aita Probintziolari:

Jaunak saritu deizula zure agurra. Urte asko egin ditut misiolari eta gauza askorik egin ez badot ere, neure bokazioan irmo jarraitzen dot behintzat. Jaunak niri egindako grazi bat lez hartzen dot hau.

Gero, bihotz ondoan daroan Seminarioatzaz honako berba samurrak dirautsoz: *Seminario honek urtero-urtero abade asko emoten ditu. Ezer onik egin nahi badogu Jaunaren aurrean arimen*

onerako eta Elizaren etorkizunerako, ez dot ezer hoberik aurkitzen, batez ere oraingo aldiotan, misiolariak gitxitu diranean. Hemen gelditu diranei lan gehiago tokatzen jake, baina, honen sariz, zeru ederragoa izango dabe gero.

Misiolaritzak holako harrigarritasun bat sortzen eban beragan; handitzat jotzen eban misiolaritzarako seme bat oparitzen eben gurasoen neke-eskeintza ere.

Harrigarriro idatzita agiri da sentimentu hau bere lehengusu-lehengusinei egindako eskutitz baten euren semea Ekialdeko urrunera misiolari joan zala jakin ebanean:

Bihotzez goraltzen dot Jaungoikoa zuek zeuen seme horren opari-eskeintza hain gogotsu eta kementsu egin dozuelako, baita zuen semeak misiolari joateko izan dauan bihotzeko indar adoretuagaitik ere. Ziur egon zaitetze, Jaunak ondo zainduko dauala zuen semetxoa, eta zuek, aldia heldutakoan, eskuzabalez sarituko zaituela, Jaunagaitik egiten dan ezertxo ere ez dalako galtzen.

Hainbeste urtez lurralde urrun honetan bizi nazan honek ondo dakit neuretik zelakoa dan maite-maite dituzun gurasoengandik banantzeak dakarren bihotz urrutua.

Eta guzti hori, lurralde galdu baten, arimen zerbitzua egitearren, eta gainera, ez beti inguruabarrik onenean. Hortik goresgarriago agertzen da zuen semetxoaren heroitasuna. Jaunagaitik egin ahal geinken bihotzeko nekerik handiena hauxe da, baina, behin egindakoan, aintzagarriena ere bai.

Ez zaitetze arduraz egon zuen Ikerregaitik. Esku onetan dago, ba, bera, Jaungoikoaren eta Jesusen Lagundikoen eskuetan dago eta. Jakina, misiolariaren bizitzak bihotz urratze handiak daroaz beragan, esaterako, sendiagandik banandu beharra, herrialde barrietako giro arrotza, ingurune ezezagunak, aberritik urrun bizi beharra, eta abar, baina berari ez jako ezer faltako. Jaunaren laguntza beragan izango dau beti, eta Hari zerbitzeak zorionik handiena ekarriko deutso zalantzarik gabe.

Izkribu honetan agiri jaku zabal-zabalik Aita Aurelianoren bihotz misiolaria. Zein zan, baina, bere pentsaera misioetzaz? Zelakoa zan bere barruko sugar kiskalgarria?

Sugar izugarri horrek biztuta, bultzatuta, aberats egin zan haren misiolaritza. Hortxe loratu ziran misioen alde eginiko harrigarri guztiak: 51 urtez Indiatik urten barik, behin ere bere aberrira itzuli bagarik, hil arteraino hantxe, lan eta lan misio aldeko oparitzan guztiz erre arte.

Bere etxeokak eta senditarrak gehiagotan ikusi barik behin Indiarra joan zanetik, 51 urtean etxeratu barik.

Ez ahal eban etxeokak ikusteko beharizanik sentitzen? Zer dala-ta tema hori? Etxekoenganako hoztasunak jota ete egoan ba?

Ezta hurrik emon ere! Ez egoan holako ezer. Holako ezer asmatzea bera ere pekatu astuna izango zan beretzat. Bere santutasun bidean porrot handia izango zan holako hutsune bat. Ez! Bihotz samurregia eukan horretan huts egiteko.

Honen lekuko hor dagoz berak etxekoei idatzitako kartak. Maitasun beroa, gozoa, samurra dariela datoz. Asko dira karta honeek. Ikusi daigun hemen, argibide lez, 1951eko azaroan, Jose Luis bere lobarri idatzi eutsan eskutitza. Bere lobatarren seme-alabak ugaritzen joiazan. Ez ekian zenbat ziranik, ez ezer. Honen jakingurara Jose Luisi senditar guztien izenakin zerrenda bat eskatzen deutso, izen, adin eta gainetiko zertzelada guztiekin, horretara senditarrekin hurbilago, batuago, senditarrago aurkituko zala-eta.

Bere ilobaren karta hori hartu ebanean, honetara erantzuten deutso:

Neure esku dago zuk senditar guztien jakingarriekin bialdu deustazun eskutitza. Oso ondo eta argi eginda dago. Eskertzen zaitut. Ia egunero irakurten dot neure senditar maiteon zerrenda hori, baita egunero eskatu zuokaitik Jaungoiko onari, hemen kristau onak izanik, gero goiko zeruetan alkarrekin aurkitu gaitzean. Han ditugu guri itxaroten gure aurretik joan jakuzanak ere.

Bere senditarrekin izan eban karta bidezko hartu-emon honeek argi erakusten deuskue Aita Aurelianok ez zituala inoiz hartu-emonak apurtu bere etxeokekin. Ez zan sekula eten karta bidezko hartu-emon hori. Indiako 51 urteetan zintzo eta irmo mantendu eban beti.

Beraz, ez da ageri hemen sendiagazko hoztasunik, ez destainarik, ez urruntasunik. Honetan susmorik txikiena ere Aita Aurelianoi irain gordina egitea litzake. Zuria baltzarekin nahaspilatzea. Haren izen ona lotsagarri jartzea. Sekula etzan erne holako bedar txarrik gizon haren bihotzean.

Zer dala eta ez zan, ba, bere herrirantz etorri? Horren gatxa ete zan behin edo behin etxe alderantz osteratxo bat egitea?

Harentzako bai. Guraso eta senditarrei zor jaken dedu eta maitasuna gainezka zituan Aita Aurelianok. Han jarri zituan gelako mahai gainean, Santo Kristoaren eta Ama Birjinaren ondoan, bere senditarren izenak baita hildakoenak ere lerroturik. Ia egunero begiratu eta irakurten eban izendegi hori, eta inoiz hutsik egin barik, egunero, bere senide hil eta bizien alde otoitz samurra egin. Honetara beteten zituan senditarrekin zituan eginbeharrak.

Egunez astirik ez, eta, goizaldeko lauretan etxekoei kartak idazteko edo erantzuteko ohetik jagiten dan gizonari zer gehiago eskatu leikeo?

Bere karta guztietan hauxe dirautse bere etxekoei: maite dituala, ez egoala eurekin ahaztuta, bihotzean dituala, baina bere zereginen erruz ez eukala ezetarako astirik eta horregaitik zala bere isil egote hori.

Bestalde, danok dakigu gizon santu horrek, egunaren barruan, bere zereginen artetik egiten eban ibilte estu hori. Lau ordu tentel lotarako, beste guztiak lanerako.

Zer dala eta ez eban egin osteratxo bat edo beste aberri-rantz? Gehien baten, bere siniskera eta eginbeharren morroi arduratsua zalako.

Seminarioaren zuzendaritzak lan-neke gogorrak emoten eutsazan. Ez eban ezelango ziobiderik aurkitzen zeregin hori, unetxo baten ere, bete barik bazterturik izteko. Egiteko hori Jaunaren eskutik hartutakoa lez ikusten eban berak; horregaitik hutsik txikienik gabe osotasun guztian bete nahi izaten eban. Jaunaren borondatea zehaztasun osoan bete. Santutasun bidea egin seminarioko mahasti hori zainduz.

Seminarioaren aldeko morrontza, zerbitzu hori beste gauza guztien gainetik bere lehenengo eginbeharra lez eukan. Bide hori jarri eutsan Jaunak santutasun mendira igoteko. Hortxe eukan josita bere bizitzako helburu nagusia.

Bestetik, osasuntsu aurkitzen zan. Etzan parranda zalea; Seminarioa ere pobrea zan; holako gastuekin beheratuta geldituko zan bertako ekonomia. Ez eban ikusten osteraldi horren beharrianik...

Hemen egoan bere argudioa. Behinago ikusten eban bere eguneroko lan eta ardurei zintzo jarraitzea. Honetara ikusten eban berak arazo hau: *Hainbeste lan deukagu hemen; nire familiak badaki ni ondo nagoala; beraz, ez deritxat behingoz holako osteraldi luze eta garesti bat ondo legokenik.*

Aita Aurelianok bere aukeraketa egitean Indian gelditzea aukeratu eban, Jaungoikoaren nahia horixe zala sinistuta egoalako.

Jaungoikozale eredugarria

Aita Aurelianok zirrara bizia sortzen ei eban bere inguruko-
en artean. Hori dinoe bera ezagutu eben guztiak. Zartada bizi bat somatzen ei zan barruan bera ikusteaz batera. Berari begiraturaz bakarrik santu baten aurrean zengozala konturatzen ei zinan. Horren jasa emoten ei eban berak.

Bizitzako arratsaldean zagozanean, errezago izaten da irudi hori emotea, baina Aita Aurelianok bere giza sasoirik ederrenean zegoela emoten eban santu irudi hori.

Aita Aureliano ondo ezagutzen eban seminarioko irakasle batek, gainera seminarioko kronikalaria zanak, Aita Emiliok, bere eritxietan gogor samar zanak, 1940an, santua zala idatzi eban: *Santua da.*

Bardin dino Delhi Barriko hindutar batek ere.

1957ko ekaina zan. Aita Zakarias, misiolari jatorra, Aita Aurelianoaren adiskide eta lankide mina, Vellore-ko ospitalean egoan gaixorik. Aita Aureliano gaixoa zaintzen. Bata baino beste jaungoikozale handiagoak.

Urrun bagarik, ohetxo baten, zortzi urteko mutikotxo bat azkenetan. Honen aita zizpuruz negarretan semearen ondoan. Saminak jota, mundua gainean dauala, baretu ezinik.

Ez daki zer egin, ez nora jo ordu larri haretan. Larriaren larriak guttiz ilundurik dauka.

Haragotxoan Aita Aureliano ikusten dau gaixo zain. Bihotza kili-kilika hasi jako taupada bizian. Gizon harek aparteko itxura dauka bere bizar zuri eta abituarekin. Santu antza hartzen deutso.

Itsasoan galtzeko zorian dagoanak egurrari heltzen deutsan lez, hindutar harek ere egur hori Aita Aurelianorengan aurkitu eban. Barruko abots isil batek esaten eutsan misiolari santu harek bere semetxoa gaixotik salbatzeko grazia izango ebala.

Beragana zuzendu eta hiltzen egoan bere semetxoari bedeinkazio bat emonez bere alde otoitz egiteko eskatzen deutso. Aita Aureliano bera ere errukizko saminak jota umetxoagana zuzentzen da. Eskuak bular gainean baturik, begiak itxita, otoitz beroan sartu da. Hindutar haren gurariak bete ditu.

Halako baten, mutikotxoa bizkortzen hasi da; urrumatxoak egiten ditu; bere onera dator apurka-apurka; azkenean osatu egiten da egun gitxi barru.

Umetxo haren aita hindutarrak, pozak hartu ezinik, eskerak zelán emon ez ekiala, autortza hau egin eban Aita Aurelianoen goralmenez: *Bere antzak Jaungoikozko gizona zala esaten eustan. Gizonen indarrak ezinean egozala ikusi nebanean, Jaungoikoagan jarri neban neure itxaropena. Zuzen egon nintzen Jaunagan neure itxaropena jartean, baita ha aguretxo bizar zuria Jaungoikozko gizona zala sumatu nebanean.*

Honako testigantza asko batuko geunkez hemen. Haren heldutasuneko urteetan, beraren goibideetatik ibilteak, beraren maitagarritasunak, beraren ontasunaren dirdaiak itzala eta begiramena, bihotz mugida bizten eban edozeinen begietan.

Onerako bultzada bat zan bere pertsona osoa. Bere santutasunak sortzen eban eraginera, ez sinisgeak bakarrik, beste erlijioetakoak ere kristau fedea hartu eben. Haren eraginak goitiko ikutu bat eukan.

Haren bizitza, berez, sermoi luze bat lez zan. Predikatzen eban guztia berak beteten eban aurretik, eta berak egiteko gauza etzanik ez eban predikatzen -bere ikasleen ahotik jasotako hitzak dira. Seminarioarentzat bedeinkapen bat da, goiko Jaunak bialdutako opari estimagarria -seminaristen esanetan.

Honako hau idazten deutse Alwayeko seminaristei nagusi agurgarri batek: *Zorionekoak zaree zuek seminarioan Aita Aureliano eta Zakarias lakoxe gizon bi dituzuelako.*

Gaur egun eztabaida asko dabil bazterretan seminarioen barrikuntza dala eta ez dala. Garrantzi handiko arazoa da izatez, baina, azken baten, arazoaren esangura osoa honetan biribildu geinke: abadetzari buruz hitz handiak erabili barik, abadetzaren eredu on eta bizi bat aurrean erakusgarri eukitean dago.

Norberaren gazi-gozoek

Hainbeste denporan Aita Aureliano egin eban lez santutasun biderei holako bizitasunez eta zintzotasunez ekiteko, haren antzeko harrigarritasunak egiteko, onbidea erakutsiz bizitzari harek jarri eutsan bardingabeko eredugarritasuna lortzeko, Jaungoikoaren graziaz gainera, norbere aldetik borondate sendo eta nekeezina, eta izakera beteá, ondo egina, setatsua behar dira, zalantzarik gabe.

Guzti hori eukan gure Aita Aureliano. Txiki-txikitatik hasiera ona izan eban; osasun onekoa zan; norberaren erantzukizunei eta zereginei zintzo erantzuten ikasia; barruz kementsua, indar handikoa. Nire ustetan barruan eroian indar izugarri hori beraren bizitzaren bizkar-hazurra, motor sendoa lez izan zan.

Barru sendo, indartsu hau behar-beharrezko da bizitzarako; ezin hobea da gailurretara igoteko; gauza handiak egiteko bidean dago indar horren jabe dana.

Baina arriskuak ere baditu, tentaldiak. Bide okerrera makurtu ezkerro, kalte askoren iturri bihurtu daiteke.

Geure izakerari dagokionez, bakotxak bere urratsa izten dau gizartean. Besteentzat gogorra, zorrotza, latza, zaila nahiz

saminkorra, haserrekorra, eroan txarrekoa, odol beroa eta abar izan neiteke. Bakotxak geure kakoa dogu.

Aita Aurelianok ere, neurri txikian, baina bere grinak, bere gora-beherak, bere jenioaren karraskadak ezagutu zituan une batzuetan.

Abade barri zala gogor samarra ei zan gauzak txarto eginda ikusten zituanean; errez samar berotzen ei zan nagitasun eta itxitasunaren aurrean, edota ikasleen huts eta moteltasunak ikustean. Ez ziran gora-goraka jartekoak haserreok, baina bai itsusi eta kaltekoak. Gogor burrukatu beharra izan eban hutsune eta ekandu horreen aurka. Ez zan gauzea zezen-burruka bateraino heltzen, baina zeregin nekegarri, gogaikarri eta amorratu bihurtu zan beretzat.

Gure izaerak jaiotzatik dakarzan ahulkeriak dira honeek. Akatsak eukitea gizakiaren berezko gaixoa da. Akats bako giza-kirik ez dago. Hemen ezin alkarri harririk bota. Danok gara lege horren morroi. Beraz, bakotxak geure ahalegin eta izerdiz azpiratu behar ditugu gure hutsak eta putsak. Or dago gure eguneroko gerra lekua. Hor oker horreek gugandik aldentzeko egin behar dogun burrukaldia.

Urteetan zelan gora egin, holantxe pitinka-pitinka, aurpegi-ko eulitzarra botaten dan lez, bota zituan itsas azpira bere grina txarrok. Aita Aurelianok argi eta garbi irabazi eban grina txarren kontrako matraka hori. Bere buztin zaharra, aingeru barri bihurtu eban.

Tentaldiak, arriskuak, zailtasunak aurkitzen ditugu Aita Aurelianoren bizitzan. Etzan aingeru jaio, baina izatera heldu bai. Nondik jaso eban horretarako behar eban indarra?

Bere sinismena gori-goritan bizitetik, santutasunera heltzeko eukan egarritik, bere otoitz zaletasunetik, Jaungoiko maitasunetik, gizakiari gorde eutsan begiramenetik, Jaungoikoagan eukan uste osoagandik, bere borondate sendoaren indarretik... Azken baten, berea izan zan meritua.

Paulo deunaren antzera "burruka ona egin dot" esateko eran egoan gure Aureliano goragarria.

ONERAZPENIK GOGOKOENAK

Aita Aurelianoren jaunkoikozaletasuna norainokoa zan jakiteko bere jaiera edo deboziorik urtenenak eta gogokoenak ezagutu behar ditugu.

Orduko garaietan, Eliz arloan zabal-zabal ebiltzan jaiarak ziran beretzat gogokoenak. Batzuek umetan jasorikoak; besteak ordenan ikasitakoak. Beragan Jainko-maitasuna goritzen eben sugar-txinpartak lez ziran. Bere santutasunaren jantzia.

Jesus egoan lehenengo tokian. Honen maitemindua zan. Jesusen Nekaldia, gurutze-bidea, gau erdiko sagraio aurreko otoitza, Eukaristia eta Jesusen Bihotza zituan urkoenak, maitenenak.

Karmelora sartu baizen laster ikasi zituan Teresa deunaren hitz jakingarriok: *Ahal neban guztian Jesus neure bihotzean neurekin ekartea izaten zan neure ardura guztia. Horixe zan neure otoizkera guztiaren ardatza.*

Uneoro Jesusekin bat eginik bizi, Jesusen ederra eroan barruan, Jesus izan ames bakar. Haren maitasunean barrendurik erre bizitza osoa.

Ume-umetatik egin zan Jesusen Nekaldiaren maitale. Etxean, eguneroko errosario-ostean, bost Gure Aita, Agur Maria eta Aintza esaten jakozan Jesus Gurutzalduari, bere bost zauriak gogoratuaz. Maitasun horren ezaugarri lez, gurutze txikitxo bat eroaten eban bular gainean. Etxeko sutondoan ikasitako debozio honi hil arteraino zintzo jarraitu eutsan.

Gurutze-bidea ere eguneroko ogia zan beretzat. Esan dogun lez goizean goiz, berak zabaltzen zituan Alwayeko Seminarioko

kaperako ateak. Bera zan besteak baino lehenago kaperara sartzen zana. Astitxo hori hartzen eban gurutze-bidea egiteko, Horren hurrengo, eguneroko Eukaristia.

Goragoko orrialdeetan ikusi dogun lez, urte luzeetan, India guztian zehar Eukaristiaren eratzaille eta apostolu gorengoa izan zan. Bere izena Eukaristia Santuak munduan izan dituan eratzaille eta maitalerik onenen artean dago.

Eta Eukaristiaganako maitasun honen luzapen eta ezaugarri lez, Jesusen Bihotz Santuaganako maitasun bero eta sutua, Eukaristia eta Jesusen Bihotza bat bera dira. Iturri bateko urak, Bihotz bakarria dabil hor taupadaka. Hau argitzen daben gertaera asko aitatu ditugu goragoan.

Aita Aurelianok Eukaristia guztiz Santuaren debozio bikotx hau Indian zehar zabaltzeko orduan jaso zituan neke-lan eta zailtasunak norainokoak izan ziran ikusteko, Aita Mateo Crawley-ren hitzak gogoratuko ditugu hemen lekuko.

Aita Mateo Crawley oso ezaguna zan garai haretan. Jesus eta Mariaren Bihotz Santuen Kongregazioko frailea zan bera. Jesusen Bihotzaren apostolu mina. Mundu osoan zehar ibili zan Jesusen Bihotz Santuaren debozioa zabaltzarren.

Aita Aurelianok eroan eban Indiara bertako abade eta seminaristei gogo-jardunaldiak emoteko. Ziur egoan abadeen artean on handia egingo ebela haren hitzaldiak. Horrela gertatu zan gertatu ere. Bost hilabete luzeak egin zituan Indian hizlari, gogo-jardunaldiak emoten.

Jardunaldi horreen nondik norakoak eta noiztik noizerakoak eta gainetiko eraketa korapilotsuak Aita Aurelianoren esku gelditzen ziran. Aita Aureliano zan antolatzaile nagusia. Antolatzaile ezin hobea, gainera. Bai ondo antolatu ere!


Entzun daigun hemen Aita Mateoren autortza. Agur egite-rako hitzaldian honelaxe egin eban berba: *Indiako abadeentzat gogo-jardunaldi honeen bidez ezer onik egin bada, eta on horregaitik inori esker onik emoterik badago, Jesusen Bihotzaz hurrengo, Aita Aurelianori zor jako, ez beste inori; berau izan dot neure ezkutuko aingerua.*

Berak ekarri nau Indiara. Eta ez hori bakarrik. Berak egin izan ditu eraketa ezin hobekak jardunaldiok lurralde guztietan banatzeko.

Harrigarria izan da zein eratsu eta nahasterik gabe, zelako ondorio ederrez jakin izan dauan Indian zehar nire jardunaldiak banatzen. Ez egoan hori lortzerik ekintza guztiak bateratuz, buruz eta santu-bihotzez jokatzuz izan ezik.

Jesusen Bihotz maiteak bedeinkatu eta saritu dagiala bera, ez dagoelako gizonen saririk harek egin dauan lana saritzekorik. Deus conservet eum!

Aita Mateok, bere Indiako egunetan, Aita Aureliano barru-barrutik ezagutzeko aukera izan eban. Handik aurrera adiskidetasun santu batek alkarturik bizi izan ziran biak. Ondo ezagutzen eban Aita Mateok Aita Aurelianoren santutasuna. Horretan ez eukan zalantzarik.



Abadetzaren urrezko ezteguetako jaietan. Aita Gregorio Ruilope probintzialaren eta Aita Migel Angel Batiz ondoko errektore izan ebanaren artean

Honen agergerri bere Kongregazioko Jeneralari honela idazten deutso karta baten: *Hirugarren aurrelari bat, hitzez eta egitez guztiz azkarra, Maitasunaren Erregeak Aita Aureliano dau. Nik Indiako apostolu handia esango neunskio.*

Gotzainak ere bere jakituriazko argi eske joaten jakoz; fededunak harriturik daukaz bere bizitza santuaz. Frantzisko Xabier ez da bat ere lotsatuko, bere ondoan isil-isilik Aita Aureliano jartera ausartzen banaz... Apostolu talde batek aina balio dau

Fraileentzako egiten zituan hitzaldietan ere, azkeneko aholkua hauxe izaten zan: *Izan zaiteze Altarako Sakramentu guztiz Santuaren gurtzaile beroak.*

Bere abadetzako urrezko ezteguak ospatu zituanean, elizkizunera etorritako hainbat gotzain eta abadez osotutako taldeari eskerrak emoterakoan, bere hitzaldia eskari bi honeek eginez amaitu eban: *Lehenengoa, hemen gagozan abadeentzat: izan gaitzezan egiaz Eukaristiaren abadeak. Abade eukaristiarrak! Bigarren eskaria Jaunari: emoiguzu gure abadetza bete-betea biziteko grazia.*

Seminarioan, 1939an, hileroko Gaueko Gurtza jarri eban.

Santuen erreskadan, lehenengo tokian Ama Birjina eta Jose santua datoz.

Jesusen hurrengo Ama Birjina zan bere bihotzeko Erregina eder eta maitea. Karmengo Amaren eskapularioa bularrean eta errosarioa eskuan, irudi hori daroe begi-ninian bera hurretik ezagutu eben guztiak. Holantxe agertzen zan Aita Aureliano eguneroko bizitzan.

Edo bidaia bat, edo astialditxo bat, edo egotaldi bat egin behar zanean, une hori ez jakon ez nekegarri, ez aspergarri egiten errosarioa eskuan baeukan. Gau eta egun, errosarioa, harribitxirik ederrena lez, beti berarekin.

Ikustekoa zan haren beroa, garra Ama Birjinaren aurrean jarten zanetan; liluraturik begiratzen eutsan Amari, begiak beragandik kendu ezinik. Seme maiteminduaren antza eukan holako orduetan. Bere senetik urtenda egoala emoten eban.

Entzutekoak ziran Andra Mariatzaz egiten zituan hitzaldiak; ikustekoa harek jarten eban beroa, gozotasuna, txukuntasuna. Ahalegin guztiak agortu zituan Karmengo eta errosarioko Anaidiak zabaltzeko zereginetan.

Horrez gain, Seminarioa Mariaren Bihotz Garbiari eskeini eutson holako jaialdi eder baten; hileroko lehenengo larunbatean debozioa biztuta jarri seminaristen artean. Azkenez, Seminarioko sarreran Fatimako Andra Mariaren irudia eraiki, Seminarioaren zaindari, jagole Ama Birjina eginez.

Batez beste, bere hitzaldietan hiru gai kutun eta berezi jorratzen ei zituan, seminaristen esanean: abadeen santu izan beharra; Sakramentuan Jesus gurtu beharra, eta Andra Mariagazko jaiera beroa, bete-betea.

Jose santua ere, gazte-gaztetatik, bere santu kutuna eban. Santa Teresak Jose santuaren baliotasunaren alde esandako hitz aipagarriak bereak eginik eukazan, hau da, San Josek berari uste onez eta itxaropen osoz eskatzen deusagun guztia jadesten deuskula. Eta sinisten ez badogu, proba egiteko.

Aita Aureliano sinistuta egoan. Proba egin ere bai. Beharrian handiren baten aurkitzen zanean Jose santuarengana jotzen eban. Holantxe egin eban Alwayeko kapera barria, eta filosofoentzat *Karmelgiri*-ko semanario barria egiten hasi zanean.

Diru-gabezia handia, nondik atera ez, eta Jose santuaren eskuetan itzi eban ardura hori. Diruzain eta arduradun Jose deuna izendatu eban. Gero, berak ere, esker onez, obra biak amaitutakoan, San Joseri eskeini eutsazan. Haren ardura eta begipean jarri biak.

Garbitokiko arimak ere bere kutuntxoan artean zituan. Otoitzak otoitz, errukizko maitasunez sentitzen zan eurekin egunero.

Lisieux-ko Teresatxo santua ere bere arreba txikia lez ikusten eban; haren apaltasuna, xalotasuna nahiz santutasunera igoteko gogo bizia eta erabideak begi aurrean eroiazan beti bereak egiteko guraritan. Haren antzeko arima txiki, apal, jainkotiarra izan nahi eban berak ere.

MAITASUNAREN TONTORREAN

Joan apostolua dogu, Jesusen ikasleen artean, maitasunaren oihulari eta kantari. Jesusen Bihotzeko iturrian edan eban berak ur garden hori. Bere ebanjelio eta idaztiak maitasunari idatzitako abesti-kanta ederrak dirudie.

Joan dogu gidaririk onena maitasun bideak erakusteko; maitasunaren harrigarriak kantatzeko; gizadiaren aurrean daukan garrantzi handia azaltzeko.

Honetara hasten dau Joanek bere abestia: *“Jaungoikoa maitasuna da”*. Mundu guztia pozez txaloka jarri dau Joanen abesti honek. Ez da sekula holakorik entzun lur gainean.

Eta maitasun hori batez ere gizakiagan itzulirik dator. Jesukristoren bitartez sartu da gure zanetara. Gudan isuritze honek Jaungoikoaren seme-alaba egiten gaitu; anaitasun orokor bat sortu dau gizaki guztien artean. Honen ondorioz, maitasuna dagoan tokian Jaungoikoa dago, eta maitasunik ez dagoan tokian, barriz, han ez dago Jaungoikorik.

Hemen zorrotz datorkigu Joanen hitza: *“Maite dot Jaungoikoa”* norbaitek badino, eta bere anaiari gorroto badeutso, horrelakoa guzurtia da: *ikusten dauan anaia maite ez dauanak, ikusten ez dauan Jaungoikoa ere ezin maite daike-eta... Jaungoikoa maite dauanak, bere anaia ere maite izan dagiala* (1 Jn.4,20).

Eta Jaungoikoa maitasuna bada, Aitarik onena, ondorio ikaragarria datorkigu hemendik geure bizitzarako: Jaungoikoaren antz-irudira eginiko gizaki guztiak, nor zein dan begiratu barik, mundu zabalean zabaldurik bizi diran gizon eta emakume guztiak geure anai-arrebak ditugula.

Hauxe da Jesusek guri eginiko iragarpenik handiena: Jaungoikoa gure Aita dala. Aita onbera eta errukitsua. Eta gu alkarren anai-arreba. Mugarik gabeko anai-arreba izate hori da kristauaren ezaugarria, ikurra. Jaungoikoaren aitatasun horretan dago sustraituta gizakien arteko anaitasun hori.

Hortik dator Jesusen aginduaren goitiko indarra: *Nik maite izan zaituedanez, zuek ere maite dagizuela alkar*. Anai-arrebak maite ditugun neurrian da zindoa eta zuzena Jaungoikoagana-ko gure maitasuna ere. Aita honek gizakiaren ona eta zoriona nahi ditu.

Horretan agortu zituan gure Aita Aurelianok bere bizitzako egun guztiak: Jaungoikoa eta gizakia maitatzen!

Jaungoikoa eta gizakia bihotz batez maitatu zituan. Ezin bestean. Bizia emoteraino. Alwayeko Seminarioan eta Indiako eremu zabaletan itzi eban bizitza osoa bere anai-arreben oparitzan kiskaldurik. Anai-arreben alderako eginiko opari bat izan zan.

Aita Aurelianoren bizikerak erabateko mirespena eta benerezioa sortzen eban bere etxelagun eta ikasleen artean. Zer dala-beraganako benerezio hori? Ziur-ziur jaungoikozale apala, otzana izanik, guztien otsein eta zerbitzari egiten zalako.

Eta besteen zerbitzaria izatea, nahiz-eta maitasunaren poze-tan egin, beti da neketsua; berezko ukamena daroa. Maitasuneko bizitzak norbere buruaren ukamena daroa oinarrian bertan: *Harek bere bizia gure alde emon eban. Guk ere gure bizia anai-arreben alde emon behar dogu* (1 Jn.3,16).

Zer esan nahi dau honek? Zer da bizia anai-arreben alde emote hori? Ez da zer edo zer hurkoari opatzea, emotea: "hartu egizu erregalu hau, limosna hau". Hori baino zerbait gehiago da: Norbera emotea da! Barruan geurea eginik daroagun zertxobait emotea: maitasuna, poztasuna, adiskidetasuna, ardura, parkamena, ederrikusia, astia eta lana. Anai-arreben alde egiten dan eskeintza da, azken baten.

Eta eskeintza hau beti ere nekagarria izaten da, askotan mingarria. Geugandik zertxobait ateraten dogu, eta horrek,

nahi eta ez, bere urratua izten dau barruan. Maitasunaren su gozoan, egunen joanean, astiro-astiro erreten doa gure bizitza.

Jarri daiguzan hemen adibide batzuk dinoguna egiztatzeko: gizontxo kaskarro bat daukagu aurrean. Latza eta gatxa da bera lagunarterako. Hasarrekorra, suminkorra; ez jat bat ere atsegin gizon hori. Zelan maitatu bera?

Neure barruko sakadari gainezka egiten itzi barik, neure izatezko joerak lotu, eragotzi; bera onez hartzeko eran eta guraritan jarri neure gogoa, eta gero neure ederrikusia zabal-zabal agertu berari. Horretarako zerbait bizia dana hil behar dot neure barruan. Eta hori neure maitasuna oparitzea da.

Iraindu gaituenari parkatzeak ere zailtasun bardinak dakarkiguz. Bihotzak parkatu nahi eta irainak ezetz esan. Zerbait hil behar geugan anaia besarkatu ahal izateko. Maitasuna heriotza txikiz idazten dan biblia da. Maitasun bide garbi hori egin eban gure misiolari handiak.

Buruari uko egiten

Jaungoikoa maitatzeak ere burua ukatzea dakar.

Aita Aureliano ez zan, bere buruz, penitentzia eta hildura latz eta handien bila ibiltzen zan gizona.

Karmengo Ordenan ohizko ziran penitentziak, eta bizimoduak berak bere ibilian gordeta dakarzan gainetiko gora-behera, neke, buruhauste eta gurutzetxoak zituan maite.

Esparru honetan zan betetzaila estua, kunplitzaila zintzoa. Bere buruaz gogorra, nahiz eta gainetikoekin beti maitagarri, gozo, atsegin, begiko, onbera hutsa agertu. Bere gelako atea zabalik eukan beti edonor edozein ordutan hartzeko.

Bizimodua bera izaten da askotan gure gurutze-bidea astun egiten dauana. Noizbehinka gurutzea bera jarten jaku, baime-nik eskatu barik, gure lepo gainean. Gurutze honek antz-irudi asko hartzen ditu beti ere.

Batzuetan nahigabearen irudipean dator, edota gaixoaren, nekearen, ezbeharraren, ezintasunaren antz-irudipean; hau da, bizitzak bere iraganean dakarzan eguneroko arantzak batu

behar izaten ditugu geure eskuz, eta eskuak minez odoldu egiten jakuz. Guztion gain jausten diran ezbeharrak ditugu.

Zer egin holako orduetan? Kalbario aldera zuzendu gure begiak; gurutzepan jarri Kristorekin; berarekin berba egin; adiskidetu; besarkatu; lepoak alkarri lotu eta biok batera eroan gurutze hori goiko tontorreraino. Bihotza odoletan eroan arren, gogo zutik, tente, Jesus Nekalduaren eskutik geure gurutze-bide hori eginez.

Oinaze eta nekeok maitasunez eroatea, Jaunaren aurrean baliteke martiritza bera baizen sarigarri izatea -esaten eban Aita Aureliano.

Maitasuna oinazean egiaztatzen da; oinazeak garbitzen dau maitasuna. Jaungoikoagaitik oinazeak eroatetik ez dator inoiz kalterik; ona da horretara oinazeak eroatea.

Pentsamentu honi zintzo jarraituz, Ordenako nobiziduan ikasitako hilduma eta laztasunak bihotzez gorde eta bete zituan beti. Hau ere esan behar: askotan gurutzetxo bat eroaten eban bere bular gainean, inok ikusi barik, atzaldetik burdinazko eztenak, izpitxoak zituana. Ez zan odola ateratzeko ainakoa. Jesus Gurutzalduari eutsan maitasunaren ezaugarri ageriko legez eroaten eban gurutzetxo hori.

Inok ez eutsan entzun kexatxoren bat bidean aurkitzen zituan eragozpen edo ezbeharren aurrean.

Edo Indiako eguraldi kiskalgarria zala, edo oztoporen bat agertzen zala lagunarteko bizitzan, edo gaixoa zala, edo Erretoretzako ardurak zirala, edo lanez zamaturik egoala, edo okerren bat zala, hau da, edozelako ezbeharra zala, santuen erataro erango zituan bizitzako zoritxar eta atsekabeok gure Aita Aureliano.

Berez jenio bizitxo eukan gizona zan. Eta izakera biziko gizona sarri agertzen da urduri eta kezkatu holako oztopoen aurrean. Txispak botatzea erreza izaten da holako orduetan. Zenbat txori gorri ez dira botaten urduritasunean!

Aita Aureliano ere ez eukan berezkorik. Burrukaldi handiak egin zituan bere jenio hori bigundu eta menperatzeko,

batez ere, bere gaztaroan. Hor agertu eban bere borondate sendoaren irmotasuna.

Bere heldutasuneko urteetan gatz horren arrastorik txiki ere ez ei jakon gelditu. Burrukaren indarrez, eguneango ahaleginez, azkenean errez egin jakon grina hori menperatzea. Hemen aitopen asko ditugu.

Guztien ordezko Aita Alejo Zamalloa Galdakaoko seme jatorrak, Aita Aurelianoekin irakasle-lanetan Alwayeko Seminarioan hogeita hamar urtetan berarekin bizi izan zanak berba gogoangarriok itzi zituan handikiro sinatuta:

Neure aldetik, eginahalak egin arren ere, ezin dot aurkitu beragan akatsik txiki ere. Izaera bizikoa izanik, Aita Benegarriak, azken urteetan, bere buruarekiko jabetza osoa lortu eban, danekin maitagarri eta atsegingarri izanik. Inok ez eban sinistuko Aita Aureliano inoizkoetan jenio bizikoa zanik.

Ordurako jenio txarraren gangarkeriak hilobiraturik eukazan. Heldutasuneko baretasuna nabari zan beragan. Baretasuna eta santutasuna.

Bere bizitzaldi osoan lekaideen eredu eta jarraibide izan zan. Bere zahartzaroan bertan ere ez eban Ordenako legedia betetzera koan nasaitasun txiki ere hartu. Ordenako bizibidea oso-osoan besarkatu eta beteten eban.

Aitorpen hau egiten dabe Aita Joseba Zubikarai eta Inazio Olaizolak berarekin hainbeste urtetan Alwayeko Seminarioan irakasle izandako misiolari agurgarriak.

Santutasunaren doe eta distiraz jantzirik ikusten dabe Aita Aureliano berarekin luzaroan bizi izandako gure misiolari jatorrok.

Iturritik bertatik hartutako ur garbia da aitorpen eder hau.

HAZIA EREITEN

Ez da erreza kristau izatea. Horretarako egiaz eta benetan bizi behar dozu zeure fedea; egiaz eta benetan, bihotz osoz maitatu Jaungoikoa eta gizakia.

Jesusen misioa, misio orokorra izan zan. Ez zan etorri Jesus arimak, espirituzko alderdia salbatzera bakarrik, gizakia osoan salbatzera baino. Argi dator hemen Isaias igarlearen hitza: *Itsuei begiak zabaltzera, bihotz minduak osatzera, saminduei poza ekartera, lotuei eta giltzapean dagozanei askatasuna iragartera bialdu nau* (Is.61,2).

Kristauok Jesusen txartela eroan behar dogu eskuetan eta Haren egiteak bihotzean. Gure bizitzari darion autorpen hau izango da agiririk onena jendeari kristautasuna iragarri eta opatzeko.

Bateo egunean emon jakun eskuetara misio hau. Jesusen misio berbera da. Beraz, geurea egin behar dogu. Jesusen antzera guk ere munduaren eta gizakiaren ibilbideak aldatu, hobetu, erabarritu, askatu, galbidetik atera, gaizkatu egin behar ditugu.

Hauxe da kristauen egiazko misioa, egitekoa. Ez gaitu Jesusek munduan jarri isilik eta geldirik, nagikeriazko loan egoteko, mundugintza barri honetan langile kementsu eta porrokatuak izateko baino. Gaur eta hemen geurea da misio hori. Baztertuta izteak, muzin egiteak, gure kristautasunaren hutsa, porrota iragarriko leuke.

Kristautasun bizi, eragile hau nahi eban erein eta zabaldu Aita Aurelianok Indiako lurraldeetan. Kristautasun bizi horren mintegia, barriz, bere esku eukan Seminarioan.

Bere seminaristak izango ziran, etorkizunean, abade egin-dakoan, kristautasunaren ereile eta zaintzaile, horretarako izendatuak eta aukeratuak izan dira, ba, Jaunaren eskutik.

Kristauen alkartean abadea beharrezko giltzarria da. Eta abadegaien mintegia seminarioan dago. Eta seminario hori bere ardurapean. Berak zaindu behar ditu landare horreek. Berak ongarria eta ura bota, berak hotzetik babestu; bere lehenengo ardura bihurtu. Berak hazi, hezi eta moldatu gaztedi eder eta ameslari hori.

Ez da txantxetako lana. Honegaitik hartzen dau berak horrenbesteko itzal eta begiramenez zeregin hori. Baita horrenbesteko bildurrez ere. Nagusien esana egitearren bakarrik hartzen dau bere gain ardura hori. Eta eginkizun astun eta garrantzitsu hori ahalik eta ondoen betetzeko asmo eta guraritan, bere buruaren ukapena azken-azkeneraino eroanez, zeregin horren betekizunean gurutzaldurik, gorputz eta arimaz gazteon heziketa eta moldaketa lanari gogor eta zehatz loturik geldituko da bere bizitzaro osoan.

Abadetzara helduko dan gazte bakotxa Jesusen igarle handi bat egin nahi dau Aita Aurelianok.

Jaingo-Herriaren artzaintzarako aukeratuak izan diran gazteak igarletza horretan lehenengo tokian jarri beharko ditugu, euren maila horrek eskatzen dauanaren arabera.

“Igarle” hitzak esangura handia dau kristau erlijioan. Jaungoikoaren izenean berba dagianari deritzogu guk igarlea. Ez da geroa eta etorkizuna iragarten dituan gizona; hori baino behinagoa, Jaungoikoaren izenean berba dagiana da egiazko igarlea.

Dinoana eta dagiana batera doaz egiazko igarle batengan. Dinoana egin egiten dau eta egiten dauana bere hitzaren lekuko jarri, bere mezuaren sinisgarri egin. Mezua eta egina eskutik daroaz. Hortik datorkio indarra, egiatasuna, sinisgarritasuna bere igarletzari.

Igarleak ez dau inoren bildurrik. Egiaren oihulari danez, beti arrisku artean dabil, egia askorentzat, batez ere, handikientzat gorrotagarri izaten dalako. Horregaitik beti izan dira ezetsiak,

pertsegituak. Jesus beragan hasi, eta gure Inazio Ellakuria, Oscar Romero eta holakoei odolezko jazarpena eta heriotza emon deutse gizarte gaiztoak.

Gizatasun handiko gizakiak izaten dira igarleak. Jaungoikoak garrez kutsatuak. Haren esanetan oinarriturik doaz munduan zehar, Erreinuko abeslari eta langile lez

Honelakoxe elizgizonak plazaratu nahi zituan Aita Aureliano. Jaingo-Herriaren artzaintzarako aukeratuak izan dan gizonak bere inguruan mugitzen dan mundu hori ondo ezagutu behar dau. Ez da izan gela baten isilik egoteko deitua, ezta lainotik lainora dantzari ibilteko ere.

Herriko gatxak, okerrak, zuzengabekeriak, hau da, gaiztakeria guztiak salatu behar ditu. Herria gaiztakeriatik garbitu. Eta honen hurrengo bere artaldeko ardi bakotxa, ahal dala behintzat, bide zuzenera ekarten ahalegindu.

Igarle on batek bere bizitzako orratza, norabidea bere herriari emonik egote horretan aurkitzen dau. Bere burua herriaren alde oparitu. Bihotzeko laba goritik atera ogia herriari banatzeko.

Abadegaiak moldatzen

Non aurkitu abade eredugarri hori? Eta bera zan, zalantzarik gabe, abade eredugarri horren irudia, argazkia. Beragan egoan antz-iruditurik apaiz santu hori. Non ispilu garbiagorik? Mendiak aldatzeko besteko fede handiaren jabe zan bera; Jaunarekin maitemindurik egoan erretore santua; itsasoak ainako helburuz eta asmo-bidez burua borborrean eroian gizona; bere zeregin eta karguak Jaunaren aurrean ondo betetzearren mila bidar bizia emoteko gerturik egoan gidari iaio eta trebea. Bera zan eredu hori. Zorion handia zan bera Alwayeko abadegaiantzat.

Esan dogu helburu eta asmo-bide asko zituala borborrean buruan, bere abadegaiengandik abade santu eta gaurkotuak aterateko. Buruz ondo jantzitakoak eta bihotzez ondo apainduak nahi zituan. Horretarako bere esku-liburutxo erabilten eban

gidari lez. Honelako robot antzeko bat eroian bere ikuspegian. Honelakoxe abade eredu.

Ebanjelioa pozez hartu, ikasi, bizi eta beteko eban abadea. Ebanjelioa egin abadearen lehenengo liburu, araubide eta motor. Oso-osoan gizon ebanjelistarra.

Gaurko munduarekin alkarrizketa egiten dakian abadea. Munduko ona eta txarra ezagutzen dituana. Arazoak bideratzen trebe eta egilea dana. Artaldea maite dauana. Artzain maki-la eskuan eroaten dakiana. Artaldea inoiz salduko ez dauana.

Aurrekoari entzuteko zabalik dagoana, batez ere, txiro eta behartsuen negar eta ezbeharrei. Esan eta entzuteko jokoan iaioa. Handikeria gabekoa. Zuhurra eta azkarra, baina guztiz apala eta otzana.

Aita Aurelianoren begiak abadeagan ikusi nahi eben beste ezaugarri bat besteen zerbitzuan egoteko eukan adorea eta kemena zan. Zerbitzurako eukan gaitasuna. Txiki eta pobreen begikoa zana. Ez zituan begiko elizgizon handi-mandi eta goizaleak.

Inoren zorpetik askea, handiki eta jauntxoan aurrean belau-nik makurtzen ez dauana; buruaren jabe eta duin dana bere zereginak betetzeko orduan.

Kristorengan errotutako abadea. Otoizgile zintzoa, eta arnasa luzekoa. Jaungoikoarekin maitasunean bat eginik bizi dana; herriaren aldeko otoitzak bihotzeko laban erreten dakiana; otoitza, egintza eta gogoeta, hirukote honetara egunero jokutzen dakian abadea. Gizasemeen artean batasuna, hurbiltasuna, bakea, ona, poza, alaitasuna, ederrikusia ereiten dakiana. Alkartasunaren sortzaile iaioa, dagoan tokian dagoala. Parkamen-bideetan maisua.

Honelakoxe gomutapen eta gaitasunez beteriko abadeak nahi zituan atera bere abadegaiengandik, holakoxe abade jatorrak plazaratu. Bikaintasunez jantzitako abadeak. Hortxe egotan josita bere helburu guztien begia. Egitamu horren bila zuzentzen zituan Seminarioko mugimentu eta gainetiko zeregin eta lanak.

Egitamu horretan eukan jarrita bere bizitzako ardatza, haga nagusia. Horretan erre zituan Indian emondako berrogeita hamaika urteak.

Horixe izan zan bere bizitzako goiburu eta ametsik ederrena, gorengoena. Lortu nahi zituan abade bikain horreen antz-irudi eredugarria, non aurkitu, baina? Eta beragan! Bera zan onoinez eta gaitasunez beteriko abade bikain hori. Abadeen ispilu eredugarri hori. Berari begiratzea nahiko zan abade izaten ikasteko.

1912an, Indiara heldu zanetik, 51 urtez, abadegaien arduran egon zan. Pûthempally-ko Seminarioan hasi eban abadegaien aldeko lan izugarri hori

Ez litzake oker egongo Aita Migel Angel erretore jaunaren esanean, "*Seminarioan nabari zan bizi barriaren indar sortzailea bera izan zala dinoana*".

Seminarioan egin zituan 51 urteak, urteen katea inoiz apurtu gabe, buru eta belarri, oso-osoan abadegaien prestakuntzan emon zituan. Hurrengorik hurrengora, Seminarioko kargu guztiak hartu zituan bere gain: ikasketa-arduradun, arimako zuzendari, erretoreorde, irakasle eta, azkenik, erretore... Maila guztiak, akatsik gabe, hobeto ezinean bete zituan. Bikain.

Seminarioan eginiko lanaren alderdirik erakusgarriena, beharbada, bere Erretoretzakoa izan zan. Goragoan esan dogun lez, berenez etzan kargu zalea. Nagusien agindua behar izaten eban horretarako, baina halan eta guztiz ere, bizitzaro osoan agintzako karguetan egon zan.

Urte piloa Seminarioko erretoreorde lez; 12 urte erretore eta etxeko nagusi lez; 6 urte Ordenako nagusiorde Indiako karmeldarren etxeetan. Bost hilabetez egon zan doi-doi, 1957an, agintzarik gabe.

Aita Migel Anjel erretoreak Aita Aurelianoren agintaritzak ageri zituan ezaugarri edo nota berezi bi nabarmetzen ditu: alde batetik, bere ageriko apaltasuna eta kargu-zaletasunik eza; eta bestetik, agintaritzaren egitean, Jaungoikoaren aintza eta bere menpekoen ona eta zoriona eskuratzeko eukan gogo berezi eta bakarra.

Ezagunak ditugu agintaritzari ihes egiteko asmatzen zituan maltzurkeriak. Baina maltzurkeria horeek, inoiz, bere arantza bihurtu jakozan. Agintaritzari emoten eutsan ezetz lodi hori gehiegia ez ete zanaren minez eta bildurrez aurkitu zan. Kontzientziako arazo bihurtu jakon.

Ez dago zalantzarik besteen onaren bila ebilenik esateko. Dakigunez, bere gelako atea beti zabalik eukan, edozein ordutan, edonor hartzeko. Agintzeko zituan erak ere oso bigun, gozo eta atsegingarriak ziran; beharbada, asko eta asko ez ziran ados etorriko bere irizpideekin, baina bai aginteko eukan gozotasunarekin.

Gazte asko eta asko igaro ziran Seminariotik berak han egin zituen 51 urteetan. Ez da marka txarra. Ontzeko gatxa. Banakatxoak bakarrik heltzen dira horraino. Hainbeste gazte eta hainbeste urtetan, gau eta egun, bere bihotzaren babespean eroatea meritu handiko lana da. Inok txalorik merezi izatekotan, gizon horrek merezi ditu.

Abade otoitz zalea

Aita Aurelianok egindako lan ederraren bikaintasuna Kerala abadeen espiritualtasunean nabaritzen zan argi eta zabal. Bere aldian gorakada handia egin eban abadeen artean espiritualtasun honek, batez ere, Eukaristia Santuaganako biztu eban jaiarak, debozioak. Hauxe izaten zan bere betiko aholku mina: *“Izan gaitezan beti abade eukaristia zale eta gurtzaileak. Eukaristiaren abadeak”*.

Han gelditu zan Kerala aldean bere bihotz handia, bere bizitzaren ederra abade eta abadegaien alde eta eskuetan zatiturik, opariturik. Ogi samurra gogo-bihotzak janaritu eta indartzeko. Azken arnasa ere abadeen alde emon eban.

Dakigunez ikasketak berrerratu zituan, bide barrietan sartu, etxeko ordu-arauak aldatu, Seminarioa handiagotu, kapera barria egin, eta beste gauza asko eginez, baina guzti hori abadeen maitasunagaitik eta abadeen onagaitik izan zan.

Aita Aureliano ezagutu eben guztiak bat datoz santu zala autortzean. *Gogor egiten jaku* -dino Aita Migel Angelek- *Aita Aurelianoren bertuteak ez zirala harrigarriak izan esatea.*

Bere profesako urrezko ezteguak gertatzeko egin zituan gogo-jardunaldietan honako erabagi eta asmo-bideak azpimarratu zituan berak: *Ahalegindu otoitzaldia ondo gertatzen. Puntualtasuna. Gogoa azterkatu. Jaunaren aurrean ibili. Besteent zerbitzari izan. Oztopo eta gaiztasunetan Jaunagan uste handiagoa jarri. Maitasunaren garra bizigirotu. Gaez jagi. Buru-hildurak egiteko adorea sendotu...*

Ez gara nekatuko Aita Aureliano gizon otoitz zalea zala esaten. Otoitz zalea izan ez balitz ez zan helduko bera heldu zan santutasun tontorrera. Otoitza da santutasun-bidea egiteko motorra. Otoitzik gabe ezinezkoa da santutasuna.

“Otoitza eta lana, lana eta otoitza”, hortxe egoan bere eguneroko jokoa. Eguna, gehienetan, gaueko hamabietan, sagrario aurrean egiten eban gurpenezko otoitzaldiekin amaitzen eban. Otoitzean arnastutako gizona dogu Aita Aureliano.

Karidade handikoa

Honez gainera, karidade handiko gizona zala esan behar. Besteen zerbitzuan egoteko adore eta kemen handikoa. Bere helburu-gaien artean, orratz nagusia lez, besteenganako zerbitzu fin eta leial hau egoan. Goikoen eta bekoen zerbitzari, bere maitasunetik inor banandu barik. Edonori laguntzeko gertu beti.

Beste baten hutsegiteagaitik ikastordu bat bete beharrik bazan, han egongo zan bera. Ostatur egoten ziranekin adeitsu, txeratsu agertuko zan beti. Inok mesedeen bat eskatzen baeutsan, bera beti gertu. Aholku bat, edo isilpeko gauza bat, edo arazo bihurri bat izan ezker, Aita Aureliano beti zain mesede hori egiteko.

Paulo deunagandik ikasita eukan karidadea otzana zala, eroan onekoa, ez dauala susmo txarrik egiten, ez dala berekoia.

Ez eban inoiz inoren kaltez berba txikienik ere esan. Beste en akats eta hutsegiteakin eskuzabal eta oso errukitsua zan. Bere nagusitan ere, okerren bat zuzentzea zanean, beti gizalegez eta itzal handiz egingo eutsan berba errudunari. Bere men-

pekoentzat aholku hau eukan beti gertu: “*edo besteakaitik ondo esan, edo isilik egon*”

Berak zehatz eta oso-osoa beteten eban aholku eder hau. Berezkoa eban besteenganako eritxi on hau. Hainbaten gizakia maite izatetik etorkion ekandu eder hau. “Pertsona ona da”, esaten eban edonorgaitik.

Karidadea besteei laguntzeko doe bat da, gaitasun bat. Lehenengo eta behin, arimako beharrezanean dagoanari emon behar deusagu laguntza hori. Mila era daukaguz lagun hurkoari laguntza emoteko.

Gehien erabilten dana otoitza da; bata bestearen aldeko otoitza. Beti otoitz eske egoan gure Aita Aureliano. Bere aldeko otoitza, berak nahi eban santutasunera igon ahal izateko. Otoitzak seminario eta gainetiko erantzukizunei onez eta jator erantzun ahal izateko.

Asko ziran baita beragana otoitz-eske etorten ziranak ere. Eskatzen eutsoen guztiakaitik egiten eban otoitz. Honetan ardura handia jarten eban. Esan ezinbeste otoitz eta neke eskeini zituan besteen alde, batez ere, bere familiakoak eta hurkoenak ziranen alde. Gelako mahi gainean liburutxo bat eukan honeen izenakin.

Otoitzerakoan begirada bat botaten eutsan liburutxo horri inor ahaztuta ez iztearren. Familia, Eliza, Ordena, Seminarioa, erretorea, irakasleak, ikasleak, ongileak, morroiak... izaten zituan gogoan; guztien alde eskatzen eban eguneroko otoitzean. Hor sartzen zituan baita garbitokiko arimak eta hil zorian aurkitzen ziran gaixoak. “*Otoitz egitea karidadearen eginbehar bat da*”, esaten eban berak.

Esanda daukagunez, Erretoretza eta gainetiko kargu guztiak “zerbitzu” modura hartzen zituan. “*Zeuen esanera nago*”, hauxe zan bere azken hitza.

Agintea bera ere besteen zerbitzura egotea zan. Agintaritzaren besteei zerbitzeko erabili. Indian egindako 51 urteak, bost hila-bete izan ezik, beste guztiak agintzako karguetan emon zituan. Beti karguren bat bere gain.

Alwayeko Erretoretza itzi ebanean, uste izan eban bake apur bat aurkituko ebala, baina ustelak urten eutsan ames honek ere. Ez agintaritzaren nagusia, baina bai txikiagoa, semirarioko zeregin eta ardurei dagokiena, bere esku itzi eben Nagusiak. Eta hemen emon eban bere santutasunaren neurri bete. Ageri-agerian itzi eban esanetara egoteari eutsan itzala, begiramena, gurpena. Fede osoz, apaltasunez, Jaungoikoari eutsan debozioz egiten eutsen men nagusien esanei.

Begietan igarten jakon agintaritzatik libre egoteak emoten eutsan poza. Aurpegiaren eban ezagun poz handi hori.

Alderik alde beteten eban berak seminaristei emoten eutsen aholku irakasgarria: *Otoitz egizue Nagusien alde; agertu zeuen itzala, lotsa, maitasuna, begiramena; aurea hartu euren gurariei; zeuen laguntza beroa eskeini; Jauna ikusi eurengan; honexek dira menpekoak nagusiekin eukiteko eginbeharrak*. Une horretatik hil arteraino bera izango da menpeko leial, zintzo eta benetako hori.

Lehenengo eta behin, nagusien aldeko otoitza izaten zan. Hara zer dinoan Aita Migel Angel, erretore barriak, Aita Aurelianoaren jokaerari buruz: *Harrituta gelditu nintzan neure Erretoretza hartu neban egun berean, bere liburutxo horretan erretore barriaren aldeko otoitz barri bat egin, eta idatzi ebala jakitean*.

Aita Aurelianoak ahalak eta bost egin zituan erretore barriari hasierako bideak erreztu eta zabaltzeko. Erretore barriaren aurkezle eta erakusle egin zan Keralako Gotzainen aurrean. Polito-polito, ezer egiten ez dauanaren antzera, Gotzain bakotxari aurkezten deutso karta bidez. Berarekin onak eta abegitsuak izan diran lez, erretore barriarekin ere holakoxe onberatasuna eta ederrikusia izan dagiela eskatzen deutse.

Bere karguari uko egitean, Aita Probintzialari mezu hau bialtzen deutso erretore barriaren alde eginaz: *Berak eskatzen deustan guztietan, ni bere ondoan eukiko nau berari laguntzeko prest, nahiz eta nire iaioatasuna ez izan berea lakoxea*.

Esan eta egin. Ordua heldutakoan, asmo eta gurari eder horreek orpoz orpo, hutsik txikienik egin barik, oso-osoan bete zituan Aita Aurelianok. Zoli-zoli eta poztasun handiz, ume esaneko baten antzera, erretore barriaren esanetara egon zan erretore zaharra.

ADISKIDEAREN OHEBURUAN

Aurretik, hitz erditxo bat Aita Zakarias Salterain Bizkarra nor zan esateko.

Abadiñoko seme jatorra dogu, *Ibarguren* baserrian 1887ko urtean jaioa. Misiolari karmeldarra, Aita Aurelianoren sasoi-koa. Berarekin batera Indiara joana. Bata eta bestea Alwayeko Seminarioko edestitxoan aitzindari gorenak, aingeru jagoleak. Bata eta bestea, berrogeitaka urteetan Seminarioko buru eta bihotz. Abadegaien moldatzaile iaioak. Seminarioko zutoinak.

Abade egin barritan joan ziran biak Indiara. Eta bertan hil, Aita Zakariasek berrogeita bost urte eta Aita Aurelianok berrogeita hamaika urte Seminarioan erre ondoren. Anaia bikotxak lez ziran alkar. Bata eta bestea, zein baino zein santuagoak. Itxaroten gagoz noiz ikusiko misiolari errandoi biok santuen koroiarekin Bizkaiko zeru gainean.

Aita Zakarias, garai haretan, *Karmelgiri*-ko Seminarioan nagusi zan. Filosofoen arduran egoan. Fraile jaungoikozale bete-betea. Lanaren lanez leher eginda ibiltan zan beti lanak eta ardurak burutu ezinik. Osasun onekoa azken urteak arte, berrogeita bost urtez gelditu gabe irmo eta zutik jarraitu eutsan Seminarioko bizitzari.

Baina tantairik ederrenak ere eratsi egiten ditu aldiak; lanaren nekeak indarrak jan, soina hondatu. Aita Zakarias ere jausi zan halako baten gaixoaren erpapean. Minbizi gaiztoa ebilen bere barruak jaten.

Ahuldurik, Ernakulamgo Velloreko ospitalera eroan eben arin-aringa, ebakuntza –operazio– arriskugarri bat egiteko. Gauzak ilun.



Eginkizunak beteten 1963an

Aita Aurelianok gaixoaren barri jakin ebanean, dana bertan behera itzita, bertatik bidean jarri zan bere adiskide eta lankide kutunaren oheburuan jazarri eta bere gaixozain izateko.

Urregorria emongo genduke, Jaungoikoz bete-beterik egozan aguretxo biak Jaungoikoari eta alkarri esango eutsoezan hitz eta otoitz gozo, maitati eta samurrak entzutearren. Ziur nago bihotz biak alkarren maitasunean gori-gori eginik egongo zirala.

Aita Zakarias maiatzaren 13an eroan eben kirofanora. Antza danez, ebakuntzatik ondo urten eban. Barri itxaropentsuak zabaldu ziran. Egun batzuk barru, Aita Zakariasek, zerbait ondu zanean, jakinik Aita Aurelianok esku artean lan mendiak erabilten ebazala, bere erruz lan mendi horreek ez oztopatzearren, bakarrik egoteko gauza zala eta, bere zereginetara biurtzea hoba izango ebala esan eutsan.

Eske eta eske eukan lez, Aita Aureliano, haren eskariei eder egitearren, erretiratzeko asmotan egoan, baina, ez aurretik osagilearekin egon gabe.

Aita Zakarias onera egiten hasita egoala-eta, aparteko gaixozainik ez ebala behar, eta erretiratzeko baimena emon eutsan osagile jaunak, bere eskuetan itzirik arazoaren ebazpena. Orduantxe bakarrik erretiratu zan Aita Aureliano.

Eurak konturatu barik, hantxe agurtu ziran betiko anaia santu biak.

Gizona dabil eta Jaungoikoak darabil, esaten dogu guk. Eta holantxe da izan ere.

1957ko maiatzaren 23an, goizaldeko hirurak aldera otoz otoan, bat-batera gaineratu jakon heriotza Aita Zakariasi. Bakebaketan hil zan. Ezustean datozen ezbeharrak hainbat mingarriagoak izaten dira. Holantxe lutuz jantzi zan ingurumaria haren heriotzaren larriz.

Bere heriotzak sentimentu hunkigarria sortu eban askoren bihotzetan. Oso ezaguna eta maitatua, herriak santutzat jota eukan bera. Hortik, negar larriak egin ziran bere gorpu aurrean.

Aita Aurelianok berak ere, isilean, baina gogotik egin eutsan negar. Ezin lotu bere bihotza; nahigabeak gainezka egin eutsan. Bere bihotz zati bat joan jakon.

Alkarrekin egindako bide luzeak; hainbeste ordu alkarrekin emonak Seminarioko lanetan; alkarrekin bizitako hainbeste gomutapen, hainbeste jazoera buruan; galdutako maitasunaren minak jota, gogoia saminez dardara bizian eukan berak. Une garratzak igaro zituan Aita Aurelianok. Otoitzean isildu zituan doluaren negarrak.

Heriotzaren barri inguruetara zabaldu zanean, jendetza handiak batu ziran Alwayeko Seminario ondoan gorpua noiz ekarriko. Gorpua heldu zanean, barriz, atautea zabalik itzi eben. Han egoan Aita Zakarias hilik. Lo gozoan zirudian. Gurutze santua eskuetan; oinak ortozik. Abadeak, seminaristak, etxeko morroi eta langileak belauniko jarten ziran gorpu

ondoan, otoitzean eta berari begira. Guztiek agertu nahi eutsoren esker ona euren ongile maiteari.

Hiletako elizkizunak hunkigarriak izan ziran. Han egozan 4 Gongotzain, 4 Gotzain; gainetikoak euren ordezkariak bialdu zituen; 300 abade eta 400 seminarista, oporraitik Seminarioa zarratuta egon arren; honeen ondoan, inguruko herrietatik etorritako kontatu ezinbeste jende.

Meza-emoileak honetara egin eban berba hileta-mezan: "*Morroi on eta zintzo! Gitxitan zintzo izan zaran ezkerro, sartu zaitez zeure jaunaren pozetan*".

Seminarioko hilerrian hilobiratu eben gorpua. Bere hilibia erromes-toki bihurtuta dago geroztik. Jendetza handiak hurreratzen dira bertara. Santu lez beneratzen dabe Aita Zakarias bertako indiarak.

Aita Aureliano ere eritxi berekoa zan. Ziur egoan santuen artean egoala Aita Zakarias.

Honako hau idatzi eban Aita Zakariasen omenez: *Gaitasun handiko santu bat galdu dogu oraintsu. Gure Seminarioak gaurtik aurrera Jaungoikoaren aurrean laguntzaile barri bat daukala deritxat. Zakarias zan bere izena. Orain berrogeita bost urte biok batera etorri ginan Indiara. Bederatzi etorri gintzazan, eta guztiak hil dira, neu izan ezik. Goian begoz. Euren laguntza eskatzen dot Seminarioan eurak itzitako lanari jarraitu ahal izateko. Goian bego nire lagun kutuna.*

Honelaxe agur egin eutsan Aita Aurelianok Zakarias bere bihotzeko lagun maiteari.

KARMELGIRIN ERRETOREORDE

Aita Zakarias, bere neke-lanetako adiskide maitea hil zaneetik aurrera, Karmelgiriko Erretoreordetza Aita Aurelianok eronan eban.

Alwayeko eta Karmelgiriko Seminarioak, teologoena bata eta filosofoena bestea, erretore bakarraren eskupean egozan.

Aita Zakarias, Karmelgiriko erretoreordea hil zanean, barriz, haren ordez Aita Aureliano izendatu eben. Zahartzaroko ondoeza eta atxakiak ahazturik, Nagusien eskabide eta esanei pozez eta bizi-bizi erantzunez, barriro ere kargu artean aurkitzen dogu bera. Karmelgiriko erretoreorde eta etxeko buruda.

Ekainean hasten da ikasturtea Indian. Filosofoak etorri eta etorri datoz ikasturte barria hastekotan. Han dago Aita Aureliano ate ondoan bere aingeruzko irribarrearekin, pozaren pozez seminarista gazteei ondo etorria emoten. Aurtengo urtean, 1957ean, 303 seminarista dira. Holantxe jarraituko dau bere heriotzako urterarte, 1963ko azarora arte.

Ez uste izan seminarista gazte hareek gidari gazteago baten egarriz egozanik. Ez. Aita Aurelianorekin liluraturik egozan. Haren santutasuna, ezaguera eta jakintza ahoz aho ebilan Kerala guztian. Moldatzaile bikaina, paregabea. Hortik etorkion zahar eta gazteen abegitasuna eta ederrikusia. Aitarik onenari lez begiratzen eutsoren gazte hareek. Bera zan irakasbiderik onena.

Berak antolatu eta zuzentzen zituan urte buruko ikasketa, jardunaldi eta egintzak erretore jaunaren begipean. Lehenengo urteko filosofoak egunero hartzen eben euren ikasketalditxo

Aita Aurelianoren eskutik, otoitz-bideak ikasiz. Astean behin, filosofo guztientzat abadeen santutasunari buruzko gogaketak.

Honez gainera, teologoekin ere bere hartu-emonak zituan. Alde batetik, Aszetika eta Mistika irakatsiko ditu seminarista helduentzat; beste aldetik, asteroko gogaketak emon, eta seminaristen autortzak entzun astean birritan Alwayeko seminario nagusira joanez. Holantxe heriotza urterarte.

Erretore jaunagandik hasi eta gaisetiko guztien aldetik oneritxi eta goralmenik beroenak jaso zituan bere lan eta egintza goragarrien sariz. Aita Aurelianok izten eban lorratza, ikurra esan ezinezkoa zan.

Azkeneko urteetan, beste kargu batzuk ere eroan zituan.

1957an, Karmeldar Ordenak Erroman izandako Batzar Nagusian, India guztirako Aita Jeneralaren Ordezko izendatu eben. Agintaritza ez zalako bere maitea, muzin eginez hartu eban izentapen hori. Bertatik doa Erromara bere erantzuna.

Bere seminarioko lana eta bere urte piloa kontutan izanik, ez dala gogoz aurkitzen zeregin gogor hori bere gain hartzeko iragarten deutso bertan. Ez dauala ondo beteko egiteko hori eta beste jatorrago bat begiztatzeko dirautso Aita Jeneralari, baina besterik ezean, menpetasunaren onez hartuko ebalu kargu barri hori. Azkenean hartu egin eban.

Neure gain hartzen dot izendapen hori. Neure aldetik dagoan guztia egingo dot zeregin hori ahalik eta ondoen beteteko. Behintzat guztiei jarraibide ona emoten ahaleginduko naz. Jaungoikori nire hutsak berak bete dagizala eskatuko deusat, eta nire tipirri-taparra lan egiteak gauzak txarrago ez dagizala ipini. Zeure esanera jokatu dot beti.

URREZKO EZTEGUAK

1960ko abenduaren 17a zan. Egun horretan ospatu ziran Aita Aurelianoren abadetzako urrezko ezteguak. Handikiro eta ospetsu ospatu ere.

Abadetza horretatik berrogeita zortzi urte Puthempally, Alwaye eta Karmelgiriko seminarioetan itzi ditu. Esateko, bere abadetzak guztia.


Han geratu da bide luze horretako sasi eta lora artean desginda bizitza eder hori. "*Misiolari izango naz hil arte*", esan eban gazte eta ameslari Indiarra sartu zanean. Gaur bete dau hitza.

Mahatsondo ona izan da. Frutu ugaria emon dau. Han daroaz bere bihotzeko liburuan: 1335 izen urrezko letrakin idatzita. Bere aldian, seminarioan abade eginiko kutunen izenak dira

Guzti honeek gerturik dagoz urrezko ezteguetara etorteko, esker onaren sariz. Baina gehiegi dira. Seminarioan ez dago tokirik guztiak batera hartzeko eta horregaitik bere Erretoretzan abade egindakoak bakarrik izan dira gonbidatuak. Baina besteak ere gogoz eta bihotzez hantxe dagoz erretore maitearen ondoan. Ez deukaz ahaztuta Aita Aurelianok. Mezako orduan, banan-banan, guztien izenak esaten ditu meza-buru egiten dauan Gotzainaren aurrean.

Ospakizunera etorritakoen artean Gongotzain bat, sei Gotzain eta 329 abade egozan. Han zan tarteko Euskal Herriko Karmeldarren Aita Probintziala ere, Aita Gregorio.

Bezperatik hasi zan jaia, Karmelgirin, bertako nagusia zalako Aita Aureliano. Meza-emoile puntako bera zala, meza nagu-



Bizitzako jardueraren osotasunera heldutako santutasunez beteriko karmeldarra

si eder baten inguruan batu ziran etxeko guztiak, holan Aita Nagusia omenduz.

Jarraian etxeko aretoan, filosofoak gertatutako omenaldi gozo-bero bat bere abadetzako berrogeita hamar urteak gogoratu eta omenduz. Aretoa bitsetan egoan, hunkiturik.

Gogoratu daigun hemen Aita Aurelianok, Iruñako Katedralean, berrogeita hamar urte lehenago, Frantzisko Xabier santuaren altara aurrean hartu ebala Abadegintzako Ordena.

Hurrengo egunean, abadetzako 50 urteurrena, Alwayeko Seminarioan ospatu zan. Mezarako ordua heltzean, seminario guztia eliz aurrean egoan lerrotan jarrita zain, Aita Aureliano noiz etorriko, txalo artean hartu eta eliz kantu ederrez inguratuturik altara nagusira eroateko.

Han egoan gure Aita Aureliano gogoz batu-batu eginik, debozio garra dariola, apal-apalik eta erdi lotsaturik, Jaungoiko onari hainbeste mesede eta graziagaitik eskerrak zelan emon ez ekiala.

Elizkizun ikusgarria izan zan. Bazan han bihotz-ikara, zirra eta hunkigarritasuna ugari, bihotzetik bihotzera olatu antzera mugida bizian.

Begi asko negarrak bustita ikusten ziran, aurpegiak urduritasunak jota eurek maite-maite eben erretore onaren bihotzean euren izenak idatzita egozala jakitean. Hantxe gogoratu eben altara aurrean abade jantzita Jesusen oinetan, erretore santuari zor eutsoen guztia. Hantxe bedeinkatu Jaungoiko ona holako abade santu bat Erretoretzat emon eutselako.

Hantxe irakurri ziran Aita Santu Joan XXIII.ak Indiako Elizari eginiko on guztiakaitik eskerrak emonez bialtzen eutsan zorion-agurra eta bedeinkapena. Baita Kardinal Agagianian eta Kardinal Cicognani eta Aita Anastasio Ordenako Jeneralak Aita Aurelianoren hainbeste urtetako lana goratuz eta bedeinkatuz bialdutako telegrama hunkigarriak.

Gero Seminarioko areto nagusian omenaldi gozoa seminariisten ardura eta babespean. Han hitz egin eben guztien ahoetatik hitz goragarri eta zintzoak entzun ziran, Aita Aurelianok Seminarioaren alde eginiko lan paregabea goralduz eta txalotuz.

Omenaldia amaitu zanean, Aita Gregorio Probintzialak *-Pozik egongo zara omenaldiarekin-* esan eutsanean, berak *-Ez, ez da niretzat izan, abadegintzaren omenez izan da-* erantzun eutson.

Omenaldian egin ziran hitzaldiei erantzutean, Aita Aureliano labur baina bihotza bete-beterik ebala egin eban berba:

Seminarioko nire aholkuak entzunak dituzue. Gaur, beharbada, jai honen gomutaz, nire ahotik hitz bitxiren bat entzutea nahiko dozue. Ez itxaron nigandik gauza barririk. Dana dala, poztasun handiz damotsuet, laburrean eginda, aholkutxo hau: "Abadea ez da benetako abade, bokazioan ondo oinarriturik ez badago, ezta, gau eta egun, sagraioan bizi dan Eukaristiako Jesusi benetako maitasunik ez badeutso ere. Inoiz eragozpenez beterik nora ezean aurkitzen bazaree, jo egizue aringa Jesus Eukaristiagana.

Hauxe da nire abadegintzako urrezko ezteguetan gomutagarritzat damotsuedan aholku bakarra".

Bazkalburuan, Verapoly-ko Gongotzainaren hitzei erantzutean, aholku berbera gogoratu eban: *Berba bi dekadaz baka-rrik esateko. Lehenengoa hemen zagozen abadei: izan gaitetzala beti abade eukaristiarrak. Bigarrena Jaunari: lagundu deigula berak abadegintza oso-osoan betetzen.*

Hurrengo ezteguak zeruan egingo zituan.

BIZITZAKO ARRATSALDEAN

Aita Aurelianoren azken gaixoaldia ez zan izan luze-luzea. Bere heriotza urterarte, 1963rarte, batez beste zutik eta lanean, bere karguko zereginetan buru-belarri ibili zan.

Dana dala, erreumak nahiko arazorik emon eutsan aldi honetan. Hanketatik ere lorraldi gogorra jasan eban; hilabete batzuetan esku-makilaren laguntza behar izan eban.

Begiak ere lausotu egin jakozan, nahiz eta gero, ebakuntza baten bidez ikuste ederrera etorri. Gaixotasun honeek nekegarriak izan arren, berak gogo onez eta umoretsu eroaten zituan.

Honelan dirautso bere loba bateri 1963ko abuztuaren egindako karta baten: *Osasunez ez nabil hain txarto. Oinak dabiltaiz oker eta gaizto samar. Hanka batek ez deust agindutakorik bete nahi, baina berak gura ez arren ibilerazo egiten deustat. Kanpora urten ezinean, horraitio etxe barruan polito nabil. Oraindik nere zereginei aurre emoteko gauza naz.*

Karta hau idatzita laster, birietako erasoaldi gogor bat izan eban. Gatxa gordin etorren. Pitean-pitean bularreko minak, arnas-estu larriak, sukarra gorantz; ezinaren larrian gelditu zan.

Gauzak horrela, abuztuaren 13n, Chandi osagile jaunaren aginduz gaixo-etxera sartu eben. Zorionez hamar bat egun barru, antibiotikoz egindako osabidearen ondorioz, polito oneratu zan, eta barru etxeratu eben, baina kukurruku handirik jo barik, bere adin handia kontutan izanik, edozein ordutan arrebeskeriaren bat etorriko ete zanaren bildurrez.

Erretore jaunak ere, ikusiak ikusita, lan eta ardura guztietatik aske itzi eban. Ez klaseak emoterik, ez autortzak entzuterik,

ez ezetariko buruhausterik. Atsedena, atsedena eta atsedena... nahiko lanik egin egoan-eta.

Beti lez esaneko agertu zan gaixoa. Apurka-apurka, mailaz maila, bizkortu, suspertu, indarbarritu egin zan Aita Aureliano, eta berez geldiezina zan lez, bere betiko zereginetara jo eban. Gaixoaren tirakadei zuhur, baina eguneroko zereginei aurrea emonez.

Egunetik egunera bere osasuna hobetuz etorren. Normalduta ikusten zan bere osasun iturria. Edozertarako gogotsu ikusten zan, lanerako geldiezinak jota. Barrero hasi zituan bere irakastaldiak, hitzaldiak, gogoetak, autortza-entzuteak, eukaristiaren aldeko lanak.

Heriotza oraindik urrun egoala esan leikean. Baina bidean etorren, hurbil gainera; bere oinotsa ate aurrean entzuten zan. Bat-batean, atean deika hasi.


Aita Aurelianok irribarrez zabaldu eutsan atea. Ez zan ikaratu bere aurpegi itsusia ikustean. Pozez emongo eutsala eta nago ongi etorria, heriotza Jaunaren deiarekin etorrelako. Dei horren zain egoan bera.

Amesaldi luzeak egin zan Jesus maitearekin, Aitaren etxean besarkatuko eban une gozo horrekin. Barririk onena zan beretzat. Bizitzaro osoan ordu horren zain egon da. Bildurra barik, pozezko zoramena zabaldu jakon barrualde osoan zehar. Pozik dago etxerako bide hori egiteko.

Antxinatik daroa bere esku-liburuan gorderik berak, behin baten, heriotza onartzeko idatzi eban otoitza: *Neure Jaun eta Jaungoikoa, menpetasun osoz eta bihotz guztiz onartzen dot oraintxe bertan zure eskutik datorkidan edozelako heriotza.*

Bere urrezko ezteguetako barriak azaltzean honako hau idatzi eban: *Aurrerantzarako eztegu bakarrak gelditzen jataz. Munduko erbeste hau iztean zeruan egingo ditudanak. Jaunak berak nahi dauanean izango dira.*

Aita Aurelianok heriotzari bildurrik ez eutsala ondo ekien bere ikasleak, baina gazte bihurrikeriak jota, jolastordu bateko txantxa eta olgeta artean, haretariko batek ia heriotzari bildu-



Indiako abadeen hezitzailea, eta karismaz beteriko Eukaristiaren apostolua Nazioarteko Eukaristia-Kongresuan

rik eutsan itandu, eta harek erantzun: *Ni edozein unetan, edozein tokitan, edozein ordutan hiltzeko gerturik nago. Jaungoikoa Aita da, ez dago zertan Haren bildurrik izan.*

Beste behin, Seminarioko hilerrian aurkitzen zan gazte talde batekin, Aita Zakariasen hilobi inguruan. Aurreko hilobia oraindik hutsik egoan. Eta haretariko batek erdi txantxetan: *hilobi hori norentzat izango ete da? Eta -hori neuretzat da -erantzun berak. Esan eta egin. Hilobi haretan dago hilobiratuta Aita Aureliano, Aita Zakarias bere adiskide maitearen ondoan aurrez-aurre.*

Burruka ona egin dau, bidea amaitu, orain sariari itxaroten dago.

Santuen heriotza

Egun hareetan, barriro sukarra agertu jakon Aita Aureliani. Berak, baina, ez eutsan jaramon larregirik egin. Horren bildurrik gabe, bere zereginetan tinko jarraitu eban. Seminarioko bere azkeneko berrogeita zortzi orduak betiko zereginetan emon zituan. Mistikako klaseak emon, autortzak entzun, erretiro eguneko gogaketak gertatu eta zuzendu...

Baita berak oso begiko eban errukizko egintza bat egin: gai-oxak eta nahigabetuak bedeinkatu. Sarritan egiten eban obra eder hau.

Oraingoan urrunetik etorri jako andratxo zahar eta behartu bat bere bedeinkapenaren eske. Eta berak pobre eta ezeukia-kin izaten eban berariazko begiramen, ederrikusi eta gozotasunez emon eutsan, barru-barrutik, bedeinkapen hori. Bai pozik joan zala andratxoa Aita Aurelianoaren bedeinkapen eta ederrikusiak hartu eta gero.

Bere azkeneko gaixoaldi hau laburra izan zan. Azaroaren 11n, astelenez, Ernakulam-go ospitalera eroan eben, osagile batek ikusi egian. Eguneko ikustaldi bat izango zala eta egoan bera. Baina, badaezpadako bategaitik bertan gelditzea bazan ere gerturik joan zan.

Tinkili-tankala bere oinez sartu zan ospitalera. Ospitalean Chandi osagile jaunak azterketa luze eta zehatz bat egin ondoren, bere eritxian Aita Aurelianoaren osasuna behea jota egoala eta, aparteko tratamentu eta begiramenak behar zituanez, bertan oheratuta iztea hobe izango zala esan eban.

Aita Aurelianoak men eginez hartu eban Chandi jaunaren hitza. Larrumina -ikterizia- deritxon gaixoa zan Aita Aurelianoak eukana, gatxa azterkatu ondoren osagile jaunak esan eban.

Berari eginiko zerbitzu guztiak irribarrez eskertzen zituan. Berba ere irritsu eta gozo egin. Agerian jarri eban, beste behin, bere ontasuna. Bere hitz eta egiteetan bere santutasunaren ikurra izten eban. Harriturik eukazan bere arduran egozan guztiak.

Lehenengo hiru egunetan oharpenean, azterketapean egon zan. Zerbait argiago egoala zirudian. Etxerako ametsak ere egin ziran bere inguruan.

Baina, zoritxarrez, hurrengo egunetan, txarrera egin eban barriro. Tarteka konortea galtzen hasi zan. Holako une baten hauxe esaten eban: *Aita Zakarias ikustera noa*; holantxe Aita Zakarias zein maite eban erakutsiaz. Zori larrian sartu zan.

Osagilearen eritxian, behazuna sartu jakon odolera. Hortik bere beherakadea. Behingo baten, Seminariora deitu eben txarreratze honen barri emonez. Baita bidean arin jarri Aita Erretorea, beste karmeldar batzuekin.

Heldu baizen laster, Aita Aureliano konortean egoala, gauzak luzatu barik, elizakoak emon eutsoezan. Aita Erretoreak entzun eban bere azken autortza; honen jarraian, gaixoen oliadura eta heriotza orduko bedeinkapena emon, bertan egozan karmeldarrekin elizkizun txikitxo bat eginez gaixoaren ohe inguruan. Elizkizun honetan ez jakon hil aurreko Gure Jaunik emon, ezinezkoa zalako, odol-okadaren arriskuagaitik.

Bere aurpegia bakez, itxaropenez, gozotasuna dariola eukan; bare-bare, argitan. Neke artean zerua ikusten egoala zirudian. Gaixoen otoitz eta arrenak buruz ekizan eta gurutzeari begira geldi-geldi esaten zituan.

Halako baten Aita Erretoreari eskari bat egin eutsan. Arren bai arren, bere izenean, bere anaia karmeldarregandik hasita gagnetiko irakasle, seminarista, lagun eta etxeko guztiei apal-apalik eta damutasunik handienaz parka eskatzen eutsela esateko. Bihotz guztia ezpanetan ipiniz egin eutsan eskari hau.

Aita Erretoreak ikusi eta entzuten ebanarekin guztiz hunkiturik, dan-dana Jaungoikoari eskeintzeko esan eutsanean, gora begira, erantzun eutsan: *Ez deukat zer eskeinirik!*

Ospitalea itzi eta hilteko Seminariora, bere gelatxora etorri gura eban. Berak 51 urtetan maitez eta pozez zerbitutako Seminariora. Bere neke, izerdi, lan eta poztasun guztiak gordeta eukazan bere gelatxora. Non toki hoberik bere gorpu oparitua izteko, non azken-arnasa Jesusi begira emoteko? Ez eban gauza handirik eskatzen. Ondo irabazita eukan grazia hori.

Baina gaixoaren ildo ez joian hortik. Erabagi hori etzan zentzuzkoa, onera egiteko izpitxo bat ikusten zan arren urruntxoan. Beraz, hantxe gelditu zan ospitaleko sala bazter baten, ohe apal eta pobrean.

Bere komunitateko fraileak ikusteko guraria ere agertu eban. Zelan joan bere anai kutunei agurrik egin barik, berba erditxo bat esan barik, begi-ninira samur begiratu barik?

Izan eban poztasun hori. Txandaka-txandaka etxeko guztiak etorri jakozan bera ikustera. Danentzat euki eban hitz gozo hori, agur laztan hori. Negar-malko asko jausi ziran han aurpegi bizar artetik behera.

Trankil egoan gaixoa. Inok ez eban esango herioa orpoan, ate-joka eukanik. Baina Jaunaren ordua zan. Simeon igarlearen abestia esateko gerturik egoan Aita Aureliano, Jesus zeruan besarkatzeko gurari bizitan. *Orain, Jauna, baketan hil naiteke, zure agintzaria bete dozu-eta. Neure begiz ikusi nahi dot neure Salbatzailea, Aitaren eskuetan itzi neure espiritua.*

Ohe aurreko mahaian dauka bere esku-liburutxoa. Han dauka idatzita antxinatik herioari eginiko dei sendoa: *Edozein unetan, edozein tokitan, edozein ordutan, edozein eratako heriotza hartzeko gerturik nago.*

Une hori heldu da; atean deika dauka. Aita karmeldar bi dagoz bere ondoan, bera zaintzen, ordu garratz horretan berari laguntzen, Aita Nemesio eta Teofano.

Gau erdia igarotakoan, arnasa estutu egin jakon; larritu, indargetu, nekatu; amatatuz-amatatuz joian izar argia.

Aita Nemesiok berba egin eutsanean begiak zabaldu eta hain maite eban Jesus Gurutzalduari begirada luze, ezti bat egin eutsan; gero, gurutze ondoko isilean burua makurtuz azken arnasa emon eban. 1963ko azaroaren 16an, larunbata zala, goizaldeko ordu batak eta laurenetan hil zan Aita Aureliano. Une horretan Alwayeko zeruan izar barri bat jaio zan.

Bizitzako liburua urrezko egite onez beterik eukan Aita Aureliano. Ikustekoa izango zala eta nago Aita Aureliano eta Jesusen arteko alkar aurkitze hori eta Jesusek emongo eutsan ondo etorri bero hori.

Hilobiratzea

Hil baizen laster Karmengo abitua eta kapa zuria jantzita, Aita Aurelianoen gorpua Karmelgiriko Seminaria aldatu eban eta bere gelatxoan agerian jarri.

Aita onarekin egotearren joaten ziran lehentxoago irakasle eta abadegai gazteak gela horretara; gaur Aita onari otoitz batekin agur esatera doaz.

Gorpu aurreko mezak Kerala aldean ohi zan lez hiru erritotan esan ziran. Meza asko, meza-emoileak asko ziralako. Kanpoko jendea ere, heriotzaren barri jakitean, multzoka etorten hasi zan, nor dolu-dardaraz otoitz bat eskeintzera, nor bere gorpu santuari ikututako gomutaki bat eroatearren, edota bere erlikiaren bat eukiteko asmotan.

Arratsalde erdian, seminaristen lepo-gainetan Alwaye-ra, teologoen seminaria aldatu eban gorpua, eta berak eginiko kapera handian agerian jarri.

Jendearen sartu-urtena amaibakoa zan. Multzoka egiten zan sartu-urtena. Askok eta askok errosarioekin gorpuari ikutzen eutsen. Inor prest egoan bere bizar zati bat eroateko ere, edota eskuetan eukan gurutzetxoa edo errosarioa.

Gehienak gorpu ondoan euren argazkia ateratzea nahi izaten eban. Argazkilari bat arratsaldeko lauretatik goizaldeko ordu batak arte ibili zan lanean.

Hurrengo eguna igandea. Goizeko hamarretan, elizea goraino beterik zala, meza bat esan zan Aita Aurelianoen arimaren alde.

Arratsaldeko ordu batetan, hiletako meza nagusia. Trivandrum-go Gotzain Jauna, Pedro Pereira, izan zan meza-emoile nagusia. Hiletako hitzaldia, barriz, Zakarias Verappilly Jaun agurgarriak egin eban.

Aita Aurelianoen santutasuna goraldtu eban bere berbal-dian, honako esaldi kutunak oihukatuz: *Gure Aita Aureliano on-ona, Jesus Eukaristiarekin maitemindurik egoan gizona, Eukaristia Kongresuen eratzaille gorena, fraile eredugarria, gauza txiki-txikietan leiala, gizon apal, tolesgabe eta guztien zerbitzaile ona*

ospitaleko sala ageri baten baketsu hil da, hain maite izan dauan Jaunarekin bat egitera doala jakin daualako.

Jendetza handiak alkartu ziran Aita Aurelianoren gorpu ondoan berari musu bat jaurtiz azken agurra eginez. 700 seminarista, ehundaka abade, lekaide eta lekaime asko, herritarrekin batera.

Gero, gorpua hilobiratzea. Abade eta fraileen sorbaldetan, prozesioa eginez, gorpua Seminarioko kanposantura eroan eben. Hantxe hilobiratu eben Aita Joan Jose, Heliodoro eta Zakariasen ondoan. Hemen alkar lagunak izandakoak, zeruan ere alkar lagun jarraitzen dabe.

HIL ONDOKO GORESPENAK

“Zoriondunak, izarrak lez, argi egingo dabe zeruan” dino gure esakune zaharrak. Holako zerbait jazo da gure Aita misiolariarekin. Bere heriotzak doluminez beterik itzi zituan Seminario eta inguruak; negar larriak egin ziran bere gorpu aurrean; tamal handia sortu eban Aita Aurelianoren heriotzak.

Urteak dira bera hil zala eta oraindik herriak ez dauka ahaztuta. Bere hilobia erromes-toki bihurtuta dago. Asko edo gitxi, beti dago bateren bat bere hilobi ondoan, edo otoitzean, edo loreak jarten, edo kandelak bizten.

Aita Aureliano santua da ezagutu eben indiarrentzat. Euren irizpidean, santuen mailan dago. Hortik beraganako beneragarritasun hori. Batez ere, beraganako goratarreak abeste hori. Gorespenak bakarrik entzuten dira hurkoen ahotik.

Hona hemen goietatik datozen holako gorespen batzuk. Atsekabezko telegrama asko hartu ziran Seminarioan bere heriotzako egunetan, edonongo zinadurak zituela.

Testa Kardinale agurgarriak Erromatik honako hau bialdu eban: *Misio garrez beteriko gizon eredugarria, frailetzako bizitza guztiz txukun eta sendoa, barru-barrutik bizi izan dauan misiolaria; Aita Aurelianok, santutasunez beteriko gizon baten irudia emon dau danen begietan. Berak jaso eban kapera barriko altarean santu egirik ikusi nahi genduke albait lasterren.*

Aita Anastasio, Ordenako Jeneral gogoangarria, bere telegrama ez tian doluminak jota agertzen da: *Aita Aurelianoren heriotzak Ordena guztia doluz eta atsekabez beterik jarri dau. Tristeturik gagoz. Otoitzean eske eta eske irabazitako saria beretzat izan dadin, eta berak bere egite eta bertuteekin emon*

deuskun jarraibide goitarra autorpenik ageriena lez gordeten dogula.

Kerala-ko Gotzainak Erroman ziran, Vaticanoko II. Kontzilioan alkaturik, Aita Aureliano hil zanean; hori zala eta ezin izan ziran egon Alwayen hiletako mezatan. Honen damuz, danen artean, telegrama hau bialdu eben: *Kerala-ko Gotzain, abade eta seminaristak Erroman alkaturik, euren sentimenturik barrukoena agertzen dabe Aita Aurelianoren heriotzan, doluminez eta otoitzez lagundurik.*

Gotzain, abade, erlijioso eta gagnetiko herritarrak sentimentu berbera agertzen eben bialdutako eskutitz eta telegramatan: *Jaungoikozko gizon batek alde egin deusku, abade-belaunaldi askoren gidari eta moldatzaile izan danak, fede, apaltasun eta goi-maitasunean eredu bizia izan danak, santutasunean gorengo mailakoa izanik, guk maitekiro oraindik gure artean bizirik susmatzen dogunak.*

Sebastian Vayalil, Kerala, Palai-ko Gotzain beneragarriak hauxe idatzi eban Aita Aurelianoren goralmenez: *Hitzez ezin dot esan Aita Aurelianoren heriotzaren barri jakin dodanean hartu dodan atsekabe handia. Nigan eta nire abade bizitzan aztarna sakonak itzi ditu. Berak irakatsi eta nik beragandik ikasi dot, ez teologia bakarrik, baita neure bizitza zelan bizi ere.*

Berariazko maitasunez maitatu ninduan berak. Niretzako galtze handi bat izan da bere heriotza. Badakit askok bizi-bizian sentitzen dabela galmen hau. Bere ikasle izan garanok batez ere ezin izango dogu ahaztu inoiz. Bere oroimena beti izango da onetsia eta goraldua bera ezagutu eta berarekin hartu-emonak izan ditugun guztion artean.

Mar Atanasio, Tiruvalla-ko Gotzain argiak, hauxe nabarmendu eban: *Oraindik neurera etorri barik nago Aita Aurelianoren heriotzak barruan itzi eustan zartada gogorretik. Galtze handi bat izan da guretzat. Seminarioak bere zutoin bat galdu dau. Seminaristek aguretxoaren irribarrea galdu dabe. Indiako Elizak seme ospetsu bat.*

Indiako Nuntzioa ere ez zan atzean gelditu. Honako hau idatzi eban berak ere: *Puntu bi nabarmendu nahi ditut: batetik,*

Aita Aurelianok gauzei buruz eukan ikuspegi luze, zabal eta indartsua, eta bestetik, Jaungoikoaren eta Elizaren zereginetan jarten eban garra, ardura eta arreta nekaezina, ezinbestekoa.

Aita Zirilo Papali, karmeldar indiarrak, Erromatik, beste hau idatzi eban: *Indiara etorri zanetik ezagutu dot Aita Aureliano, gizaldi erdi baino gehiago dala. Aldikadatzko baten, Ernakulam-go Santa Teresa etxean egon zan. Gure etxetik hurrean dago; nik hamar urte nituan orduan.*

Geroago hurragotik ezagutu neban Seminarioan. Benetako santua zala sinistuta egon naz beti. Bere alde otoitz egitean, otoitz egin beharrean, berari gomendatzeko gogoia datorkit. Laster baten, santu eginik ikusi nahi neukez bai bera eta bai Aita Zakarias.

Aita Aureliano asko ezagutzen eban Aita Zimmerman, Verbo Divinoko erlijiosoak honela idazten eutsan Seminarioko erretore jaunari: *Neure atsekabea agertzen deusut Seminarioak izan dauan galmen handiagaitik. Urte askoren buruan bera izan da Seminarioko zutoin bizia. Berak esan eta irakasten ebana, aurretik berak bizikiro biziten ekian.*

Azken hamabi urte honeetan ezagun izan dot Aita Aureliano. Beti hartzen izan nau aita on batek legez maitekortasun gozoz. Beragan Jaungoikozko gizon bat ikusi izan dot beti.

Aita Aureliano hurretik ezagutu eben seminarista batzuk ere emon eben euren ikuspegia: *Irakasle argi eta jakintsu bat galdu dogu; nagusi eredugarri bat, erlijioso jaungoikozale bat, otoitz zale hilduratsu bat, aita on bat, batez ere, abade bikain, berebiziko bat, arima egarriz beteriko gizona, bere buruari uko egiten ekiana. Askorentzat eredugarri izanik, Indiako Elizaren historian izar handi bat lez ezagutua izango dana.*

Aspergarri ez izatearren, Indiako Bangaloren kokaturik dagoan Karmel Mendi Unibertsitateko nagusiaren karta batekin amaituko dogu goralmen-aurkezte hau. Honela dino berak: *Misiolari handi bat zan bera eta Andra Mariaren seme benetako bat. Aita Aurelianok Elizaren, Ordenaren, bere komunitate, seminario eta Indiako herriaren alde egin dauan guztia*

aldien geroan bakarrik ezagutuko da, Jaunagan hilten diranekin jazoten denez.

Santuak gizakiaren ongileak dira bai bizitzaldi honetan eta bai heriotza ostean.

Goraldua izan bedi Jaungoikoa bere apostolu eta apostoluen moldatzaile apalarengan.

SANTU IZENDATZEKO BIDEAN

Goragoan esan dogunez, Aita Aureliano Alwayen hil zan 1963ko azaroaren 16an. Bere bizitzako egunetan, ospez eta itzalez inguraturik, "santu" fama handiko gizona izan zan. Fama hori ez zan itzali bere heriotzarekin. Alderantziz, egunetik egunera gorantz-gorantz joan da geldi ezinezko abiadan.

Bera hurretik ezagutu eben guztiak: adiskide, etxeko, abade, seminarista eta beragandik mesederen bat lortutako gaixo eta behartsuak santu irudi hori daroe bihotz barruan gozotasunez moldaturik, Aita Aureliano erdian dala.

Laster konturatu zan jendea Aita Aureliano zeruak Indiako Elizari eginiko erregalu goitarra zala. Erregalu bikaina, India Kristoganatzeko apostolu eta santuen doez bedeinkatua.

Beragan beste ezer baino lehen, beraren bizitzaren ederra, goitasuna, santutasuna ikusten eben. Euren artean bizi izan zan santu goragarria. Gizon apala, abegitsua, ongilea, besteei emona, guztien zerbitzuan 51 urte Indian agortu zituana. Jesusen antz-irudia beragan eroiana. Jaungoikozko misiolaria.

Beraren santutasunaren eraginera, Jaungoikoaren aurrean euren bitarteko lez ikusten dabe indiarrek. Euren dabe. Santutzat daukee. Altaran ikusi nahi dabe.

Hori dala eta, bere izen eta bizitzako harrigarriak oihukatzen, goraltzen hasi dira aspalditik beraren jarraitzaile diranak aldizkari, paper, estanpa eta gainetiko orritxoetan.

Eguneroko joan-etorrian, erromesak beterik ikusten da beraren hilobi ingurua. Han batzen dira Aita Aureliano maitearen gorpuzkinen aurrean beraren maitale eta jarraitzaileak misiolari santuari euren eskari, otoitz eta arrenak egiteko.

Santutzat hartuta eukan herriak bizitza aldian. Gaur ere bardin jarraitzen dau. Santutzat dauka.

Guztiei on eginez ibili zan Indiako lurraldeetatik zehar. Batez ere, pobre eta ezeukiak zituan bere maiteino, bere bihotzeko kutun.

Honako asko etorten jakozan euren penak esatera, euren larrialdi eta beharrianak agertzera. Pobrean adiskide onbera eta ongile eskuzabala zan. Etzan inor esku hutsik joango haren ondotik. Besterik ezean, irribarretxo bat, aholku edo mosutxo bat, itxaropen izpitxo bat eroango eben berarengana hurrerazten ziran guztiak.

Eskola honetan hazi zituan baita bere seminaristak ere. Pobreenganako maitasuna eta ederrikusia, laguntza eta hurkotasuna lehenengo orrialdean eukazan Aita Aurelianok hezikuntzako liburuan. Pobreak Kristoren bihotz zatiak ziran beretzat.

Pobreen bihotzean doa kutun laztandurik Aita Aureliano. Honeek ditu jarraitzailerik onenak. Aitatzat daukee bera. Ez da ba harritzekoa Kristoren bihotz zatiok misiolari handia santutzat eukitea. Honeek izan ziran, ziur, santu izendatzeko eske eta eske egozanak; gaur, uste bardinez, datorkioz hilobi aurrera.

Pixkanaka-pixkanaka goitiko mesedegile, laguntzaile lez agertzen da gaur herritarren eritxian. Beraren bitartez goitiko mesede eta graziak lortzen dirala zabaldu da herrian; horren zurrumurru eta esamesa dabil jende artean; eta zurrumurru hori geroago eta zabalago dabil. Herria da hemen oihuka hasi dana Aita Aureliano altaratan jarteko eske eta eske.


Halako baten, durundi hori Eliz Agintarien entzumenera heldu da. Eliz Agintariek eurak ere horren zain dagoz, horren gurari eta asmotan.

Honen harira, Eliza eta herritarren arteko gurari bizi hau kontutan izanik, 1970eko urtean, hil eta zazpi urtera, Aita Aureliano "zoriondun", santu izendatzeko lehenengo pausuak emoten, bideak egiten hasi ziran.

Eliz Auzitegi bat sortu eta eratu zan horren asmoz. Zein zan auzitegi honen asmoa, egiteko berezia? Aita Aurelianoren

bizitza osoa, barru eta kanpo, goitik beheraino aztertu, arakatu, begiztatzea. Zertarako? Aita Aureliano santu izendatzeko duin zan hala ez ikusteko.

Alde batetik, santutasuna gaitzat harturik, ea Aita Aurelianoren bizitzan santutasunari dagokionez ezelango akatsik, hutsik, okerrik, ezezkorik aurkitzen zan hala ez begi zorrotzez ikertzeko. Bestetik, bere santutasunak emoten eban neurria norainokoa zan ikusteko.



Aita Aurelianoren kanonizazio-prozesuaren amaierako ekitaldia Bilbon, 1983an

Honen arabera, haren bizitza osoa, lehenengotik azkeneraino zehatz-mehatz arakatu behar zan. Oinkada bakotxa, taupada bakotxa, agindu bakotxa, esandako eta egindako bakotxa, idazlan guztiak..., dan-dana.

Honen gogorrera, auzibide hau zaila eta luzea izaten da. Urteetakoa.

Arlo honetan lehenengo urrats eta ikerketak eginaz batera, Verapoly-ko Gongotzain agurgarriak, 1977ko azaroan, Aita Santu Paulo VI.ari auzibide-arazo hau baietza emonez onetsi egiala eskatu eutsan. Aita Santuak, barriz, eskariari men eginez erantzun, horrela auzibideari ateak zabalduz.

Zertan esanik ere ez, Aita Aurelianoren santutasunaren aldeko auzibide ofizial hau, Indian, Verapolyko Elizbarrutian hasi zan. Guztira 60 testigu igaro ziran auzitegitik. Era guztietariko pertsonak: gotzainak, abadeak, praileak, mojak eta herri-tarrak. Guzti honeek zinpean egin eben euren adierazpena. Guztiak ziran Aita Aurelianorekin bizi izandakoak, edota bera hurretik ezagutzen ebenak. Guztira 133 bilera edo batzarraldi egin ziran.

Beste auzitegi bat Bilboko Elizbarrutian zabaldu zan, Aita Aureliano bertokoa zalako eta bertan egozalako berarekin Indian misiolari izandako batzuk. Hemen 6 testiguk emon eben euren testigantza. Urtebete iraun eban eta 26 saioaldi egin ziran.

Mugimendu guzti honek aitzindari aurreneko bat izan dau: Aita Txomin Fdez. Mendiola, karmeldar arabarra, Azazetako seme jatorra, Aita Aurelianorekin Alwayeko Seminarioan bederatzi urtetan batera bizi izandakoa.

Alwayeko Erretore izandako hau, karmeldar euskaldunen Probintziala ere izan da. Berau dogu, baita ere, Aita Aurelianoren publizista azkar eta urtena. Idazlan asko idatzi ditu Aita Aureliano gaiburu eta aitzindari dala. Haren bizitzako liburu eder bat dauka argitaratuta. Santutasun-prozesu honetan ere bera izan da eragile eta aitzindari nagusia.

Gure esker ona ondo merezita daroa.

Beraz, Aita Aurelianoren bizitza eta ingurumariak polito-polito biribildu, osotu eta aztertu ziranean, beste auzitegi bat antolatu eban Erroman Elizak.

Izen handiko bederatzi teologo aukeratu zituan, ikerle eta aholkulari lez, Aita Aurelianoren auzia euren begiz barriro ikus-tatu eta arakatzeko. Guztiz zorrotzak izaten dira epaileok auzia emotean. Hutsik txikienak hamar begiz begiratzen ditue. Ezta-go ihes egiterik.

Misiolariak, bere Maisuak zabalduko urratsai jarraituz, bihotzez otzan eta apala izanik, Haren buztarria biguna eta zama arina dala iragarri begi. Bizitza erbanjeliotar baten bidez, eroapen handiz, gozotasunez, samurtasunez, benetako maitasunez bere Jaunaren testigantza argia emon begi, dinosku Batikanoko II. Kontzilioak *Ad gentes* dekretuan.

Zintzotasunezko testigantza hau emon eban Kristoren eta bere Ebanjelioaren alde Aita Aureliano Landeta Azkuetak, bizitza luzean zehar Indian misiolari izan zanak, jakituriz eta maitasunez abadeen heziketa eta moldaketa lanetan heriotzara arte buru-belarri jardunean bizi izanik.

Guzti hau kontuan izanik, ikerle eta goi mailako teologoan onarpena Aita Aurelianok nota handiz jaso ebanean, Aita Santu Joan Paulo II.ak ikerle eta teologoan aholku eta oneritxiak entzundakoan, 1999ko martxoaren 26an, Aita Aureliano ofizialki "Beneragarri" izendatu eban.

Aita Santu Joan Paulo II.ak izkribuz handikiro hauxe adierazi eban egintza horretan: *Agerikoa dala Aita Aureliano Landeta Azkueta, Karmeldar Ordenako abade misiolariak Jainkozko bertuteak Sinesmena, Itxaropena eta Maitasuna, baita gainetiko bertute nagusiak ere Zuhurtasuna, Zuzentasuna, Neurritasuna eta Azkartasuna goi mailako neurrian bizi izan zituala. Beraz, honen arabera, Aita Aureliano "Beneragarri" izendatzea onartua izan dauala.*

Barri honek ezinbestean poztu gaitu. Orain gatxena eginda dago; gauzak gaurkoz bide onetik doaz. Ia noiz ikusten dogun gure misiolari handia santuen izendegian goraturik. Zorionekoak ginake horrela balitz.

Bitartean Aita Aureliano, berak hainbeste maitaturiko Indiako zerupean, kutxa baten, egun hori noiz etorriko zain dago. Zeru goi-goitik zaindu gaizala berak.

*Liburu hau inprimategira eroan eta egun bi barru hil jakun ustekabean egilea Bilboko Karmeldarren etxean, 2000ko abuztuaren 16an. Aita Jose Luis Beobidek zahartzaroko bere azken urteetan atsegin handiz eta adore biziz jardun izan dau hiru bizkaitar karmeldar misiolari ospetsuren barri emoteko ahaleginetan. **Joan Bizente Zengotita Bengoa** berriztarren bisitza idatziz hasi zan (1998). Azken aldian, **Aita Aureliano Landeta Azkueta** basauritarrena amaitu ostean (2000), **Zakarias Salterain** († 1957) abadinoarrarena idazten ebulan.*

“La Obra Máxima” Karmeldarren misio-zentroak gogotik eskertu nahi deutso Aita Beobideri Indiako hiru karmeldar misiolari handien bizitzak euskeraz jarten egindako lana.

AURKIBIDEA

EUSKAL HERRIAN (1887 - 1912)

| | |
|----------------------------------|----|
| Nor zan | 7 |
| Basauri | 13 |
| Umezaroa | 21 |
| Karmelorako deia | 37 |
| Villafranca-ko ikastetxean | 43 |
| Larreara | 51 |
| Goi mailako ikasketak | 61 |
| Indiara begira | 69 |

INDIAN (1912-1963)

| | |
|---|-----|
| Indiako atean | 79 |
| Ernakulam | 81 |
| Indiako kultur ingurunea | 85 |
| Mahatma Gandhi | 111 |
| Malabar aldea | 133 |
| Puthempally | 135 |
| Irakaskuntza | 139 |
| Aginteari ezetza | 147 |
| Puthempally-ri agur esaten | 151 |
| Eukaristia alkartearen zuzendari | 155 |
| Heriotza-ateetan | 159 |
| Goako II. Eukaristia Kongresua - 1931 | 165 |
| Alwaye | 171 |
| Madras-ko Eukaristia Kongresua - 1937 | 179 |
| Fraileen Ikerlari | 183 |
| Alwaye-n erretore | 187 |
| Etxeko buru eta bihotz | 197 |

| | |
|----------------------------------|-----|
| Alwaye-ko kapera barria | 205 |
| Karmelgiri | 209 |
| Erretoretzako azken txanpa | 211 |
| Nortasunaren distirak | 219 |
| Hil arteraino misiolari | 225 |
| Onerazpenik gogokoenak | 233 |
| Maitasunaren tontorrean | 239 |
| Hazia ereiten | 245 |
| Adiskidearen oheburuan | 255 |
| Karmelgirin erretoreorde | 259 |
| Urrezko ezteguak | 261 |
| Bizitzako arratsaldean | 265 |
| Hil ondoko gorespenak | 273 |
| Santu izendatzeko bidean | 277 |